

Euskal Biblioteka Labayru

Oparia - Donación

Lore - Kontu Kontu - Lore

1986

Jaubea: Kultur Etxea - Ondarroa
Legezko Gordailua: BI - 2153 - 1985
Zuzendari: Augustin Zubikarai
Irarkola: Gaubeka - Gernika

Lore - Kontu
Kontu - Lore

Irakurleei

Erdi agindu gendun, 1982'ko Lore Jokoetan, eta bai 1985'ko Kontakizun Leiaketan, sarituen lanak agertzen aleginduko giñala.

Esana bat eta izana bi, esan eben iñoiz. Baiña guk berbako izan nai dogu.

Origaitik Kontakizunen liburu au agertu dogu.

Zegaitik LORE-KONTU, KONTU-LORE deitura?

Erraza da erantzuna.

Lore Jokoetako kontuak dira batzuk, saritutako bostak. Eta Kontakizunetako loreak besteak, au da, andien maillan saritutako zortzirak.

Idazleak idatzitako eran agertzen doguz. Onetan lotsa zaintzen dakigu idazle bakoitzari.

Batzuk idazle egin, ezagun eta txahutuenak dira. Beste batzuk idazle barri, ez-ezagun, lenengoz plazaratzen diranek.

Beraz iengoak eta gaurkoak, zarrak eta barriak.

Edozetara be gure zeregiña bultzatu eta zabaltzea da ta, abegi onez artu, gure aldetik gogo onez argitaratu eta eskintzen dogun liburutxu au. Eta irakurri, aztertu ta maxiatu (kritikatu), maxiaketa zuzenak gogoa biztu eta gai danaren nortasuna astindu eta adoretzen dakilako.

*Augustin Zubikarai
Kultur Etxeko Zuzendaria*

Lore - Kontu...

(1982'ko Lore Jokoetako Kontu sarituak)

«BOST TXIMELETA ABEDE LORATEGIAN»

M.^a Angeles Angoitia

«AZKEN TRISTE BATEN ISTORIOA»

Juan M. Atutxa

«ETORKIZUNERAKO OIARTZUNA»

TXIKIAREN AUNDI IZATEA

UDAZKENEKO LOREA

BURUGABEKERIA

Martin Iturbe

«PATXI TRUENO»

Joanes Urkijo

«POXPOLINTXO»

Roke Mendizabal

Oarra: Lenengo saria BOST MITXELETA ABEDE LORATEGIAN lanak irabazi eban eta bigarren saria beste lauren artean banatu zan.

«*BOST TXIMELETA ABEDE-LORATEGIAN*»

«Abede-lorategi» baten, bost tximeleta egozan: «a», «e», «i», «o» eta «u» izenez ezagutzen ziranak.

Goizero urteten eben etxetik eta ez ziran berriz itzultzen, eguzkia mendipean sartu arte. Gabean, etxeraten ziranean, bakoitzari zer gertau yakon alkarrri azaltzen eutsen. Gertaturikoak ain ziran asko, arrigarriak eta politak, bakoitzean batena kontetan eben; orrela eguraldi illuna ta txarrá egiten ebanerako ere ba euken zer kontau eta zegaz barre egin.

Eldu zan lenengo gaba, baiña ez ekien zein tximeleta asiko zan bere gora-berak kontatzen, eta zozketa bat egitea erabagi eben.

Onela egin eben zozketa:

A, a, a,
Tximeletak plazara
lenengo zein ete da,
amar jausten yakona.
A, a, a,
tximeletak plazara.

Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzzi,
amar...

«U» asiko da, azkena lenengo.

Ole iAupa! iGure anai «U» asiko da lenengo bere jazoe-
rak eta barrabazkeriak kontatzen.

Eta «U» tximeleta asten da kontuak kontari, beste txi-

meleta guztiak inguruan dituala:

Goizean etxetik urten dodanean, nere lagunakana joatea pentsatu dot eta lorarik lora eta adarrik adar saltoka eta pozez noala, larrosa lora zoragarri batera eldu naz, eta irribarez galdetu deust: Kaixo tximeleta dantzari, zelan dozu izena? «U» dot izena, erantzun deustat pozez. Eta nik berari: zeuk zelan dozu izena? -Nik «L», erantzun deust larroseak bere edertasunez. Lagun asko daukadaz. Zergaitik ez zatoz nere lagunak ezagutu eta eurakin jolastera?

-Bai, banoa; oso pozik erantzun deustat nik, eta orrela joan gara «L» larrosaren etxe apain eta dotorera. A bai dala zoragarria! Ango margo usain eta edertasunez lilluratuta geratu naz, eta neu ere ederragoa ikusi naz jauregi polit aren erdian. Bertan egon dira «L» larrosaren lagun guztiak eta eldu gareanean, nire barri emon deutse esanaz:

Au «U» tximeleta da eta gurekin jolastera etorri da.

-Zetara jolastuko dogu?, esan dau «M» margarita zuri zuri batek.

-Ia, ixillik, eta pentsa dagigun, esan dau «KRA» krabeliña usaintsuak.

-Ba dakit, esan dau «GLA» gladiolo gorri ederrak. «Senedetara» jolastu geinke.

-Ori, ori! esan dogu guztiok batera.

-Lenengo, jolastuten asi baiño len, nork jolastuko dauan esango dogu: esan dau «L» larrosak, bere margo ederren begirada baten bidez jolas-lagunak izendatuaz: Lora, landara, zugaitz, adar eta orri.

«L» larrosa bera izendatu da jolasaren zuzentzaille, iñor asarretu ez daiten eta nasterik sortu ez daiten: au da, jolasa danentzat pozgarri izan daiten. «U» izango da gaurko jai-erregin, eta ia norekin alkartzen dogun.

Prest danok jolasa asteko? Goazen! Bat, bi, iru...

A bai inguru ikusgarria! Eta ni, barriz, arro-arro, barruko pozari eutsi eziñik. An ibilli naz, pitx eta patx, neure ego margotsuz ingurua apaintzen, ze senitartetan, margo eta

usaiñetan apatx egingo zain.

-Urretxa zugatzarekin, diño «S» sagarrak.

-Ederto! esan eban «L» larrosak. A izan da nire poza! Lagun barri gozo bat aurkitu dot. Ez laguna bakarrik, beste senitarteko bat be bai: «RRE» eta «TXA»; au da: «U-RRE-TXA».

-Danok esan dagigun barriro «U» aurretik dala: U-RRE-TXA.

-Ia-ia, asmau arin lagun eta famili barriak, esaten izan dau sarri-sarri «L» larrosak.

Ni geroago ta saltariago aurkitzen izan naz, egoak baiño begiak zabalago dodazala, nork aukeratuko ete nauan zain.

-«Intxaurra», diño «XA» kerixa guri ta goxoak.

-Bai, intxaurra, diño gure zuzendari «L» larrosak. Ia zelan alkartzen dogun: «IN-TXAU-RRA». Oraingoan erdian jarri yaku gure «U» eta «IN» dau bere lagun barria. Barriro ikusi eta esan dagigun guztiok batera: IN-TXAU-RRA.

-Ederto! Aurrera! Zuur danok, geiago be badagoz-ta:

-Mallukiak, esan dau albotik «GO» pagotxa bedar txiki batek.

-Ori dok-eta! Mallukiak! Oraingoan ere lagun barri batekin alkartzen da «U» tximeleta eta au «LL» da. Ikusi, ikusi! «MA-LLU-KI-AK».

Ba ete dago geiagorik? Ia, ia, bai badago, ekin aurrera billa ta billa.

Ura! esan dau «SU» asunak.

-Zergaitik ori? diño «IN» intxaurrak.

-Bai, bai, urarekin ere alkartu leike gure «U» tximeleta, gaiñeratu dau «SU» asunak.

-Olakorik! Olakorik! Bai zuur egon ere gure «SU» asuna! Zelan egon be leike gure lorategia ur barik? Ia ba, ze lagun barri aurkitu deuskun «U» gure senideak. «RA» da bere lagun barria.

-Bai, bai, bete-betean: «U-RA».

-Eee! Lagunokkk! deadarrez eta ariñeketan etorri da usaintsu ta lilluragarri «LL» lirioa. Jateko ordua eta janari gozoa gertu dago. Euri gozatsua zerutik jausten dan artean, eguzki biziak bere aurpegia ageri dau mendi orlegi tartetik. Bere brintza gozoak lorategi aretako bakoitzarengana eldu arte.

«U» ere gurekin geratuko da, esan dau «GLA» gladiolo lirain batek.

-Obeto ezin! Erantzun dabe beste guztiak. Gure edertasun ugariaz gozatu daitela «U» tximeleta alai ta dotorea.

-Ez, nik neure lagunakin joan bearra daukat. Euri eder au zuentzat gozamina dan artean, niretzat ez da ain pozgarri eta aterpera joan bear naz.

Nere egoakin agur bero bat egin ondoren, emen naukazue berriz zuen artean, neure laguri maite «a», «e», «i», eta «o».

-Oso ondo! Oso ondo!

-Orain goazen etxera atsedena artzera; au egun zoragarria izan da.

-Bai, ni biar ere ibillaldi ederrak egiteko asmotan nago, orain nekatuta aurkitzen naz.

Argi guztiak itzali dira eta aukera ederra guretzat; goazen danok egunari azken agurra egitera.

A, a, a,
Au izán da eguna
danok poztu gaituna
auxe da poztasuna!
A, a, a,
Au izan da eguna!

Gabaz ameseta gozoak egin ondoren, eguzkiaren ikutu bigunagaz batera itzartu ta alkartu dira barriro be lagun guztiak, eta egaz ta egaz doaz baztarrik baztar.

Ikusi-alak ikusita, lagun guztiak batzen dira batzarrera, kontuak jakin nairik. Zozketa egin dabe eta «E» geratu da

barri-emoille.

Ara ba, ziri-zara, ara-ona izadian zear noiala, beste lurralde batera eldu naz, eta azken baten, ainbat atzerago bizi diran beste lurralde baten gelditu naz.

-Eta zer ikusi dozu an? galdetu deutso «E»-ri bere anai batek.

-An ikusi ta bizi izan dodazanak azalduko deutsuedaz, gure. aurretikoak zelan bizi izan ziran jakin dagizuen zuek be:

Arein etxeakoak ikustekoak dira: txabolak baizen txiki-txoak. Arrizko lau orma ez aundi eta leio txiki txikiak. Etxe barrura sartu eta sukaldean burdin sendo baltz baten gainean mukur zati sendoak sutan. Kea urteteko ke-zulorik ez dagoan ezkerro, inguruko orma guztiak kedarrez baltzitura dagoz. Sutan latzutik eskagita maskillu zabal bat agiri da, etxeo guztientzat naiko morokil egiteko bestekoa.

Euren lo-tokiak utsak etaitsuak dira. Oge-gaiñean kapaxezko lasta marraga latza, eunezko ariz egindako oialez estalduta.

Etxe-aurrean, teilla garbi. batetik dariola, ur-txirristada ederra arrizko aska batera jausten.

Etxe-inguruan, umeak gomazko abarka sendoz eta ardi-lanazko txapiñez jantzita jolasean, maonezko prakak gerriko baltzez lotuta, alkondara zuri zuria burruz baltzez estalduta... geu baiño be dotoriagoak begitandu yataz; eta euskera zar ta garbi bat bai euren ezpañetan!

Eta atariko jarleku zabalean, umeai begira, etxeoandre arduratsua, iru puntako zapi zuri ederrez buruko ule-moiñoa tolestuten dauala.

Eta egazkada batzuk eginda, etxe-ostera joan naz. Eta an bai ikustekoa: Etxeko alaba zarrena lexibea egiten dabillela. Jakin gura dozue zelan?

-Bai, bai; ori jakitegoa izango da-ta.

Egurrezko tiñiku bat, burdiñezko estuntzaz sendotuta; tikiñu onetan sartzan izan ditu erropa zuri guztiak, eskuz jaboia emonaz, eta eunezko oial bat gainean ezarriaz. Oñen

gaiñean, surteko autsa, bere ikatz ta guzti zabaltzen izan dau, ereiñotz-orri batzukin nastauta. Oial orrekin dana ondo estaldu ondoren, gaiñetik ur irakiña jaurtiten izan dautsa, erropea egosi daiten. Tikiñuaren azpiko zulotik urteten dauan ura, barreiñu baten batzen izan dau; ondoren ur orregaz, anakak garbitu ditu, eta geratzen izan danagaz kolorezko erropak garbitu. Tikiñuko erropak ondo egosita gero, ondoan dagoan erreka baten jo egin ditu, azken garbiketa egifiz.

Etxeko jaun agurgarria larra zabalean artaldea zaintzen egon da, tarteka txirula joaz.

Aitita gaztaginan dabillen artean, amama erdi-estalda artuta goruetan diardu, lana sendoa egiten, negu gogorrerako txapiñak eta kaltzerdiak egiteko apraposak.

Ikuskizun zoragarri au etxe-inguruan izan ondoren, egazka zolo zabal batera inguratu naz. Bertan idi-buztarriaz goldaketan dabillen gizon errime batekin aurkitu naz.

-Kaixo, lagun! Egunon!

-Bardin, Jaungoikoak emon!

-Ze ordu da, mesedez?

-Eguerdiko amabiak, esan deust, eguzki nun dagoan ondo begiratuta gero. Euren ordularia eguzkia da, antza. Alaitasunez beterik, eskerrak emon deustadaz eta aldendu naz solo-ertz aretatik, alboko auzune bateko bidean zear. An ibilli dira txabola zar baten lekuan arrizko etxe bat egiten, bakoitza bere Ianetan. Batzuk arriak eta ura ekarten izan dabe, besteak teillak, oneik egurrak, areik buztiña... Baita beste gizon batzuk aparteko arlo baten ibilli dira eta eurekana urreratu naz eta elkar-izketan asi gara.

-Eup, jardunean ala?

-Kaixo, tximeletatxo! Emendik ala? Nor zara zu?

-Ni «E» tximeleta naz, «A», «U», «O», eta «I»-ren arreba. Esango deustazue zer eta zetarako dan egiten zagozena?

-Bai orixe, pozik esan be! Emen, txabolatxo onetan bizi izan gara orain arte. Lur eta ondasun guztiak danonak izan dira; orain bakoitzak geure lurraldetxoaren jabe egin gura

dogu. Eta bakoitzarentzat zer eta zenbat izango dan neurtu, erabagi ta izendatzen gabiz. Jakin daizun, onelaxe neurtzen da: txabolan sua egoan tokian asita neurtzen da bakoitzarentzat lurraldea, txabola bera dagon tokian etxea jasoaz. Sutegi-erdian taket bar sartu, berreun ta berrogeitamar metroko kordel bat lotu, eta soka orrek emoten dauan neurrian biribil bat egiten da eta or barruan sartzan dan lur-zatia izaten da bakoitzarentzat. Baiña au dirua daukanak bakarrik lortu leike, lurralde oneik ordaindu egin bear diralako.

-Kontxo, kontxo! Olakorik ez dot egundo entzun! Esango deutset neure lagunei be.

-Besterik ezer jakin gura dozu, lagun?

-Ez, ez. Eta milla bider eskerrak emonaz aldendu naz bertatik.

-Arratsaldeon, ba, eta beste bat arte. Jaungoikoak lagundu zaizala bidean.

-Bardin eta urrengora arte.

Onela, amaitu dogu, anaiok, gure alkar-izketa eta barri-emotea, eta emen naukazue barriro bere zuen artean.

-Oso ondo, oso ondo, anai maite! Gauza eder asko eka-ri deuskuzu.

E, e, e,
Egazka aidez aide
saltoka lorez lore
gabiz ainbat senide
E, e, e,
Egazka aidez aide.

Lolotxo goxoak eginda, ibilli ta ibilli eginda... barriro be barri-emoteko ordua. Oraingoan nor izango ete da kontakatillu?

-Ia ba, ia ba, barriro be zozketa egin daigun:

Λ, a, a,
Tximeletak plazara
lenengo zein ete da,

amar jausten yakona.

A, a, a,

tximeletak plazara.

Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, amar... Eta «0».

-Ederto! Aupala! Ia zuri zer jaso yatzun?

Goizean, ikastolara noala, biotzeko lagun «txo» eltxo batekin aurkitu naz, eta alkar-izketa auxe izan dogu:

-Kaixo, «O» tximeleta maite!

-Egunon, aixkide «txo»!

-Nundik eta nora zoazela, ba? ain bixkor eta arduratsu?

-Ikastolára noa, lagun.

-Kontxo, kontxo! Zer dala-ta?

-Baaa, ikasi egin bear dala-ta, bizitza onetan zeozer egin bear dala-ta, edo arerioengandik garaille urten bear dala-ta...

-Bueno, bueno! Eta zer deritxazu gaur nerekin alkartzen ba zara?

-Kontuz, kontuz!!!

-Zergaitik kontuz?

-Bidean zear aske ta alai zoazen artean, noznai ta gixien uste dozuen orduan arerioak agertzen dira bidean, batez be maasmak. Bere ixkutuko sare ta lakioekin bideak sarrratu egiten ditu, eta beingoan naastatuko deuntsuz ego ta ankak, bertan katigu geratu arte.

-Au bai au izatekoa! Eta zer egin?

-Alkarrekin joaten bagara, esan deust «txok», asmauko dogu zelan urten sare maltzur orreitatik.

-Ia, ia, goazen ba, erantzun deuntsat nik. Eta auxe abes-tuaz joan gara: Tantirin, tantirin, txos! Tantirin, tantirin, txos!

-Kontuz «O», zurrumurrutxo bat entzun dot.

-Ia zer dan! Prestau gaitez.

-«Txo», zer da ori?

-Zer «O»?

-Ori, ori, aurreko ori. Kontuz!

-Or dago gure katigu-sarea. Orain gogor ta zuur jokatu bear dogu. Itsu-itsuan aurrera joaten bagara, or goaz bere anka-artera betiko katigu.

-«Txo». zu joan aurretik eta bere musturretan jarriaz, zirikatu. Ni beste aldetik joango naz eta nora-ezean aurkitzen dan artean, dsast! sartuko nakio.

-Kontuz «O», ez katigaututa geratu!

-Bai, bai, «txo», baiña ez deusut esan ba ikastolara zeozetan joan bear dala, ba?

-Tira, ba, gaur «piper» egitea merezi izan dau, orduan. Sekulako kolpea emon bear deusagu-ta.

-Badator, badator.

-Jo aurrera, «txo», bildur barik!

-Bai, «O», banoa!

Eta emen dator onena. Gure arerioa jo ta ke lanean diarduan artean, «txo» ta ni urreratu gara berangana, eta neu urreratu naz ondo-ondora eta kilikili egiñaz beroberotan ipinten dot, eta bien bitartian, «txo» eltxoak, sareari beste ertzetik oratu ta beingoan urratu dau.

-Irabazi dogu, irabazi dogu! alkarri zarataka urratu dau.

-Goazen ikastolara neure lagunei albiste au emotera.

...Txapeldunak! Txapeldunak! Oe, Oe, Oe... (bir).

Ikastolara elduaz batera, alako pozaldia izan dogu:

-Kaixo lagunok!

Kaixo «O» Non egon zara ikastolara etorri barik?

•Ona emen nire lagun «Txo» eltxo. Bidean zear arerioen bildurrez doalata, laguntza eskatu deust. Biok joan gara eta jo ta ke burrukan eginda, emen gagoz arerio danak menperatu ondoren.

...Txapeldunak! Txapeldunak! Oe, Oe, Oe,

Gure garaipean au ospatzeko, alkarrekin salto ta brinko alaiak egiñaz beste batera arte agurtu gartu gara.

-Ederto! Ederto! «O» anai maite! Egoak tolestu daiguzan eta biarko eguzkibrintzak jo arte, txao!

O, o, o,
Etxeko ta kanpoko
beti prest alkartzeko
alkar lagunduteko

O, o, o,
etxeko ta kanpoko.

Fitt! Batzarrara lagun guztiok! Gaur nori? Etxalan, kamalan, torrean, tingi, tanga, pitx! «A» tximeleta eder ori, zuri jausi yatzu gaurko zozketa.

Gogoko izango al yatzue nire joan-etorria:

Erri txikitxo baten jaiak dira, Donibane jaiak. Eta ara joan naz, erri orretako jaietan parte artzeko asmoz. A izan da txapligu-otsa eta txaranga-soiñua! Nai ta naiez dantza eta zantzoa barru-barrutik urteten izan deust. Erri osoaren gaiñetik ibilladitxo bat emon dot, geien atsegin izan yatan tokian lur artzeko gogoz.

Orra or nun ikusten dodan zoragarritzko zirku bat, eta araxe noa dudarik gabe. Zirku «Bixkorak» dau izena. Zirkua ondo antolatuta eta apainduta dago. Eta ba dakizue zer ikusten daben nire begiok? Zirku orren jabe bera eta guztietako abereak dira: Elefante, samaluze, uso, tximiño, txakur, katu, artz eta abar.

Eta guztiak menderatuta, abere guztiok agurtzera joan naz.

Ez da ezeren faltarik izan, alako joko eder ikusgarriak eskeintzeko. Artz zuri dotore bat izan da aurkeztzaille, eta dotore jantzitako txarritxo bat diru-batzaille. Aurkeztzailleak sarrerak eta ongi-etorria emon deusku: Ongi etorriak ikusle maiteok! Alegiñak egingo doguz gure joko eta ekintzak zuen atsegingarri izan daitezkan. Une pozgarri bat opa deusuet zirku «Bixkorak» izenean.

Asi da zirkua. Txakur-katuen ekitaldia izan da lenen-go. Katuek trebetasunez kitarra jotzen izan daben bitartian,

txakurrak or dabiz dantza zoli ta egokiak egiten. Bai ederto egin ere!

Samaluze agertu da urrengo suzko txirindola batzuk eskuan dituala. Katuak soiñua aldatuz, egokitu deutse txakurrei giroa, eta or dabiz suzko txirindolak ara-ona aldatuaz.

Ikusleen artetik, txaloots sendoa entzun da eta jokoa geratu egin da, samaluze, txakur eta katuak jende irribarez eskertuaz. Txakur-katuak, alkarri esku emonaz aldendu dira, baiña samaluze geratu egin da.

Orain emen dator tximiño saltari bat. Samaluzeak agoan daroan saria kentzeko alegiñak egiten ditu. Areik bai saltoak eta dantzak! Azken baten raust! lortzen dau samaluzeak agoan daroan zer ori. Samaluze ta tximiñoa aldendu egin dira eta aurkeztzaille dan artza etorri da, egitaraua eskuan dakarrela. Onela diño egitarau orrek: Orain unetxo bat, anaiok! Gure anaiak gertau daitezana, eta zuek atsedean apurtxo bat artu al egizuen. Bitartean, gure anai usoak abesti saio bat eskeinduko deusue, zuen entzumena gozatzeko:

- Uso zuriaren abesti saioa entzun ondoren, elefante talde bat agertzen da, eta... oneik bai oneik! Sokatira saioa bat eskeintzen deuskue. Zelango saioa, izan be! Batak baiño besteak alegin eta arrapalada aundiagoak erabilli ditue. Talde baten izena «Txomin» eta bestearena «Peru». Lerrenak egin ondoren, «Txomin» taldeak irabazten dau. Jendearen txalo beroak jasoaz, euren tokietara itzultzen dira.

Txori-talde batek artzen dau oraingo txanda, abesti gozo ta ezbardíñez gozatu gaitue. Danok bat-batera jotzen dabe biboliña, zoragarritzko soiñulari taldea osotuaz. Eta egazka eta agurka joan dira euren karioletara.

Tximiñoiak egiten dabe bigarren saioa. Bakoitzak bi pelota eskuan artuta, iñon diran aldrebeskeriak egiten ibilli dira. Ez bakarrik lurrean baita aidean eta soka baten zear alde guztietarantza.

Artz zuria agertzen da barriro, zirku-jaiari azkena emo-

teko: «Gure zirku-jai oneri azkena emoteko, «Bixkorrak» zirku onetako abere guztiok abesti bat abestuko deutsuegu.

A, a, a,
Au da au jaialdia
baketsu ta alaia
ondo ibilli anaia!

A, a, a,
Au da au jaialdia!

Eta azken eguna eldu zan, «I» anaia geratzen zan baka-
rrik eta ez zan izan zozketarik egin bearrik.

-Ia, «I» anaia, ia nundik eta nora ibilli zorean?

-Danok dakizuenez, «Alkartasuna» udalekuan igaro dot
denporaldi bat eta ango jolas ta jokoak azalduko nueskizue
gogoz. Zer deritxazue?

-Ederto, mutil! Ori dok eta!

Ibilli ta ibilli asko egin ondoren, alako-zarata, zantzo ta
jolasik! Zer izango ete dan, eta kontuz kontuz bertara urrera-
tu gara.

Eldu zan jolasak egiteko lenengo eguna.

1. «IKURRIN JOLASA». Bi talde egozan jolasteko, eta
mendi edo landa baten ipinten dira, bata aldebaten eta bes-
tea beste aldean. Bakoitzak bere ikurriña dauka bere aldean
jarrita, eta taldeko guztiak leku agiri baten ikurriñaren mar-
goz margotutako ezaugarria eroan bear dau. Batek asiko
dau jolasa, eta beingoan asi diran talde batekoak bestekoe-
ren ikurriña arrapatzen. Baiña margozko ezaugarria beste
taldekoak ikuskete. Bestelan espexera eroango dabe. Eta
orrela, lenen ikurriña arrapatzen dauana edo beste danak es-
petxean sartzen dauan taldea izango da irabazle.

2. «PUZTUKIEN JOLASA». Era bitara egin dabe jolas
au.

-Taldea bi jarriko dira, lagun bakoitzak anketan puztuki
bat lotuta daroala. Zeiñek aurkako taldekoen puztukiak le-
nago lertu, arexek irabazi. Baiña oiñak bakarrik erabilliaz

orretarako.

-Puztuki-zerrenda bat jarri eben aurrean, bakoitzeko puztuki bat. Seiñalea emoterakoan, ariñeketan joan eta zeiniek puztuki geiago lortu, axe irabazle. Baiña, auxe xelebrea! eperdiaz lertu bear...

3. «PITXI GORDEKETA». Taldeko jolasa da au ere. Talde batek pitxia gorde eta beste batek billatu. Onela egiten eben jolas au: Pitxi-gordetzaille dan taldeak billatu bear dau tokia, eta bertarako bidea. Bidean zear «seiñaleak ipiñi dabez, zenbakiz ondo izendatutakoak; aldrabeskeri asko jarri ditue, baiña ezetariko guzur barik. Billa doan taldeak ezin dau ikusi beste taldeak nun zer gordeten dauan. lenengo taldeak bere lana amaitzen dauanean, billa doanari baimena emoten deutso. Bigarren taldea badoa billa, bideko seiñaleak jarraituaz, ondo ondo gordeta dagoan pitxia aurkitu arte. Eta ara! pitxia billatu dabe, baiña ez bideko seiñale guztiak. Eta ez dau balio izan.

4. «ERI LAGUNTZA». Jolas onetan zer ikusi ta zer ikasi asko izan dot. Bi edo iru talde gertau dira. Talde bakoitzari mendirantza, edo errirantza ibillaldi bat egiteko bidea emoten yako. Ni ariñeketan ibilli naz, bein talde bategaz eta bein beste-gaz egoteko. Talde bakoitzari erakusten yakon bidean ume zauritu bat aurretiz ipiñi dabe, eskuan mezu bat dauala, gorputzeko zein atal dauan gaixorik agertuaz. Urten baiño len, talde bakoitzari baldintza batzuk emon dautsez eta epaimaikoak prestatzen dira, azken erabagiak artzeko. Ona emen baldintzak: Norberak soiñean daroana baiño beste apartekorik ezin leike eroan.- Itzultzerakoan itxurak aldatuta ta abesti berezi bat abestuz etorri bear dabe. Taldeak banandu dira, eta an-or-emen erituak deadarka entzuten dira. Talde bakoitzak zauritua ondo aztertu bear dau, eta al danik eta egokien asmau zelan lotu gorputz zauritua eta miñik emon barik eroan bear dan lekura. Zelako ixkanbilla sortu dan, epaimaikoak ebatzia emoterakoan!!! Talde bakoitzak berarentzat uste dau lenengo saria. Baiña batek eroan dau, danak be ederto baten egon dira baiña.

5. «KOKOMARROAK KORRIKA». Erropa zarrez bete-riko pardel batzuk ipiñi dabez ur batzuen aurrean; zenbat pardel arenbeste ume. Jokalari bakoitzak pardel bat artu dau, eta aruntz-onuntzako bakoitzean erropa bat bakarrik jantzi bear dau. Nok lenago amaitu erropak jaztea, axe da irabazle. Demontresa! Mutil koxkor aldrebes bat izan da irabazle, Jaungoikoak dakian moduan erropak azpikoz gora ta atzekoz aurrera jantzirik.

-Olako egun bat geuk be gura gendukek, ba, igarotea! Arraiopola, mutil!

-Bai, egia esan, neuk ez dot beste olango egun izan neure bizitzan!

-Oraingoz naiko barriketarik dogu-ta, amaitu daigun guztiok batera abestuaz:

I, i, i,
Ujuju ta ijji
arrantza ta irrintzi
lagun danoi gorantzi
I, i, i,
Ujuju ta ijji.

Maria Angeles Angoitia

«AZKEN TRISTE BATEN ISTORIOA»

Aurregunetik hasita elurra erortzen jarraitzen zen. Eta kanpoalde guztia elurrez estalita zelarik, dena zurituta ikusten zen.

Gabon arratsaldea zen, eta Aitorren ama gaueko afaria prestatzen ari zelako, usain berezia somatzen zen sukaldean.

Aitorrek, egiten zuen denboragaitik, ezin izan zuen irten kanpora, baina pozik zegoen... laister aitonak etorriko ziren, eta gero, gauean, beraiekin batera afalduko zuten.

Gainera egun hartan, Olentzero ere erregaliekkin etorriko zitzaion. Eta horregaitik berak ere, inoiz izatekotan, mutiko zintzoa izan behar zuela pentsatu zuen.

Eta Aitorrek, egunero bezala amak esan barik, bere kasa, sukaldean kaiola barruan zeukan kanaria, etxeko balkoira ateratzea erabaki zuen. Baina lehenago, eguneroko lana egin behar izan zion. Lehenengoz Aitorrek kaiola guztiz ga'rbitu zuenean, ura aldatu zion; eta gero, galtzu izpi ipini zizkion, kanaria bertan epelago egon zedin. Eta azkenez, kaiolako askatxoak alpistez bete zuen.

Gero Aitorrek balkoiko zoko epelenean eskegi zuenean kaiola; kanariak, kaiola barruko zotz batetik bestera saltoka ibiliaz, eskerrak eman zizkion. Eta bera ere gehiago poztu zen, bere kanaria pozik zegoela ikustean.

Une batzuetatik honuntz, elur erortzea geratu eta eguzki dizdira batzu atera ziren. Balkoian, kaiola barruan zegoen

kanariari ditzira haiek epeltasuna eman zizkiotenean, poliki poliki, alpistea jaten hasi zen. Eta gero, nahiz eta goserik ez izan, jaten jarraitu zuen...

Baina halako baten, gehiago ezin zuenean jan, askatxotik burua altxatuz, kaiolako zotz bateraino saltatu zuen. Eta zotzean mokoaz hegoetan hazka zebilelarik, kasualki, behe-rantza begiratu zuen. Han, balkoi buziaren gainean, eta berak kaiolatik botako alpiste hondakinen artean, zerbait bilatzen jateko edo, gardantxilo bat ikusi zuen...

Gardantxiloak lumak busti busti eginik zituen. Eta benetan bere margo gorri, hori, urdin, ez ziren ondo bereizten; guztiz grisa zela zirudien... Gainera argal zegoen.

Kanariari, gardantxiloak pena eman zion; baina etxe hartako txoria bera zela aditzera eman nahi'ean, gardantxilo gizaixoari harrokiro deitu zion...

-Zu!.. zu, bai zu!.. nik botako hondakinek jateko, gosea duzu ala?

-Ba,... bai!... egun bi edo hiruen ez dut ezer jan, ze nire janari guztia elur azpian dago... Horregaitik ausartu naiz zure hondakinak jaten etortzera.

Gardantxiloak, erdi beldurrez eta begirune haundiz erantzun ondoren kanariari, jaten jarraitu zuen. Denbora gutxienean ahal zuenik gehien jaten ahalegintzen zen. Baze-kien berak, norbait etorriko bazen, alde egin beharko zuela; eta agian, beste bi edo hiru egunean gosea pasatu beharko zuela.

Orduan bai, orduan benetako pena izan zuen kanariak, gardantxilo gizaixoa hala ikustean.

Eta barrero ere hitz egin zion...

-Zu!,... ba ni txikitatik hementxe bizi naiz, eta sendi honetakoek, benetan maite naute... Nire laguna zarela esango diet eta bertan geratuko zara zu ere... Ikusiko duzu ze ondo...

-Eskerrik asko,... baina ez dut nahi!

Kanariak esaten zuenari aditasunez jarraitu ondoren, gardantxiloak, lehen bezala begirunez erantzun zion. Baina

haren erantzuna, kanariak ezin izan zuen ulertu...

-Baina zer diñozu... ez duzula hemen geratzea nahi?... Orduan zuk zer nahi duzu ba, edozein bazterrean gosez hiltzea ala?... Entzun; ni egunero garbitzen naiz, inoiz ez zait falta janaria; hots egiten badu, berogailuaren ondora eramaten naute, eta bero egiten duenean, haizegailuaren ondora... Eta zu, zu zer?... gosez eta hotzez hiltzen zaude...

-Bai, egia da; baina nik, nire bizitza ez dut aldatu nahi... Apropos, zenbat urte dituzu zuk?

-Nik? urtebete ere ez!... eta zuk?

-Ba nik, urte bi... eta horregaitik igaro nituen ihaz ere uda, udazkena, negua eta udaberria kanpoan... eta ez, nire bizitza ez dut aldatu nahi... Zuk oraino urtebete bakarrik duzulako, bizitzaren gainean, nik baino gutxiago dakizu... Bizitzaren banaiz etorriko natzaizu uztail inguruan; eta orduan beharbada, nirekin ados egongo zara... Bai, etorriko natzaizu...

Kanariak ez zion gehiago jaramonik egin. Baina bere kautan pentsatzen zuen ha, hain txori leloa nola izan daitekean.

Gardantxiloak bere aldetik, berriz ere, jateari ekin zion...

Baina ez kanaria ez gardantxiloa ez ziren ohartu, etxeko katua, honen zai zegoela. Eta katuak, gardantxiloa axola gabe ikusi zuenean, dzapart, gainera salto egin zion...

Gardantxiloa, txioka zauriturik zegoelako, doi-doi, altxatu zen jaten zebilen balkoi zulotik. Eta hegan zihoala, katuaren erpakadagaitik, gorputzetik hainbat luma erori zitzaizkion.

Gertatu zena ikusi ondoren, kanaria, urduriturik mugitzen zen kaiola barruan; baina gero apur bat lasaitu zenean, lehen pentsatu zuena berriro pentsatu zuen: gardantxilo hura hiltzen bazen, bere erruz hilgo zela... bere etxeko ugazabek eskeiniko zioten epeltasuna baino, kanpoa nahiago zuelako...

Eguzkia lainoek estali zutenean, kanaria berriro ere hotz zen. Eta Aitorrek, txoria zegoen kaiola hartuz, berogailuaren

ondoan jarri zuen.

Kanariak; bera pozik zegoelarik, lehentxoago ezagutu zuen gardantxiloak, bere zoria ez zuela izango pentsatu zuen.

Eta hark esan zionaz gogoratuz; uztailean berriro ez zitzaiola etorriko ziur zegoen, seguraski bere ustetan, ordurako hilik egongo zelako...

Zazpi hilabete igaro ziren, eta uztaila zenez, Aitorrek oporrak zituen. Eta Aitorrek arratsalde hartan; jolastera joan baino lehenago, eta amaren agindura, kanaria zegoen kaiola balkoiko zokoan eskegi zuen.

Baina orduan mutikoak, ez zuen kaiola garbitu; eta al-pistea eta ura, lehendik ontzitxoetan geratzen ziren hondakinen gainera bota zituen.

Kanaria; jateko gurarik ez zuenez, kaiola barruko zotz gainetik kalera begira geratu zen. Eta hala zegoela, bere atzekaldetik, lau txori agertu ziren, kaiola ondoan biraka hasiz. Beraietako batek, kanaria agurtu egin zuen...

-Kaixo!... Zer moduz zaude?

-Ba, nahiko ondo!... Zuk ezagutzen al nauzu ala?

-Bai! Ez zara gogoratzen elurtza izan zen egun baten...

Bai, gardantxiloa zen. Eta berarekin batera etorri ziren hiru txoriak, bere umeak.

Baina kanariak ez zuen ezagurxi gardantxiloa; zergaitik eta orduan, lehenengo aldiz ikusi zuenetik, itxuraz guztiz al-daturik zegoelako. Gardantxiloa benetan, gizen eta garbi zegoen, eta bere lumatako kolore guztiak, ondo bereizten ziren.

Gainera orduko ahotsa ere aldatuta zuelarik, kanariari mintzatzen jarraitu zuen...

-...Orduan, hamendik alde egin nuenean, berriro ere etorriko nintzela esan nizun... eta etorri naiz...

-Baina oraino nola bizi izan zara?... zuk negu guztian zer jan duzu ba?

-Ba negua nahiko gosez igaro nuen, bai... baina orain

nahi dudana jaten dut; eta gainera, noiznahi eta nonnahi.

-Eta non bizi zarete?

-Gu bizi gara nahi dugun lekuan; orain hemen, gero han... gura dugunean bainatzen gara, nahi dugunean lo egiten dugu, eta horrela... Gu kanpoan bizitzeko jaio ginen...

Kanariak azken hitzak entzun zituenean, gardantxiloak agian, errosoia izango zuela pentsatzen hasi zen. Berari, Aitorrek eta bere senitarreak agintzen zioten.

Alde batetik bestera, beraiek eramaten zuten, nahi zutenean; janaria, beraiek nahi zutena jan behar izaten zuen... Ez zituen ezagutzen ez mendirik, ez sororik, ez ibairik... kaiola barrutik, egunero, paisaia berdina ikusten zuen.

Gainera berak, umerik inoiz ez zuen izango... Eta etxe-koek noizbait etxera beste txori bat ekarriko bazuten ere; ha, berari derrigorrez jarrirako kidea izango zen, eta ez berak aukeratuko adiskidea.

Kaiola zegoen balkoiko zokotik, eguzkia zeruan gorigori ikusten zen; eta balkoian bertan, bero galdea egiten zutenez, gardantxiloak, eta bere umeak, handik alde egitea erabaki zuten... Baina lehenago, preso geratzen zen txoriari kementa emoten ahalegindu ziren...

-Kanaria, gu gerizpera goaz... hprtxe aurreko teilatu azpiko hegalean egongo gara; eta zuk, zerbait nahi baduzu txio egizu...

Gardantxiloak gerizperantz hegan mugitu ziranean; kanariak, zerbait freskatzekotan, berak edateko ura zegoen ontzian burua sartuz, busti-busri egin zuen.

Eta denbora igarotzean, arratsalde hartan, eguzkia lainoiez estalirik geratu bazen ere, itzelezko sargoria sentitzen jarraitzen zen... Eta gardantxiloek; beste toki atsegingarriago batera joateko asmoz, teilatu azpiko hegalean zegoen zulotik irten zuten une berean, kanariari, txioka entzun zioten...

Eta gardantxiloak, ha zegoen lekuraino, ahal zutenik laisterren hurbiltzen ahalegindu ziren. Eta bera zegoen ondoraino heldu zirenean, han ikusi zuten kanaria, ia indar barik,

baina eginahalak egiten kaiolatik irtetzeko.

Eta kaiolako zoluan berari eroritako hainbat luma ikusten baziren ere, begi bata eta mokoa odoletan izanez gainera, kanariak, kanporatzeko itsumenez jarraitzen zuen. Bere erpez, kaiolako barroteetan intsigitzen zen; eta hegoak guztiz zabaltzeak ematen zion indarraz baliatuz, burua barroteen bitartetik ateratzen zuen, txio larriak eginez.

Eta bere ahaleginak alferrikoak zirela ohartzen zenean, ernegatuta, barrotei mokoka hasten zen; ahuldurik kaiolako zolura jausi artean...

Baina berriro ere indarrak bilatzen zituenean, berdin egiten zuen, eta beste baten, eta beste baten...

Eta halako baten; gardantxiloak kaiola ondoan hegan zebiltzalarik, kanariari lagundu nahiean baina ezin lagundurik, ohartu ziren ha, kaiolako zolutik ez zela altzatzen...

Une batzu geroago, lau gardantxiloak, kaiolako kanpoaldetik, askatasunetik; kaiola barruan kanariaren azkena nola izan zen ikusi zuten. Kanariak, ia adore barik, bere gorputzari «utzi» egin zion. Eta lehenengotan bizitzen jarraitzeko ahaleginak egiten bazituen ere, gero, gorantza hankak zituelarik eta hiru edo lau aldiz luzatu eta laburtu ondoren, hil zorrian, burua albo batera okertu zuen. Eta begiak itxi zituen momentuan, kanaria, tragatu egin zen.

Gardantxiloak eta bere umeak, egun hura, beraien bizi guztian izango zuten gogoan. Eta umeak izango zituzten umeak, eta haien ondorengoak ere, segurki, egun haren berri izango zuten... askatasuna lortu nahiean hil zen txori baten berria.

Eta albistea entzungo zuten guztiek, gauza bat konpreniko zuten: ez zela izakirik jaiotzen inoren menpean bizitzeko, askatasunean bizitzeko baizik.

Juan M. Atutxa

«ETORKIZUNERAKO OIHARTZUNA»

TXIKIAREN HAUNDIIZATEA

Lore guztiak ez dira berdiñak. Landare bakoitza ere, jatorriz datorkion berezitasunez bihurtzen da landaretegi osoaren aberasgarri.

Ugaritasunaren bizkarrean txertatua dator Izadi Nagusiaren edertasuna.

Gizakiak ere *ez* dira berdiñak. Bakoitzak jatorriz dakarren nortasun bereziak eskeintzen dio Gizadi osoari harrigarritzko edertasuna.

Gizaki bat zen Kepa ere. Gizaki-maillan beste edozein bezain mugatua eta beste edozein bezain osatua.

Nekazari batzuen umea zen Kepa. Nekazaritzat zekarkien ogi laburra zitzaien eguneroko bizigai Kepari eta haren senditar guztiei.

Mendi-egalari itsatsitako basetxe batean jaio zen Kepa. Herriburutik bi orduko bidea zegoen Keparen jaiotetxera. Zaldiz ezpazen oiñez etorri behar izaten zuten Osibartarrek herrira beren sal-erosketak egitera. Osibar zen Keparen baserria.

Kezka biziz urratuak zebiltzan Keparen gurasoak, hain urrutj bizi izateak kalte gogorra baizekarkion bere semetxoari ikastolako heziketari zegokion alderditik.

Baserria utzi eta kale-etxe batera bizitzera etortzeko

hartu zituzten asmoak ez zitzaikien ondo irten, eta Kepa mundura ekarri zuten leku berean jarraitu behar izan zuten bizitzen.

Hamar urte zituen Kepak ikastolara aurrenekoz ekarri zutenean. Bi orduko bidea luzeegia zen umetxo bat nolana bide guzti hori egitera behartu nahi izateko.

Bere oiñez eta bere kontura herrirako joan-etorriak egiteko gai ez zen bitartean ez zuten bidali nahi izan Kepa ikastolara bere gurasoek.

Egia esan, ongietorri goxoa eta xamurra egin zioten hamar urteko mutiko hari ikastolara etorri zen aurreneko egunean bai maisuak bai eta ikas-lagunak ere.

Mutiko argia zan Kepa. Ez zen, ordea, besteak bezelakoa. Begiratze izutia zerion haren aurpegiari. Ikastolako aulkietan esertzen ere ezin asmatuz ibilli zen aurrenetik.

Mendi eta basoetan erbia baño bizkorrago ibiltzen ohi-tua zegoena, kaiola baten sartua bezela arkitzen zen gela estu hartako itsitura kaxkar hartan.

Lan neketsua ekarri zion Kepak maisu jaunari. Keparen aitak bere semeari buruz maisuari agertu zizkion ametsak, jatorrak ziren benetan. Hala ere eziñezko zitzaion ikastolako zuzendariari, mailla-galduan zetorrenari neurri egokian ikasbideak eman ahal izatea.

Lágun bezela oso onartua izan bazen ere, ikasle bezela zokoratua geratu zen gure ikasle berria.

Ikastolara lehendik zetozen hogeitamar mutikoak behar bezela zaintzen nahiko lanak zituen maisuak. Ezin zezaioken lan berri bat gehiago bere buruari erantsi.

Kepa gajoa guztiz zokoratua uztea ere ez zitzaion atsegin maisuari; ikastolako beste mutiko bat emango zion «irakasle» Kepari, eta horrela bere buruko kezka arinduko zituen maisuak.

Bizia eta bizkorra zen Kepa. Erakutsitako guztia ikasiko zizun; aixa ikasiko ere.

Tarteka tarteka bere lagun batengandiko iratsiak ez zu-

ten zulo haundiegirik bere Keparen buru ikaslean.

Egunak joan ziren, hillabeteak joan ziren eta urteak ere joan ziren. Bi urteren buruan ez zuen Kepak hizki bat besteri josiz irakurtzeko ahalmenik eskuratu.

Etsi zuen Kepak. Hazur-maietaraiño etsi ere. Gauzak ez ikasteak ematen zion nahigabeari, besteren aurrean ezjakin arkitzearen miñak urratzen zuen Keparen barrunbea.

Egun batez, aitaren ondora apalki inguraturik, honela mintzatu zitzaion:

-Aita! Gauza bat esan nahi nizuke eta esatera noakizuna gaizki hartzerik ez nuke nahi.

-Zer da, Kepa esan nahi zenidaken gauza hori?, galdegin zion aitak, bihotzak ematen zizkion taupada urduriak aurpegian ager ez zitezen ahalegiñak egiñaz.

-Bi urte da aita, esan zion Kepak, ikastolara noala. Ikastolan egiten ditudan eta egiñeratzen dizkidaten lanen berri ondo dakizu. Ezertxo ere gorde gabe guztia agertu baidizut. Bi urteren buruan ikasi dudan guztia titare txiki batean sartuko litzateke.

Ikastolako nere lagunak liburu asko eta haundiak darabiltzate eskutan. Haiei ikasbideak ematen agortzen du maisuak denbora guztia.

Nik, ordea, aurreneko egunean eman zidaten liburuko lehen-orriak ere ez ditut ikasi oraindik.

Ez naiz barriro ikastolara joango, aita!!!

Semearen estutasuna ikusirik, nahigabetua gelditu zen aita. Keparen begiak malkoz bustiak ikusten zituen aitak. Urduri zegoen Kepa. Nora begiratu ez zekien mutillak. Gorputz osoa dardaraz zeukan.

Aitagandik zetorkiokeen hitz-eraso gordiñaren bildur zen Kepa.

Aitak, bere aldetik, semearen larritasuna ikusiaz, nahigaberik zorrotzenez bihotza puskatuta, lasaitasunik gozoenez galdegin zion:

-Gogor hartzen al zaitu maisuak, Kepa?

-Ez, aita! erantzun zion erdi-negarrean Kepak. Maisuak ez nau gogor hartzen. Ez eta nere lagunek ere. Goxoago ezin nazakete hartu.

Oso lagun onak dira neretzat ikastolako mutil guztiak. Maisuak ere oso ongietorri xamurrez hartzen nau.

Ikas-lanetan neri laguntzeko denborarik ez dute ez batek eta ez besteek. Lotsaturik nago, aita! Hezurretarañoko lotsakizuna sartua daramat. Horrela jarraitzekotan, ez noa ni ikastolara!!!

Bildurgarri bihurtzen dira erabaki haundiak hartu behar den orduak. Erabaki haundi hoietako bat hartzeko ordua iritsi zitzaion Keparen aitari.

Liburuetako jakintza-bidea betirako giltzatua utzi behar ote zion semeari?!!!

Zer egin, semea leher-zorian zetorkion ordu haundi hartan?

Muga zabalak ditu bizitzak. Alderdi bakarretik ezin neur liteke gizakiaren jakintza-bidea.

Gizatasun jatorreko gizaki izatera iritsi zitekeela Kepa ere baserriko lanean jarraituz pentsatu zuen aitak.

Nork zekien, gaiñera, noizbaitekoren batean ikasketa zabalagoak egiteko egokierarik ez zuen izango Kepak?

Azkenean, aitaren hitzak, Keparen erabakia onartuz urratu zuten bien artean sortu zen isiltasun labur hura:

-Nik ez zaitut ikastolara joatera behartuko, Kepa! Ementxe, nere ondoan, nekazaritzari hatzaparrak erantsiaz aterako duzu zuk ere bizitzako etekiña. Biok izango gara baserri hontako nagusi eta morroi!!!

Gozoro ari zuen euria atarian aita-semeek alkarrekiko hitz-trukea sukaldean ari zuten bitartean.

Legorte beltzez zigortuak zeuden urte hartan soroak eta zelaiak.

Lurrak bere egarri-aldian euria besarkatzen zuen baño atsegiñ gozoagoz besarkatu zituen Kepak bere aitaren ahotik

entzun zituen hitz-erauntsi askatzaille haiek. Nekazari trebea eta bizkorra zen Keparen aita. Semeak ez zuen lotsagarri utziko. Jatorriz zetorkion Kepari ere nekazaritzarako joera eragillea.

Aitaren eta semearen arteko harremanek lagunik kuttunen arteko harremanak bezain lotuak ziren. Bere semearentzat aita izatea bezain atsegin baizitzaion lagun izatea Keparen aitari.

Urteak joan ziren; garai-aldiak igaro ziren. Giza-maillara gerturatzen zijoan Kepa. Eguntalako aurrerabidea eman zioten aita semeen artean Osibar baserriko lanbideari.

Baserri-lanari itsatsia egoteak ez du esan nahi basa piztiak bezela bizi zirenik.

Astean egun bat etxetik kanpora joaten zen Kepa bere aitarekin, baillarako herri-buruan egiten zen behei-azoka aitzaiki hartuz.

Igandero igandero xuxen aski joango ziren Kepa eta bere gurasoak herriko elizera. Elizera joatea ez zitzaien aitzaiki txarra ondorean herriko ostatuan hamaiketako ederra musean jokatzeke.

Aurpegiak gorri gorri eginda iritxiko zitzaizkizun etxera aita-semeak bazkaltzera arratsaldeko hiruran inguruan.

Gizarte-maillako harremanak aberatsak ziren Keparen bizitzan.

Keparen ikas-lagunen bizibidea liburuen alorrean joan zan. Lana sendo egiñaz baiña eskuak gorotzez zikindu beharrik gabe ogia irabazteko lantegiak eskuratu zituzten gaztarooan ikastola berera joan ziren lagun haiek.

Ustekabeko gauzak gertatzen zaikio bati gitxien uste duen zelaiean.

Udazkena zen. Osibarri zegokion mendirik urrutienekoan garo biltzen ari zen Kepa.

Egoa haizez goxaturik datozen udazkeneko egunetan lan asko urreratzen du nekazariak negura begira.

Etxe inguruak garoz betetzen dituen baserriak izango

du, zalantzarik gabe, udaberrian barrutietako belar erne bariari beharrezko zaion ongarria oparo eman ahal izateko gaia.

Urte-garai hontan ehiztari bihurtzen dira kaletarrak. Baserriar batzuk ere ez dira atzera gelditzen; ez horixe! Zoritxarrekoa, nolana ere, zeru urdiñera begira udazken atsegiña igarotzen duen nekazaria! Neguaren hotzak izango du, horrelakoaren ikulluan marru asko eta esne gutxi izatearen errua.

Zena zela, han agertu zitzaion Kepa langilleari garai batean ikastolan ezagutu zituen lagunetako bat. Martin zen mendian ehiztari zebillen Keparen aspaldiko laguna.

Denbura luzean alkar ikusi gabe daudenak egin ohi duten bezelako agur beroa egin zioten alkarri Kepak eta Martiñek.

Kontu asko zuten batak besteari esateko.

Txikitandik oso gutxitan alkar ikusi izan zuten gure bi lagunek. Bere ikasi beharrak behartuta, herritik urruti bizi izan zen Martin azkeneko zazpi urte haietan.

Arkitekto izatera iritsi zen Martin. Hemengo eta hango kontuak agertu zizkion Kepari.

Kepak begi zorrotzez begiratzen zion aurpegira; aurrez aurre begiratu ere. Harrigarria zeritzaion, bai, entzuten ari zen guztia. Txalogarria zen Keparentzat, Martiñek egindako lanak eta eskuratu zuen jakintza-mailla.

Hala ere Kepak bere nortasunean ustea ba zuen eta iñoren aurrean burua tente edukitzeko eskubidez betea josten zuen bere burua.

Langintza-bidetan mailla ezberdiñak izateak aberasten du gizartea. Guztien artean guztia egiten denean, guztia guztiena gertatzen da.

Lan-estutasun gehiegirik ez zuen Kepak, -udazkeneko lanik haundienak aurreratuak baizenezkatzen Osibatarrek-, baserrira bidean jarri ziren bi lagun haiek.

Kontuak esan eta kontuak entzun, Osibar baserriaren

atarira iritsi ziren Kepa eta Martin.

Etxeari begira gelditu zen Martiñ. Egitura harrigarritz eraikitako etxea zen Osibar etxea. Gerri ingururaino, esate baterako, harri biziz egiña; erdiz gora, berriz, buztin-lokatzez nahasturiko harri ezkutuz osatua, zurezko abeak tarteko eusgarri zituelarik.

-Etxe zaharra, Martin, gure etxea!, esan zion Kepak. Obeagorik izango duzue zuek kale-alde horretan!!!

-Zaharra dela diozu?

Zaharra denak, gaztaroa igaro duela esan nahi du. La-rehun urte izango da gutxienez eguzkiak lehenengoz etxe hau argitu zuenetik.

Liburuetan idatzi ez den gure herriko jakintza eta jakinduria asko dago buztiniezko orma zahar hauetan.

Guk egindakoak ez dakit nik zenbat iraungo duen, Kepa; honek zenbat iraun duen badakigu, eta zutik dirau oraindik.

-Hementxe jaioa naiz, bada, ni, Martiñ, esan zion Kepak irrifar gozozko atsegin zabala aurpegitik zeriola.

Ba dugu, bai, -jarraitu zuen esanez Kepak, -, egin berria den estalpe-egitura.

Baserri-lanari aitak eta biok eman diogun burrundara haundiak estalpe berriak eskatzen zituen.

Ba zegoen, etxe zaharraren gibel aldean, etxeoandre arroak bezela bere gandorra tente zeukan etxe berria. Azken-garaietako joera berrien arauera egindako estalpea zen.

Ganbara zabal eta argi hartan, ezkerreko zokoan zegoen mahai gaiñera ihes egin zion Martiñi bere begiratuak.

Zer zen hura? Zurez egindako irudi mordo bat zegoen.

Keparen esku-lanen etekiña zen guztia.

Ba zen han giza-aurpegi, abere-mutur, egazti eta nik ez dakit zenbat eratako gauzen irudirik!!!

Marrazki, margoki, zurgin-lan, harri-landu eta abarri buruz ikasketa sakonak egiñak zituen Martik arkitektoari, be-

giak zabal zabalik gelditu zitzaizkion, eta gertatzen zenaren berri ondoraiño jakin guraz, galdera xamur hau jaulki zitzaion mingaiñaren ertzetik:

-Zuk egiñak ez dira izango, noski, Kepa, lan guzti hauek?

-Nork egiñak izan daiteznen nahi zenuke bada?

Begira, Martiñ. Nere etxeko eskolan ikasitako lanbidea dut hori. Nere aita zait irakasle.

Trebetasun harrigarria dute nere aitaren eskuek langintza hoietarako.

Gure etxean ez da sartzen kanpoko arotz, zurgin edo uztargillerik. Zurgintegia dirudi gure etxeak.

Zaletasun bizia dut neuk ere ekintza-mota horretarako. Euri-egunetan eta neguan batipat, atsegiñez gaiñezka lan egin ohi dut, udazkenean menditik ekarritako haritz-egur, pago-egur edo gerezi-egur bedeinkatu hoieri bizidunen aurpegia eman nahiean.

Nik egiñak dituzu, bai, Martin, begien aurrean dituzun egitura guzti hoiek. Egin ditudanetatik hamarretatik bat ere ez dago hemen.

Hartu zuen Martiñek eskuan zurean landutako aurpegi haietako bat, hartu zuen gero beste bat eta halaxe igaro zuen orduerdi bat baño gehiago, Keparen esku-lanei harri ta zur egiñek begira.

Hauxe zen lana txukun eta egoki egitea!

Hamaika arkitekto eta injenieiru ba da baztarretan, bizi guztian haietako irudirik kaxkarrena bezelako bat ere egiteko gauza izango ez direnak -pentsatzen zuen berekiko Martiñek.

Txikitan ikastolan ezagutu zuen Kepa hura gogora zertorkion Martiñi.

Bat batetan, Keparen hitzak sartu ziren Martiñen belarrietara ezpata zorrotza bezela:

-Buruz eta buruan sortzen dudana eraman ohi dut zur

eta egurrera; marrazlari motelak ditut eskuak. Aldeurrez marraz ahal baneza gero egurrera eraman nahi nukeena...!!!

Iñork ez dit erakutsi, ordea, marrazki-alorrean eskuak erabiltzen. Nere aitak jatorriz du zurgintzarako ahalmena eta eguzki-printza baño zorrotzagoa baidu irudimena, iñungo marrazkiren beharrik ez du izaten, burua erne zaion hura, xuxen xuxen zurean txertatzeko.

Ni ez naiz aitaren neurrietara iristen.

Horretaraiño iritsi zirenez gero, beharrezko zirudien ikastolako garai bateko kontuak aipatzea. Bi Iagunen buruetan bizi bizi erne zen txikitako gertakizunen ezpata.

Martiñek, ordea, hitz beste egiñaz, herrian gertatzen ari zirenetara jo zuen.

-Udaletxeko billeretan ez dut ikusi egun hauetan zuenetakorik, Kepa, esan zion ahoa betean Martiñek?

-Udaletxeko billeretara ez garela agertu? eraso zion Kepak harriturik bezela. Zer esan nahi duzu?

-Estu eta larri gara oraintxe, Kepa!, esan zion Martiñek. Ez al duzu ezer jakin?

-Jakin, jakin, gauza berririk ez dugu jakin guk. Azkeneako hamabostaldi honetan ez gara herrira agertu, eta gertatzen denaren ezjakiñean gaude.

-Urik gabe gelditzera dator gure herria, Kepa! Udako legorte luzearen ondorio bezela, izugarrizko ur-eskasia sortu zaigu. herrirako daukagun ur-zuloa miatzen hasi gara eta, herrirako ura sortzen duen iturria agortzera doala ikusi dugu.

Oso denbora gutxirako ura izango ote dugun kezka lepezurreraiño hartuak gauzka.

-Harrigarria gertatzen zait, Martiñ, esaten ari zatzaizkidana. Larrunbe-errekak ez al du gurea bezelako hamar herrirentzat hainbat ur? Erreka horretako ura herrikoari erastea ez al da aski?

-Lotan egon garela uste al duzu, Kepa?! Larrunbe-errekako urak ondo aztertuak dauzkagu, baiña ur hori gure

etxeetarako egokia. Ur txarra da Larrunbe-errekakoa.

-Egundaiño ez dut entzun errekako ura txarra denik, erantzun zion Kepak.

Zer egiteko asmotan zabilzate, orduan? Egarriz itoko ote zarete guztiok?

-Egarriz itoko ote zarete diozu? Egarriz itoko gara guztiok!!! Zu ere bai!!!

-Nik ez dut egarriz itozeko beldurrik, erantzun zion Kepak, algara zabala haizearen bizkarrera isuriz.

Oraindaiñoan ez digu egarri haundirik ase herrira datorren urak. Gure aldetik jo behar izan dugu beti ur-kontuari dagokionez.

Guretzat eta gure ondorengoentzat behar hainbat ur emango duen iturria aurkitu genuen. Horregatik diozute egarriz itozeko beldurrik ez dudala.

-Iturria aurkitu dezutela diozu?, galdegin zion zorrotz Martiñek. Agorrak zirela uste genuen gure herriko lurretan ura aurkitu duzuela esanez zatozkit neri?

-Bai, Martiñ! Ura aurkitu dugu!!!

Entzutekoa da esatera noakizuna eta oso pozik agertuko dizute gertatutakoaren berri.

Orain hamar urte inguru, udaldia igarotzera etorri zitzaigun gurera lehengusu bat.

Egun batez, haren lagun bat etorri zen bere lagunarekin egun-pasa egitera. Interesgarri gertatu zitzaizkidan harek esandako gauza asko.

Zuk ikusi izan bazenu gizon hura burni-ziri bat eskutan hartu eta ura nun zegoen asmatzen!!!

Burni-ziri hura, ura dagoen inguruan jarriaz gero, hala-koxe dardarizoa sortzen omen zitzaion eskutan. Lurrazpiko urak ere dardara-eragin berdiña zabaltzen omen du.

Gizon hura joan eta urrengo egunean etxeko harraskan probak egiten aritu nintzen eta, nere buruarekin zoraturik eta lilluraturik gelditu nintzen.

Burni-ziria uraren gaiñera inguratzen nuenerako, hala-koxe dardara eta hazkura sortzen zitzaidan esku-besoetan.

Mendiruntz joan nintzen eta, hemen eta han, burni-ziria eskuetan nuelarik, miaketan hasi nintzen.

Hala behar bazuen edo ezbazuen, basoko zelaigune batean, eskuak dardaraz hasi zitzaizkidan.

Etxeko harraskako uraren inguruan burni-ziria jartzean gertatzen zitzaidan bezelakoxe dardarak kilimatzen zizkidan eskuak.

Etxera etorri eta aitari agertu nion gertatu zitzaidan haren berria.

Siniskaitz jarri zitzaidan lehenengoz aita; hala ere, nik esandakoak sortu zion harraren eragiña ezin gorde ahal izan zuen, eta, lur-zulatzaille bati deituaz, lurra zulatzeari ekin genion.

Maxinatzar haren burni-besoa berrogei metro behera sartu zenean, ur-putzu haundi bat agertu zitzaigun.

Egia zen, beraz, nere eskuek ahalmen bereizi baten jabe zirela.

Handik honerakoa dugu, bada, etxean dugun urezko ugaritasuna.

Ordura arte Osibarri ura eskeintzen zion iturri zaharra ahazturik dugu aspaldi honetan.

Harri ta zur egiñik entzun zuen Martiñek, Kepak esandako guztia. Ametsetan aritu izan balitz bezela, bere onetara etorriaz bezela, honela mintzatu zitzaion Kepari:

-Nere bizitza osoan egin dudan ehizarik ederrena egin dudala uste dut, Kepa!

Ba noa etxera eta entzun dudan guztiaren berri alkate jaunari emango diot. Eta besterik gabe, nere kontura, bigar arratsaldeko zazpiretan herri osoarekin batzar nagusi bat egi-tea erabakitzen dut.

Zu izango zara batzar horretan zuzendari, Kepa.

Zure eskutik zintzilik dagoela ikusten dut gure herriko

ur-kontuen etorkizun guztia.

Ez zaitez agertu gabe gelditu, Kepa; belauniko jarrita bezelaxe eskatzen dizut. Besterik ezpada, zuen iturri hori erosiko dizuegu.

Esan eta egin. Erbia baño biziago jaitsi zen herrira Martin. Halakoxe presak zituen, ehizerako zerabilen su-izkillua Osibarko ganbaran ahazturik joan zen. Ego-aizearen besoetan suak piñudia hartzen duan baño azkarrago hartu zuen herri osoak. Martiñek ekarri zuen albistearen berri pozgarria.

Urrengo egunean, jarritako ordurako oraindik iñor bildu den xuxenean bildu zen herri oso udaletxera.

Zer ikusiko eta zer entzungo zai zeuden guztiak.

Hantxe agertu ziren, zazpirak jotzearekin batera, Kepa eta bere aita herriko etxean.

Isiltasun zorrotz batek ebaki zuen gela zabal hartako marmar ugaria.

Txukun jantzita zetozen aita-seeek. Osibarko biztanleen bereizitasunik nabarmenetako bat zen txukuntasuna eta garbitasuna.

Alkate jaunaren keiñuari erantzun emanaz, mahai-burura igo ziren aita eta Kepa.

Ezpatak ziruditen batzarkideen begi guztiak. Orratz mutur zorroztunak bezela erori ziren han zeuden guztien begiak Keparen aurpegi gaiñera.

Isiltasuna nagusi...

Alkate jauna hizketan hastera zijoanarekin batera, jendearteko gizon zahar batek bere eskua altxa zuen, hizketarako eskubidea eta baimena eskatuz bezela.

Buruarekin baiezko keiñua egiñaz eta eskuz keiñu egiñaz hitzegiteko baimena eman zion alkate jaunak gizon hari.

Herriko maisu izan zena zen eskua altxa zuena. Jende guztia hari begira gelditu zen zer esango ote zukeen entzuteko irrikaz.

-Arratsaldeon guztioi eta ongietorria gure artera, Kepa!,

hasi zen esanaz maisu zaharra.

Egun haundi gerta liteke gaurko hau guretzat. Nik pentsatzen duk alkate jauria zer esateko asmotan dabilken. Iñork ezer esan aurretik, ordea, bi gauzatxo esan beharrean arkitzen naiz ni. Barruak ez dit isilik egoten uzten eta.

Estuasunak lepotik hartzen gaituenean hasten gara gu orroaka. Gauzak ondo doazkigunean ez dugu iñoren beharrik izaten.

Kepa haubere garaiean nere eskolara etorri zenean berorekin egin nuen oker haundia aitortu nahi nuke guztion aurrean.

Liburuetan idatzirik dauden bi kontu agertzea nahikoa dela pentsatu izan dugu, hezitzaileen izenik ere merezi ez dugunok.

Haur bat hezitzea zerbait haundiagoa da. Ume batek barruan dakartzan jatorri-ahalmenak ezagutzea du hezitzaileak bere lehendabiziko eginkizuna.

Kepari dagokionez, erdiz erdi hutsegin nuela aitortzen dut. Beste guztiekin ere gauza berdiña egin nuen. Liburuekin bakarrik lan egin nuen eta giza-ahalmenei zegokien begirunerik ez nuen erabili Kepa eta horren lagunak eskolara etorri zitzaizkidan garai hartan.

Orain denok beragandiko laguntza eskatzera bildu gara. Besterik ezin genezake egin gaiñera, gure buruak ito-zorian arkitzen ditugun bezela arkitzen ditugularik.

Eskatzea bakarrik ez dela aski derizkiot. Eskeiñi eta eman ere, zerbait eman beharra dago jasotzen dugun mese-dearen truke.

Honara nentorrenean, Martiñekin topo egin dut kale nagusian. Martiñek bi hitzetan agertu didanez, eskulanetarako ahalmen harrigarria du Kepak.

Beranduegirik ez da beñere. Zergatik ez zaio lehenen lehenengoz, ikastetxe nagusi batera joan ahal izateko bidea esekintzen, hango ordain-beharrak gure gaiñ hartuz?

Ume txikiak gozokia jaten duen baño atsegiñ haundia-

goz irentsi zituzten guztien maixu zaharren itz jakintsuak.

Maisuak egindako galdera adarretatik hartuz, honela galdegin zion alkate jaunak maisuari":

-Zertan nabarmenduko litzateke guk Kepari eskeiñi beharko genioken laguntza hori?

-Esku-lanetarako ikasketak egiteko ikastetxe batera bidaltzeak, kastu haundiak ditu berekin. Bost urteko ikastaroak daude gai horri dagokionez. Milloi-erdi bat pezeta urteko ordain-neurria. Herriko etxeak bere gaiñ har ote lezake erantzunkizun hau?

Maisuaren eskabidea mahai-gaiñean jarriz, Kepari hizketan hasi zitzaion alkate jauna:

-Gure asmoen berri garbi dago Kepa. Herria estuasun gorritan arkitzen da eta baduzula jakin dugun ahalmen harrigarri horren eskean gatozkizu.

Gure herriko lurretan urik bai ote dagoen begiratu nahi al zenuke? edota, zuen iturriak behar hainbat ur balekar, herriari salduko al zeniateke ur hori?

Maisu zaharrak esandako hitz guztiak ontzat emanak gelditzen dira, baiña zure erantzunen oihua entzun nahi genuke.

Alkate jauna eseri zen eta, gorputza darda bizian zuela zutik jarri zen Kepa. Eskuak nun jarri ez zekien. Erdi-urraturik sortu zitzaizkion hitz gozoz eman zuen bere erantzuna.

-Bihotza ukitu didate hemen entzun ditudanak. Entzuteko nengoen oraindik, nere garai bateko maisuaren ahotik entzun dudan bezelako aitortza jator bat. Goi mailleta eseritzen direnen artean ez da beren erruak aitortzeko ohiturarik. Horrexegatik gertatu zait harrigarria maisuaren aitortza.

Egia esan, nik ez dakit noraiño iristeko ahalmenak izango nituen nik, nere ikas-indarren neurritan lagundu izan balitzait. Pentsatu ere ez dut pentsatu nahi, zenbat eta zenbat buru argiko neska eta mutil baztarreko zokoan erdoituta geldituak izango diren, behar zen garaiean haien jatorri-

ahalmenak ezagutu eta lantzeko iñor izan ez zelako.

Ni ez nator gaur iñoren esker onaren billa. Dakidana eta daukadana eskeintzera baizik.

Hor esan diren kontuak gogoan jaso ditut. Gai horri buruz hauxe besterik ez dizuet esango: txikitan nuen ikas-gura eta irrika, hamar halakoz haundiagoa dudala gaurregun.

Dena dela, gaurko batzar honetako mamia zertara zi-joan ongo bainekien, gozian goiz, zuetako gehienok oraindik lotan zeundeten orduan, herriko mendi-egal, zelai eta ibarrak miatuak ditut.

Herri honetako lurrazpia urez oso aberatsa dela arkitu dut. Nere iritzi apalak iruzur egiten ezbadit, hiru tokitan dago herri hau eta horrelako beste bost herri asetzeko hainbat ur.

Kepa hitzegiten ari zen bitartean, gero eta arnasa estua-
goa eta isilagoa zuen jendeak. Poliki poliki eserita zeuden
aulkietatik altxatzen zijoazen eta Kepak bere esanak bukatu-
xe zitueneke, erdi-zutik zeuden denak.

Besterik eziñean, herriko lurretan ura bazegoela entzun zutenean, txalo-eraso ikaragarri batera lehertu ziren entzu-
leen esku guztiak.

Pozez gaiñezka zeuden. Malkoak ere ageri ziren batzu-
ren begietan.

Noizbaiteko batean txalo-soiñua isildu zenean, alkate
jaunaren hitza nagusitu zen:

-Esanak esan eta entzunak entzun- giza-jakinduriaren
alorra, jakintsu diren askoren iritzi-hesia baño askoz zabala-
goa dela nabarmen gelditu da gaurko honetan. Gure buruak
errudun aitortu beharrean arkitzen bagara ere, mutil gazte
honek gure bihotzetan txertatu duen poza nolabait ere ospa-
tu beharra daukagula uste dut.

Erabaki hauxe hartzen dut, beraz, nere kontura eta
zuen baimenez: Kepak hala nahi badu, ikastetxe nagusi bate-
tarako ateak irekiak dituela eta bertako diru-ordaintzea he-
rriko etxearen gain gelditzen dela.

Eta oraintxe bertan, herriko ostatuan, Kepa eta bere

aita mahi-buru direlarik, afari eder bat egingo dugula.

Alkate jaunaren hitzak onartuz, txalo bero batez erantzun zuten entzule guztiak.

Eguzkia mendi-gibelera sartua zen ordurako. Baiña herriko kaleetan ez zen eguzki beharrik. Herritar bakoitzak bina eguzki argitsu zeramatzan aurpegian. Giza-iritzien erabakitan baztertuak eta zokoratuak gelditzen diren askoren jatorri-jakinduria txalotua gelditu zen.

Zoritxarrez, herri txiki batean agerketa mamitsuek ez dute ondorio sakonik ekartzen, gizartean egiten diren hainbeste astakeria zuzentzeko eta bide jatorretan zehar ibiltzen ikasteko...

Martin Iturbe

UDAZKENEKO LOREA

Iñor ez gara harritzen ume txiki bat bihurrikeri bat egiten ikusita.

Guztiok egin izan ditugu gaiztakeriak txikitan. Gaiztakeriak bakarrik egitea litzateke txarra.

Josetxok etxean egiten zituen gaiztakeriak ugariak ziren. Bere lagunekin oso ona zela zioten denak; amak ezin zezakeen horrelakorik esan.

Oso txikia zela hasi zen eskolarako bideak baztarrera uzten eta ikastera joan ordez «piper» asko egiten zuen.

Halakoxe laguna zitzaion Iturriozko Andoni. Lau urte besterik ez zuen Andonik bere ama hil zitzaionean. Goxotasunik gabeko haurtzaroa izan zen Andoniren haurtzaroa.

Andoni zen, bada, Josetxoren laguna.

Adiñ neketsua da berez hamaláu urtetako adiña. Berez neketsua denari gaiztakeritzako ohitura erasten badiozu, ikusiko duzu nora joan zindezken.

Bizkorra bezain geldigogorra zen Andoni. Bere antz antzeko bihurtu zuen, gaiñera, Josetxo.

Udaberria zen. Eguzki epela zero urdiñean keiñuka.

Andoniren buru ameslari hartan harrigarrizko gauzak egiteko asmoak erne ziren.

Herritik ihes joan behar zutela sartu zion buruan Josetxori. Pozik onartu zituen Josetxok Andoniren asmoak.

Beti bezelaxe amarekin bazkaldu zuen Joxetxok. Aita itsasoan zen.

Bazkalondoan, aulkitik altxa eta, besterik gabe, lotsagabekeria bizian mintzatzen hasi zitzaion amari:

-Nazkaturik nago ama etxe honetan bizitzeaz. Lana egin eta dirua irabazi beste ametsik ez duzue zuk eta nere aitak.

Zertarako guzti hori? Nazkatuta bizitzeko bestetarako ez!!!

Ba noa ni etxe honetatik!!! Ez naiz gehiago etorriko!!!

Eta ateari ostikada gogor bat erantziz atarira joan zen. Atarira irteteaz batera oihu haunditan honela esan zion amari:

-Esaiozu gure zaharrari nere zai ez egoteko; ez naizela gehiago etxera bilduko...!!!

Zai zeukan kalean Andoni.

Irrifar zoroa ezpaitatik zintzilik zutela han joan ziren bi lagunek herritik kanpora.

Osaba-izeba batzuk zituen Andonik urrutiko herri batean. Hiru egunen buruan, Jainkoak bakarrik dakien bezela ibili ondorean, Andoniren osaba-izeben etxera iritsi ziren.

Egin zioten ongietorria ikusiz, pozez gaiñezka gelditu ziren bi mutikoek.

Eguzkiaren argia ez zen, ordea, alferrik agertzen egunoro bizi-leku berri bezela hartu zuten etxe haren zelaietara.

Egunoro jan behar zuten ogia bakoitzak bere izerdiz irabazteko ohitura zen Andoniren osabaren etxean.

Lana egin beharrak miñ haundia eman zien bai Andoniri bai eta Josetxori ere.

Untxiak, antxumeak eta behiak zaintzea izango zen aurreruntzean bi morroitxo haien egitekoa.

Goizean goiz jaiki eta illunabarrean eguzkia lotaratu ondorean biltzen ziren etxera.

Ez zeuden hartaraxe oituak!!! Besterik eziñean, ordea, lanari eskuak erantsi beharrean arkitu ziren Andoni eta Josetxo.

Igandea jai izaten zen etxe hartan, baiña, eskura ematen

zieten diru laburrarekin kutizi gehiegitarako ez zitzaien iristen.

-Gogorra da bizimodu hau, esan zion egun batean Josetxok bere lagunari. Etxera joateko irrika sortu zait.

-Zoratu egin al zara edo burua galdu duzu, Josetxo!, esan zion Andonik.

Orain etxera bihurtzea ez al litzaizuke lotsagarri!

Hortzak estutu eta lanean jarraitzea besterik ez dagokigu orain!!!

Urrutira joandakoan bururatzen zaizkio bati etxeko goxotasunak. Josetxoren gurasoak ere egunetik egunero obeagotzen joan ziren seme iheslari haren buruan. Hiru urte igaro zituzten lana egin eta lana egin, billatu nahi izan zuten askatasunak kate gogor batek bezela lepotik hartuak zeuzkalarik.

Illunabar batetan, eguneko lanak bukatu eta afaldu zuten ondorean, irratia entzuten zeuden gure bi langilleak.

Atsegin zitzaien bieri irratiko kantu eta abesti zaratatsu haiek entzuten gotea.

Negua zen eta atariko giroa oso gordiña zen. Euri jasara euri jasaren atzetik zetorren odeietatik behera.

Goxo zegoen etxean.

Beti bezelaxe irratiko doiñu biziak entzuten zeuden. Beste guztiak oheratuak ziren ordurako.

Irratiak eguneko berriak eman zituenean, isiltasun labur baten ondorean, hauxe esan zuen: «Estutasun egoeratako deia: Josetxo Ibarzabal gaztetxoari dei egiten zaio, ahalik eta lehenen bere gurasoekin harremanean jar dadila».

Hitz hoiek entzun zituenean, papera baño zuriago jarri zitzaion aurpegia. Gorputz osoa dardaraz zeukan.

Andonik ere entzun zituen, ongi entzun ere, Josetxoren belarrietara ezpata bezela sartu ziren hitz lodi haiek.

Alkarri begira jarri eta, hala galdegin zion Josetxok Andoniri:

-Entzun al duzu esan duena?

-Entzun dut, bai, Josetxo!

-Zer gertatu ote da nere etxean? Itsasoan galduko zen aita...!!! Edota...ama hil ote da?...!!!

Zer egin ez zekiela zegoen Josetxo. Ez zen harritzekoa.

Jaiki zen berehalaxe aulkitik eta aruntz onuntz hasi zen eskuak burura zituela.

Bere lagunak, estutasun hartan ikusten behintzat! Bigar goizean biok joango gara herrira.

-Oraintxe bertan joan nahi nuke etxera!, erantzun zion Josetxok begiak malko-putzu bihurturik.

-Berandu da, esan zion Andonik. Orain etxerabidean jarriko baziña, bidean galduko ziñake..Biar joango gara!

Ez zen laburra izan gau hura Josetxorentzat. Loari ezin eman ahal izan zion bere burua. Negar-saio batzuk egiten zituen tarteka eta etxean zer gertatu ote zitekeen pentsatzen igaro zuen gau osoa.

Urrengo egunean, goizeko hamarretako etxean zen Josetxo. Etxera inguratzen zijoan neurrian, beldurra nagusitzen zijoakion. Zer ikusiko ote zuen?

Etxeko atea zabalik zegoen. Etxean iñor ez.

Sukaldeko mahai-gaiñean amak idatzitako orritxo bat arkitu zuen.

-Josetxo! -zion orritxoak-, idazki hau eskura balitzaizu, jakin ezazu gaiso-etxean gaudela aita eta ni.

Batbateko ezbeharrak jota erori da aita. Buruko zaiñen bat lehertua izan behar du.

Osagillearen aginduz, gaiso-etxera joan beharrean gertatu gara.

Eta nere kontura bi gauzatxo esan behar dizkizut. Beharbada idazki hau ikusi ere egingo. Nor daki etxera etorriko zaren ala ez?!!!

Baiña begira:

Zuri ez zitzaizun atsegiñ etxeko bizikera eta gurasoengandiko maitasun xamurra. Ezjakiñak ondorio beltzak sortu

ohi ditu.

Zu txikia ziñenean, gaisotasun makur baten hatzaparretara erori ziñen. Osagilleak agindutako sendagaiak erosteko hainbat diru ez zen gure etxean. Luzerako baizen sendabidea.

Zure aitak, orduan, bere lagun bati dirua eskatu zion gero ordaintzekotan. Bi edo hirutan kendu behar izan zion zuretzat sendagaiak erosteko dirua.

Ordutik aurrera, gau eta egun, jai ta aste, lanaren morroi bihurtu zen zure aita. Hainbeste maite zinduen!!!

Giza-gorputza ez da burnizkoa eta zure aitarena ere ez. Hainbeste lan egin beharrez makurtzen zijoan zure aitaren gorputza.

Etiket ihes egin zenuen bezela ihes egitean, leherturik gelditu zen zure aita; nahigabez leherturik.

Eta horra nun agertu den azkenean jarioa: buruko zaiñak lehertu zaizkio...!!!

Beste zerbaite ere esango dizut, etxeko «gure zaharra» nolakoa den ongi jakin dezazun.

Zuk etiket ihes egin zenuenez geroztik, etxeko atea ez da gaurdaino giltzez itsi. Noiz nahi etxean ikusiko zinduen ustea zuen aitak eta atea beti irekita edukitzeko agindu zorrotza eman zidan aitak. Pozik bete dut gaur arte haren agindua.

Ikusi egin behar zenuen goizero goizero, isil isilik, zure gelako atea nola irekitzen zuen, gauez etorrita ohean ikusiko oten zinduen.

Zure oheko izarak aldatzeko agindu zidan eta izara garbiz jantzita egon da zure ohea joan den hiru urtean.

Zetarako?...!!!

Hemen idatziak irakurri badituzu, badakizu non eta zergatik gauden.

Zatoz!!!... Nahi baduzu!!!!

Zure amak

Lurjoa gelditu zen Josetxo bere amaren idazkia irakurri

ondorean. Zutik egon eziñ eta eseri egín zen. Negar-saio luzea egin ondoren, lagun bati deitu zion eta han joan zen gaiso-etxera bere aita ikustera.

Zein gelatan zegoen esan baizioten, zuzen zuzen hara zijoan.

Gela aurrean, zutik, bere ama ikusi zuen. Urrutira ikusi ere.

Poliki poliki, oiñak airean bazitukeen bezela, inguratu zen amarengana. Ama begira zegokion. Bere ondora iristean, amaren begietatik zintzilik zeuden bi malko-tantoetan, ispillu garbi batean bezelaxe ikusi zuen Josetxok bere aurpegia.

-Aita?, galdegin zion Josetxok.

-Gela honetan dago aita. Azkenekotan dago. Gelara sartzea debekatu egin du osagilleak.

-Nere aita da!, esan zion Josetxok.

-Bai, hala da! Eta nere senarra gaiñera!!! •

Neri ere debekatu egin didate nere senarraren alboan egotea.

Burua makurtu zuen Josetxok eta malko-iturri luzea ez-tarriz barrura irentsiatz, han sartu zen aita hilzorian zegoen gelara.

Zurrunka bat besterik ez zen haren arnasa. Ahoa erdi irekian zeukan...

Aitari begira jarri zen Josetxo eta, amak idatzia gogora ekarriz, aingeru baten aurpegia zeritzaion heriotzarekin burrukan zebillen gizon haren aurpegia.

Poliki poliki bere aurpegian aitarenarengana inguratuz, muxu bigun bat itsatsi'zuen, itsasoko haize zakarrek hainbeste urteren buruan zigortu zuten larru-azal zimurtu hartan.

Muxu ematearekin batera !AITA! esan zuen Josetxok.

Ba zegoen alderik orain esandako hitz honen eta, etxetik ihes egiterakoan «gure zaharra» esan zueneko haren artean.!

Semearen hitz labur haren aitaren belarriak urratu zituenean, bi begiak ireki zituen aitak, eta begirada motel batez begiak Josetxorengana zuzenduz IJOSETXO! esan zion. Eta berriro begiak itxi egin zituen.

Bere oiñen gaiñean ezin egon zen Josetxo. Barrunbe guztia leherturik zeukan, eta laisterkada bizian gelatik irtenaz, buruarekin eta ukabillekin orma zuria jotzen hasi zen.

Erauntsi agor eziña bezela zetorkion negar ugariaren malko-artean bere buruari ziñ hau egin zion:

-«Egunen batean nere aita sendatuko balitz, neu izango nintzaioke itsumutil eta laguntzaille».

Joan ziren egunak, pasa ziren hillabeteak eta aitaren gorputz makaldua sendatzen eta sendotzen zijoan.

Hamar hillabete luze behar izan zituen ohetik atera ahal izateko. Baiña azkenik ez duen gaitzik ezbaida, heriotzak berekin eramaten ez badu bat behintzat, Josetxoren aita bizirik itzuli zen etxera.

Bere indar soillez ezin balia zitekeen; gurditxo batean ibili beharko zuen, laguntzailerik balitz behitzak.

Han zegoen bere emaztea kutizirik goxoenak egiteko eta han zegoen, -Nola ez?! -Josetxo, aitaren laguntzaille izateko.

Lantoki batera sartu zen Josetxo eta arratsaldeoro han aterako zitzaizun semea bere aita gurditxoan eramanez.

Zenbat kontu ez zituzten esan aita-semeek, aita bere oiñez ibiltzeko pixka bat indartu zen bitartean.

Aitak ez zuen entzun ere nahi izaten garai batean gertatutakorik ezer.

Josetxok, bere aldetik, ordea, ongi aitortu zion aitari egin zituen gaiztakeri guztien sorta neurgaitza.

-Zergatik ez ote nintzen jabetu garaiz zuen niganako maitasunez?, esaten zion Josetxok aitari.

-Gaztearen burua itsaso arroa bezela gerta ohi da, Josetxo, erantzun ohi zion aitak.

Zoritxarrez, garestiegi ordaindu behar izaten dira arinkeriaz egiten diren burugabekeriak. Hala ere, ekaitza igarotzean eguzki goxoaren besarkada izan ohi dugu zauri guztien sendagai...

Isil isilik entzuten zituen Josetxok aitak esaten zizkionak.

Eta bere buruarekin solas egiñaz honetara biltzen zen beti Josetxoren pentsagaia:

«Neketsu zaio, bai, ume bati, gurasoak gordean daraman bihotz haundi horretako maitasun-itsasoa ezagutzea.

Eta askotan, maitasun horren berri jakitera iritsi baño lehen isten ditu heriotzaren giltzak, gurasoen arnasbideetako sarraillak».

Martin Iturbe

BURUGABEKERIA

Goizean ernetako lore biguna bezalakoxea izan ohi da bizitzako lorategira ernetzen den gizaki berria.

Maitasun goxozko giroz babesten den haur txikiak, pes-ta-egun bihurtzen ditu adiñekoentzat illunak diren egunak ere.

On bezela kalte ere egin liezioke haur txiki bati. Buztña bezain biguna baida, ez du iñorengan gaiztakeriarik ikusten.

Zumarregi herri txikian aspaldi batean gertatu zela diotena, haur txiki guztiei kontatzen diete irakasleek ikastolara lehendabizikoz doazenean.

Oso gizon atsegiña omen zen Bibiano, Zumarregiko gizon txikia. Artista zen bera. Herriko edozein etxetan zerbaiten okerra zenean, Bibianori deitzen omen zioten.

Argi-indarra joaten bazen, Bibianok zuzenduko zuen okerra. Urbideak urratzen baziren, hantxe agertuko zen Bibiano zuloak konpontzera.

Oso lagun ona zuten herriko ume guztiek Bibiano. Kontu kontalari aparta zen eta bere buruz sortzen zituen ipuiak umeeri kontatzen aritzen zen eskola-orduen ondorean.

Zumarregiko umeek, beste edozein herritako umeak bezelakoxeak ziren. Bihurriak eta geldigogorak batzutan, txintxoak eta goxoak bestetan.

Etxean gauza txiki bat ezkututzen denean iñor ez da harritzen, Baratzetako udareak, sagarrak edo gereziak ezkututzen badira, guztiak dakite herriko mutikoak eraman dituzte-

la.

Zumarregin, ordea, gauza asko ezkututzen ziren. Gaur burnipuska bat ezkutatuko zen, bigar denda bateko kutxatik diru mordoska bat ezkutatuko zen.

Zerbait galtzen zaigunean geure buruaren errua dela pentsatu ohi dugu guztiok. Zumarregitarrak ere horixe bera pentsatzen zuten.

Azkenerrako, ordea, batekin eta bestearekin hizketan ja' rri eta guztiak gauza berdiña esaten zuten. Etxetik gauza asko ezkututzen zitzaie, alegia.

Guraso-talde batek alkar hartu zuten eta gertatzen zen hura zer ote zen argitu nahirik, halako eta horrelako txokotan zelatan jartzea erabaki zuten.

Egun bat joan, bestea joan, gauza harrigarrik ez zen gertatzen. Behin batetan, bost milla duro ebatsi zituzten etxe batetik. Etxekoandrea zihur zegoen diru hura etxean zuela. Bazter guztiak miatu ondorean, dirurik ez zuen arkitu baiña lurrean, txoko batean, oraindik muturra zorroztu gabeko harkatz berri bat arkitu zuen etxeakoandreak.

Suak hartuta bezela herriko etxera joan zan emakume hura, eta eskuan zeraman harkatz harek gauza bat salatzen zuela iruditu zitzaion: dirua ebastera joan zena eskolako umeetakoren bat izan beharzuela.

Herri osoa gertatu zenaren jakiñaren gaiñean zegoen.

Eskolako umeek ere berehalaxe jakin zuten gurasoen artean zebillen suaren berri.

Urrengo egunean, bi gúraso eta hertzaiña joan ziren eskolara.

Maisuarekin hitzegin ondorean, harkatza eskuan hartu eta norena zen galdegin zien gelako ume guztiei.

Mutuak izan baziren ere une hartan baiño isiltasun haundiagorik ez zuketean gordeko mutiko haiek.'

Ikusten zenez, iñorena ez zen harkatza.

Zerbaiten argibidea atera nahirik, beren liburu-zorroetan

zeuzkaten eskola-tresna atera zitzatela agindu zien hertzaiñak. Isil isillean, mutiko guztiak harkatz berri bana atera zuten. Harrigarria zen huraxe! Guztiek batera, muturrik zorroztu gabeko harkatzaren jabe agertu ziren.

Eskuartean zekarten gora-behera ez zen nolanahi bazterrerera uztekoa eta bide berri bat hartu zuten gurasoek eta hertzaiñak lapurra han ote zegoen hala ez ote zegoen jakiteko.

Eskolako isiltasuna hillerriko isiltasuna baño haundia-goia zen. Mutikoak dardaraz zeuden.

Alboko gela batera deitu zieten mutiko guztieri baiña banaka banaka.

Bi itaun edo galdera egiten zitzaizkion bakoitzari:

-Zuk ebatsi al duzu halako etxetatik dirua?

-Zuk bai al dakizu zeinek ebatsi duen?

Guztiak eta bakoitzak erantzun bera eman zuten. Iñor ez zen ebasle eta iñor ez zekien ezer.

Orduan guraso haietako baten azkartasunak, asmabide berri bat sortu zuen.

Ordurako maisua aserretzen hasia zegoen eta gehiegi-keria zeritzaion umeak hainbesteko erasopean hartzea.

Hala ere, gurasoen eskabideari aurrerabidea emanaz eta eskuartean zerabilten gora-behera hain garrantzi haundikoa zela ikusirik, mutikoak berriro banaka banaka alboko gelara joan zitezen baimena eman zuen.

Aipatu gurasoaren bizkortasuna hontan agertu zen:

Aurrena agertu ziren bost mutikoei lehen egindako bi galdera besterik ez zien egin.

Seigarrengoi, ordea, hala mintzatu zitzaion:

-Ez nuen uste, Iker, zu horretaraino iritsi zindezkeenik. Nola ausartu zara besteren etxera sartu eta horrenbeste diru ebastera?

Makilla baño zutiago eta papera baño zuriago gelditu zen Iker.

-Nik ez dut dirurik ebatsi!!! esan zuen zorrotz Ikerrek.

-Zuk ebatsi duzula esan dute, bada, aurretik etorri diren zure lau lagunek!, esan zion gurasoak.

Orduan, esku bat boteaz bezela, hertzaiñak gurasoari esan zion:

-Barka ezazu, gizon, baiña nere usten, Ikerren lagun hoiek ez dute esan honek ebatsi dueneik; Ikerrek ba dakiela zeïnek ebatsi duen esan dute.

Ikerrek bere burua galdua ikusi zúen. bera ez zen lapurra, baiña dirua zeïnen esku zegoen ba zekien.

Negarrari eman zion eta hau esan zuen Ikerrek:

-Jakin, nik badakit zeïnek ebatsi duen dirua. Eskolako nere lagun guztiek ere badakite. Zergatik ni bakarrik gala illunera eraman?

Gurasoek eta hertzaiñak alkarri begiratu eta arnasa zabalez bete zituzten biriak.

Orduan, patxara ederrean, gurasoa mintzatu zitzaion Ikerri:

-Iker! Zu ez zara gela illunera joango.

Dirua zeïnek ebatsi duen esatea aski zaizu.

-Nik ez dut nere lagunetako iñor salatu nahi. Guztiak dakite eta guztiak esan dezatela.

-Ondo da, Iker, esan zion hertzaiñak; zure lagunen aurrean salatari bezela ez zaitugu nabarmenduko.

Guztien aurrean itxurak egitearren, mutiko guztiei dei egin zieten eta guztiei Ikerri egindako galdera berdiñak egin zizkieten. Iñor ez zen ebasle bezela agertu, baiña Ikerren aitormena guztien ahoko aitormen bihurtu zen.

Ikas-gelara joan ziren epai-mahaiekoak eta orritxo batean idatz zezatela lapurraren izena agindu zieten.

Guztiak alkar hartu balute bezela, hitz berdiñez erantzun zuten:

«BIBIANOK DU DIRUA»!!!

Ekaitz ondoko eguzkiak dakarren alaitasunezko argia-

ren antzeko poza sortu bazuen epaille haien buruetan eskolako ume haien aitormenak, herrian hain ezaguna eta jatorra zen Bibiano horrelako joku illunean sartua zegoela jakiteak oiñaztar beldurgarriak sortzen duen bezelakoxe dardara ekarri zuen gertakizun lotsagarri batek kezka beteak zeuzkan gizon haiengan.

Gerora mutiko haiek agertuko zuten, Zumarregiko gurasoek garbi ikusi zuten, haur txiki bati on haundia egin liezaiokeen bezelaxe kalte ikaragarria egin liezaiokeela.

Diru-eskasia bizi zen, ikusten denez, gure Bibiano.

Harria bota eta eskua gordez bere sakelerako ondasunak biltzeko bide xamurra arkitu zuen umetxo errugabe haiengan.

Umea bera batere konturatu gabe, besteren gauzak ebaste-lan zikiñean sartua arkitzen zen, Bibiano lagun onaren esanei aurrerabide emanaz.

Mutikoak ebasten zituzten gauzak auzoko herrian salduz ateratzen zuen bere kutizietarako beharrezko zitzaion diru mordoia.

Umeeri hezurretaraiñoko beldurra sartzen zien Bibianok, egiten zutenen berri iñori eman ez zezaioten.

Gela illunera sartuko zituzteneko meatxua egiten zien hiru edo lautan bere eskuak zikintzera iristen zirenean.

Hezitzaile jatorra zen herriko maisua. Gertatzen zenetik ezertxo ere ez zekien, ordea.

Herriko guraso guztiei dei egin eta eskuartean zuten egitekorik nagusiena Bibiano zigortzea ez zela sartu zien buruan maisu on harek; okerbiderako umeek hartua zeukaten ohitura zuzentzea zela egin beharrik nagusiena adierazi zien guraso guztiei.

Herri osoak miñ haundia zuen Bibiano auzi-bidean jarri beharrez; hala ere, umeeri eskuzabaltasunezko ohitura garbiak buruan txertatzera jo zuten guztiak bat harturik.

Mundu haundia eta harrigarria da ume baten mundua. Ustekabean ere behar baño kalte gehiago egiten zaio ume

bari; jatortasunaren arrastoan hezitze lana, zabalena eta bikaiñen denean ere, beti gerta ohi da motza eta laburra.

Zumarregitarrek jabetu ziren, garbi jabetu ere, bizitzako txorakerietan denbora galtzen ibilli ordez, umeen urbillean bizi beharra zeukatela. Garbi ikusi baizuten zenbateraiñokoa gerta zitekeen, haurtzaroan umearekin erabiltzen den zabarkeriak sor lezakeen ondorio beltza.

Gurasoak ez zuten zigorrik erabili, besterengandiko eragiñez beren umeek egin zuten okerkeria jipotzeko.

Behin betirako ahaztua gelditu zen, -ahaztua gel zitekeen neurrian- gertakizun negargarri hura zumarregitarren buruetan.

Lorerik politenak ernetzen diren baratzetan zergatik ernetzen ote dira astalaharrak? Zergatik ez ote da arantzik gabeko lorerik? Zaitzaille garbiak diren baratzetan lore usaindunak beso-zabl zutituko direla pentsatzeak ere bihotza lasaitzen du.

Martin Iturbe

PATXITRUENO

Ipuin honetan nik ezagutzen dudan mutil bati gertatua kondatuko dizuet, Patxi Trueno ezizena jarri zutena.

Baina bere benetako izena ez zen hori eta gutxiago ere. Patxi Barrengoetxea bataiatu zuten gurasoek jaio zenean, zuoi eta denoi benetako izen bat eman diguten legetxez.

Patxi Barrengoetxeak honako antz hau zeukan:

Bistakoa da, halegia, Patxi Barrengoetxea ez zela doi-doi ura goran jaioa. Egia esateko, kakanarru samarra zen, eta askok ederra eta lagungina zela uste batzuten ere, horrek ez du batere garrantzirik ipuin honetan, segidantzan jakingo duzuen bezala.

Orainokoan kondatu dizuedanagatik, ez zaizue oso zaila izango iruditzea Patxi gureak egunero jaso ohi zituen jukutriak eta azpikeriak: eskolako adiskideak kopla burukotzat hartua zuten, eta egun bat ere ez zen iragaten komunean jolastordu osoan zehar enzerratua izan gabe, edo jarlekuan txintxetak jartzen zizkiotela ipurdia zulatuta etxera joan gabe. Lantzean behin ere, bere adiskide alimaleek burutik hartu eta ur txorrota azpian eusten zuten, eta, batez ere neguan, itzelezko sudurestuak harrapatzen zituen Patxi.

Den hau barregarria dela irudiko zaizue beharbada, pasadizo larriek paperetan idatzita etorritz gero gutxiago egiazkoak ematen dute eta. Baina, zindotan, Patxi Barrengoetxearentzat ez zan batere txantxetakoa, adiskideek oloak ematen zizkiotenean batez ere.

Mutil nagusiak hain zuzen ere ziren gaiztoenak:

-Aupa Patxiko -zieten esan ohi, belarrietatik teink egiten zieten bitartean- Zer moduz zebiltzak giharreak gaur? Ea, erakutsi!

-Utzi bakean -zien Patxik erantzuten, palasarekin jotzen saiaturik- Beti zabiltzate berdin. Jakin badakizue, giharrerik zeharo ez dudala.

-Ha, ha, ha -zuten barren egiten mutilek elkarrentzat-Baina ikusi behar dizkigu, edonola ere.

Eta horrela, batek eskumuturrerarik lotzen zuen bitartean besteek mahukuak garbailtzen zizkioten, eta beso argal eta xuriak aztertzen zizkioten.

-Tximika -zuten geroan esaten, maltzurkeriz- Arrazoa duk, Patxikulo, fidoak baino handiagoak ez dituk giharreak gero.

Eta arkuak hausten barre egiten zuten, txantxa berri on bat entzuten denean bezala, nahiz eta pasadizo hau egunero gertatu hurrero. Patxi orduan hanka egien saiatzen zen, itsuitsuan ostikadaka. Orduan, jakina, beste mutilek haserratzeko planta egin, eta behar zuten atxakia bertan jasoz gero, oloak emateari jotzen zieten ohiko modura:

Egunak joan, egunak etorri, Patxi ohitu eta etsitu izan zen, eta negar ere ez zuen egiten horrenbeste zerrikerirekin. Maiztxo etorri ohi zen etxera, prakak oso lohituta eta ura burutik behera zurrutatuz. Amak ez zion gauza handirik esaten, eta burua leunki astindurik, erantzeko eta dutxa hartzeko agintzen zion. Amarentzat koskorrak eta begi moreztatuak ziren txarrena.

-Egunon baten aginik gabe etorriko haiz, gixajoa!

Ez, amak ez zion liskar egiten, baina bai aitak, Barren-goetxea jauna:

-Zer, berriro ere pildaire horretan? -zuen deihadar egiten.

-Zera... -zuen Patxik erantzuten.

-Zer zera edo zer demontre! -zuen orroe egiten, mahai gainean ukabilka jotzen, eta kafea lau haizeetara hegaz bi-

daltzen- Ume bat izan behar al duk betirako? Heure burua zaintzako noiz ikasiko duk, bada? Gizon heldua bihurtu behar duk, ulertu?

-Nola gizon heldua, aita? -zuen Patxik galdetzen, kokolo-kokolo.

-Bai, gizon heldua zioat. Gizon heldua duk, bada, beste txilak eragiten dizkiena, hori berori.

-Hori ezin dut nik. Ez eta pentsatu ere, nik edozertaz garaitu ahal dudarik.

Anaia nagusiak, Doroteo, beti komikiak irakurtzen ziharduena, tertzio honetan eta ez lehenago sartzen zuen musturra:

-Bai, jakina, hik deus ere ezin duk, tontolapiko halakoa! Eta barre egiten zuen, eskolako mutilek bezalaxe.

-Hi ixilik egon! -zuen aitak ebakitzen, errespetua ezarria-Jauna, Jauna, zer egin ote dut nik hau merezitzeko!

-Hori ere ez dakit nik -Patxik.

Honetara, beraz, zuen Patxik gauza asko ikasi. Eskolan, halegia, olakoak nola jaso; etxean, ordea, mutilak nola gizon helduak bihurtu behar diren, besteei txilak eragiteko, betirako kakume bat izan nahi ez bada.

Hau ez zitzaion oso egoki iruditzen Patxiri, baina alde batetik ez zekien zergatik, eta beste aldetik aitak esana zen, eta aita gizon heldua zela egia izan beharko zuen alde edo moldez.

Baina, ulertu ulertzen duzue: ez zen batere eroso Patxi Barrengoetxea izatea.

II

Eskolan irakurtzen eta bestela ikasi behar zuten Patxi gureak eta beste mutilek.

Baina arazoa ez zen lazki ona. Patxirentzat ez, behinik behin.

Bada, ezin gogoratzen zuen letrak nola deitzen ziren.

Agi zenean, berdin ematen zuten denek, txinhurri beltzak hilara luzetan kokatuak. Beste mutilek ez zuten prolema handirik letrak ulertzeko, eta asko benetako liburuak irakurtzen hasiak ziren jadanik.

Patxik ahaleginak egiten zituen besteak beste, eta ezarri eta bost minutu pasa eta gero izerdi patsetan zeuzkan euskuak eta besoak eta kaltzerpeak. Lantze horretan txinhurriak alde batera nahiz bestera jauzika hasten ziren. Beti izaten zen berdin, sinistu. Bada, egun batean, eta dudamudatan luzaro egon ondoren, adore hartu eta liburu erdigunean geldirik ziharduen txinhurri bati zera galdetu zion:

-Epa, txo, nola deitzen haiz, karajo!

-Ez zekiat, bada -zion txinhurriak erantzun, antenak antioju jarrita, Patxi hobeto ikusteko edo.

-Izen bat izan beharko duk gero -zuen Patxik ekin, mi-
retsia.

-Zertarako izenak, denok berdin gara eta? -eta txinhurria, ikusteko jaiki bat eginik, besteekin nahasi zen.

Patxiri bidezkoa iruditu zitzaion txinhurriaren arrazoa, baina maisuak ezagutu behar zela ihardesten baldin bazuen, bada aldez edo moldez ikasi beharko zituen berak.

Hemen dago Patxiren liburua:

Eta eskolatik etxeratzean, zera galdetzen zion beti aitak:

-Eta, zer ikasi duk gaur eskolan?

-Bada, -zion Patxik erantzuten- Ez gauza handirik.

-Nola ez gauza handirik? Deus ez duzue eskolan ikasten, ala?

-Nik ez, behinik behin.

-Baina, hau gehiegi da, eskandalu bat -zuen aitak beti hots egiten, zutik jarrita eta noraezean urduri paseiatzen. Di-
ruak ordaindu, eta zer lortzen da ordainetan?

-Ez dakit, bada.

-Ez dakik, ez dakik. Nik bazekiat, seme lerdo bat lortzen diat, hori berori! -eta esku nabarekin gogor joka egiten zuen

beure buruan- Jauna, Jauna, zer egin ote duk nik!

-Buruan min -Patxik.

Eta Doroteok, bere komikiaren atzetik kuzkuzean, barre algara egiten zuen, belaunetan zoroki txaloka.

Patxiren usteen, mundua arraroa zen, oso arraroa.

Bada egun batean Patxi eskolatik zetorreanean, bere anaia etxeko atarian eserita aurkitu zuen, komiki berri bat irakurtzen zuelarik.

Komiki berri hau «Capitan Truenoren benturak» zen, bai komiki narritagarria. Capitan Trueno benturarik lehiagarrienak jasotzen zituen morroi bat zen, bere globoan munduan zehar bidaia egiten. Gainera ere, morrosko adoretzu eta ausarta zen zeharo. Datorren orrialdean ikus dezakezuen bezala, Capitan Truenok soka bat estu batekin hartu eta Tarzanaren modura hegal egin ahal zuen, bitartean eta beste eskuan zuekan ezpatarekin izbertegi guztiei txilak eragiten zizkien, begi hertsireki batean.

Capitan Truenok emaztegia edo ere bazuen; bikingoa zen, eta hotzagaitik edo batek daki zergatik gaixorik zegoen beti, eta Capitan Truenok denpora osoan ibili behar zuen hemendik hara belarririk arraroenen bila. Garaiz ailegatzeko, eta belarra trenik ez zen lekutan zegoelarik, globoan egin ohi zuen bidaia.

Bada, esan bezala, hantxe bertan zegoen Doroteo, hartzalak urduri jaten, Patxi eskolatik etorri zeneza.

-Zer duk hori?

-Capitan Trueno. Hau bai duk gizona. Bera bezalakorik ez diat uste dagoenik.

Patxik Doroteoren lepo gainetik bota zuen begirada. Irakurri ezin irakurtzen zuen, baina irudiak ikusi bai gero.

-Ez diat uste hainbesterako denik. Begira ezak hemen, gonortea galduta, pata zaku bat bezala.

-Capitan Trueno gizonik sendoena duk, txo -zuen Doroteok esan, erdi minduta- Azkenean beti garaitzen dik.

-Bai, azkenean, azkenean, bada aurpegi horrekin ez zi-

rudik...

-Hi tontoa haiz, txo, tontoa baino tontoagoa -zuen Doroteok ebaki haserratuta, eta ukabilkada bat komikian emanik. Irudietan globoa halda-maldaka hasi zen, eta Capitan Truenok gora begiratu eta hots egin zuen:

-Txo, kontuz ibili, lurrera botako nauk eta!

-Aiba, parkatu, ez naiz konturatu, jauna.

Baina globoak zuhaitz batzuen artean lotuta gelditua zen, eta Capitan Truenok adarretik adarrera jauzika jarraitu behar izan zuen.

Doroteo guztiz haserratuta joan zen, eta Patxi bertan gelditu zen, Capitan Trueno txantxetako morroia ez zela pentsatuz. «Karajo», bera bezalako banintz, bera den erdi partea sikira». Eta bapatian etorri zitzaion ideia: jakina, jan ondoren zuhaitzetan pratikatzen joango zen, eta jagoitik egunero, harik eta Capitan Trueno bezain sendoa eta ausarta bihurtu arte.

Eta esan eta egin. Jan ondoren zuhaitz eder bat bilatu zuen. Adartsuena aukeratu zuen, eta makiltxo batekin ezpata bat egin ondoren, igaten hasi zen. Lurretik zenbait metro-tan zegoela behera begiratu zuenean kaka praktetan jarraitu zuen, ez baitzen inoiz ere hain gora igan. Bada, ttua irentsiz Capitan Truenoren komikian ikusiak zituen irudietan bezala saiatu zen jauzika egiten, adar batetik bestera, esku bakar batekin eutsita eta bestearekin arerioei mehatxu egiten. Baina lehen saltua egitean ezin eutsi zuen adarra eta lurrera jausi zen musturpilka, eta súdurretik odola hibaika zeriola negarrez joan zen amagana.

Amak odola garbitzen zion bitartean, ea negarra zer zela eta etorri zen Doroteo, komiki berri bat eskuetan.

-Zer, oloak eman al dizkiate berriro? -zuen galdetu, erdi txantxetan.

-Ez, bada, zuhaitzetik jausi nauk musturpilka -zion Patxi erantzun, zinkuritan.

-Eta zer egiten hengoan zuhaitzetan, bada?

-Capitan Trueno jolasten.

-Ha, ha, Capitan Trueno -zuen Doroteok barre egin-Zer uste duk bada, edonork egin ahal duela Capitan Truenorena? Hi Patxi Trueno baizik ez haiz gero.

Eta horrelaxe izan zen. Hurrengo egunean herriko mutil guztiek ikasia zuten izena, eta barrezka ziotsaten:

-Bai izen egokia, Patxi Trueno, bai izen egokia duk.

Eta abusariek beti bezala harrapatu eta esan zioten:

-Aupa, Patxi Trueno, zer moduz dauzkak gaur giha-rreak?

-Utzi bakean -zuen Patxik erantzun, baina alferrik, izen berriak ez zuen ezertarako laguntzen. Eta behin berriro joan zen etxera uretan blai eta negarrez.

III

Gau'zak horrela ziren eta, Patxik lagunik ez zuela sentitzen zuen. Horregatik hasi zen joaten maiztxoago aittite Juanillozana. Aitite Juanillo itsasgizona izana zen, eta orain zahartzaroan kaian zehar eta noizean behin mendian ostera egiten ematen zuen astia. Patxik asko atsedean zuen ostera haietan aitite laguntzea. Aititek kristorena amets egiten zuen, hainbeste ze Patxiri ezinezkoa iruditzen zitzaiola. Gainera ere, Patxik ez zuen inoiz uste izan jende argal eta esterikoak amets egin ahal zuenik, eta aitite haietakoa zen oso.

Batzutan zutik gelditzen zen kaian, eskuak patriketan, begirada arratsaldean portura itzultzen ziren ontzi txikietan tinko, eta Cubarako bidaia batetaz amets egiten zuen bertan. Habanara ailegatu ondoren palmondo baten itzalpean zetzan denpora osoan, kokoa janez bizpauru neskak haizemalerekin haize egiten ziotelarik. Eta den hau zen bitartean, habanera doinu eme bat sortzen zen itsasotik eta marrazoek uretan saltoka dantza egiten zuten.

Patxik ezin egiten zuen amets. Mutil guztiek berataz barre egiten zutelarik, eta hain dorpea eta inozoa zelarik, morrosko altu eta ausarta zela gustatuko zitzaiokeen amets egi-

tea, eta liburu guztiak problemarik gabe irakurtzea, eta muti-lak eskolan berataz miretsita egotea. Egun batean, beraz, aitite eta biak portura ailegatua zen ontzi batetik arraina nola deskargatzen zuten begira zeudenean, zera galdetu zion:

-Aitite, zer egin beharra dago ametsak izateko?

Aititek ez zion berehala erantzun. Ordea, ontziari begira ihardun zuen, higitu gabe. Eta gero, patrikatik esku bat atera, eta Patxiren lepoan jarrita, esan zuen:

-Hi gaztea haiz, Patxiko, eta ezin duk nik bezalaxe amets egin. Antiajuak behar dituk -eta prometitu egin zion amets egiteko antiajuak erosiko lizkiokela.

Eta hurrengo egunean erosketan joan ziren biak, eta ez ziren gelditu antiájuak aurkitu arte. Keatuak ziren, eta handiegia samarrak Patxiren sudurrarentzat; honi gizon zehar batenak izanak zirela iruditu zitzaion, Cubarako bidaia egiteko deretxa izan ez zuen morroi bat. Antiajuak jarrita, jende finak hondartzan erabiltzen dituenak bezalaxeokoa zirela ematen zion Patxiri, dena kolore ezberdinekoa zela inguruan. Segur zegoen, antiaju haiekin amets ederrak egingo zituela.

Lehen gauean Capitan Truenoren komiki oso bat amets egin zuen, baina hain azkarrik ze ez zela kasik ezertaz enteratu. Dudarik gabe esan zezakeen bakarra zen, berbera Capitan Trueno zela, eta arrain alimale batek gordean zeukan karamelu altxor bat lortzen zuela. Handik aurrerantzean, eta teknika maneiatzen ikasten zirauen heinean, nahi zuen beste amets egiten lortu zuen, pentsatuta ez besterik. Globoak ere ez zuen jadanik sekretu handirik, eta zuhaitzetik zuhaitzera jauzika egitea komuneko katea tenk egitea bezain erraza bihurtu zitzaion. Baina batzutan amesgaitzak ere bazituen, adibidez lukainka ezin afaltzen zuen, ze gero gau osoa ziharduela hamaika burudun sugeekin gerratan, edota mailukiak kipurraz, berari hainbeste gustatzen zitzaion azkenburua, ze beti sortzen zitzaiola tximeleta erraldoi bat, nahiko lagungina, txango egitera gonbidatzen zuena. Eta tximeletak gora eta gorago hegal egingo zuen eguzkira etengabe hurbildurik, eta herria han lurrean ilar bat baino handiago ez zela, txime-

leta hodei xuri bat bihurtuko zen beroagatik, eta Patxik bertan gelditu beharko zuen etzanda; baina hodeiak pix egin behar zuen beti gauean, eta Patxi euriarekin batera jaurtikia izaten zen lurrerantz, erori eta erorika, lurrean inoiz ez jo egiten. Behin baino gehiagotan pentsatu zuen Patxik, amari mailukiak kipurraz afaltzeko es prestatzeko esatea, baina ez zegoen segur amak ulertukp liokeenik, ez baitzion inoiz entzun amets egiten zuen esaten. Aitite Juanillok oso ongi ulertu zion, eta berak ere, esan zion, gaueko kafesnea edatean ezkerreko eskuarekin katilua eustekotan, ito egiten zela amets egin ohi zuela kondatu zion. Baina aitite Juanillok ez zuen ondikoz eragin handirik amarengan, ze honek burutik apur bat jota omen zegoen aipatua zuela noizbait.

Bada, egunak joan, egunak etorri Patxik Capitan True-noren bentura osoak amets egiten ikasi zuen, eta ametsak ziren bezain batean morroirik sendoena eta agudoena bihurtu zen. Eta aitite Juanillok zera esan zion egun batean:

-Amets egin baino gehiago beste gauzak egin behar dituk, mutila.

Patxik ez zion ulertu hasiera batean. Baina gero, aitite itsasoko zerumugan begirada tinko zuen bitartean, pentsatu egiteari eman eta konturatu egin zen bapatean, ametsen ondoan eginak ere daudela. Horrelaxe jarraitzekotan, zien esan geroago bere antiajuei, betirako izango naiz Patxi Trueno.

Antiajuek malko lodi pare bat isuri zuten ixilean, zeren Patxik ez zituelako gehiagorik erabili behar. Baina honek la-saitzeko agindu zien, amets egiten ez zekien norbait bilatuko bide zuen eta.

IV

Hurrengo egunean futbol jolastera joan zen. Futbol zelaia handia eta berdea zen, eta mutil asko zegoen jolasten Patxi heldu zenean.

-Aiba, Patxi Trueno -zuten dehiadar egin eskolako adis-kideek- Zer, futbol jolastera etorri haiz, ala?

-Bada, bai -zuen erantzun- Noizbait ikasi behar dut.

Mutilek pilota ahaztu zuten eta beregana etorri ziren.

-Zer, zer, futbol jolasten ikasi nahi duk? Ba al duk inoiz pilotarik jo?

-Bada, bai, asko ez baina...

-Eta ba aldakik behinik behin, pilota non sartu behar den?

-Bada, horrenbeste bai gero.

-Hala bada -zuen batek esan- Orduan gure aldean egingo duk. Atera ezak pilota.

Patxik hamaika metrotatik abiada hartu zuen, ahal bezain gogor pilotari j'oa nahiean. Baina huts egin zuen, haatik. Pilotari jo egin beharrean airean hostiko jo zuen, zapata lekutara hegaldaka joan zitzaizolarik. Baina Patxi zutik jarri zen berehala, nahiz eta ipurdian min gorjña izan.

Datorren orrialdean ikus dezakezue nola gertatu zen.

Mutilek farre algara egin zuten, jakina, baina Patxik ez zien batere jaramonik egin, eta pilotari jarraiki zitzaion, ezer gertatu ez balitz bezala. Eta bost minutu geroago pilota zapaldu zuen zolaren ordeaz, eta musturpilka erori zen behin berriro. Futbol zelaitik odola sudurretatik zeriola joan zenean, arkumak egin behar zituen negar egin ez nahiean, beste mutilek farre egiten zioten bitartean:

-Sekula ez duk ikasiko, Patxi Trueno!

Ez, ezetz badirudi, zuen berak pentsatu.

Ostera egiten herritik gora bide egin zuen karreteran zehar, bere adiskideek beti farre egitekotan sekula ikasiko ez zuela hausnartzen, harik eta aldapako gailurreraino heldu arte. Handik itsaso zabala ikusi ahal zen, eta, bere gogoetan jarrita, uharriak jaurtikitzen hasi zen Patxi, noraino hel zezakeen frogatu nahiean. Egia esateko, doi-doi heltzen ziren uharriakuretaraino, baina Patxiri ez zion horrek axola; zergatik, zuen pentsatu, beti ibili behar den norgehiagoka, beti mokoka. Berberari era gustatuko litzaioke Capitan Trueno bezain sendoa eta liraina izatea, nahiz eta orain bezalako tenoretan guztiz oker iruditu.

Makurtu egin zenean lurretik uharri gehiago jasotzeko, gauza arraro bat ikusi zuen Patxik saiheskara: karretera erdian herrirantz behera zihoan gizontxo bat gotibera batean, txapel zentoi gorri bat buruan zeramalarik. Gotiberak kristoren abiada hartu zuen, eta han behean biragune hestu batean, gotibera eta gizona hain azkar zihoazen, ze amilduko zirela zirudiela bidea ezin zuzentzean, gizontxoaren txapela puzten hasi zen, eta amildu beharrean airean hegaldaka jarraitu zuen, poliki poliki, harik eta aldapako gailurreraino itzuli arte. Patxi laborrian zegoen, imajina dezakezue, eta arranpaloaren modura begira gelditu zen. Gizontxoa, lurrean tinko zegoela txapela kendu eta erreberentzia pinpirin bat egin zion.

-Egun on, laguna -zion esan, bereganaturik.

-Egun on -zion Patxik erantzun- Nola egin duzu hori?

-Zer, hegal egin? -gizontxoak txapela ukitu zuen- Erregalu bat duk, nire lagunak Konstantinoplako Kleenex jakintsuak eman zidan oroitgarri Everest mendia eskalatu genuenean. Urtero etorri ohi nauk ni hona goitiberan ibiltzogatik, bai da olgeta gero! Baina goitibera ezin eramaten diat nirekin, lar astuna delako hain bidaia luzetan eramateko. Berri bat egiten diat urtero.

Gizontxoak erloju bat atera zuen patrikatik. Baina erlojua ez zen batere borobila, mukur asko zeuzkan osterantzean, eta numeroak guztiz minperrez zeuden. Hamabiaren ondoan, esateko moduan, hirua zetorren, eta horren ondoren, hogeita zortzia. Osterantzean beste numero batzuk falta ziren. Patxi ez zen horretaz ohartu, noski, ze orduan ez zituela orduak ezagutzen, baina gizontxoak erregalu eman ziolarik, handik ikasi zuen aurrerantzean fantasiaren orduak zein ezberdinak diren.

Bada gizontxoak, berantesten zuela murmuriatuz, bibote fin bat atera eta bere lekuan jarri zuen. Gero euritako ingeles bat ere atera zuen.

-Bale, joan behar diat -esan, eta txapela puzturik, airean

hegal egiten hasi zen- «Enchanté» -zuen frantseseraz deihardar egin, gero eta txikiago bihurturik- Eta gotibera ere hireztat!

Patxi begira gelditu zen, gizontxo ostentzen zen artean. Gero goitiberari behatu zion. Nahiz eta berak txapela hegalaririk ez izan, bai saia liteke goitiberan ibiltzen ikastea. Beraz, goitiberan belauniko jarri zen, eta abiada harturik, aldapa behera amildu zen ziztuan. Egun ere, galdetzen badiozue, jakin ez daki nola salbatu ote zuen biragune ikaragarri hura, baina aldez edo moldez herriraino daraman karretera zuzenean aurkitu zuen bere burua. Goitibera gero eta abiada gehiago hartzen ari zen, eta Patxik ezin maneiatzeko zuen jadanik; hantxe pean autoak eta jende asko zekuskien, eta beldurra sartu zitzaion. Kristoren kankarrekoa jasoko dut, zuen pentsatu. Baina herrian bertan sartu orduko porturako kalea ezkerrean zegoela nabaritu zuen, eta autorik ez zegoen gainera. Nola lortu ote zuen goitibera handik sartzea, batek daki, baina sost ailegatu zen kaira. Bertan zeuden bi arrantzalek, beren gaindi zetorrela ikusirik, urpe egin zuten buruz, baina Patxi goitibera eta guztiz jarraiki zitzaion oinez oin.

-Tonto halakoa! -zuten arrantzaleek hots egin.

-Glu, glu -zien Patxik erantzun.

Eta gizonek, igerikan ez zekiela ikusita, uretatik irtetzen lagundu zuten.

-Irakurtzen ez al dakik? -zuen galdetu gizonen batek.

-Ez, zer dela eta?

-Ze hortxe bertan badiola argi eta garbi: «Trafikoa zeharo galerazia portuan».

-Bai, baina, apropos ez dut egin.

-Eskolan ordu gehiago sartu beharko zenukete zuok, gehiago ikasi eta gutxiago ijiji-ajaja ibili.

Etxera heldu zenean, aita zoratuta jarri zen, jakina, adiskideen kulpa zela uste zuen eta. Uluka eta uluka egin zuen, baina Patxiren gogoia lekutan zegoen. bere lagun gizontxo txapeldunaz gogoratzen. Doroteo farrezka ari zen komikiaren atzean.

Hurrengo egunean, jaia zen eta, mendira txango joan behar zuela senak eman zion. Zergatik jakin ez zekien, baina bai joan beharko zuela; honetara, txirurak jantzi eta bide bidean jarri *zen*. Enparantza ondoan zeharkatzean, adiskide batzuk ikusi zituen jolasean zihardutenak. Arraia batean banan banan jarrita, ea ttua urrunen nork jaurtiki ziharduten. Patxi apur bat ikusteagatik gelditu zen. Batzuk zazpi edo zortzi metrora jaurtiki ahal zuten ttualdia, eta Patxiri ez zitzaion hain zaila iruditu, sikira erdi partera iristeak. Beraz, bere txanda eskatu zien mutilei. Eta, zuok badakizue, Euskal Herri gurean beti dago txanda bat jolasean sartu nahi duenarentzat, norgehiagoka izanik batez ere.

Patxik ttua bildu zuen ahoan, eta birikiak puzturik, ahalik eta sendoen jaurtiki zuen ttua. Baian bere ahotik irten zena xirimiri mehe bat besterik ez zen izan, ondokoak blaitu egin zituen. Beren albotik aldera egiteko agindu ziotela, betiko hitz gogorak esanda, bidean jarraitu zuen han mendian berriro saiatuko zela pentsatuz.

Bada mendian txoriak kantari ari ziren zuhaitzetan. Patxiri gustatu egin zitzaion, eta bera ere txistuka hasi zen, nahiz eta oso txarto, edo ez txoriak bezain ederto, behintzat. Eta Patxi saiatzen eta saiatzen ari zen, ze txistuka egiten ere ikasi beharko zuela. Baina bapatean, boz bat entzun zuen:

-Kaixo, kaixo, kaixo.

Eta gora, zuhaitzetara, begira egitean oso bele beltz bat ikusi zuen.

-Aiba, euskaraz al dakizu?

-Jakina, oso bele ikasia nauzu ni, jauna -zion beleak erantzun, apur bat arro baina gizabidez- Egun on, buenos días, hasta luego noruego -eta farre algarra egin zuen.

-Arsenio, Arsenio -norbait zegoen beleari deika- Arsenio, non sartu haiz, ganberro!

-Ufa -zuen beleak esan- Anderea, beti kontrolatzen.

Eta andere zehar bat sortu zen. Oso arraroa ematen zuen, horrela gutxi gora behera:

-Egun on, Patxi -zuen esan, nahiko lagungina.

Bai.

-Ez haiz beldur nire? -zuen anderea galdetu.

-Ez bada -zuen Patxik erantzun- Oloak jasotzeagatik eta hori bai, baina zuregatik ez.

-Bai ikustekoa. Zeren ni sorgina naizelako.

-Aiba, bada nire aitak esan ohi du, sorginarik ez dela.

-Hire aita tonto samarra duk, laguna. Zer eta sorginarik ez dela! Entzun duk, Arsenio?

-Yes, very guell, Manuel -zuen Arseniok erantzun- Asko ez, besteak beste.

-Ez, halere, baina zertarako gehiago? Oso ondo konpontzen gaituk garenok.

-Irakurtzen ere al dakizu? -zion Patxik galdetu Arsenio-ri.

-Noski, jauna, noski -zuen honek erantzun, zuhaitzetik hegal egiten eta Patxiren lepoan jartzen. Gero belarrian sartu zion mokoa, eta xuxurlaka hasi zen- En un lugar de la Mancha de cuyo nombre no quiero acordarme...

-Ai, ai -zuen Patxik hots egin, ze ezin agoantatzen zuela kili-kilia- Gedi egon, Arsenio.

-Ajai -sorginak- Bada, lagunak egin zaretela, guregana bazkaltzera gonbidatuko haugu, Patxi. Ezta, Arsenio?

-Oui, madame, alea jacta est -zuen Arseniok esan, mokoa Patxiren belarritik aterata.

Eta Patxik pozik onartu zuen. Halak jarri ziren martxan, eta handik laster, baso erdian zen etxe batera ailegatu ziren, Patxik ezagutzen zuen leku batean, nahiz eta etxea ez zuen inoiz ikusia.

-Beti bizi zarete hemen? -zion andereari galdetu.

-Ez, lantzean behin bakarrik. Guk sorginok alde batera nahiz bestera ibili behar diagu, eta etxea ere, beti soingai-

nean.

Etxea zilarrezkoa zen, ze sorginak aberatsak direla, ez al dakizue? Egia esateko, dena zeukan zilarrez sorginak, zeren, txango ez dauden gau argitsuetan, sorginek harkaitz bakarti batean eseri eta ilargiaren izpiak harrapatzen dituztelako, eta handik jantziak eta etxeak eta guztia ateratzen dute. Patxik jakin ez zekien den hau, baina Arseniok, oso lagun egin zela eta, argitu egin zion etxerantz zihoazen bitartean.

-Amaia goruetan ez duzu edonor gero -argitu zion.

-Amaia deitzen al da?

-Klaro -zuen Arseniok erantzun, apur bat txindituta-Sorgin guztiak deitzen dire Amaia.

-Jo, baina akelarreak eta hori egitekotan, nola konpon-tzen dira, bada?

-Bada, deiturengatik. Gure Amaia, adibidez, Belaustegi-goitia Pagadigorria deitzen da deiturez.

Uler dezakezue, lagunok, Patxi zeharo miretsia zegoela; ni ere egongo nintzatekeen bere larruan sartuta egotekotan. Baina Amaiaaren etxean gauza miragarri asko aurkituko zuen oraindik.

VI

Lehen gauza miragarria Itzala izan zen. Atalondora hel-du zirenean hantxe zegoen zai, geldi, ixilik, triste, edo Patxiri horrela iruditu zitzaion behintzat.

-Kaixo, Itzala -zuen Amaiak esan- Hau Itzala duk. Gu-rekin bizi duk.

-Baina nola Itzala -Patxik ezin sinisten zuen- Nondik ir-ten da, bada?

-Anboton aurkitu genian galdua. Bazirudik, tipo bat biagotan jarri zela txango joana zelarik. Itzala, logura ez zela, ostera egitera joan huen inguruetan, baina bitartean tipoa itzarri eta etxera itzuli huen, itzala falta zitzaiola konturatu gabe. Den hau mimikaz kondatu ziguk Itzalak, ezin hitz egi-ten duelako.

Itzala, Amaiak pasadizoa kondatzen zuela entzunik, kalamustaka hasi zen, eta Patxik historia osoa ikusi ahal izan zuen, eta ulertu ere. Itzala galduta zegoela susmatzean, noraezean ibiltzen hasi zen, negarrez eta non ote zegoen ere ideiarik izan gabe. Gisa horretan aurkitu zuen Arseniok, baserriar bati gerizak ohosten ziozkion bitartean. Itzalari ez zitzaizkion gerizak gustatzen, ze ez zuela ahorik, ez sabelik. Baina handik laster esnea gustatzen zitziola konturatu ziren; egia esateko, ez zekiten nola konpontzen ote zen Itzala edateko, baina arazoa zen, katilua izkina batean jarri eta ziztuan bukatzen zuen. Gatzatua zegoenean, Itzala zoratuta bihurtzen zen, eta batzutan bigarren katilua eman behar zioten, bestela ez zen batere betetzen.

Itzala eta Patxi oso lagunak egin ziren, nahiz eta ezin ulertzen zioten elkarri; oso aspergarria izan behar zuen, Patxiren ustez, bertan bizi izatea, bere pareko lagunaren falta, zeren sorginek ez dutelako itzalik, eta Arsenioren oso txikia zen berarekin jolasteko. Beraz, Itzala zeharo poztu zen Patxiren itzala ezagutzean.

-Eta zer egingo duzue berarekin? -zuen Patxik galdetu.

-Zer egin behar dugu? Ez dakigu, egia esateko -zuen Arseniok erantzun- Ez da eta eguneroko arazorik Itzal bakartia aurkitzea. Baina egun eguzkitsuren batean morroi itzalgabe bat ikusten baldin baduzu, triste ez egoteko esaiozu, bere itzala ondo gordeta eta elikatuta dagoela.

Badakizue, beraz, zuok denok: noizbait itzala galtzekotan, lasai hartu, ze beti dagoela Amaia bat zuentzat gordean izan dezan, harik eta zuok berriro aurkitu arte.

Etxera sartu zirenean, Patxik ezin sinisten zuen, dena minperrez zegoen eta: mahaia sapaetik eskegita; aulkiak gomazko ankadunak, eta arretaz ez egotekotan lurrera erori liteke; ormak kristalezkoak ziren, ez baina leihoak, zurez egin da zeudenak; oherik ez zen inon ere ikusten. Eta erdi erdian bertz zentoi bat eta milaka botila berde, urdin, xuri, eta kolore guztitakoak. Zolan bertan erretratu bat zegoen zutik.

-Egun on, egun on -zuen erretratuak esan- Egun on,

egun on.

-Aiba, hitz egiten du honek! -zuen Patxik hots egin.

-Hitz egin? Hitzontzi bat duk hau -zuen Amaiak eran-
tzun- Pelike ematen badiok, egun osoan egon zitekek jo eta
ke, bere pasadizoak kondatzen. Gogoz ikasi dizkiagu geuk.

-Joe Amaia! -zen erretratua kexatu- Zuk izan nuen no-
bioa gogoarazten didazu. Beti murru-murru zegoen hura.
Egun batean, esateko moduan, gerrara nihoala esan nion
eta...

-Nahikoa, nahikoa -zion Amaiak ebaki- Jan behar dugu,
eta gero jarraituko duzu kondatzen.

Eta mahaira jarri ziren. Patxi, jakiak miragarriak izatea
itxaron egin zuena, txundituta gelditu zen indaba goxo eta
arruntak ikustean, odolosteak eta okela. Edateko ere, Herna-
niko sagardoa.

-Orain etxea ureztatu behar diat -zuen Amaiak esan,
kafea edan ondoren.

-Nola etxea? Landareak ez al dira izango?

-Ez, etxea bera -eta esan eta egin, ureztontzi bat urez
bete eta etxean barrena hasi zen jaurtikitzen. Amaitu zue-
nean, etxea dardaraka hasi zen, eta gero abesteari eman
zion:

Maritxu nora zoaz eder galant hori

Iturrira Bartolo, nahi baduzu etorri

-Ajajai -zuen erretratuak esan- Katua harrapatu etxe
honek. Horrek gogoarazten dit, Errioxara txango joan nin-
tzen behin...

-Bai, bai, jauna -zion Arseniok ebaki orain-badakigu de-
nok bentura, arranopola!

-Baina -zuen Patxik galdetu- Zergatik abesten du
etxeak?

-ura asko gustatzen zaiolako -zuen Arseniok argitu,
bere leporaino hegal egiten- Beste gauzarik ez du jaten ez
edaten.

Bat, bi, hiru, lau,
bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi,
bost, sei, zazpi,
euskaldunak irabazi
irabazi, aurrera!

-Bale, orain hire arazoa ikusi behar diagu -zuen Amaiak esan.

-Zein arazoa?

-Bada, gogo bat ez al duk? Sorgin bat aurkitzen duenak, gogo bat eska diezaake, ez al hekien hori?

-Aiba, ez zidan senak eman.

-Bai gero. Goazen barrura.

Eta Patxik, birritan pentsatu gabe, adiskideak bezain ona izan nahi zuela adierazi zion, bostgarren txahala ez izateko.

-Ufa, horrek asko kostatuko zidak. Horren gogo handiosorik mendeak dela ez diat izan -eta liburu alimale bat atera zuen, eta irakurtzen hasi zen.

-Hori errezeta liburua duzu -zipn Arseniok argitu.

-Bale, egin zitekek -Amaiak- Baina hain handia duk go-goa, ze egun oso bat baino gehiago ez diata iraungo.

Eta botilak hartzen eta bertzean pitinka jaurtitzen hasi zen: hiru gramo izarrezko hauts, piper erdi bat, txakoli baso pare bat, Erretratuaren bibotezko ile bat, eta belenium papurrrak, gramo erdia edo. Irakitzen hasi eta gero milaka gauza gehiago jaurtiki zuen ere: ziztor zati handi bat (eta Amaiak esplikatu zion bezala, bere jabeak eguraldia auresaten zekien zerri jakintsua izana zen, eta Erroman ere famatua), indio baten pipako hausterra, eta Mungiako porruak.

-Egia esateko, guiski erabili beharko niake, baina oso garestia zegok azken bolada honetan. Hula, hula, plin plon, tiro-liro, gorgorito, dondevastutanbonito, bonus-bona-bonum, lo que sea ya sonará. Eup!, prest zegok, txo.

Patxik bi baso bete edan behar izan zituen. Ez zegoen

hain txarto, sinistu, berberak kondatu zidan gehiago edan nahi izango zuela, baina Amaiak ezetz, nahikoa zela eta gehiago arriskutsua beharbada.

-Beno, txo, eginda zegok, baina gogora ezak: egun oso bat eta ez gehiago, Honek ez dik asko lagunduko, amets bat bizi izateko besterik ez. Gero hik heuk lortu beharko duk nahi duana, ulertu?

-Bai, anderea. Orain etxera joan behar dut.

Eta joan zen, bai. Amaiak Erretratua atera egin zuen atal ondora, agur esan ziezaion; Itzalak ere agur egiten zion eskuarekin. Etxeak zera abestu zuen:

Adiós con el corazón
que con el alma no puedo
al despedirme de tí
al despedirme me muero...

Patxik zeharo momentu tristea zela pentsatu zuen, Arsenio lepoan zeramalarik. Baso ertzean agur egin zion honek ere, eta bakarrik jarraitu zuen aldai behera.

VII

Paxi, ikusi duzuenetz, triste zegoen oso, baina hori ulertzekoa da: aitite Juanillo kenduta, ez zuen inoiz aurkitua halako lagun onik. Ni ere egongo nintzatekeen triste, sinistu.

Bada, zuen pentsatu, hurrengo egunean berriro joango zen mendira, Amaia eta Arsenio eta Erretratua eta Itzala bisita egiteagatik. Baian bitartean beste arazo bat zegoen, ea egia zen adiskideak bezain ona bihurtua zen, egun oso batez bakarrik izanik ere.

Handik laster herrira ailegatu zen, eta enparantza ondoan zehar egitean, adiskide batzuk ikusi zituen, oraindik ere ttua urrunen nork jaurtiki zihardutelarik. Begira gelditu zen Patxi lehenengoz, zer egin jakin gabe, baina gero larderia bildu eta hara joan zen.

-Zer, froga egin nezake berriro?

-Ha, ha, Patxi Trueno -zuen batek erantzun- Berriro

eman nahi al diguk dutxa?

-Bada, ez, mendian pratikatzen egon nauk egun osoan
-zion Patxik erantzun.

Eta, esanak esan, leku bat egin zioten, euskaldun onak bezala, nahiz eta tenore honetan bizpauru metro atzera egin, badaezpadan.

Patxik, birikiak airez beteta, ttua bildu zuen ahoan eta kristoren ttualdia bota egin ^uen hogeit bat metrotara, leiho batean zapalduta gelditu zelarik.

-Arraio! -zuen esan adiskide batek.

-Arranopola! -besteak.

-Karajo! -hirugarren batek.

Ezin sinisten zuten. Ez, hori ez zen Patxi Trueno, ez eta gutxiago ere.

-Zer, beste bat nahi duzue?

Eta berriro ttu egin, eta leku bere berean kokatu zuen ttualdia.

-Deabru!

-Letxes!

-Aiba!

Eta Patxi etxera joan zen harro-harro.

Doroteo komiki bat irakurtzen zegoen. Jakina, komikia Capitan Truenorena zen, azkeneko bentura hain zuzen, eta Patxi sartu zenean kasik ez zituen begiak higitu, zera esan ziolarik:

-Kaixo, Patxi Trueno, burua osorik al daukak gaur?

-Badakik zer, txo? Potroetaraino natxiok, hainbeste Patxi Trueno eta hori! -eta komikia jo egin zuela, lekutara bialdu zuen-

-Hi zoratuta hago! Ea Capitan Truenori min egin dioan-zuen Doroteok esan,»eta komikia jaso eginik, Capitan Trueno globotik jausi eta sudurra apurtua zuela konturatu zuen-Begira ezak, abere hori!

-Bost axola, horrek ere mundua berea dela sinisten dik.

Eta afaltzera joan zen. Konturatu al zarete? Patxik Capitan Truenori berari emanak zizkion oloak.

Afaldu ondoren, Patxik aitari liburu bat irakurri nahi ziola esan zion zeharo forogu. Aitak burutik apur bat jota omen zegoela pentsatu, baina azkenean baietz, ea Patxik letrak ikasiak zituen behinik behin.

Eta Patxik, libururik lodiena hartuta, tripi-trapa irakurri zituen orrialde batzuk. Aita ahoa zabalik irekita zegoen.

-Arranopola!

Amak ez zuen ezer esan. Burua astintzen ari zen, zerbait arraro susmatzen edo. Eta bai, zuek badakizue zerbait arraro zegoela, ezta?

Hurrengo egunean, eskolan, hara etorri zitzaizkion abusariak beti bezala, farrezka eta gibelasmoz.

-Ha, ha, Patxi Trueno, bada, entzun diagu zein ona bihurtu haizen ttua botatzen.

-Zoazte pikutara!

-Ho, ho, asko pratikatu behar izan duk gero. Baina oraintxe freskatuko haugu guk.

Eta beren asmoa argi zegoen: Patxi burutik hartu eta txorrota pean sartu nahi zuten. Baina Patxik mahukak atzera egin eta itzelezko bola pare bat atera zuen.

Mutilak beldurtuta joan ziren, eta eskola ondoren, futbol zelaira iritsi zenean, adiskideek ez zuten farre egin, ez • baitziren atrebitzen, eta berehala egin zioten leku bat berekin jolas zezan.

Patxiri teknika zeharo falta zitzaiola ere, ez gero indarra: pilota harrapatzen zuen bakoitzean noraezean bidaltzen zuen, baina bai lekutara ere; denpora osoan ematen zuten pilota jasotzeagatik joan etorrika.

-Txo! -zion batek esan, nekatuta- Porteria betean eman-go al duk, behin batez sikira?

Eta Patxik baietz, eta hurrengoan, danba!, porteriara zuzen-zuzen joan zen pilota, eta porteroa erdi erdian zegoela

pilotarekin eta guzti joan zen airetan hiruzpalau metro atzera.

-Arraio!

-Itzela!

-Gooool!

-Aupa Patxi!

Eta Patxi peroz, guztiz peroz zegoen. Adiskideek «Trueno» esatea ere ahaztua zuten eta. Baina ez uste gol hura bakarra zenik, keba, hiru gol sartu zituen guztitara, eta ilun egin eta etxera joan behar zutenean, lepoan atera zuten Patxi bere taldekoek, ordura arte Patxi Trueno izana zenez ahaztuta.

Ulertu egingo didazue, Patxik ezin lo egin zuela esaten badizuet. Oso pozik zegoelako, noski. Hain pozik ze ahaztu egina zuela, bere gogoak egun oso bat bakarrik irauten zuela. Gixajoa, hurrengo egunean Patxi Trueno izan beharko zuen behin gehiago.

VIII

Bai, bai, horrela gertatu zen, tximika:

Eskola, burua txorrota pean jarri zioten adiskideek.

Etxean, amak isilean burua eragiten zuela, aitak guztiz haserratuta hots egiten zion, tonto halakoa, ez duk inoiz ikasiko, familiaren lotsa, etabar. Doroteok' farre egiten zuen bere komikiaren atzekaldean: he, he, he, Patxi Trueno, zein leloa haizen.

Futbol zelaian gaúzak okertuak ere izan ziren: lehen baloiari eman beharrean, balet pausu bat airean egin eta ipurdiz jausi zen putzu batean. Mutilek laster ahaztu zuten aurreko eguneko partidua, eta Patxik ete negarrez joan behar izan zuen handik.

Bakarrik, enparantzara bide egin zuen. Sikira ttua bota egin dezaket bakean, zuen pentsatu. Eta ttua bildurik ahoan, ttualdi sendo bat botatzen saiatu zen, baina xirimiri fin bat besterik ez zitzaion irten. Gaitzerdi bakarrik zegoela, bestela adarra jo egin zioketean besteek, ufa!

Arratsaldean aitite Juanillozana joan zen. Kaian paseiatu-
turik, Patxik aurreko eguneko bentura osoa kondatu zion.
Aitite Juanillok ez zion begiratu berehala, eta eten luze bat
hartu zuen erantzun baino lehenago. Gero, itsazertzerai begi-
ra, zera esan zuen:

-Behin esan nian, txo, amets egitea ez dagoela ondo, ba-
karrik egitekotan. Bizitzan ametsak erdi partea bakarrik di-
tuk, orain beste erdi partea lortu beharra zegoen. Hik bakarrik
lor dezakek hori, inork ez hau lagunduko gehiagorik.

Eta joan egin zen.

Patxi berton gelditu zen, aititeren esanetaz hausnartuz.
Bai, orain, ulertzen hasten ari zen aitite Juanillok eta Amaiak
esandakoa. Baina bisita egin beharko zien Amaiari eta Arse-
niori eta Erretratuari eta Itzalari. Joan eta eskerrak emango
lizkieke, ez bere gogoan betetzeagatik, ez eta gutxiago ere:
lekzio polit bat emateagatik baizik.

Eta bai, nahiz eta berandu samarra izan, mendirantz
bide egin zuen. Ez zegoen oso urruti Amaiaren etxea zen le-
kua, eta Patxik ondo ezagutzen zuen bidea.

Baina hara ailegatzean, zein harridura: ez zegoelako
etxerik batera! Leku okerrera etorria ote zen pentsatu zuen
lehenengoz, eta inguruetan begira egin zuen susmoz, baina
bai, leku berea zen, aurreko egunean Amaiarekin eta bestee-
kin egona zena bera. Baina orain belarra eta harriak zen, ez
etxerik ez lagunik. Txunditua, harroka batean eseri eta lasai
hartzan saiatu zen. Eta negarrez ari zela, ahots urrun bat
entzutea iruditu zitzaion zuhaitez gorago, haizearekin batera
beregandik zihoalarik:

-Paatxiiii, Paaatxiiii, aguuuuur jaunaaaaa!

-Arsenio!

Eta gorantz begiratu zuen. Han, hodei xurien artean
kontraste egiten, txori beltz bat hegaldaka zihoan. Agur egin
zuen eskuarekin. Eta gero etxerako bidea hartu zuen berriro.

Hurrengo egunean eskolan, Patxik letra gutxi batzuk
gogoratzen lortu zuen lehen aldiz. Bidea luze bat falta zi-

tzaion oraindik, bazekien, baina orain prest zegoen agoantatzeko, eta irakurtzen, goitiberan ibiltzen, futbol jolasten eta abartxoak ikasi ondoren, beste mutilek baino altxor miragarriagoak izango zituen: bere ametsak eta bere fantasia, eta bere benturen sekretua, eta, batez ere, erloju berezi, oso berezi bat.

the end

Joanes Urkijo

POXPOLINTXO

«Txiro ta Alai»

(Ume-antzerkia)

Antzezleriak: Ama

Aita

Aitona

Lore. 10 urteko alabatxoa.

Ekaitz. 12 urteko semea.

Poxpolintxo. Seaskan dagoen seintxoa, edo «mee... mee» egiten dauan plastikozko txetxe bat. Negar ta barre besterik ez daki, baiña antzezlaria da, eta zelakoa...

Otsoko. Au be, otso gaiztoa izanarren, ez dau merezi baiña antzezlaria da.

Danak baserritarrak, Otsoko ezik...

Tokia: Baserri bateko sukaldia. Baztar baten mai bat. Mai gaiñean ogia, erratillu bat sagar batzugaz, eta lapiko bat. Beste baztar baten, atxur-kirten bat eta otzara bi. Orman exegita aizkora bat eta igitai bat.

Ateak: Eskumatik kanpora, atzetik etxe-barrura, ezkeretik ganbarara.

I AGERRALDIA

Ama seaskari eragiten. Seaskan Poxpolintxo.

Goiza da.

Musika-sarrera.

Ama (abesten) Binbili, bonbolo,

sendalo.
Poxpolin kutuntxo,
laztantxo,
zeru urdiñean
izartxo eder,
polit-ederrena zu.
Loo!.. Loo!.. Loo!..

II AGERRALDIA (Musikea gelditu harik)

Lengoak ta Lore ta Ekaitz. Biok abesten sartzten dira. Beatz-puntetan Poxpolintxo'ren seaskara doaz.

Lore eta Ekaitz (abesten) Binbili, bonboio,
sendalo.
Oi, gure Poxpolin
maitetxo!
Guk zuri lorak,
zuri gorriak
menditik ekarriko.
LoL. Lo!...

III AGERRALDIA (Musikeak jarrai)

Lengoak eta Aita. Au be abesten dator.

Aita (abesten Binbili, bonbolo,
sendalo.
Gure Poxpolintxo
lo dago.
Sagar gozoak
gaur zuri Aitak
basotik ekarriko.

IV AGERRALDIA (Musikea aurrera)

Lengoak eta Aitona. Alai abesten sartzten da, eta berakin batera danak abesten dabe.

Danak (abesten) Binbili, bonbolo,
sendalo.
Akerra Frantzian
balego.

Akerrak kanta,
Idiak dantza,
Auntzak danboliña jo.

Aitona (Poxpolintxo'gana makurtuta).- Yuuuufi!...

Ama (berbetan danai, beatza ezpanetara eroanaz).- Ixo, Aitona!... Ixo, danok. Poxpolintxo itzartuko dozue.

Ama (abestuaz eta seaskari eragiñaz).- LoL.LoL. Lo...
(Besteak bitartean, «Binbilin-bonbolo»ren doñua ago itxiaz (abesten dabe).

BERBETAN

Aita.- Eguzkia jagi da, eta bere argiaz eguna zabaltzen doa.
Goiko Jaunak lanera deitzen gaitu.

Ama.- (Seintxoari). Nire maite Poxpolintxo, zu zara gure eguzkia, gure poza ta bizia.

Lore.- (Poxpolintxo'ri maite-maiteka ta musuka). Poxpolintxo!... Laztantxo!... Kutuntxo!... Páaa!...

Ekaitz.- (Bardin). Poxpolintxo!... Txikitxo!... Kili-kili... kili-kili PáaaaL.

Aita.- Umeak, baserrian ez da oporrik. Eguzkiak eta urak, zeruak eta lurak, beti lanean, eta gizonai gure laguntza eskatzen daskue. Guk bere lan egin bear dogu.

Ekaitz.- Ederto, Aita. Goazen bearrera.

Lore.- Bai, Aitatxo, goazen lanera.

Aita.- Ni «Uso Mendi»ra noa, pagadi barria landatzera. Zuek, Ekaitz eta Loretx-u, zoaze sagastira sagar elduak batzera.

Lore ta Ekaitz.- Ederto, Aitatxo.

Ama (urduri).- Ez gagizuez etxean bakarrik itxi Poxpolintxo ta biok. Baliteke Otsoko gaiztoa inguruan ibiltea...

Aitona.- Egon lasai. Ni etxean geratuko naz. Badot ganbaran makiña bat eginbear. Eta iñola Otsoko ankerra ona urreratzen ba'da, emongo dausat bear daben astinkada...

Lore.- Agur, Amatxo. Laister arte. PaL. Agur Poxpolintxo,

laztantxo!... PaL.

Ama.- Agur, nire Loretxu.

Ekaitz.- Agur, Ama. Orain arte. Pa!... (Poxpolintxo'ri) Agur,
Txikitxo!... Kili-kili.... Kili-kili... Pa!...

Ama.- Agur, enetxuok. Kontuz ibilli.

Lore ta Ekaitz.- Agur, Amatxo ta Aitatxo. Agur, Aitona.
Agur, Poxpolintxo, agur. (Badoaz sagarrak
batzeko otzara bana artuaz).

Ama, Aita eta Aitona.- Agur, umeak.

Aitona.- Ni ganbarara noa, ba. Gero arte.

Aita ta Ama.- Gero arte, Aitona.

Aita.- Agur ba, banoa. Agur, Poxpolintxo, nire laztantxo
ederra. (Musu damotso).

Ama.- Agur, gizon. Ezaitz berandutu.

Aita.- Maite, ez egizu bildurrik izan. Laister nator. Agur.
(Mun emonaz badoa).

V AGERRALDIA

Ama ta Poxpolintxo

Musikaz

(Poxpolintxo'ren seaskari kulunkan eragiñaz abesten

Bonbolontena
ene lazтана,
ez egizu lo basoan.
Otso gaiztoak
eroango zaitu
erbia zaralakoan.
Bonbolontena,
ene kutuntxo,
zeruko aingerutxo,
zure Amatxok
gordeko zaitu
biotzaren ezkutuan.
Bonbolontena,
ene maitetxo,
urrezko lili ederra,

seaskatxoan
egin lo gozo,
Otsoko ez da etorriko.

VI AGERRALDIA

Ama, Poxpolintxo eta Otsoko.

BERBETAN

Otsoko. (Musikaren azken-aldian, kanpotik).

Uúuu!...

UúuuL.

UúuuL.

Ama (izututa).- Oi! zer da ori?

Otsoko.- (Kanpotik, baiña urreago).

Uúuu!...

Uúuu!...

Uúuu!...

Poxpolintxo.- (Negar-zotinka asten da).

Ama.- (Seaskatik umetxoa jaso, eta besoetan estutzen dau).

Ai ené! Zer da au?

Otsoko.- (burukotea agertuaz).

UúuuL.

Uúuu!...

Uúuu!...

Ama.- (Iges nai eta ezin). Ai ené!... Ai ené!... Ai! Nire Jesus
maitea!...

Otsoko.- Ezton iges egingo, ez !... Uúuu!... Uúuu!...

Ama.- (Ikara bizian). Zer nai dozu?

Otsoko.- Gosez irrikiten nagon. Ikaragarrizko jateko gogoa
jaukanat.

Ama.- Or daukatzuz mai gaiñean ogia ta sagarrak. Artu
dana ta zoaz...

Otsoko.- Ogia?... Sagarrak?... PuaajL. Nik bestelako bazka-
ria bear jonat.

Ama.- Ze bear dozu, ba?

Otsoko.- Aragia jateko izugarrizko gogoz nagon!

Ama.- Or lapikoan daukatzu okelea.

Otsoko.- Ze okela ta okelaondo! Aragi gordiña emon bear

daustan!

Ama.- Ba, oraingoz nik ez daukat etxean aragi gordiñik.

Otsoko,- Ez daukanala, e? Eta zer don ba beso artean daukanan ori? Ori ez don aragi gordin bizi-bizia?

Ama.- Zeeer?... Ez! Ez! Ezta iñola be! Au neure seintxo maite-maitea da. Neure-neurea da! Alde! Alde emendik!

Otsoko. Ekan ona arkume eder ori bazkaldu dagidan. Iruntsi egingo jonat, iruntsi! Uúuu!... UúuuL. Uúuu!... (Amagana urreratuaz).

Ama.- (Negarrez, iges egiñik, seintxo gordeten dabela). Ez!!! Ez!!! Poxpolintxo. ez!!! Neure biotzeko alabatxo lazтана, ez!!!

Otsoko,- (Amaren gaiñera jauzi egiñaz eta seintxoarengana atzamarrak luzatuaz) Ona arkumetxo ori! Gozozozoa egon bear don! Ona, ona! Uúuu!... Uúuu!...

Ama.- (deadarka). Aitona!!!... Aitona!... Atoz! Atoz laister! Laister! Lagundu! Lagundu!...

VII AGERRALDIA

Lengoak eta Aitona

Aitona.- Ze demontre da au? Eeeé?... I az? Otsoko ankerra? Ik artu bear dituk, arraio zikin orrek! (Atxur-kirtena oratu ta Otsoko'ri makillaka asten jako. Baiña Otsoko'k Aitonari burrukan ekiten dautso. Ta eskue-tatik kirtena kendu, eta beragaz buruko itzela emon, eta lurrera jaurtiten dau, bertan erdi-illik itxirik. Bereala jo Amagana, Poxpolintxo arrapau, ta mendira iges egiten dau).

Ama.- (Ulu baten Otsoko'ren atzetik urteten dau). (Kanpoan). Poxpolintxo!!! Poxpolintxo!!!... (Gero ta urriña-go). Poxpolintxo!!!...

VIII AGERRALDIA

Antzeztokia une bat ixilik. Aitona lurrean etzunda konorte barik. Geroago Ama.

Ama.- (Negarrez urtuta dator). Zoratuta emoten dau). Ai, nire Poxpolintxo!... Nire Poxpolintxo maitea!... Azke-

nean Otsoko'k eroan nire alabatxo laztana!... Ai ené!
Ai ené!! Ai ené!!L. (Zoratuta lez). Aai!!!... Ator, Otsoko,
átor! Gida nagik Poxpolintxo dagon lezera!...

Abestuaz edo musikaz lagundurik

Ai, nire Poxpolintxo maitea!

Ai, nire biotzeko odola!

Ai, nire biziaren bizia!

Nun zagoz?

Nun zagoz?

Ai!

Zu, gure etxeko eguzkia!

Zu, urre 'gorrizko klabeiña!

Zu, Poxpolin maitagarria!

Nun zagoz?

Nun zagoz?

Ai!

Otsoko baltzak eroan zaitu

Oian Illunaren barruraiño

Ze lezean ezkutatu zaitu?

Nun zagoz?

Nun zagoz?

Ai!

Zeruko izar polit-ederra!

Zeruko aingeru dizdizaria!

Otsoko'k irunsi ete zaitu?

Nun zagoz?

Nun zagoz?

Ai!

Ez! Ez! Naiz Otsoko'k zu irunsi,

Aingeru argia zaralako

iñola bere ezin zaitu ill!

Atozkit,

Poxpolin!

Ai!

BERBETAN

Ama.- (Aitonari eragiñez). Aitona! Jagi zaitez, jagi! Ai, Aito-

na! Gure Aitonatxo maitea!! Ai! Ai! aaá!!!...

Aitona.- (Itzartuaz eta eskuak burura eroanaz). Zer da au?
Nun nago? Zer gertau da emen? Alaba, nire alaba maitea, ze jazo da?

Ama.- Ai, Aitona, Aitona laztana! Otsoko'k Poxpolintxo arrapau ta basora eroan dau.

Aitona.- Otsoko?... Poxpolintxo?...

Ama.- Bai, Aitona. Otsoko etorri da. Lenengo zu jo zaitu eta lurrean illa lez itxi zaitu. Bereala indar aundiz besoe-tatik Poxpolintxo atara daust, eta umetxoakin basora iges egin dau. Bere atzetik urten naz; baiña jauzi bizkorrak egiñaz Oian Illunean sartu eta an galdu da, Poxpolintxo eroala. Ai, Aitona maitea! Ai, nire errukarria!...

IX AGERRALDIA

Lengoak eta Lore eta Ekaitz sagar batuaz datozela.

Lore.- Amatxo maitea, zergatik diarduzu negar?

Ekaitz.- (Oso urduri) Seaska utsik dago! Ai amá! Nun dago Poxpolintxo?...

Lore ta Ekaitz (Larri ta artega).- Amatxo! Aitona! Nun dago Poxpolintxo?...

Aitona.- Enetxuok, Poxpolintxo Otsoko'k ostu dau... Oian Illunera eroan dau...

Lore.- (Ama besarkatuaz, negar baten). Ai, Ama! Ai AmaL. Ai, Poxpolintxo! Ai, gure Poxpolintxo!

Ekaitz.- Ta Aita? Nun dago Aita?

Aitona.- Aita mendian jabik. Bera emen egon balitzok, e-tzuan olakorik izango.

Ekaitz.- Takarrada baten Uso Mendira noa Aitaren billa... (Ariñeketan kanpora urteten dau). Aitaaa!!!... Aitaxo!!!... (Urriñago). Aitatxo!!!... Aitaaa!!!...

X AGERRALDIA

Aitona, Ama eta Lore.

Lore.- (Beti Amari besarkatuta), Ai, Amatxo! Ai, gure Amatxo laztana! Nun dago gure Poxpolintxo?

Ama.- Nire biotzeko Loretxu, Ekaitz'ek bereala arkitu dau Aitatxo, eta Aitatxok Poxpolintxo maitea ekarriko dausku...

Aitona,- (Aulki baten jesarrita, makurtuta, miñaren miñez burua eskuakaz igurtzen diardu). Otsoko arraio, zital, anker, koldar, maltzurra... Poxpolintxo, gure Poxpolintxo maite-polita ostu dauskuk. Gaiñera burua ausi daustak eta garunak be zarrapastan. Infernuko txerren, azpi-zapo, txarri zikiña!... Apurtuko aut!... Bai, oso-osorik apurtuko aut, birrindu egingo aut!... Amen! Ala izan dadilla!!!

XI AGERRALDIA

Lengoak eta Aita ta Ekaitz

Aita.- Ze izan da au?

Ama.- Ai, maite! Otsoko etorri da eta... Poxpolintxo eroan dausku... (Negarrez urtuten)

Aita.- Baiña zelan?... (Ixilune bat). Eta zu, Aitona, nun zengozan?

Aitona.- Otsoko'gaz burrukan gogor egin joat; baiña ikaragarriko indarra jaukak, ekin egin jaustak. Jo zartada bat eta lurrean konorte barik itxi naiok. Gero ze izan danik etxakiat... Baiña jausiko dok infernuko madarikatu ori!...

Aita.- (Amari). Poxpolintxo'kin norutza jo dau Otsoko'k?

Ama.- Arin eta jauzika Oian Illunean sartu da, eta an ez dakit norutza zuzendu dan... Ai, gure Poxpolintxo maitagaria! (negar ta intziri).

Aita.- Astirik ezin geinke galdu. Oratu aizkorea ta Oian Illunera noa, Otsoko ankerraren billa, Poxpolintxo jaraiteko.

Aitona.- Seme, irekin noak. Igitaia eroango joat. Bajakiat lanabes au zelan erabilli.

Aita.- Goazen, ba, Aitona.

Ekaitz.- Ni be zuekin noa.

Ama.- I txikiegia az orretarako. Ago Amaren ondoan.

Ekaitz.- Amatxo, zuk badakitzu nik ikusmen zorrotza dau-

- kadana. Nire begiak ikusiko dabe Otsoko naizta urrin egon.
- Aita.- Itxiozu, Ama. Ekaitz'ek asko lagunduko dausku Poxpolintxo idoroten.
- Ama.- Zoaz, ba Ekaitz, eta arkitu egizue gure seintxo maitea.
- Ekaitz.- ... Eta bizirik eta osasunez beterik ekarriko dogu.
- Aita.- (Amari eta Loretxu'ri). Zuek otoi egiozue Begoñako Andra Maria'ri.
- Aitona.- Goazen bizkor. (Badoaz irurok).

XII AGERRALDIA

Ama eta Loretxu.

- Ama.- Ai, ené! Jaungoiko Aitak lagun bekitzue! Ai, Loretxu laztana, bizirik arkituko al-dabe gure Poxpolintxo!
- Lore.- Bai, Amatxo. Idoroko dabe.
- Ama.- Enetxo, Aitak esan dauskun lez, jaso daioguzan gure biotzak Begoña'ko Amari.
- Ama ta Lore.- (Abestuaz edo musikaz lagunduaz)
1. Oi, Begoñako Andra Mari!
Oi, Jaungoikoaren Ama!
Begira gure negarra,
Entzun gure intziria!
Oi, Ama!
 2. Oi, Zeruko Erregiña!
Oi, Biotz oneko Ama!
Otsoko'k eroan dausku
Gure Poxpolin laztana
Oi, Ama!
 3. Oi, gure Ama laztana
Ama errukiz betea
gure biotz urratuak
samiñez iltera doaz
Oi, Ama!
 4. Oi, Begoña'ko Maria!
Poxpolin gure argia
Otso baltz, zital, gaiztoak,

eroan dau oianera.

Oi, Ama!

5. Oi, Zeruko Eguzkia!/
«Oian Illun» goibelean
Aitatxok arkitu begi
Poxpolin maitagarria.
Oi, Ama!

BERBETAN

Lore.- Amatxo, Amatxo maitea, ni ziur nago Aitatxok eta irurok, gure Poxpolintxo laister etxera ekarriko dabela.

Ama.- Bai, enetxo, alaxe izango da. Begoña'ko Amari dei egin dautsagu, ta onetsiko gaitu gure seintxo maitea etxeratuaz.

(Ixilaldia... Urrindik irrintzi bat entzuten da).

Lore.- (Ama laztanduaz). Ai, Ama! Ai, Ama!

Ama.- Ai, Loretxu, eurak, eurak dira!

Lore.- Bai, Amatxo, eurak! eurak! Ai, ze poza!

Ama.- Badatoz! Badatoz! Irrintzika datoz!

Lore.- (Amarekin atetik kanpora begira). An! An!

Ikusten ditut! Aitatxok Poxpolintxo besoetan dakar. Aitona irrintzi baten dator. Ekaitz saltoka. Ai, Amatxo! Ai, Amatxo!

Ama.- Oi, ze atsegiña. Enetxo! Goazen eurengana, goazen Poxpolintxo'gana. (Badoaz. Agertokia utsik une bat. Poz-arrabotsa kanpoan).

XIII AGERRALDIA

(Danak... Otsoko ezik)

Danak.- (Poz-oiuka sartzen dira. Amak, pozez zoratuta, besoetan Poxpolintxo dakar).

Ama.- Ara emen gure Poxpolintxo polit-eder maitea.

Oi! Nire zeintxo biotzekoa (Musuka).

Lore.- Oi, nire maitetxo! Gure arrosa polita! Gure urrezko klabeliña!

Oi, laztantxo (Musu ta laztanka).

- Ekaitz.- Ama, neuk ikusi dot lenen Otsoko gaiztoa.
 Aretx aundi batera igo naz, eta begira batera, begira bestera, an nun ikusten dodan Otsoko ankerra zuzgatz baten azpian etzunda. Aretxetik ixil-ixil jatxi ta Aitari ta Aitonari esan dautsiet.
- Aita.- Zarata barik bagoaz ara, eta an egoan otsoko lokarresa baten lo, Sabela aundi-aundi. Barruan Poxpolintxo gixajoa negarrez entzuten geban.
- Aitona.- Orduan nik igitaiaz, txirrist! Otsokori sabela goitik-bera ireki eta an agertu da gure Poxpolintxo txalopin-txaloka.
- Aita.- Poz-pozik artu dot neure besoetan gure Poxpolintxo maitea, ta berala irrintzika ta jauzika, etxera.
- Ekaitz.- Otsoko gaiztoa an geratu da, sabela zabalik, betiko lo.
- Aitona.- Artu jok bere saria. Yuufi!!! Ijijiiii!!!

Azken abestia

Danak. Binbili, bonbolo
 sendalo.
 Akerra Frantzi'an
 balego.
 Akerrak kanta.
 Idiak dantza.
 Auntzak danboliña jo.

Aitona.- Yuufi!!! (irrintzi)

Ama (berbetan).- Ixo, arren, Aitona.

Ama (abestuaz).- Binbili bonbolo sendalo,
 Arrosa-klabelin
 edertxo.
 Gure Poxpolin
 bere Amari
 ez dautso
 iñok kenduko.

Lo!...

Aitona.- Yuufi!!! (irrintzi)

Danak.- Binbili, bonbolo... Etab.
Aitona- Yuufiii!!!... (irrintzi)
Ekaitz eta Lore.- Gora gure Poxpolintxo!!!
Danak.- GORA!!!

AMAIA

Roque Mendizabal

Kontu - Lore...

(1985'ko Kontakizun Laburren Sariketan saritutako Kontakizunak).

«TALOA TA ARRAINA»

Eusebio Erkiaga

«DON ANDONI»

Jesús Gaztañaga

«ONDARRUKO KONTU BATZUK

Jose Mari Etxaburu «Kamiñazpi»

«KORRIKA»

Aitor Artetxe Jaio

«ODOLEZ ITSAS GIZONA»

Ana Urkiza Ibaibarriaga

«OROITZAPENAK»

Jose Mari Azpiri

«IÑAXIOK KONTATU ZIDAN»

Jon Iñaki Artetxe Egaña

«ILLARGIAREN ARGIA»

Joseba Burgoa Egiguren

Oarra: Lanak saritutako erreskadan agertzen dira.

TALOA TA ARRAINA

(Ipuina)

Sabas amugina eritxonak amugin izateak irabazi urri ekarten eutsala susraatu, eta bere lantegitxua pintura-denda bihurtu eban. Tindu, patente, orio eta abarrez ganera, lehenagokoak zituan amu, karpin, korain, txanpel, zurda, pita eta sokak be, salgei eukazan.

Baserriko alaba zan Baldasaragaz ezkondu zan eta honek lehenengo egin eban seiná neskátxua izan zan; Aintzine. Tamalez sein hori harik lasterrean hil zan. Hurrengo jaio zan seiná, barriz, mutikoa izan zan.

Seina eleizara bateatuten eroan aurretxean, etxean, eztabaidea sortu zan. Aitabitxi, Sabasen anai Leon «Maluti» izango zan-eta, honek seinari izen bardina ezarri behar hako-la uste eban. Ezizen hori txikitan haren buruko ulea horizuriskea zalako asmatu eutsoen. Amabitxik, ezetz.

-Leon... Patariaren izena dozu-ta...

-Zer dinozu? Aita Santuak be, hainbat izan dira, ba.

-Ba, nik i... Doro...

-Ut, andratxua. Hor dabil Doro. Ta zer dau atzetik? Horixe be!

-Doro... Doro... gomutan zein Doro dozu, ba?

-Basai.! Leon Okotz, Leon Garitx... Gorputzeko zatiak dira.

-Eta Dororen zerak?

-Errenta bako errenteruak. Nik be, han «arsenaliin» eza-gutu nituan. Baina harrezkero... iztarrarteak garbi.

Etxean egozanez barreak egin zituen. Eleizarakoan ka-
lean edozeinek galde seina norena zan.

-Aitarena ta amarena -erantzuten eutsen Leon «Malu-
tii»-k, ardatza baino tenteago joiala.

-Gizonaren taranta -zertu eban eleiz-aurreko plazan
egoan andra zabal batek-. Harro zer ez doia berau. Neskatoa
alda?

-Mielgarik nahikoa dogu. «Antxoba txikixe»...

-Zazkar hori!

-Ze zazkar eta zazkarrondo. Hemengo berbetea ez al
dakizu?

Ume kozkor egin zanean, beste edozein umeren antze-
ra, Leon be eskolan ibili zan, bost urte zituenik aurrera. Bai-
na eskolea lagateko adinera heldu orduko, etxe zabal ha lar
zapaldu barik aldegin eban, traskotsen artean hasteko, itsa-
soa bere begira eukala zirudian-eta. Ostera, ordurako tras-
koen orde z gomazko oinetako bigun eta erosoagoak egiten
zituen, eta beraz, Leonek bere itsasorateetan ez eban trasko-
tsik entzungo, egin-eginean.

Etxe-egunetan mutikoak frontoirako zaletasun apurra
agertzen eban. Bere adineko mutikoakaz jarduten ebanean,
horraitio, hutsak egiten zituan sarri. Baina harek berak, ho-
rrelakoetan, inork ezer esan orduko «sostor». Eta horra!
Handik gorakoan Doro Poto... izan eitekena, Leon Sostor
izango.

-Entzuizu, Sabas. Gure mutilari be, ezizena asmatu ei
deutsoe.

-Zein ezizen, Balda?

-Sostor. Leon Sostor... Honezkero uriko guztiak dakie,
eta auzoetakoek be.

Ezizenaren zioa emazteak argitu eutsan.

-Ez da hain araingarria. Txarrago dozu horren antze-
koa.

-Zein?

-Zaztar. Hor jabiltsu jai usainik izan ezkerro, iluntzeetan,
lebazkumea aldean da'uala Kruz, Kruz Zaztar.

Eskolea laga ebanean, Leon itsasora gogotsu eta joranez hasi zan. «Arrantzuko bizimodua dan garratza»!... Hamaika bider entzun eban hori. Bizimodu latza ta nekatsua. Horraitio, itsasondoko umeek gehienbat itsasoaren deia barruan daroie. Haren amaibakoa, uraren bizitasuna ta egonezina, kresalaren ederra, olatuen indarra, hango zirkin etenbakoaren erakaroena, eguzki urretsuaeren dirdizpean. Izugarritasuna ekatxaldietan, halako zoragarritasuna egun bare ta irribarretsuetan. Itsasoaren dei sarkor esanezina.

Eta arraina, itsaso adiskidearen emoi etenbakoa. Arrain handi, txiki, ertain. Sasoian sasoiko, batzuk; edonoizkoak, beste batzuk.

Aitari ta amari lehengo dirutxuak etxera eroan eutsezanekoa...

Horraitio, mutikoa lehenengo itsasoan joan eta joan egin ezker, lehorrak begien bistatik aldegiten ebala konturatuten hasi zan. Kostako mendiak ezezik, lur barruago egozan tontor erpinak be, ikusmenetik galdu egiten jakozala. Eta orduan, ez zelan ez zegaitik ez ekiala, bere irudimenean etenaren irudia sortzen jakon, lehorraren eta itsasoaren bitartean luban zulo sakona zertzen zala. Eta bapatean, bizkoilaran etean halako larria hasten jakola, gura ez arren.

Lehorrean ez eban halakorik onoiz sentidu. Ontziratzean irudimena eta sabela... Itsas haundiratzean, oster, barruan larria, saman goruntz esturea, eztarrian gorazkoa.

Ontzilagunetarik batek susmoa hartu, eta esan be bai:

-Txo? Zer? larria? Zorabio antzekoa? Itsasoan lehenengotan zein ez da zertu? Hemen «izurdii» izan behar da, ez kabixoi ez abotxa. «Kafi» emongo deusut eta «zarbuu» baino bizkorrago geratuko zara.

Baina Leoni horrelako esanek ez eutsoen hoberantzakorik ekarten. Bere buruagaz hasarre ebilen. Ez eban gura inork makala zala esan egion.

Horraitio barruak ez lagunduten eta ok!... ok!... sarri bai sarri okadaka Leon gizajoa. Lagunek igarten eutsoen, baina

ixilik. Leonek, aitaren ixilik, amari adierazo eutsan bere ar-bintasuna eta esturea.

-Ekandutuko zara- esan eutsan amak, lehenengotan.

Bai zera! Ez eukan hobakuntzarik. Ohean erabagiak hartu gure izaten zituan, asmo sendoak, adoretzu jarduteko, hasierako larriak gainduteko.

Eta jagi, goizetik jagi, eta barrero itsasora.

Joan eta joan, egunsentiaren ostean han ontzian goian zerua, behean ura, hain zuzen bazterrik bakoa ikustean, infernutik bialduriko behaztuna, mingotsa, eztarrian gora goraka susmatzen eban. Beti garratz, beti larri... harik-eta herriko bandan han goian Antiguako Amaren eleizatxuaren taiu atsegingarria begien aurrean izaten eban arte. Orduan, lehenago irudituten jakon traganarrua, bale eta zeroien itsasaldia, zingorik aurkitu ezineko zan luban zuloa eta berebat samatik gorunzko garratzasuna, igarri barik bertan behera urrunduten jakozan. Arnasa zabala ta nasaia egiten eban.

Egunetan eta egunetan horrelan jazo zan. Domeka baten, han kortzelean alkar aurkitu eta ontziko patroiak Sabas amuginari esan eutsan:

-Sabas... zuen mutila... ez dakit nik baina, itsasoak ondo ez daukala hartzen, esango neuke. Estimadu neukan arren, beste zeozer pentsa behar izango dozue. Esan egiozu emazteari.

-Hau lorra! Itsasora pozik hasi zan, ba!

-Hain pozik... Gauzen ardurea hartzen eta zerean... laster susma nik. Eta mutil argia dozu. Zegaitik eskola gehixuago ez emon?

Etxera zanz batera. Sabasek Baldasarari esan behar, ba.

Gero, mahaian, aitak autua atara eban.

-Leon, han kortzelean, Leokadik ez baina, gaur eguerdi aurrean zuen patroiak berba egin deust. Zu zeu, gizajo hori, ixilik ibili zanean arren, harek berak esan deust zure larritasu-

nen eta gorazkoen gorabehera hori. Guztiok ez gara edozer-tarako ta... Ni neu be, txikitan, mutikotan itsasora hasi nin-tzan. Itsasoak ni ondo hartzen ez, eta nire ahaleginak alpe-rrekoak izan zirán. Lehorreko eskulanari oratu neutsan, eta halantxe, hamaika amu, karpin, korain eta abar egin be. Sa-bas amugina izan naz ni. Dinodan hau holantxe da, ezta, Leon?

-Bai, halanbeharrez edo...

-Eskolara hasiko zara barriro, Leon. Urte bi zutzat laster joango dira, gutzat luzeagoak izan arren. Baina gurasoak umearen ona gura dau. Guk be bai. Zuen patrioiak edegi deustaz begiak. Gizon zintzoa bera. Geroago... ba dot nik hor neure laguntzar bat, «bankeru» deritxaguna, kontuginen artez dakiana, dagoan lekuan dagoalako. Haxe izango litzateke maixu egokia. Mesede hori ukatuko ez deustala uste dot. Eta ordainduko deutzagu zelan edo halan.

Aita berbetan eta Leonek, noizean behin, amari begira-tuten eutsan. Honek, Sabasen berben ganerako, buruagaz baietz eta baietz.

Izan be, Leoni eskolako hilabeteak eta asteak igarri ba-rik joan jakozan. Hurrengo udan astegunetan dendari, aitari laguntzen; eta iluntze aldean aitak erosi eban potinean joa-ten zirean biak. Baina batez be, domeka eta jaietan egiten eben euren itsasoratetxua.

Kaitik hurrean ibiltan ziran aita-semeak, biak pozik ha-tan be.

Potinean joaten ziranean Atxazpi, Ikopea, Anakabe... hantxe izaten zituen euren begien aurrean. Eta Sagustan... sasoi baten lentoiaren lekua. Edo Zaldu, Kurutzemendi, Satu-rraran, Arno, Getariako sagua.

Lupinarik ez urrabururik ez bazan, berdel, itsaskabra, arraingerri eta karraspioak hartzen zituen. Etxerako lain eta gehiago be bai, horrela potina apurka apurka ordaintzeko, horren baten. Eta tximinoiak, txibiak...

Eskolan jarraitzen eban arren, udabarri aldera aitak

Leon lehenago aitatu eutsan harako «bankeru» gizon jatorragana eroan eban. Honek mutilari itaunak eta abarrak egin eutsazan. Udako opporretarte eskolan jarraituko eban.

Hamalau urte ondo beteak zituen eskolea behin betiko laga ebanean. Uda haretan be dendan eta potinean ibiltan zan. Horraitio, irakasle izango ebanak liburu errez batzuk laga eutsazan, irakurten eta ikasten hasi zedin. Kontugintza-koak eta horren inguruko gaiak eukezan liburuak ziran. As-tean hiru egunez irakasle barriagana joaten zan, irakaspenak zertzeko eta etxean lantxuak burutu egizan.

Lan eta irabazi arloan urte eskasetan sartu ziran, mutila lanean hasteko gogoz egoan arren. Aukera urria egoan ez-kero, mutilak ikasi eta ikasi jardun eban, bere maila apalean. Eta halan, geroago, irakasle bereziaren berbetatik, gauzei buruzko «pratika alu» preminazkoa zanez, eta bide batez, hari berari lana arinduteko, kafetxe bateko kontuen paperak eta argitasunak aztertzen jarri eban, eta zerak ordenan jarten; horrelan Leon tarte baten egunero kafetxera joaten zan, eta han gela berezian jarduten eban hornitzailleen eta emoileen kontuak arakutzen.

Lan hori astuna ez zan, baina etenaldiak izaten zituan Leonek, noizean behin kafetxeko alaba gaztena albora joaten jakolako; neskato polita, ule baltzerana, Emeren izena ebana.

Leonek bere lanari adi jarduteko gogora erakusten eban, baina neskato urduriak batzuetan haren ondoan egotaldi ixilak egiten zituan arren, mutilari begira egotea atsegin izaten jakolako, barriketak hasteko gurariari eutsi ezinik susmatu eitekean.

Irakasle bereziak beste lantxu bat be, leporatu eutsan Leoni, izatez antzerako lana zana. Zera, Pixapeko Abaroko kontupaperak be ordenan jartea eta arakatzea. Beraz, Leoni, zereginak gehituz joiakozan.

Behinola, Emeren mutila lanean ikusteko edo, gelara sartu zan. Barriketan hasteko gogoia, eta nundik handik:

-Leon... Hona etorten naitazu, zeure albotxura. Eta zuk,

jaramonik be ez.

-Jaramon... Zu, «neskii zaa». Gu, mutilok, geuretara ibilten gara berbetan eta jolasean. Erdi «umik» gara-ta, guk neskakina...

-Zeer? «umii» zu? Lehen bai, baina orain? Laster zenbat... Hasi jatzuz dagoaneko ulebizarra hor...

-Goiko ezpaneanean apur bat.

-Goiko ezpaneanean bakarrik? Ijijji... ijijji...! Zu ta ni «loran gaaz».

-Zelan dakizu?

-Jakin.

Mutila neskatoari begi-begira jarri zan.

-Nik hemen zerbitzen dihardudanean, Leon -nik ez entzun egin arren-, mutil gazteei, eta gizonei be, konturik asko entzuten deutset. Batez be, soldautzea eginbarri dabe-nei... itsasoetan ibili diranei. Horreek bai jakin! Horreek e...

-Zelako kontuak?

Mutilen kontuak, neskatiilenak, andrenak. Ba dakit nik...

-«Ba dakiagu».

-Ez. Ez. «Ez dakiagu». Nik, zeozer. Zuk... »ixeez».

-Zeuk esango?...

Neskatoak arrapaladan ihes egin eutsan, beste barbarik esateke.

Patroiak egun baten Sabas amuginari agerraldia egin eutsan. Dendan beste inor ez egon eta, patrioiak honelan berba egin eutsan:

-Sabas! Joan diran egunetan hiru lagunegaz berba egin dot. Horren ostean naiatortzu. Ez dakit jakitun zagozan, baina han zerean, Kofradian Kleto idazlaria ondoezik daukagu. Hara agertzeko ez da gauza, hainbat ezago lanari oratuteko. Luzaroko gaixoa ete dan. Han, horratio, laguntzailea behar dabe, behar dogu. Bihar baino gaur hoba. Asmoa agertuko deusut. Hona. Bankeruagaz berba egin neban lehenengo! harrezkero hango lehendakariagaz, eta oraintsuen Erremo-

negaz, ba dakizu, diruzainagaz. Eta hauxe da erabagia; behin behinekoa, jakina! Bihar goizean zuen Leon Kofradiara joan dadila. Erramonen galdea egingo dau; Sabasen seme Leon dala esango deutso, eta neuk adierazota doiala. Ulertzen; Bai ze, honelakoetan azkar ibili behar da. Ezin daikegu eretirik galdu. Itsaldiak ez gagizala esku hutsean atrapa.

-Kontxo! Milesker zeuri. Gomutea be!...

-Aspaldiko adiskide gara, Sabas. Ez dozu nire eskerrik zetan emon. Bihar mutila... hara! Goizean goizetik. Bitartean, ixilik. Inork be ez dau jakin behar. Lehenengo joten dauanak, alde haundia dauka. Ondo dakizu.

-KontxoL. Kontxo!...

-Berba erdirik be ez gehiago.

Sabas zur ta lur geratu zan, baina ez titan, sinestu ezinik.

Atsegin izaten jakon Leoni, lanetik lanera bitartean, bere uriko bazter jatorretan hara horra ibiltea, batera bestera.

Egidazu azkenean itsasoari begira ez zanean, Lameran, Kanttoipean, Zubizahar inguruetan, Kortzelean, Arrigorria, Erriberan eta abar. Inoiz Errenteriraino be heltzen zan hola-koetan. Iturribarri eta Alliri antzinako sagardautegi ospatsuen aurretik ibiliz.

Horrelan ebilen baten, ezebezetik buruan gurari bat sortu jakon. «Txirringea erosiko baneu? Bizikleta arin bat? Txirringularia ez baina, inguruko toki politetara osterak egingo nituke. Saturraran aldera, Baurdo aldera, errekan gora Artibaiko urak ikusiz. Astegunetan tarte-bitarteetan, baina batez be, jai-egunetan... Nire adiskide bi hor dabiz. Ez naz eskasago. Bigarren eskukoa edo...»

Etixerakoan amak emon eutsan albisteagaz, konkortuta geratu zan.

-Benetan, ama?

-Ez, zera! Sinestu egizu beti amaren berbea.

-Kofradian sartuko ni? Eta eskribiente izango? Bihar-tik?...

-Bihartik, bihartik, ez. Baina zuen patrioiak hori esan badau, eta lehendakariak, eta Erremonek... zeuk pentsa.

Apur bat baretu zanean, eta kaioa orekan lez une baten egon ondoren, ikasten ziharduan liburu lodiagoaren orrialdeak iragan eta iragan jardun eban, ikasirikoa bapatean gomutaratu gura baileuan. Liburuak eta kontuketa paper luzeak eta liburuska laguntzaileak.

Arbin eta urduri egoan. Hurrera begira eta urrunera.

Kaskarrean eban asmoak be, hondartzako matxinsaltoak lez, brinko ta jausi egiten eutsan. «Txirringea laster, bota barrura!» Irabazia, irabazi ziuerra izango eban laster. Gonorazkoa, aldi luzea joan orduko. Amak ahotik kendu eutsan berbea izan zan.

-Leon, orain ez baina, laster alobera ipiniko deutsue; bizikaturea izango dozu.

Gerogarrenean aita etxera zanean, bere ahoz adierazo eutsazan patrioiaren berbak eta agindu zehatza.

-Bihar goizean goizetik, zu, hara! Eta bertatik, Erremonegaz berba egin. Eta erne bost zentzunak, han ipiniko deutsuezan kontuak eta zerak artez eta bizkor egiteko.

Izan be, egunak begia zabaldu baino lehen kofradiara erdi ilunetan sartu zan mutila zein izan zan, gautu orduko jakin eben lehorrean egozan arrantzale gazteek eta gizon batzuek. Azterkuntzea egiteko Leon gela baten sartu eben arren, nahikoa izan zan han norbaitek mutilaren belarri-ertza ikustea, albisteari hego arinak jarteko.

Leihotik leihora esan eutsoen haren amari:

-Baldasaaara... Zuen mutila han kofradian...

-Gure... A, ez dakit ezer.

Ez jakin? Bazkaritan jakingo dozu, lehenago ez baldin bada.

Arratsaldean barrero joan zan Leon bere zerera. Eta biharamonean.

Egun horren iluntzean, katuak gizonak baino hobeto

ikusten dauanean, patriiak Sabasen dendako atea ertzedegi, burua sartu, eta dendaria bakarrik ikustean:

«Trés bien» -esan eutsan, itsasgizon laterriartekoa bailitzan.

-«Merzi beaucoup» - erantzun eutsan txeratsu eta jakituriz, aintzinako arrantzale baino geroago lehorreko arrain bihurtu zanak.

Etixerakoan, Sabasek bere emazteari hizkera murritzez -esperientzi barriaren bideari adi edo- adiera eutsan:

-Balda.

-Zer?

-Kodigoz jardun dogu.

Emazteak ixilunearen ondoren eta senarrari begira:

-Kodaina ta kodasta zer direan ondotxu dakit. Baina kodigu hori...

-Ikusi-makusika, andrea.

-Baina... zeinegaz zu ikusi-makusika?

-Ixilik!... Zeragaz, patrioigaz.

-Ba nengoen, ba!...

Baldasarari buruko garunetan zehar joan jakon, bere senarra gonartean edo, kodigo jokoz ete ebilen.

Egun bi edo hiruan Leon kafetxera joan ez zanez, han bere gelan lanean hasi baizen laster, agertu jakon erdi muxin Emeren neskatoa.

-Hutsak egin dituzu, hona agertu barik. Nun ibili zara?

-«Lanin».

-Nungo «lanin»?

-Ez dakizu, ala? Kofradiara joaten naz, «oyente».

-Kofradiara zu? ZuL. Ume hori?

Orduan Leonek, harako autua atara gura izan eban.

-«Umii»... «erdi umi». Niri kontua esango zeustala adierazo zenduan, Eme.

-Zein kontu?

-Mutil kontu, neska... kontu.

-Angela Maria! Bibotea gehitu egin jatzula, esango neuke.

-Laga biboteari; eta esan... zerak.

-Itzartuten hasi gura orain, e? Lehen «umii» zinala-ta... Ba... ba... Gauzak apurka esan behar dira; bestela, ikaratu egingo zara-ta. Oraindino zu ez zara oilaskoa, txitea baino. Horregaitik... ba...

Neskatoak bere buruko uleei oratu, eskuan artu eta lepatxokotik paparraldera aldatu zituan. Igurtzi eta igurtzi hasi zan. Mutilak hafen uleei begira ziharduan.

-Ule baltz luze ederrak daukazuz -esan eutsan, erdi lotsor.

-Nik i... gauza polit asko ditut. Baina zu, erdi tentela izan eta...

-Tira, Eme, esan egidazuz...

-Mutilen kontuak esango deutsudaz lehenbizi. Begitu. Zuk ez daukazu arrebarik, ez neskarik etxean. Nik baí. Gainera neba bat ni baino zaharragoa, eta bestea mutikoa oraindino. Honek biok...

-Ba dakit. Zetara datoz azalpenok?

-Honeek biok ureztatze-gelan, ba dakit nik... eta zeuk be bai.

-Zer? Ez nik.

-Txotxolo hori! Ba... daukezanak eta... Ixildu nadin! Zera... mutilen gorabeherak esaten hasteko, neskati len konturik entzun gura ez badozu, mutil zehar geratuko zareala esango deutsut.

-Horixe da nahastea!

-Ez. Mutilzahar geratzen direanak, badakizu zeintzuk direan?

Emakumeagaz bakarrean egoteko gauza ez diranak. Horreek... mutil-zahar.

-Zegaitik?

-Ezbardinen hartu-emona gaztetarik hasi behar dalako. Hori dala-ta nik, mutilzahar ikusi gura ez zaitudalako, ziri egiten deusut. Ziri.

-Zer dauke, ba? Emakumeen, bildurra?

-Bildurriak dirala, makalak, inuska antzekoak. Eta gero... mutilzahar. Ez ete dakizu iretargira be, gizon ezkonduak bialtzen dituela?

Mutila neskatoak zer esango eta zer egingo egoan. Honek, bere ule ederrak leporantz bota zituan.

Mutilagana aurrez aurre urreratu, esku biakaz arpegia goitik behera eta behetik gora astiro igurtziz:

-Bai politak dirala zure begiak, Leon!

Honek, igurtzaldian, neskatoaren kolkoa ikusi eban, paparra zabal samar eukalako.

Emerenek bapatean igurtziak amaitu, eta arineketan ihesari emon eutsan.

«Ez zara «umii», ez, Emeren. «Eletrizidadii» sortu deustazu gorputzean».

Alkarrizketa hau bere adiskide bateri azaldu eutsanean, honek, bape harritu barik esan be bai:

-Leon, zuri... katuarena pasa jatzu.

Semeak bere bizitzako esperientzi txikietan murgin lehenengoak egiten zituan bitartean, aita Sabasek bere artean esan eban:

-Gure mutilak oraingoan... pelota jokoan soster konturik ez dau aitatu behar. Ez hutsik egin, Kofradiako arazo horretan... besagain bete-betea dart... eta joko irabazi. Horixe!.

Bere zeregin barrian, eta lehengo neste kontugintza txikiak laga barik, laster joan jakozan hile bi Leon arduratsuari. Asmoa beteteko ena heldu zala uste izan ebanean, dapa! Han joan zan bizikleta dandariagana. Amari erdi ezpanartean adierazo eutsan, gero honek berez berez aitari jakinerazo egion txirringa kontu hori. Ez jakinerazo behar. Lehenago

eztanda egin.

Txirringa zaharrei eta barriei begira ibili zan. Bigarren eskukoak be, han egozan. Baina Leonek han egoan barri-barri bateri begia bota eutsan. Bai, ba; bigarren hilabetea: zertzean, lehengo eskupekoa emon eutsoelako, ez zan lehen baizen ez-eukia. Amak berak agindu eutsan, ba: «Hartu egi-zu zerbait, patrikerarako».

Ordurako jakin ba ekian bizikletan. Aurrerantzean, mai-xu egingo zan«ziklistii» ez baina, hobeto ibiliko zan, eta ardu-ra handiz jagongoebanbere burdinazko asto barri-barria. Ikusi eben mutik koskorrak, eta ez hain koskorrak, áhoa zabalik laga zituan. Hilero honenbeste ordainduz, zorko eroserikoa laster zorrik bage lagako eban.

Emerenek Leon bizikleta ganean lehenengoz ikusi eba-nean, bere biziko txerea egin eutsan.

-«Zoroburdi» hori zeurea al da? Eta niri ezer be ez adie-razo, lantzoi horrek?

-Bapateko burutasuna... eta hona hemen «ankarteko panderu».

-Ja. Ja, ja, ja!..

-Izen-modu hori baserritarraei neuk entzuna da-ta, zeri barreok?

-Entzun tira! Baina esan, zeuk esan?... Zera, Leon, domekan dantzara joango al gara... norabaitera? Txirringaganean ni eroango..?

-Nigaz joan? Domeketan zuk u... ez al dozu hor Lukas «Bokarta»? Harek zure «erretratu» erakutsi eustan behin.

-Ba... «Andra Maixekatu, plazakuu». Ez jaramonik egin.

-«Plazakuu»? Ba zuk han... «korbati» lako zinta estua okaran bien ganean eta ixkitarako zalabardo txikia... «zereko zeriin»... besterik ez.

-Lotsabakoa. «Plazakuu» da. Bene benetan. Gorputza ez da nirea, burua. bakar bakarrik, oholaren atzean jarri nintzan eta, rast! «erretratu».

-Ganera Lukasek zure ule bi gordeta dituala, «Buru-

kuk».

Txirringa ganean aldatzetan gora hasi baino lehenago, bide lauetan zehar joatea erosoago ez ete zan uste izan eban Leonek. Horrelan, Erriberatik aurrera joiala. Zubibarriaalde batera laga eta Erreteriaruntz abiatu zan. Egun polita ekarren domeka harek Artibaiko uren ondoko bidean zehar joateko, batez be,txirringa barriaren ganean.

Aitak egun haretan, semearen guraria susmaturik, potinean bera bakarrik joango zala adierazo eutsan.

Grin!.. grin!.. grüin!... eta han joian Leon, Erribera kalean batez be, txirrinari hots eraginez eta galga biei sendo oratua noizean behin, ahaleginez inor jo ta bota ez egian. Praka motzak eta jersei polita soinean, dotore agertzen eban bere burua mutil alaiak. Hasi barritan, mutikotxuek, ha ikusiez batean, oihu egiten eben: «Aiba... «ziklistiii»! .

Baina mutil hazitxuagoek, bai laster bota be, inork eskatu bako erantzuna: «Leon Sostor, eta ez beste inor». Uriko neskatoek be, begira egoten jakozan. Ibili-ala, gero ta hobetoago ikasten eban, zuzenean aina okerrunetan be, azkar joanez; zuzenean tente gorputzaren goiko aldea, bihurgunetanm berriz, itsasontziaren bela luzea haizearen eraginez, alboratzen dan antzera.

Ikasi ezezik ikusi be egiten zituan begien aurrera etorkiozanak; mendiak, muinoak, solo eta zuhaztiak, bideko zubitxu, alboetako basetxe, bidean joiazanak eta etozanak, berribilak, burdiak, astoak eta astodunak.

Ikusi, ikusi... Horraitio, behinola, ordurako hiru lau bidar bere begien aurrean izanikoari, lehenengoz ikusi baileuan, ardi tentelduta, Leon begira ta begira geratu zan.

Astoganean etorren neskato begi argia, buruko ulea urrezkoa... «Bai, bai. Hori ikusi izan dot nik. «Baine»... Leon, nun egon zara orainarte horrelako gauza ederraz konturatu barik? «Gauzii» ez, «emakumii»..!

Neskatoak alboan beste astodun bat ekarren, andra sa-

soikoa bera.

Leonek joian bideari bizkarra emon, eta uriruntz egin eban, astodun bie ixelean lagun eginez, baina hareen atze-txutik.

«Nungoa ete da, Milloikoa, Larruskaingoa, Azpiltzakoa, Berrittukoa, basetxe ezkuturen batekoa? Jakin egin behar dot, jakin. Gaur ez bada, hurrengo domekan, barrua bareago dodala. Ene, ene! Horixe bai «txibi zurixe»! Ezin galdu negi; ezin.J.

Hurrengo domekan, aitak potinean joateko konbita egin eutsan Leoni. Barruko guraria apur bat tximurtu jakon aitarren berba hori entzutean. Itsasora joan zirean eta goiz eder haretan arraina polito hartu eben. Asteak txiritxiri ihes egin eban, eta jai egunean, aita mezatan egoan bitartean, zer gertako, txirrinaren gaenan han joan zan Leon, Errenteriruntz. Orduan be, neskatoa ikusi eban, baina beste astodun bi alboan zituala. Ikusmenari -eta buruari- atsegin emon eta Leon pozpozik etxeratu zan, hainbat bidar neskatoari begiratu, eta honek be, begirada samurrak egin eutsazala sinestu ebalako.

Jai goiz harek argitasunaren hasierea zirudian, eta halantxe, beste jai goiz baten, Kamiñazpi haruntzago, aurrez aurre ikusi eban uriruntz etorren neskatoa, oinez, astoa trailan ebela. Galgea zeharo estutu eta etozanen alboan geratu zan.

-Zeer? Plazakoagaz, e? -esan eutsan Leonek, erdi kez-kaz, erdi lotsor.

-Bai, ba. Jango bada, egin egin behar da -erantzun eutsan mazal mazal baserriko alabeak.- Eta zu, haruntz zinoiazan... Inoiz ikusi zaitudala, esango nuke.

-Bai, ederra; behin baino sarriago alkar ikusi dogu. Baina mutuak baigian ibili gara. Gaur, oster, zeure berba... lagaten badeustazu...

Leon bizikleta ganetik jatsi, eta hau eskutik ebala, bera be oiñez ibiltzen hasi zan, neskatoari lagun egin beharrez. Eta

esan be bai:

-«Nunguu zaa»?

-Zu zeu, berbetatik, arranondoarra -eratzun eutsan, berrezko jakituriagaz neskatoak. Baina marinela ez zara. Dendaria edo, Kordeleriakoa edo...

-Gure aita, eta ni neu be, arrantzale izanak gara. Baina zeu...

-Zetarako jakin gura dozu? Ni, baserriko umea naz.

-Ez zara «umii». Ez, ez; zeuri begiratzea besterik ez dago. Goizetiko lorea, gure amak esango leukenez.

Neskatoak irribarrea egin eban. Astoari «arri» esan eutsan.

-Bizikleta dotorea, e?

-... bai; zeu lakoa.

Ezti koloreko ulea eukan neskatoak urrunera begiratu eban, ixilik, ez-entzun egin baileuan.

Honetan atzetik bizkorrago etozan astodun emakume batzuk gazteen parera heldu ziranean, neskatoagaz autuan hasi ziran.

-Amaitu da gure arlo gozoa, laztana -esan eutsan neskatoari.

-Lehenengo egunean... laztana diraustazu?

-Bai. Ez dakit nik guzurrik esaten. Agur, hurrengo bat arte.

-Agur... txotxo.

Leonek Plazakolaraino joan-etorri azkarra egin eban. Hegoak eukezan txirringearen hurpil finak. Bideondoetako beresi eta txaraketan bidegarroak kantari ebiltzala iruditu jakon. Goizaren ederra!.. Etixerakoan ez eban astodunik ikusi.

Iluntze haretan Leonen irudimena harro eta haizetsu egoan. «Haxe bai babalorea! Ai, txibi zuri hori!.. Nun horrelakorik?» Berbok buruan erabili ta erabili, zortzikoaren doinuz jantzi zituan bertso laburrok:

Ai, txibi zuri hori!

Zeinek hartuko dau?
Amodioa ete
gurari bero hau?

Egun lorrina gertatu zan hurrengo domekan, euri ziriña, haize zazkela. Damuz baina, «etxe eguna» egin beharko txirindulari gazteak. Aukerak etorkion, berriz, kafetxeko lanei ekiteko. Emerenen begiak gogara ikusi eben Leon. Ingurumari ibili jakon neskatoa, bestetan lez, hau esan, hori galde-tu. -Hauxe da neskearen txirritolea!

-Txo, ez al zara konturatu nire buruko uleaz? Beste modu bateko orrazkerea. Ikusten?.. Alperrik! Ni, zertu naiaz-tu, be.

-Zertu egin zareala, Emerentxu?

-Ai, uste bako mutil loratsua. Ba... zeuk be, orraztuak eta... bibotea be, moztu egin dozula. Nogaitik egiten..? Esango? Ez esango? Begitu: argazkia daukat zeuri emoteko, baina...

-Ea ikusi.

-Berbetan... eta zelako kontuak esaten genduzan, ahonekoak... Bai. Atsegin zintzatzalako. Neska batek ez deutsoz edonori esaten arruko... ba dakit nik. Orain, txirringa ganean... nora, Leon, domeketan?

Ez zalakoan ba zalakoan, Emeren maite-muxinak izki egiten eutsan. Izan be, haregaz egin izan zituan lehenengo neska-mutil autuak; harek begiak edegi eutsazan, nunbait. Lehenengo emakume usaina, lehenengo igurtziak. «Haxe, txibi zuri haxe ezagutu ez baneu...»

Eta bigarren zirikaldi honek garai egin eutsan. Eguerdi aldera zerua garbitu eban, eta arratsaldean Leon bideak jaten joango zan, tiringa ganean, Artibairen uren auza dan bidean zehar.

Bideetan ez egoan gura ebanik. Berrituraino heldu zan. Eleizatik azkenengo atso banakak urtetan eben. Plaza aldean gazteak aldretan egozan. Barriketan eta barre algarak. Aldra baten ikusi eban bila ebilena. Bertatik, alboan eu-

kan mutil morrosko batek neskatoari besotik oratu, sorbal-
dan besoa ezarri eta biak tabernara sartu ziran. Leon, lehen-
goan taketa lez, geldi zertu zan. Berehalakoan barruak era-
ginda. Tabernara joan zan. Erdi ilunetan, lehenengotan ez
eban aurrean begietako lausoa besterik. Horraitio... han ego-
zan, mahai baten inguru mutil morroskoa eta neskatoa, asto-
ganeke neskatoa, harako txibi zuria. Leonek handik brasta-
dan aldegin eban. Bideetan ez eban bidegarroren kantarik
susmatu. Artibaiko uren kantu arinik be ez. Errezu motela
erexi eutsan. Ordu lauren baino lehen, etxean egoan. «Men-
debalak atrapau nau; ez arrain eta ez apario...»

Afaritan amak trumonaizearen zera nabaritu eban.
«Gaur... domekea. Honek e, gogoko jakon neskaren bat...
beste norbaitegaz ikusi dau.

Harik egun batzuetara, Kofradian lanean ziharduála,
mutil morrosko bat heldu zan, eta Erremonen galdea egin
eban. Leonek berak eroan eban harengana. Zanak zertu eu-
tsan: «Hauxe da Berrittun ikusi neban morroskoa. Baserrita-
rra. Baina... txibi-koraina nik baino azkarrago erabili daua-
na».

Erremonek, mdrroskoa ikusi ala, panparroi eta zarata-
ka:

-Hona hemen gure lobeá, gure indianoa... Gollibarko se-
mea...

Lehenengoan eta bigarreanean be, Leonen ames-lorea
erdi zimeldu egin zan arren, ez eban etsi. Azterrenak gehitu
egingo zituan. Eta horrelan, han Zubibarri inguruan ezagun
jakon baserritar andrea ikusi eban hain zuzen asti bi alboan
zituala.

-Andratxua... Asto galant honen jabea... Zera, bere ize-
na...

-Bai, mutil, asto honen jabea Basi dozu, Basili Bolu.

-... zerekoa, ezta?

-Bai, ba; Berrittukoa izatez. Ezer gura...

-... eee, ez. Gorantziak emon egiozuz, hemengo mutil

baten...

Kafetxera agertu zanean, hasierako berbak tiraina eka-
rren.

-Zenbat egunean agertu barik, Leon? kontuak atzeratu
edo... Emongo deustugu, emon!

-Zer emongo deustazu, txiki? Esan egidazuz zeure gau-
zatxuak, nik neure lanari ekin bitartean.

-Nik zuri ezer emon? Zoaz... Arrigorrrira.

-Bai, zeugaz joatekotan. Noiz joango gara? Han ikusi
gura zaitut; «Bokartak» ikusten ez dauana nik neuk... Pelot-
tan egingo dogu, eta igerian gero, Eme.

-Leon, horreek dira berotasunak. Zelan orain bapatean?
zeure uko horreen ostean ni beste bategaz...

Leon ixilik lotu zan. Neskatoa erdi hasarre, sukalde-
runtz joan zan.

Lotaratu zanean, Leonek «Hauxe da edan bako mosko-
rra. Txibia baserritarrak hartu deust. Zetarako jakin haren
izena eta nungotasuna? Emeren zenteilak harturik ikusi
dot... Ez txibirik ez olagarrorik! Hor konpon guztiak. Mendi-
zale egingo naz. Pelotaka jardungo dot neure laguntzarrak-
kaz. Domeketan, potinean. Arratsaldean zinera eta dan-
tzan...»

Itzartu zanean, egunaren argia leihoko zirikitutik sar-
tzen zan, alai eta ixilik. Leonek buruko astuna susmatu eban.
Baina jagi, gosaldu eta Kofradiara joan zan. Doinu baten du-
rondia eukan belarrietan, berbak esan gura ezta ebilen doi-
nua.... «Ai, txibi zuri hori...

Zapatuak domekea ekarri eban, eta honek... sagardua-
ren eta bertsolarien urira bidea Leonentzat. Mendiak goisko
samar egozan, nunbait. Artibairen alboko bide zabala, laua-
So.

Lanbroa al zan, lausoa eta zan ? Bai, zera! Basili eto-
rren, astoganean, trakatraka; bakarrik etorri be. Leon, geldi,
oinak lurrera. Itxaroten.

-Ta, Basili! Aspaldikoa. Nun da ba, harako morrosko

ederra?

-Ene! Nire izena jakin dozu... eta morroskoarena, zeinek esan...

-Ardureak.

-Morroskoa... ba... urrunera joan da. Hemendik hiru lau urtera...

-Lastimea -urten eutsan mutilari ezpan-artetik.

-Lastimea... zer?

-Nik zu lehenago ezagutu eza. Ha bera ni baino morroskoagoa da baina, harek daukana nik be...

-Bizikatura, adierazo gura deustazu?

-... bai.

Bideari ekin eutsen, uriruntz. Neskatoa astoganean, Leon oinez, bere tramankulua eskutik eroiala. Mutilak Basiliri arpegira begiraturen eutsan sarri, behetik gora. Begien beharazkoan, ostera, ikusmena jaisterakoan, neskatoaren belau politik, berna biribilak astiro eta gozari ikusten zituan.

Neskatoak halako baten, soinean eukan jersey botoduna erantzi eta belaunak eta bernak estaldu zituan.

-Basj...

-Zer?

-«Ixez».

Leonek bideruntz eta urruneruntz begiradak egin zituan.

-Zera... zuk nire izena jakin dozu, eta nabarmen zakustaz niri begira ta begira -inotsan neskatoak-. Baina zeure izenik ez dakit, nor zarean ez dakit... zuk... nire arduraz zagozala esan arren.

-Ai, Basi...

-Zeer?

-Argiro esango deustut. Nire izena Leon da. Arranon-dorrra naz, bai. Lanbidean sartu ninduen eta kontugintzea da nire zeregina.

-Gizon izateko bidean zoiaz. Ta oraindino gazte zara.

Neu be bai.

-Zuk, horraitio, bidelaguna...

Ixilunea gerta zan eta honetan haize brastadeak Basiliri belautan ganean eukan jerseia aidean eroan eutsan, eta lurre-ra jausi zan.

Mutilak jerseia berehala hartu eban, eta jaso.

-Emoidazu -neskatuak, eskua luzaturik.

-Geldi.

-Emoidazu, bestela astoganetik jatsi egingo naz.

-Zeutzako txarrago. Ez zara jatsiko!! Entzuidazu: zeruak edertasuna emon badeutsu -eta emon deutsu- zetarako dana estaldu? Gorputzean daukagun guztia geurea da, berezkoa da, ona da.

Nekatoak ixilik, Leonen berbak hausnartzen zituala ziri-
duan. Mutilak barriren barri goitik beheruntz astiro begiratu eutsan, astiro.

-Basi...

-Zeeer?

-Eutsi, zeure jersei hau. Eta parkatu. Baina ez dozu lehen lez, berea ez dan lekuan ipiniko. Mojak be, gonak laburtu egin ditue. Eta zu eta ni... mundukuak gara. Bakotxak norbere zerak ditugu. Ez al da egia?

Neskatoak, irribarrez, bere jerseiari oratu eta bizkarrean zabaldu eban.

-Dana dala, Basi, zuk eginiko taloa nork jan legian...

-Zintzoa danak.

Bapatean arrapaladan iragan zan beribilak astoa izutu eban eta hau gora gora hasi zan. Mutilak, txirringea lurrera jaurti eta astoari samatik sendo oratu eutsan.

-Geldi, astoa! Eskerrik asko, zera... Leon. Beranduegi nabil. Bizkorrago joan behar dot. Ez zara mutil «txaarra».. Eeeez.

-Domekn, Basi... goizean barik arratsaldean ni...

-Ez, arratsaldean, ez. Oraindino haren zain nago-ta.

-Ha... urrun dago. Ni, hemen. Ez zaitut bakarrik laga gura. Entzuten, Basi...txu...

-Baaai.

-Astoa ta astoganekoa uriruntz aguro joan zira. Geroa-go Leon be bai.

Etxean bazkaritan amak honetara ziharduan.

-Lehen, mezatatik urteieran, andra batzukaz nentorrela, haizearen astinaldiak, eskuetan' neukan mosuzapia eroan deust. Lurrera jausi da...

-Lurrera jasu? -esan eban ez ustean Leonek. .

-Bai, lurrera jausi, haizeak teilatura eroan ezean. Ba ni-harduan lez, neskatila polit batek hartu eta eskeini deust:

-Eutsi, andrea. E... Leonen ama, ezta?

-Baaai. Ezagutzen al dozu?

-Ez hoba!

Eta irribarre samurra egin eta bere neska lagunakana joan da. Neskatila polita. Polita neskatilea! Ule baltzarena. Liraina eta haziera onekoa. Kafetxekoa dana, lagunak esan deust.

Leonen bekokian izurrak sortu ziran, haizeak itsasazalean ohi dituan бага txikien antzekoak, katxoiak ez baina. «Emeren, ama, Basili... Mundua darabilenak emakumeak ete dira? Bainak amak ez daki danaren laurenik be. Ai, ama, «txibi zurixe» ezagutuko bazendu...!»

Kofradian Erremonek albista pozgarria emon eutsan. Izentapena behingoan egingo ebela eta Leon han lanoineko geratuko zala. Bizikaturea eskuetan eukan. *Gizon* egingo zan ezkerro, mundua... zabalago izango eban. Bere bideak, berberak aukeratuko zituan, emakumeei jaramon gitxiago eginik. Emakumeak... atzetik etorri eitezala. Emakumeak, sorginak ziran.

Horraitio... sorginen artean, sorgina ez zan bat eukan; bere ama. «Gure ama, gehienetan susmo onekoa da. Kafetxeko neskea polita dala, liraina eta haziera onekoa. Bai, ez

da makala. Baina, ama, ha... zeure antzerako baserritarra... Emerenek, arranondotarren gatzia eta edertasuna euki dauka. Atsegin jat. Zetarako guzurrik ezan? Basili agertu ez balitz baina agertu egin jat eta...»

Bere misterioa inori azaldu gura ez, eta azkenean be, adiskide kutun bateri zertu eutsan. Hau, kanposantuko hilibiaren antzeko izango zan.

-Neskatila bat maite dozu, Leon. Bestea, ustez, maiteago. Zoiatz honen ondorik. urte bi hiruan, gorabeherak zertu leitekez. Biotza, sarritan, burua baino jakintsuago da honelako zeretan. Horraitio, maitetasun bidea luzea da. Bizitza guztikoa izan leitekena. Ezkontzako berbak, berbak baino ez dituzu.

Adiskidearen esan honek zartada haundia egin eutsan Leoni. Aurrera egin beharko. «Maite izango danaren zer guztiak errespetagarri izango dira. Basiliren gauza guztiak. Eta asmoak, eta egitadak. Baiña... bertan behera ezin laga negi. Itxaropenaren argiak dizdiz egiten deustan artean».

Harrezkero, Errenterian zehar ibiltzen zan arren, Leonek ez eban aldikada luzean Basiliren gerizarik inon ikusten. Zeozer jakin gura eta behin bidean, neskatoaren ezaguna zan andra maratza aurkitu ebanean, honengandik jakin eban Basili Larruskainen egoala, izeko gaixoari laguntzen joana. Txirrindulariaren partez goraintziak emon egiozala esan eutsanean, astodun andreak zertu eutsan, samurkiro:

-Zuk u, neskatila eder hori maite dozu, ezta?

Mutila ixilik geratu zan, baina baserrikoak irribarre eginenez batean, buruagaz be, baietz zirautsan. Alkarri agur egin eutsen.

Ama Baldasarak begiak eta belarriak erne erabilten zituau.

-Kantari dabil gaur etxeko txoria.

-Zein txori? -itandu eutsan Sabasek.

-Zein txori izango da? Gu txori zaharrak gara kantateko.

Baldasarak bere artean: «Kantuon eragile, kafetxeko ule baltzerana ete da? Ez neuke ezetzik esango, gustagarria da-ta. Baina beronek ez dino ezer, eta ez deusatz zirik egingo».

Kofradian Erremonen galdea egin eben urrutizkinez. Arinekoa zala. Erremon, oster, ez egoan han une haretan.

-Heldu baizen laster, anaieari dei egin degiola.

Hain zuzen Erremon laster heldu zan eta deiez hasi.

-Eeee?.. Zelan?..

-Ezin, baina.

-Bai, beraz? A, gizajo handia. Hain gazterik. Horra ba. Oraintxe noiatzu, haren basetxera alkarregaz joan gaitez.

Erremon arnasea bete ezinik geratu' zan. Kofradiako langileak eta idazlariak hurreratu jakozan, zer jazoten ete jakon. Izerdi larria erion bekokian eta matrailetan behera. Leon be, han- egoan, adi adi.

-Harako gure lobe... ba dakizue... aurtemein Ameriketara bihurtu zana, Gollibarko arrebearen semea... hil egin dala. Ez beharrez; beribilak alkar jo, eta... Hiru lau urte barru bihurtzekotan, eta ea ba...

Erremoni larria egin jakon. Horraitio, Leonen barruan zer jazoten zan, berberak be ez ekian. Burua hondarrez bete jakola uste izan eban. Belarriak eta ahoa, urez. Itsasoa ura-gora bizian etorrela edo.

Erremonen handik aldegin ebanean, langile enparauak bakotxaren lanari ekin eutsen barru. Leonen paperak atzera eta aurrera erabiltzan, arterik hartu ezinik. Gurmea ta lainoa batean eta argitasunik ez.

«Zeinek esango honelakorik? Ahaztutea, hasarratzea, lagatea, gauza latzak dira gazte batentzat. Baina brastadako heriotzea... han urrunean! Maite dodanaren samina, neure samina da. Basiliren atsekabea ez da txikia. Zer egin negi?»

zer egin negio? Baina ni, nor naz, inora edo inogana joateko? Honelako gauzak jazoten ziranik ez neban sinestuten. Liburuetako zerak, pelikuletakoak...»

Leonek laneko orduari adi kalera urten ebanean, puntarengo moilara joatea erabagi eban. Han itsasoari begira ta begira egon zan, adi, geldirik, ixil ixilik, itsasondoko gizasemeek egoten dakien antzera, sor gor, urrunera begira, ezer ikusteke, behar bada.

Urrunera begira... baina begiko kaniketan josita eukana Basiliren irudi maitagarria zan. Lorrez ekusan, han base-txean, atsekabeturik, negarra begian.

Leonek itsasoruntz azkenengoz begiratu ebanean, begiak zeruruntz be jaso zituan, eta han urrunean itsasoak eta zeruak alkarri mosuka ziharduela iruditu jakon.

Harik egun batzuetara, eguerdi aurrean mahaian bere lanari ekionean, Leoni emakume ahots gozo eta ezaguna entzuten ebala begitandu jakon. Burua dzart! jaso eban arren, egoan lekutik ez eban heldubarria ikusten.

-Ererrion jauna hemen al da?

Han hurrean egon idazlariak emakume hori Erremorengana eroan eban, honen despatxura. Leoni luze bai luze egin jakon unadearen ostean, despatxuko atea edegi eben eta Erremonek eta heldubarriak erdi barruan erdi kanpoan berbetan ziharduenean, Leon apurka apurka, katuak ohi dauan antzera, leku egokiruntz hurreratu zan.

Emakumeak hau ikusiaz batean, gozo gozaro:

-Leon -esan eutsanean, mutilak erantzunez.

-Basi... -berba laburra ebagi eban, samurkiro, eta neska-tilleari eskuan mun egin eutsan. Honek eskutik sendo oratu eutsan Leoni.

Erremon, giro sentimentuzkoan hain murgildurik egoana, harritu egin zan. Begiak zabal zabal jarri zituan, eta batari eta besteari, gurasoak ohi dauan samurtasunez begira eta geldi, tentelduta egoan.

-Ene! Basili gaixo horrek... gure mutil barri hau ezaguna

al dozu?

-Beronek esan dagiala -generatu eban harek, berez berez eta tolesbaga.

Erremonek eskuak antxumaturik, zurtzatuta, berba bariarik geratu zala zirudian. Ixilune nekatsu haren ostean:

-Leitekena da... leitekena... Holakorik i! Horraitio... leitekena da.

Gazte biak lurrera begira egozan, txori izutuen antzera.

Erremonek, erion negar-malkoa eskuganeagaz lehortu eban. Eta hurrengo malkoa be bai.

-Horra, ba, Basili! Honelan izan ez balitz, eitekena zan, nik beranduagorarte zu ez ezagutzea. Eta geroago be, betiko edo, zuk eta harek gugandik hain urrunera aldegitia. Orain, barriz, leitekena da, gugandik hurre hurrean...

Erremonek Basiliri bostekoa zertu eutsanean, neskatoak hil zanaren osabeari mosu egin eutsan.

-Agur, Basili! Eta zuk, Leon... zer egiten dozu hain geldi?

Zoiaz, lagun egiozu erbestetik etorri jakunari. Etorri... jatzunari. Gizabidezkoa dozu. Zoiaze. Leitekena da... leitekena...

Eta neska-mutilak, lotatik urteniko umeen antzean, alkarri eskuak emonik han mailetan behera ikusi zituanean, Erremonek, ixildu ezin, eta berba egin beharrez:

-Bihotzaren legeak... Uxatu ezinak -esan eban, errezu antzera.

Atzena

Erkiaga'tar Eusebi

DONANDOM

Kontakizun bati izenburua ipiñi berar eta... nolaz nato-
rren «DON» ipiñaz, galdegingo norbaitek. Ez naiz arritzen.
Orrela daude gauzak gaur gure gizarte onetan. Guri atsegin
izan ala ez, onela daude gauzak.

Orain... ogei ta amar ute, gutxi gora-bera, barra-barra
erabiltzen zuen erriak dalako «DON» ori. Gizon-izenaren au-
rreko apaingarriztat, lasai ta pozik, ugari ta oparo erabiltzen
ez zuanik, bai ote zan euskaldunen artean?

Lenengo beintzat, apaizei opa zien erriak aurre-eraskin
ori: «Don Pedro, Don Juan, Don Migel...» Eta beti-ere, apai-
zaren izena gazteleraz zalarik. Ori bai, euskal-kutsua emanez
askotan izenari berari.

Eta euskal-kutsu geixeago emateko, berriz, DON orren
ordez, zenbaitetan beste era ontara esaten eta idazten zute-
ne, garai. bitxi aiek joan ziran bitartean: «On Agustin, On Ma-
nuel, On Lukas...».

Begirune bera adierazteko beste bat era bat bitxia, toki
gutxitakoa, Motriku aldean erabiltzen zuten: «Pello jauna»
esaten bai-zioten, erri osoak guztiz maitatua zuen Zubeldia'-
tar Pello apaizari.

Apaizentzat bakarrik ez zan, ordea, Erriko maixuentzat
ere erabiltzen zuten. Erriko sendagaille edo osagillea edo be-
terinarioa ta beste norbait ere DON ori erantsita izendatzen
zitan apalkiro erriak. Gutxienez ere bizibide edo lanbide oie-
takoak bai beintzat. Agian beste norbaitzuk ere bai: lege-
gizonak adibidez.

Eta ori guztia, begirunea ta itzala adierazteko asmoz egiten zuan gure erriak, beste lurraldeetakoak baiño areago. Jende ikasiari, «karreradunari», erri xeea baiño goraxeagoko guztiei opa zieten begirunezko aitorpena, uka eziñeko gauza danez.

«Bakoitzari berea, Jainkoaren legea», aitortzen du esae-ra zaarrak. Eta gure erriak zerbait aitortzen zieh jende argituei, ikasketak agindakoei, erriaren zerbitzurako jarriei, laguntzak eskatu bear zizkieten aiei.

Gezurrezko apaltasunik, menpetasunik eta antzekorik ez zuan adierazten begirune-itzal arek. Geitan ageri danez.

Iñoiz edo bein izaten ziran, noski, begirunezko izen aundia zutenak, baiña mailla bereko izana ez zutenak: beren ikasketa ta eziera onari zegokienez, erriari serbitzu leiala egitera jotzeko orde, erritarrak lotsaraztera ta zapaltzera makurtzen ziranak. Baiña ederki ezagutzen eta bereizten zituan erriak, eta bai argiro jokatu ere alakoan aurrean.

Azken-urte auetan, berriz, beste muturrera joan dira gauzak. Aldi aietan jende geiegiri losintxa ta zurikeria egitea adierazten ba'zuan, orain alderantziz gertatzen da. Gaur iñori ez zaio dagokion maillarik aitortu nai. Dagokion eta zor zaion baiño geiagorik ez: ori ez! Baiña... dagokion neurriko zerbait...

Gaurko jende askori begiratuta, auxe ageri da garbiro: zenbat-eta gutxiago ikasiak diran, zenbat-eta ez-jakiñago diran, orduan-eta ausartago dirala; eta orrela, ez diote iñori aitortu nai, beraiek beren buruengan ez daukaten maillarik. Geixego danari bere mailla aitortzeak ez du iñor kazkartzen. Besteak, diran baiño beerago jetxi-erazi naiak, ordea, bestak ez-baiña norbere burua kaxkartzen du. Eta ortan dago gaur askoren okerra: dalako «DON» ori kenduz eta beste eratako itzala ukatuz, besteak beeratu nai dutuztela beren buruak jasotzeko ustetan. Alderantziz gertatzen da, ordea: beren buruak beeratzen eta kaxkartzen dituztela, besteak ez-baiña.

Orduan eta orain, ainbeste euri egin eta ainbeste ur joan

ondoren, gaur bertan ere, orduan bezalaxe, gizon ori adierazteko ta ezagutzeko, bi itz auek naikoak dira: DON ANDONI. Askok eta askok bai ote dakite bere jaioterrian bertan ere zer duan abizena? Baiña ez dio ajolarik. «Don Andoni» esan ezker, dana esanik dago Ondarru'n. Apaiz gazte bizkor, urduri ta egon-eziñez betea zanean bezala orain, berrogei urte luze joan ondorean ere.

Nere burutik galduko ez diran oroitzapen batzuk badauzkat gogoan eta aien laburpena egin nai nuke orrialde auetan: presaka, gaiñez-gain...

Ondarru'tik urbil eta aurrez-aurre dago Saturraran itsas-kolkoa: ondartza orixkaren mutur batean arkaitz zorrotzak tente ta zutik daudelarik. Gudaldi madarikatua amaitu ta andik urte gutxitara zan: 1945'gn urtean, ain zuzen. Urte artan joan giñan Saturraran'go Apaizgaitegira zenbait mutiko gaxte, amabina urte ingurukoak. Berrogeiren bat bagiñan, bildurrez eta ametsez beteta eldu giñanak. Orduan eta antxe ezagutu nuan «Don Andoni», abizenez BASTERRE-TXEA.

Apaiz-talde baten artean, irakasle ta ezitzaille aurkitu genuan apaiz gazte ondarrutarra. Begiak argi ta burua zut, beso biak eragin bizian erabilliz eta sotana beltza urduri astinduz ibiltzen zala esan bear. Geienean, irripartsu bere aurpegia: babesa, adiskidetasuna, abegi ona eskeintzen dituanaren giroaren dizdirak zabaltzen zituan aurpegia.

LATINIRAKASLE

Latiña ikastea zer iruditzen ote zaie jendeéi? Nork asmatuko? Garai aietan beintzat, ordu-pilla galantak sartu oi genituan apaizgai giñanok izkuntza ori ikasten. Zertarako? Gero apaizek egunero ta egunean askotan erabilli bearra izaten zuten, gaztetandik ikasi bear latiña: orra garbiro azaldu zioa.

Eguneroko Meza zearo latiñez izaten zan, azkenengo iru «Agur Mariak» izan ezik. Gaur asiko ba'litzaizkigu apaizak geure elizetan Meza oso-osorik latiñez ematen... zer irudituko

ote litzaike ogei ta bost urtez beerakoei? Buruan sartzerik ere ez dago oraingo gazteei onelako gauzarik. Baiña alaxe ziran orduan gauzak.

Bestetik, egunero ordubete inguru, otoitz egin bear izaten zuten apaizek. Zenbat tokitan ez ote genituan apaizak ikusi, liburu azal-beltza, ertz orixkak zituana, ezkerreko eskuan arturik eta eskubiaz orriak aldatuz, joan-etorrian ibiltzen? Elizen inguruetan bereziki, atarian... aterpean... zimitorioan... Otoitz-jardun ura ere oso-osorik latiñez egiten zuten.

Azkenik, mundu osoko kristau ta apaizen arteko batasuna adierazten zuala latiñak... Ala esaten ziguten beintzat. Eta alde batetik egia zan. Noranaira joanik, apaiz-ikasketak egindakoak beintzat elkar naikoa ongi ulertzen zuten latiñez mintzatuta. Beste izkuntzetako apaizkiekin artu-emanak izateko, ezin ukatu, lagungarri ona zala, baliagarria beintzat.

Eta... errialde ta izkuntza guztietako kristauek ere bazezikitzen gauza batzuk latiñezkoak, buruz ikasita noski, baita euskaldunek ere: «Pater Noster» (Gure Aita) ta «Credo» (Siñisten dut) bereziki... Abestu ere ederkitxo abesten ziran gauza batzuk elkarrekin era berean esateko. Orain bertan ere Lourdes'en beintzat gisa ortan elkartzen gera izkuntza ezberdiñetakoak, «Gure Aita», «Siñisten dut» eta «Agur Maria» latiñez kantatuz. Batasun bat da, noski.

Nolanai ere beintzat, latiña jo ta ke ikasi bear izaten zuten apaizgai ziranek. Zenbat eta zenbat ordu bedeinkatu ikasketa ortan! Eta gure lenengo irakaslea, latiña ikasteko bideak urratzean, «Don Andoni» izan genuan. Gutako askok, egia esan, gaztelerarik ez genekian. Nola ikasi irugarren izkuntza?

Euskaldunon arazoa ederki ulertzen zuan gure irakasle ondarrutarrak, bai. Orregatik, irakaskintza osoa ere pozik emango zigukean dana euskeraz, baiña... euskerearen aurkako gogorrean bizi giñan. Zer egin? Dana euskeraz ez zezakealako, ezer es egin euskeraz? Orrelakoxea beintzat ez genuan aurkitu gure Don Andoni.

Zenbait argibide edo adibide, euskera bitarteko artuta

ematen zizkigun. Ez da erreza adibide asko gogora ekartzea orain. Baiña... gaztelerazko «relativo» deritzana ta bestelako esanaia duan «que» guk ulertu aal izateko, euskeraz ematen zizkigun azalpen batzuk. Ura poza gurea, euskeraz genekialako ta zerbaitetarako balio zigulako!

Izan ere, gaztelerazko «que» itz bera, gutxienez ere mota bitakoa da, baiña latinez bi era ez-berdiñetara esatekoa. Eta ongi bereiztea oso zailla zan guretzat. Euskeraren bidez, ordea oso garbi ikusten enuan bereizketa. «Ama etorri dala (que) esan dit anaiak... Amak ekarri duan (beste «que») goxokia ona da». Euskal esaldi biak ere «que» itz beraren bidez esaten ditugu gazteleraz. Latiñerako, askoz argiago ta uker-garriago zitzaizkigun euskerazko adibideak. Orra argibide bat beintzat beste geiagoren artean, oraindik ere gogoan sartuta gelditurik daukadana.

KIROL-GAIETAN

Ondarrutar danez, itsas-ertzean jaioa; dana adierazteko, esan dezagun, uretan jaioa dala nolabait ere. Arraiñakbezain atsegintsu ibiltzen zan uretan, bai igerian eta bai bestela. Arraunean ere bai noski, batzuetan ikaslekin denbora-pasa ta besteetan arrantzuan. Uretakoak eta uraren inguruko jolas eta kirolak oso gogozko zituan. Baita alor ortako kirolariak ere.

Ikasleoi ere kutsatzen zizkigun bere itsas-giroko zaletasunak. Ez dakit, ordea, zenbateraiño iraun diguten goguan itsatsirik.

Itsasoko kirolen urrena, -ala leenago?- pelota zuan beste kirol bat guztiz berea. Ikustekoa zan Saturraran'go pelotaleku xaar eta txiki artan: sotana gerrian loturik, aurreko ezker-txokoan, erbiñudea bezain bizi ta erne, bi besoak astinduz, urdurik ibiltzen. Indartsu ez zalarik ere, dotorea ta bizkorra zan pelotan, erdiz aurrean bereziki.

An etor-erazten zituan garai artan onentxoan ziran pelotari batzuk, adiskide ta ezagun zituanak beintzat. Apaizgaien artean ere bazan bat pelotari ona izan zitekeana, Gi-

puzkoa'ko Aizarnazaba Pen jaioa, «Txortena» zanaren semea, Larrañaga'tar Jose Mari. Gu baiño larriagoa, aziagoa ta indarrean sartua, gerora apaiz izatera eldu zana ta gaur Eskoria-tza'ko erretore dagoana. Apaiz irakaslea ta mutil ikaslea nai-koak genituan -beste bi laguntzaillerekin- astean bein edo bitan partidu politak ikusteko.

Gutxienez, Akarregi pelotari lekeitiarra beintzat joan-erazten zuan zenbait aldiz. Zertara, ordea? Ezagutu genezan. noski. Baiña baita pelotari onak ikusiz, pelota-zaletu gindezen ere. Euskal-kirol ain bitxia ta gurea, guk benetan maite izatea nai zuan; eta lortzen zuan neurri aundi samarrean. Askotan aipatzen zizkigun pelotari onak ziranen eta izandakoen doaiak, trebetasunak, joka-legeak, berezitasunak e.a. Pelotazale aundia zan.

Ainbesteko mutiko-taldea ez zitekean pelota-leku bakarrean jolastu. Bestelako jolas eta kirolen artean, futbola edo ostikoketa zan nagusi, jokatzen zutenen kopuruz beintzat. Ondarrutar irakaslea'ez zan txarra-kirol ontan ere. Pelotakoán ez-ezik, futbol-zelaian ere sotana gerrian lotuta, lurretik goruntz jaso nairik... Baiña zenbat aldiz naasten ez ote ziztaion balioa góna beltzen artean? Gonapen izkutaturik eramaten ere bazekian.

Atezaiaren inguru-marian ibiliko zan geienetan, andik edp emendik golen bat sartu nairik. Ez pentsa, ordea, futból-zelaian amaika ta amaika jokalaria ibiltzen ziranik alde banatan. Bi amaikako talde ere ibilliko ziran, bear ba da, alde ba-koitzean. Nork sartu an golik? Nork urratu alako esi itxia, dana mutikoz eta bi alako urduriz beterik zengoana?

Mutikoak baiño aziagoa, nagusiagoa ta indartsuagoa zanez, apur bat bultzata bederen, zear-mearka joan eta igarotzen zan eziz aruntza, abiadan bera utsik bederen. Baiña baloia? Auskalo nun zan! Ainbeste oinbikoren artean, kanpotik begira geundenok ikusi ere ez genuan ikusten askotan.

Eta zenbat eztabaida futbolari-taldeen leiaketak ziralata? Bizkaitarren aldekoa zala, esan bearrik ez dago: «Bilbao'-ko Atletik» gauza aundia zan. Urte aietan jokalaria on ziranen

izenak ez-ezik, aurreko urteetakoak ere ezagunak zituan. Ni ez naiz futboltzale, -orduan ere ez!- eta ez dauzkat gogoan aien izenak, oso gutxirenak bakarrik: Zarra, Gaintza... Azkenengo au beintzat adiskide zuanez, an ibil-erazten zuan gaztetxoan artean bai jolasean eta bai partiduren batzuetako gertaerak esaten.

«Soin ososuntsuan, anima osasuntsua»... Aspaldiko elezar edo zuur-itx mamitsua, garai artan latinez entzunda ikasi genuana. Soñez edo gorputzez osasuntsu ez dana, barruz eta animaz osasuntsu izatea, bai gauza zailla! Urteek ederki aski ikuserazi digute gauza ori.

Ikasketan eta otoitzekoan, gure azieran eta ezieran, gure elkarte-bizitzan buruz eta barruz osasuntsu izango ba'giñan, bearrezkoa zan gorputzeko osasunari sendoki eustea. Eta ortarako, jakiña, bearrezkoak ziran kirolak. Orregatik eragiten zigun, noski, jolasketa gogor eta izerditsu aietara. Buruko nekeak eta astuntasunak izerdiaren bidez kanpora irten zitezen? Agian bai, nolabait ere.

Beste asmorik ere bazerabilkian, ordea, Don Andoni'k. Eta auxe esango nuke: era askotako euskal-jolas eta kirolen bidez, euskal-zaletasuna erein nai zuala gure buru-biotzetan, Aurrez itz ederren bidez esanda ez, ordea: eztiki ta zentzuz, ezarian-ezarian, berak nabarmenki jokatu gabe ta gu ezertaz konturatu gabe. Eta... gauza mesedegarriak lortzen zituanik, ezin ukatu.

IZADI-ZALE

Itsas-ertzean munduratua zan, uretara begira alegia. Baiña aldi berean mendiari itsatsita dagoan errian. Nolabait ere mendixka batean dago ain maitea zuan «Antigua'ko Ama» agurgarriaren elizatzoa. Itsas-zalea zan, Kantauri'ko arraiñak bezain ur-zalea.

Eta, jakiña, arrantzaleen maitale. Arrantzaleengandik sortua, aien artean azia, aien adiskide ta laguntzaille zan biótzez eta egitez. Askotan edesten zizkigun arrantzaleen ibillerak, itsas-gizonen arriskuak, aien biziera latza.

Arrantzaleen adiskide izateak, -eta Ondarru'ko itsastar guztien bagiko zala esango nuke!- erraztasun aundia ematen zion, gu gaztetxo giñanok iñoiz edo bein tsasontziren batean erabiltzeko. Batez ere legorrekoentzat, beste mundu berri bat zan itsasoa. Leendik ere begiz ikusita geneukan arren, an bertatik bertara ikustea... uretan ibiltzea... itsas zabalaren bizkarren urrutiara joatea... zerbait bitxiak ziran eta misterioz jantziak.

Gauza arrigarriak benetan. Nik barruan ezarrita dauzkat bi beintzat, itsas-ibillaldi bi alegia. Bata Lekeitio'raiño joan eta itzuli, Ondarru'tik abiatuta noski. Joan-etorri ura ez zan lenengoa: ordurako bizpairu urte bageneramazkian itsasertzean. Itsaso zabalak duan bldur-ikara, arriskuzko gauza berezia, zabaldi urdiñak duan misteriozko giroa, adierazten ez dira errazak. Geroztik, itsasoz ibiltzeko aukerarik izan ez dutanez, pozik berrituko nituzke, orain berrogei urteko biozkadak eta oroitzapenak.

Beste bein, berriz, Ondarru'tik Donostira'ko joan-etorria egin genuan itsasoz. Aiek oroitzapenak! Amabi-amairu urteko umea, legorrekóa, igerian ikasi gabea ta ala ere... itsasoak duan erakarpenak atzipeturik eta menperatuta, an egin nuan itsas-aldi luzea, lagun-talde ugarian, arrantzurako itsasontzi bitan banatuta giñalarik. Gertakizun aundia zan egun artakoa. «Eukarizti-Batzarra» zan Gipuzkoa'ko uriburuan eta... bearrezkoa zan, noski, apaizgaiak joatea. Eta ala joan giñan: 1946'go ekainilla zan ain juxtu.

Ordu asko samar ziran garai aietan itsasontziek bear zituztenak. Goiz abiatu ta eguerdi aurrerako eldu; arratsaldean garaiz irten Donosti'tik eta illunduta Ondarru'ratu. Orixe daukat gogoan. Joan-etorrian, berriz, zenbat eta zenbat ez ote ziran larri ibilli, barruan zituztenak eta ez zituztenak ere ustu nairik, olatuen balantza etengabeek barrunbeak naastuta?

Antxe genuan Don Andoni «Kapitan Pilotu» baiño alaiago ta nagusiago, itsas-abestiak bein eta berriz kantaerazten. Baita larrienik zebiltzanei laguntzen ere: «Jan au...

artu beste ori... Lasaitu mutil! Ago etzanda... Aaztu itzak iru-
dipenak eta abestu kemen guztiz...

Ia berrogei urteren burura ere ezin zait aaztu, arrats ar-
tan nabaitzen nuana: nere burua... biraka ez noski, baiña
gora ta beera zebillela iruditzen zitzaidan. Sekulan nabaitu ez
nuan gauza bitxia!

Izadiaren zati bat dugu itsasoa, ta zatirik aundiena asko-
taz ere. Itsas zale biurtu ginduan, leen giñan baiño askoz
geiago noski. Baiña beste izadi-zatiak ere atsegin zitzaizkion
gure ezitzaille arduratsuari.

Mendia... mendietako ikuspegiak... mendien izenak...
mendi goietara igotzea... Guretzat, Saturran'go itsas-ertzetik
irten orduko, dana mendia zan. Eta zenbat ibilli gozo ta atse-
gintsu egin ez ote genituan Don Andoni'ri jarraituz, artaldea
artzaiaren atzetik oi dan antzeratsu! Igo gaiñetara ta alde
guztietaruntz begira, itsaso ta legorren edertasunak ao-
gozatzen erakutsi oi zigun askotan.

Gaindegiren batera igo, eseri belar-gaiñean, gure artzaia
erdian eta gu guztiok antxe aren inguru, bira osoan eta....
egon. Zertan? Begira. Batzuetan itsasoruntz, besteetan lego-
rreko bazter ikusgarriren bateruntz, beti begira, begiak eder-
tasunez eta zabaltasunez asetzen. Bitartean, zenbait gauza
azaldu ere.

Izadi-zaletasunaz gaiñera, eguneroko liburuetan gauzak
gogotsuago ikasteko irrika pizten ere ez zigun gutxi lagundu.
Ala iruditen zait gaur.

Eta beste alderdi bat oso bitxia, izadi-zaletasunari lotua,
noski, gure gaiñeko ortzia dugu. Gau-giro argia zanean, zen-
bait aldiz an joan oi giñan itsas-ertzera, afal osteko jolas-
unean, eta... izarretara begira... Bai, begiak botatzeko zorian
egoten giñan, lepoak nekatu ta miñez nabaitu arte. Zenbat
eta zenbat izarren izenak ez ote zizkigun irakatsi! Bai gero
aantzi ere, neri beintzat zearo aaztu bai-zaizkit. Baiña... ortzi
eder eta izaratuari edo izarreztatuari begiratzeko zaletasu-
na..., ori ez zait galdu.

¡ENETAKO ERRIKOI

Esanai asko ditu bere barruan «errikoi» itzak: era askotara erabili izan dute, alegia. Gisa ta tankera bat baiño geiagotara erabiliko dut nik ere emen. Ba egoki azaltzea lortzen dutan, nire buruan gauza asko bai-dabiltza irten-nairik borrokan.

Erria maite zualako, esaten diot errikoia. Batetik, Euskalerrria maite zuan eta ez gutxi: jokabide guztietan nabari zitzaien. Baiña baita bere jaioterri Ondarru ere ziñez maite zuan. Aldi berean, beste erriak ere bai, ingurukoak bereziki: Motriku, Deba, Lekeitio, Mendexa, Berriatua...

Bestalde, aundizki ta goi-mailetakoak ez-baiña, erri-erriko jendea zuan maiteena. Erritar xeeekin zituan artu-emanik ugarietak, xaloenak, jatorrenak. Ondarru'n genbiltzanean, guztiei agur egiten zien, arrantzaleei bereziki. Mendi aldean eta legorrean ba'genbiltzan, orduan inguruetakotasu berritarrek zituan ezagunak eta... adiskide. Baserririk bat baiño geiagotan edan izan genuan sagardo gozo txinpartatsua, Don Andoni'ri eskatuta noski. Eta jakina, batzuetan berak ordainduko zuan ainbestekoren bat, baiña beste zenbaitetan baita utsean eman ere, adiskidetasunez.

Beraz, berak erriko jende xeea maite zualako esan badut, errikoi zala, jende erritarrek bera maite zualako ere esan dezaket ziñez errikoi zala. Ori adierazteko, berriz, zearo errikoa zala esan bear, érrikoa ta erriarena: Erritar xumeek biziki maite zutena itsaso-legorretan, alde bietan gaiñera.

Urteek erakutsi didatenez, legorrekoentzat ez da erraza arrantzale ta itsastarrekin beren maillako adiskidetasuna lortzea. Izan ere, beste era bateko bizieran aziak diranez, aien izakera arrotz gertatzen zaigu. Eta era berean gertatzen zaie itsastarrei baserritarren bizikera; eta ondorioz, baserritarrek berak ere oso bestelako iruditzen zaizkie, bai pentsakeraz eta bai umorez, beren ateraldiz eta izakera osoz.

Beste orrenbeste gertatzen zaie kaletarrei, baserritarren artean bizitzen jartzen diranean: ezin ulertu izan dute baserritarra. Baserritarrek, berriz, bereala igerri oi diote kaletarrari,

baserritar ez dan .guztiari.

Guztiekin lasai ta jatorki ibiltzen ikusi genuan Don Andoni: besteen maillan jarrita alegia, bakoitzaren giroan sartuta. Gerora ta gauzak aztertuz, bat baiño geiago konturatu dira, -denboraren joanean oartu ere!- zerbait kutsatu ta erantsi zigula jokabide errikoi aren bidez.

Gaur bertan .ere iñor errikoirik baldin ba'da Ondarru'n -nere ustez beintzat!- Don Andoni dala esango du edonork. Guztientzat ezaguna ez-ezik, nolabait ere beren maillako lagun edo adiskidetzat artzen dutena. Eta ori eta guztietako jendeek. Errikoa ozanez jarraitzen du, beraz, bere erri osoa ziñez maite dualako, baiña ortaz gaiñera ere errikoa da, bene-benetan errikoa ta erriarena dalako. Ez daukate, ez, ondarrutarrek utsaren trukean saltzeko beren Don Andoni. Zerbaitegatik izango da erriaren jaiera xalo ta maitetsu ori.

EUSKAL-ABESTIAK

Bizkai'ko bertsolari guztiz ospetsu izan zan Enbeita'tar Kepa aundiari esan oi zioten «Urretxindorra». Arek, noski, berak asmatu ta sorturiko bertsoak abesten zituan erririk-erri. Ortatik zetorkion geitura, ez-izen edo izengoiti ori. Urretxindorra bezain abeslari izan da Don Andoni.

Ez da bertsolari, baiña bai... nola esango nuke? Abeslari ona, eztarri gozoduna, ez indar aundikoa baiña bai fiña. Garai aietan apaizgai izandako guztiek gogoan izango dute ziur aski, Jose Donearen bederatziurrenean eta jai berean bereziki, zeñen eztiki abestu oi zuan arako bakar-abesti ura:

«Jesus eta Maria, zu il ziñanean, laguntzen egon ziran, Jose, zure ondoan. Zatoz, zatoz bai gu laguntzera zori ain larrian, il, il gaitezen gu ere Jaunaren pakean...».

Elizan abestu oi zuan eliz-kanta berezi ori: bere-berea, bestek garai artan egoki abestu ezin zuana, Don Andoni'rentzat izaten zan. Jakiñekoa!

Latiñezko abestiak bazekizkian noski, ezin ukatu. Gaztelazko eliz-kantak ere bai: nola ez, bada? Baiña... zalantza bat daukat: elizaz landako erdal-abestirik bai ote zekian bat

bakarrik ere? Geiegi galdetzea dala? badakit nik ere, baiña... euskal-abestiak ain maiteak eta ain gogozkoak zituanez, eta beti euzkerazkoak bakarrik irakasten zizkigunez, gaztelerazkoren bat sekulan entzun nionik ez naiz gogoratzen.

Euskerazkoak, bai orratik! Auskalo zenbat! Guri ere irakatsi zizkigun pillaka. Itsasokoak eta legorrekoak, erriaren sena daramaten abestiak: «Boga, boga... Ixil-ixillik dago... Bateltxoak kulunkaz (oraintsu il da onen egillea, Loidi'tar Paben apaiza)... Baserritarak gera gu... Ortzian izar eder bat... Altzak ez du biotzik... Ogeigarren urtera... Illunabarra... Iparragirre'ren «Gernikako Arbola» ta beste asko... Otaño ta Xenpelar'en bertsoak...

Eguberritarako, berriz, «Olentzero joan zaigu... Ai au gabaren zoragarria... Albako gultzurruna... Birjiña maite... Gabeko izar... Ator, ator, mutil, etxera... Dan, dan dan, Maria ta Josepe Belen'en... eta beste geiago.

Orain presaka batean bururatu zaizkidanak ipiñi ditut, askoz geiago ere irakatsi bai-zizkigun itsas-ertzean eta mendian bereziki.

Abesti-zalea genualako bakarrik irakasten ote zizkigun? Orregatik ere bai, noski. Baiña arrazoi sakonagorik bazuan gaztetxo-taldeei urtea joan eta urtea etorri, beti ta aspertu barik euskal-abesti ugari ikas-erazteko. Erriko abesti errikoi aiek guztiek, erri-arnasa zeramaten barnean.

Abesti-zaletasuna kutsatu ta txertatu nai zigun, zalan-tzarik gabe esanda, gure buru-biotz xamurretan: ezin ukatu. Baiña euskal-abestiek ez dute doiñua bakarrik; ez dira edozein eratako doiñuak eta kito. Doiñuak berak ere geienetan, euskal-giroaren agerpe ditugu. Ortaz gaiñera, ordea, euskerazko itzez jantziak dauzkagunez, are-ta euskaldunago dira orregatik.

Euskal-abesti sarkor eta ongi aukeratu aien bidez, euskal-sena landatu ta zuzpertz zigun gure barne-soroetan. Kanpotítako giroa ta goitik beerakoa, zearo giro arrotzak ziran, erdalkeriaz beteak. Uxatzerik ez geneukanez, azpitik giro berria sortu zuan Don Andoni'k. Eta ori iñor beartu

gabe ta guztientzako ikastaldirik ezarri gabe.

Itsas-ertzera ta mendietara aren inguruan joan, nai zutenak joaten ziran. Eta aien artetik ere nai zutenek ikasten zituzten euskal-abestiak. Izan ere, Apaizgaitetxetik irteterako bazekian edonork, Don Andoni'rekin joatea, euskal-abestiak ikasten jardutea zala. Onelakorik nai ez zuanak, beraz, beste bide bat artu zuan, nolabait ere beste jolasen batera makurtuz.

Gerokoan, eldutasunera iritxi diran apaizgai izanak eta apaiztuak, euskaltzaletasunik izatera ta euskeraz idaztera eldu ba'dira, euskal-abesti aiei ez diete ta ez diegu gutxi or. Euskerarekiko eta Euskalerrriarekiko gure maitasuna, ezerk baldin ba'da, euskal-abestiek txertatu ziguten barruenean. Nik neuretik eta neuregandik dakidanez, -eta egia aitortzeko ez daukat lotsarik-, gifo artantxe ta abesti aiei esker aurkitu nuan euskaldun neure burua. Bestela, auskalo zer gertatuko nintzan. Beste asko ere bagiñan ikasturte aietan kideko, baiña batzuei gauza arrotza gertatu zitzaien euskera, ez bai ziran Don Andoni'ren ingurura biltzen edo batzen.

Zor aundia diot nik. Zor aundia diet euskal-abesti ta bertso aiei. Urtetik urtera zaleagotu nintzan, orain garbiro ikusten dutanez. Abesti aietako euskal-giroa arnastu izan ez ba'nu, ez nintzan gaurkoa izango ziur aski. Eta beste asko ere bestelakoak izango zirakean, euskal-abesti aiek kutsatu ta zuzpertz izan ez ba'liztute orduan, artean xume ziran bitartean.

Euskal-abestian eta bertsoen bidez, egia esateko, gure euskaldun-mundu bereziaren gauzarik bitxienak eta sarkorrenak ezagutu-erazi zizkigun. Eta argi zuzpergarriak piztu ziran guregan, geurea ezagutzeko ta irrikatzeko sena zoloagotuz. Ala ere, jakiña, geiegi izan ziran, tamalez, euskal-giroaren dizdirezat begiak itxi zituztenak; orregatik gertatu ziran erdalzale itsu.

EUSKERAZIDAZTEKO OIÑARRIAK

Euskal-giroa zijoan eta zabaltzen gure artean. Baiña ez,

noski berez-berez, Don Andoni'ren eragiñez eta lanez baizik, ixilleko jokabide apalez, etengabeko langintza xamurrez eta iraupentsuz.

Txikienak ere azitzen joan giñan, amabi urtetik amairu-amalautara ginjoazen aiñean. Euskal-giroa ere sakontzera jo zuan gure ezitzaile ondarrutarrak. Onela, mendiruntz joan oi giñaneko igande ta ostegun-arratsaldeetan izaten zuan aukera, euskerazko libururen batetik zerbait guri irakurtzeko. Eta zein idazle aukeratuko zuan, bere erritar ospetsu bat baizik?

Agirre'tar Txomin ondarrutar apaiz eta idazle trebe ta aundiaren liburuetatik irakurri oi zizkigun zenbait zati, guretzat atsegingarrien eta zuzperfarrien zitezkeanak, noski. Eta Agirre'k egokiera ederra eskeintzen zion, itsas-ertzeko ta legorreko giza-giroak guri azaltzeko ta ikus-erazteko. Batetik, KRESALA liburutik zati ta pasarte bizienak, arrantzaleen inguru-mariak eta giroa ezaguturazteko, irakurri oi zizkigun astiro ta zanbaitetan xeetuz.

Legorrekoentzat zerbait ezaguna ta bizi izana gogorazten zigun GAROA liburuko zati bitxienak irakurritz. Itsas-ertzeko ta kalekoentzat arrotz gertatuko ziran mendia, artzantza, baserriko lanak, aizkora-apustua e.a. Guretzat, ordea, artean ain urbil eta igaro-berria genuan aurtzaroa gogorazten zigun eta bizi-berrituerazten, gure barnean oiartzun bereziak sortaraziz.

Asperrerazi gabe, lantzean bein zatiak irakurrik, benetan atsegiñez entzuten genion. Eta arri gogorra ere, urak, tantaka ari dalarik, urteen buruan zulatzen ba du, zenbatez errezago ta aixago sartuko ez ziran, bada, gure gogo-biotz bigunetan euskal-arnasaren tanta bizi ta sarkorrak!

Eta alaxe euskaltzaletu giñan ainbat eta ainbat ikasle, jatorriz euskaldun giñanak, baiña erdal-giroak bere atzaparretan artuta geundenak. Zearo erdaltzale izateko arrisku-pean genbiltzan. Euskeraz idatzitakorik ezer ez genuan orduan artean ikusi. Gazteleraz eta latiñez bakarrik zitekeala idaztea uste genezakean, besterik ez bai-genuan begien aurrean. Orduan asi giñan oartzen, irakusketa aiei esker, eus-

keraz ere idazten zutela euskaldun jator batzuek beintzat eta euskaldunek euskeraz idaztea zala jokaera jatorra.

Geu euskaldun giñala oartu ta jabetzeaz batera, euskeraz idazteko bideak argitu zizkigun irakurketa aien bidez. Ez pentsa, gero, ikastorduetari eta ikas-gelatan izaten ziranik euskerazko zatien irakurketak. galerazirik eta debekaturik zegoan euskal-kutsurik zuan guztia ikasketen esparruan. Andik kanpora burutzen zuan, beraz, Don Andoni'k bere euskalgintza guztia, eta ez gutxi arriskatuz bere burua ta etorkizuna. Egia esan, Sarasola'tar Zeferino apaiz zuzendaria-riaren babesa ta oniritzia berekin izango zituan, bestela...

Irakurketa, legez kanpoko irakurketa aien bidez, urren-go urratsa, geurok ere zertxobait euskeraz idazten asieraztea izan zan. Gauza aundirik ezin guk idatzi, baiña... etxera gurasoei egiten genizkien eskutitzak, zergatik ez euskeraz idatzi aurrerakoan? Eta alaxe asi giñan poliki-poliki.

Idazten astea zan zailena. Bein asi ezker, bereal jabetu giñan, gazteleraz baiño errazagoa zala euskeraz idaztea, guretzat beintzat, mintzaten genikigunontzat alegia. Zergatik alde ori? Gazteleraz idazteko, Y ta B, C, ta Z, K, ta QU, J ta G izkiak naastu barik erabilli bear genituan, bakoitza bere tokian idatziz eta bata bestearen ordeztatu gabe. Eta gure ikasketen artean gogaikarrien gertatzen zitzaiguna, esateko balio ez zuan H izkia gazteleraz noiz eta nun erabilli ikastea zan.

Euskeraz idaztekoan ez genuan orrelako zailtasunik eta naasketa-bildur aundirik. Esaten genuana, uraxe bera bere artan paperera aldatzea beste buruausterik ez bai-genuan euskeraz idaztekoan. Erraztasun pozgarria zan guretzat. Zailtasun bakarra, esatekoan aopean eta erdi-janda, laburturik esaten genituan itzak, aietxek osorik idazten ikastea besterik ez zan. Ori, berriz, zerbait irakurri orduko ikasi genuan, akatsen batzuk gora-beera.

Esatekoa da, jakiña, gaur ez dirala gauzak onela. Euskeraz ikasteko laguntzak eta giroa bai, baiña baita... euskeraz idazteko zailtasun eta naasketa galantak ere erantsi dizkigu-

tela azken-aldian, orduan ez genituanak.

Euskalerrian Elizak eta gure erri osoak ere zenbat aundiko zorra dioten Basterretxea'tar Andoni apaiz euskaltzaleari, esaten ez da erraza; eta neurtzen zaillagoa. Eta ez da ori, giro-berritze artatik gero euskal-idazle arrigarriak ugari sortu ziralako; ez, orrenbeste ere ez da. Baiña badira tartean batzuk, gerora euskal-idazle naiko onak izan diranak.

Euskal-idazle ez diranek ere, ordea, berengan zeramaten euskaltzaletasuna, ta guztien artean euskal-zaletu zan giroa, pixkabana ta poliki, urteen barruan eta beti borrokan jarraituz. Euskal-giroan arnasa artu zutenak eta sena piztu zitzaienak, ori dana zabaltzen eta besteei kutsatzen jarraitu zuten gerora bai Gasteiz'ko Apaizgaitegian eta urrena bai Derio'koan eta Donosti'koan ere. Orrela zabaldu zan apaizartera ere euskeraz itzegiteko joera, leendik apaizek beren artean gazteleraz itzegiten bai-zuten geien-geienetan, erritarrekin euskeraz mintzatzen ba'ziran ere.

Lagun eta laguntzaille bat oso ona ere bazuan berekin gure ondarrutar irakasle txalogarriak: Garro Abaroa'tar «Don Anton» apaiza, izatez amurriotarra ta... ekiñaren ekiñez euskeraz oso ongi ikastera eldu zana. Onen jokaera ere guretzat jarraibide oso baliagarria izan zan. Orri asko idazteko aña gai emango liguke onen langintza luzeak ere.

EKUADOR'EN MIXIOLARI

Araba-Bizkaia-Gipuzkoa, iru erriak, Elizbarruti berean elkarturik zeudenak, 1950'gn urtean eten eta zatitu zituzten Madril aldetiko politikaren aize galgari ta indarrezkoek, eta iru elizbarruti biurtu. Giro arrotzeko jende ta ekintzak nagusitu ziran aldi artan, iru Gotzai erdaldunen agintaritzapean. Ustu zuten Saturraran'go Apaizgaitegia ta andik bizkaitarrak Derio'ra ta giputzak Donosti'ra aldatu zituzten.

Zer egin bear zuan Don Andoni'k? Nora joatea aginduko zioten? Itogarria gertatu zitzaion, noski, arritzekoa ez denez, une artako aldaketa. Ameriketa'ko Ekuador lurraldera jo zuan mixiolari, eta ez zan sasoirik onenekoa bere urtez,

naikoa eldua baizik an aietako bero izugarriak eta lanketa neketsuak jasan aal izateko. Baiña beti bezain ausarta, biotz aundiko ta kementsu ziraunez, bildurrak ez zuan atzeratu.

BERE JAIOTERRIAN APAIZ

Urte-sail bat ona Ekuador'en burutu ondoren, bere jaioterrri Ondarru'ra itzuli zan eta bertan gelditu, beste geiagoren artean apaiz-lagun. Baiña... atsedenean lasai egoteko asmotan ez orratik! Urteek beren zama astunaz etasango ez ba'liote bezala, beti bezain argi ta umoretsu, abeslari ta errikoi, jo ta ke jarraitzen du apaiz-langintzan.

Zenbat eta zenbat ordu sartzen ez ote ditu «Txomin Agirre» izeneko lkastolan, bertako nexkato-mutikoei Kristau-eziera ematen? Baiña ziur nago, -bai orixe!- gure garai urrutiko aietan ez-ezik, orain ere kristau-sinismenaz batera, euskal-giroa kutsatuko diela gaztetxo ondarrutarrei. Gaur lasaiagiago, gaiñera, aldi aietako eragozpen eta etsaitasunik gabe noski.

Orain ere, bada, beti erriko ta errikoi jarraitzen du. Ikastolan umeen artean eta udaldian Tafalla'n egin oi dituzten egunetan ere ume-arte jostari ta ezitzaille ikusi izan dut. Eta Naparroa'ko lurralde legor eta bero artan baita aitonamona urtetsuekin ere etengabeko lagunarte atsegiñean ikusi dut bein baiño geiagotan, urte oroz joaten bai-da aruntza.

ONDORIOA

Ainbeste lerro zirri-borrotu ditudan ezker, ondorio bat ateratzera eldu naiz. Eta argi ta garbi esaten ausartuko naiz, basamortu ixillean lez, naiz itsaso zabal burrundaratsuan bezala, nere esanautsean galduko ba'da ere.

Egia aitortzeko, presaka ta itsu-mustuan tirri-tarra idatzitako lerroak izan dira aurreko auek guztiak. Lasaiago, asti geiagoz, emen laburki aipaturiko alderdiak sakonduz, liburú naiko mardula gerta ziteken. Baiña...

Beste norbaitek' burutu nai ba'leza, nik emen asitakoa, ezluke lan makala egingo. Neuk ere... noizbait egin ba'neza...

Gutxiago zan utsa. Orain zerbait badago beintzat, bideurratze bat bederen.

Eta natorren arira, au da, ondorioa ateratzera. Eta auxe litzake nere lantxo edo jardun onen ondorioa: goratzarre edo omenaldi bikain bat DON ANDONI ondarrutarrari eratzea, guztiz bearrezkoa dala.

Ondarru'k badio, noski, zorrik Don Andoni'ri ta... ez txikia. Baiña zorrik aundiena, Euskalerriko apaizdiak dio, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko apaizek bereziki. Goratzarrerik eta omenalderik bikaiñena eginda ere, ez genioke euskaldunok gure zorra ordaindu aal izango. Eta bein ortara ezker, Euskalerririk ere bere osoan badio zor galanta euskal-ezitzaille ondarrutarrari. Noiz ikusiko ote dugu, dagokion maillara jasorik eta esker onez beterik?

Nork asiko ditu antolaketak? Agian, Ondarru'k asi bear ko du, baiña Elizari ta Euskalerriko Agintaritzari ere laguntza ta babesa eskatuz. Izan ere Euskalerrri osoak txalotzekoa ta eskertzekoa bai-da Basterretxea'tar Andoni'k «Don Andoni» apaiz euskaltzaleak egiñiko langintza luze ta onuragarria: Emaizta oparo ta ugarietan ageri dana.

Zirikatzaille au zai gelditzen da, omenaldi bikain bat antolatzen nor eta noiz asiko, aal dezakedantxoa gogo osoz eskeintzako. Laister arte.

Jesus Gaztañaga

ONDARRU'ko KONTU BATZUK

ONDARRU'REN IZENA

Artibai ibaiak Kantauri itxasora urteten daben baztar baten dago Ondarru, aldatz beruntz datorren menditxo baten alde bietan jasota, etxeak eta kaleak bata bestearen gainean, mustur-musturrean ibai ertzean eliza nagusia daukala.

Ondarru'k erri barruan lur zabalera txikienik ez dau euki berez; ibaiari kenduta, ibaia estututa zerbait zabaldu izan da be aldean. Gaiñontzéko etxeak lurra kenduaz egokitutako tokian egiñak dira.

Guk ortdarrutarrok olantxe deitzen dautsagu gure erriari berbetan diardugunean: Ondarru. Ta au orain baiño lenagotik; orain bizi garenon attitta ta amumak be olantxe esaten ebela ikusi genduan aspaldi, gure ume denporan.

Baiña idaztean, erderaz beintzat, Ondarroa izan da bai agiri edo dokumentuetan (Hondarroa be bai iñoiz). Ostera euskeraz idaztean bitara egin izan da, Ondarroa (Ondarrua) ta Ondarru. Ta baita be bietara esan izan dira beste oneik: ondarroatarrak eta ondarrutarrak. Boga Boga abestian zelan esaten dan danok dakigu: Agur Ondarrua'ko itxaso bazterra».

Txomin Agirre'k, Ondarroa ta ondarroatarra idazten eban: «Eztakit zein zarean, baiña etzara Ondarroa'ko Txipristin». «Esate gisa ori zeure-zeurea da, ez ondarroatarrena,» (Euskalzale, 1898, 362 orr.)

Izurtegi'tar Juan erdi ondarrutar abadeak 1923'garren urtean argitaratutako «Jerusalen'go osterean semeak amari» izeneko liburutxoan ibillaldi aretako kontuak esanaz, olan diño orrialde baten: «... ikustekuak izango litzakez Jose Apita ta lagunak turko jantzita: orduan bai esango neuskijoala: iAlak gorde zaitzala Ondarrua'ko Abdul Hamin Patxa!

Ta berak 1931'garrenean egin eban Ama Birjiña Antiguakoaren Bederatziurrena liburutxoan sartutako abesti barietan olan diño:

Batean Agur Amatxo Antiguako
gure biotzen kutuna
Ondarru dana Zeugana dator
eskintzen maitetasuna

Ta bestean iAntigua'ko Ama Maitea!
Ondarrua'ko Zaindari

Olantxe datoz, bitara, orain larogetamar, eun edo geiago urteko bertso askotan; baiña Ondarrua, geiagotan irakurten da. Ostera, ondarrutar, geiago dator, ondarroatar edo ondarruatar, baiño.

Ikusten danez, Ondarroa (edo Ondarrua) ala Ondarru, zein dan jatorragoa erabagiteko lengo bertsoetatik gauza garbirik ez genduke atarako. Baiña Ondarroa dala zarragoa, jatorragoa, esango neuke ondarrutar berbeteari begiratuta.

Euskera onean *oa* edo *ua* izkiakaz amaitzen diran izen guztiak u'gaz amaitzen dira ondarrutarrez: astoa, zuloa, eskua, burua ta antzekoak astú, eskú, zulú, burú ta abar dira Ondarru'n. Txapeldunak gara Ondarru'n berbak laburtzen, berbai azken izkiak jaten. Ta gure joera orregaz erriaren izena be olantxe laburtuta laga dogu. Bizkaitar euskera onean «Arratsaldean Deba'ra jua biar dogu» esaten dana, guk, «Atsaldin Deba jun bi a» esaten dogu.

Onak, andaluzen-da <<¿Que quíee uté?>> ta lagunak antzeko'a dirudian arren, danen eritxian ez da txarra ondarrutar euskerearen joera au. Izkuntzak, danak, errezago izatera josten ei dabe berez, itzak laburtuaz edo aldaketak egiñaz; eta

joera onetan ondarrutar euskerea ei da geien aurreratu dana, euskal idazle bati irakurri neutsan.

Ta zer esan nai dau Ondarru berbeak edo obeto esanda Ondarroa'k? Boca de arena esan nai ebala bein baiño geia-gotan entzun dogu. Ta olantxe, Errepublikak denporan Aurrera'koak ziran gazte talde batek Bocarena izena artu eban. Gure erriaren izenak esanai ori daben kontua gramatikalariren baten burutik urtengo eban kontixu; baiña niri neuri 'ez jat ereisten alan danik.

Azkue'n Morfolojia Vasca'n au irakurten da: «Quien sabe si los actuales Lasao, Sestao, Ubao, Bilbao y Ondarroa, Belarrea, Arbeloa, no habrán sido un tiempo Lasano, Sestano, Ubano, Bilbano y Ondarrona, Belarrona y Arbelona?».

ONDARRU LURREZ

Ondarru'k ez dau lurralde andirik; bere inguru guztia alde bietatik itxasora arte Berriatua'ren lurrak izan dira.

Bataren eta bestearen erriko mugak dirala-ta naikoa auzi ta eztabaida izan ditue Ondarru'k eta Berriatua'k, Zubikarai'tar Agustin'en kondaira idaztietan irakurten danez. Bakotxak bere eskubideak ondo zaintzen ei zituen. Ondarru'ko agintariak urtero joaten ei ziran gure erriarena zan Berriatua aldeko Eizmendi auzora alkate ta juezak «bastoiak tente» zituela.

Baiña erri bien arteko gora-beretan Franco'ren denporretako azken aldian gertau zan gogorrena. Ondarru'k Berriatua osoa beregandu eban, Berriatua'k erri izatea galdu egin eban eta Ondarru'ko auzo izatera biurtu zan.

Errezoi andiagaz, ori atsekabe andia izan zan berriatua-rrentzat eta orduan ezer ezin eginda gelditu baziran be aztuta ez egozan. Eta Euzkadi'k bere Araudia edo Estatutoa lortu dabenean bear dan tokian ateak joaz, lortu dabe euren erriaren buru jaubetasuna. Ez da egin, ez len zituan lurralde guztien jaube, baiña bai berriatuarrak poz-pezik lagako zituan erri mailla lortu.

Egia esateko, len ez egozan ondo erri bien arteko gora-

berak, ba-egoan auzi onezaz konpondu bearra Ondarru ta Berriatua'ren artean. Berriatua'ko gain aldeko Eizmendi auzoko iru baserri Ondarru'ko lurretan egozan. Eta Ondarru'n bertan Zubi-barria Mutriku alderuntz igarotakoan, bidezabalen eskuman, etxe guztiak Berriatua'ko lurretan egozan. Zaldupe ostiko jokuko zelaia be Berriatua zan eta bardin BOGA BOGA abestian aitatzen dan Ondarrua'ko plaia edo ondartzea, ta azken aldiian Txori-erreak'n egindako ainbat etxe be. Ta auzo guzti orreitako erri serbitsuak Ondarru'ren konturakoak ziran. Orregaitik, or konponketa baten biarra egoan. Ta ori, gogorrean egitea be zuzena izango zan. Baiña Berriatua'ri buru jaubetasuna kentzea ez. Biar bada, konponketa ori ez eban egin nai izango Berriatua'k eta gero dana galdu eban.

Dana dala, orain gauzak zuzendu egin dira. Orain lengo jira-birarik ez da egin biarrik izango. Len auzo orreitan ume bat jaiotean, bautizau Ondarru'ko elizan egiten zan baiña Berriatua'ko juzgadian erritar lez izena ipiñi biar zan. Eta auteskundeetan be ara joan biar izaten zan autarkia emotera. Kontu onein gaiñian ba-dakit zerbait, neure alaba biak San Juan-txurru albuian jaiio ziran da.

Len Berriatua'k bere buru jaubetasuna galdu ebanean, egite orren aurka idazlan bat argitaratu neban. Orain, bi erriai zorionak emoten dautsedaz.

KAIA

Ondarru'ren bizia itxasoa da, alantxe izan da beti. Legez erri izatea lortu aurretik «arrantzako ta itxastarren toki» lez ezagutzen ei zan Ondarru.

Bai, gure erriak, kaia izan dau sor bidea. Baiña Euskal Erri'ko beste kai askok lez berez, barrako moillak egin baiño len, sartu-urtera txarra eukan itxasoz Ondarru'k. Orain eskumaldean Saturraran'go musturreko aitxak dagozan lez izango zan esker aldea be, Artatik Gipuzkoa alderuntzko zuzenbidean luzatzen diran atxakin bakarrik. ¡Ez zan sarrera ta urteera gozoko kaia izango!

1622'garren urteko barriak diñoenez, errikoaize ez beste aize guztiak jasotako olatuak barria ondarrez beteten ei eben eta sartu-urteera gatx-gatx egin. Alan be naikoa sartu-urten izaten zan ba, amazpigarren mendean, arrantzaz gaiñera 80.000'tik gora kintal meatz edo miñeral «deskargatu» ei ziran, ibaian gora egozan amar burdiñola andi ta beste amar txikitarako. Meatza, Antzubia'ko Torre inguruan, Amallo'ko ur-bidean ataraten eben itxasontzietatik, ango arritzan orretarako egokitutako tokian.

Lekeitiarrak be baliatzen ziran toki aretzaz euren etxe ta itxasontziak egiteko biar eben ola atarateko. Baiña orretarako ordaindu biar zan zerga ordaindu nai ezda ibiltzen ei ziran, M. Ciriquiain-Gaiztarro'k diñoenez.

Itxasontziak zamatuta araiño juan al izateko, orain dan baiño zabalagoa ta ur sakonagokoa izango zan orduan Artibai ibaia.

Aldi aretan ez zan barrako moillarik eta barruko moillarik be ez, ganorazkorik beintzat. Arrantzako itxasontziak eliza azpiko ondartzan geldituko ziran arrain atarate ta beste euren lanetarako. Ondarru'ko orain ezagutzen doguzan moillak igarotako azken mende inguruan asi ta egindakuak dira. Lenengo, Zubi-zar'etik gorako zati bat egin zala dirudi ta gero Zubi zar'etik eliza azpira edo kantoipera arte, gaur Moilla izenez ezagutzen dogun kalea. Ta gero ibai guztiari bidea emoten eutsenak.

Baiña lan orreik premiñazkuak baziran be premiñazkuenak barrako moillak ziran. Kairako sarreran arrantzale asko ito izan da, batzutan euren alde ezer ezin eginda egozaren agirian. Orregaitik gu umeak giñanian ba-zan Ondarru'n «salbamentuko» ontzi bat erramuz erabiltekoa ta bein baiño geiagotan urtengo eben bertan sartuta errian egozan mariñelak barran itxasontziak tirabira eginda edo ia galduan egozainai laguntzera. Orain Kofradia barria eginda dagoan (azkenengoa) tokiko etxetxu baten egoten zan. Nik neuk bein be ez neban ikusi uretan.

Barran olatuai bidea itxiten egindako lenengo mollia

1862'garren urtean asi zan. Biar bada ez zan gauza andia izango. Geroago 1878'an Arrigorri musturretik aurrera Plaitxiki'koa egin zan 212 neurkin luzerakoa. Ta alantxe, orain gauza bat eta urrengoan bestea, azkenengoa, 1903'garrenean Arta azpitik atxen gainean Egidazu ijieneruak egindako molliagaz barria naikua ondo gelditu zan. 1896'garren urtian Bizkai'ko Aldundi'rako (?) izandako diputadutzarako Rodas eta Aznar'en arteko auteskundeetara ataratako bertsuetan bat olan da:

Ainbeste urtian egondu gera
molla batzuen eskian
esan bezela logratu eta
ori ari dira lanian
Rodas jaunaren erregalua
or daukagu ondarrian
gizon batzuk ori salduta
dabiltza beste aldian.

Txomin Agirre'k KRESALA'n auteskunde batzuiñ kontuak edestean olan diño eztabaidako baten aoz:

«- Nik ez nekian orduan Peru zein zan: txarra dala diño ta gañera Patxi'k nasa barriak egingo dituala, bearra be badago-ta.»

Ondarru'n orduan, barria erriko kezka nagusia izango zana iñok esan biarrik ez dago, ta alan euskal literaturan be zerbait sartuta gelditu zan, ikusi dogunez.

Kaiako antxiñako kontuak, irakurrita dakiguz baiña geure biziko urteetan be kaiian lan barri ta gorabera asko izan dira ta ikusi doguna laburkiro esango dogu.

Ondarru'ko kaiako sarrerea, lenago aitatu doguzan moillak eginda gero be ez zan on-ona. Etxean zirala egualdi txarra jarten bazan itxasora ez urtenagaz dana konponduta egoan; baiña itxasoan zirala txartzen bazan iorduan izaten ziran kontuak! Talaieruaren laguntasunagaz sartzen ziran. Olatuaren bareunetan talaieruak turrunagaz deituko euísen barratik eta orain bat eta geroago bestea, sartuko ziran. Baiña iñoiz talaieruagaz be ez sartzeko moduko egualdi txarre-

tan, -Getaria'ra joan bear. Ta baten 1924'gañren urte inguruan, alantxe egin eben. Ta an olakoetarako ipiñita dagoan babes edo errefujio etxean gaba igarota, urrengo égunean, ontziak zaintzen lemazaiñak eta makiñakoak geldituta, beste guztiak, zazpireun-zortzireun gizon inguru, trenez etorri ziran.

1919'garren urtean 48 neurkin luzatu zan barria. Sei urte be ez neukazan arren, ondo gogoratzen naz lenengo arria ipiñi zaneke egun a, neu be itxasontzi baten, aitagaz, barrara joan nintzan da. Erriko ontzi guztiak an ziran jendez beteta.

Ordutik iru bat urtera Euskal Erria dragia etorri zan barran sarrerako ondarra kentzera ta sondia anditzera. (Orduarte ta gero be bai barrurago, barrako aldetik Plai txikira oiñez igarotzen giñan oiñetakuak kendu ta geure praka txikiak belaunetatik gora jasoaz); Ta biar biarrekoa zan dragiari arrera ona egin naian, Ondarru'ko itxasontzi guztiak urten eben jendeagaz Saustan aldera. Ta-agertu zanean danak inguratu jakozan eta erdian arturik eta soiñu joka kaian sartu ziran. Ta denpora apur bat egin eban, geienez be iru bat urte-edo, ta alde egin eban. Baiña barriro¹ ékarta lortu zan ni musika taldean sartu nintzan edo urrengoko urtean. Ta orduan be lengo lez urten jakozan itxasontziak Saustan aldera; lenengoan ez dakit baiña bigarreanean musika be joan giñan.

1919'garren urtean asita egin zan barra musturrak gitxi iraun eban, lau- bost urte. Ez zan ondo egin, ta 1924'garren urte ingurukd egualdi txar batzutan, olatuak jo ta jo, ausi ta kai barru aldera jausi zan zatituta. Kairako sartu urtena itxita laga eban eta negu aretan ez ziran joan besigutara Ondarru'ko arrantzaleak. Ta negu aretako Santa Ageda'ren eskian urtendako taldeko bertsolari Bróntxe arrantzaleak berak orduan asmau ta abestu eban bertso bat olan zan:

Barra ori dala mediante
emen gabiltz pasiante.

Ta 1925'garren urtean barra mustur barria egitea erabagi eban Laterriak. Ta ordutik urte bi ingurura asita egin

zan, lengoa baiño sendoagoa ta luzeagoa be bai, ikusten dan lez itxasora aldera okertuta edo sartuta.

Ta barrako moilla mustur barria egin eban lan etxeak plaiko moillea be barriztau egin eban; lengoa barruan ezkutauez luzeagoa, zabalagoa ta goruntz be andiagoa, gaur da-goana.

Barrako azkenengo lana, bera luzatzea, orain iru-lau urte egindakoa da.

Ondarru'ko kaiari gorakadarik andiena emon eutsana, Errepublika aldian egindako lana izan da; dikiari sondia geitu, urari beruntzko andia emon. Ordurarte, len, liortu egiten zan maria berakoan. Prieto sozialista ospetsua erri laneñako ministru zala egin zan. Lan arei eskerrak, Ondarru arrasteko itxasontzien kai biurtu da ta ori askontzat bizi bide ona egin da. (Ta erria kanpotarrez bete ta bere izate jatorra galtzeko bidearen asierea be bai. iZer egingo dogu ba!) Gaur egunean Ondarru Bizkai'ko erri nagusia da arrantzan.

Gure kaia egokitu danean arrasteko itxasontziz bete da. Ia larogetamar itxasontziraiño eldu izan dira bertatik arrantzara urteten ebenak. Dan kairako geiegi be bai. Ta kaia andituteko asmoak artu zituen orretarako ardura daben Lateraliko arduradunak. Nai zana egiteko, plaia, ondartzea, kendu egin biar zan. Ta, errian lenengoa itxasoa izan arren ondartzea be gaurko munduan gauza andia da ta asmo orren aurka erriak urten eban ta auzia bertan-bera ixildu zan.

Orain, Europa aldetik emengo arrantzialiai ipinten dau tsezan enbazuak ipiñita iñungo arrasteak ez dau goruntzko andirik egingo, Ondarru'koak be ez. Berez, ondartzea kenduko eben bildurak joan ziran.

LENGO ARRANTZIA

Edozer gauza lez, asko aldatu da gure denporan arrantzia edo arrantziagaz zer ikusi daben guztia: kaia, itxasontziak eta arrantzia.

Len, orain berrogetamar urte, mariari begira egon biar

izaten zan askotan itxasora urteteko ta baita kaian sartzeko be. Maria beian egoanian ez bata ta ez bestea egin al izaten ziran. iMakiñabat bidar ikusi genduzan orduko bafor txikiak antxobiagaz musturrez bera maria berakuan plai mustur parean, geldi, barrura ezin sartuta!

Itxasontziak, txikiak ziran gaurkoen onduan eta indar gitxikoak eta bape aurrerapide edo «adelantu» bakoak. Ibiltzeko makiñagaz gaiñera, konpasa edo «palometrua» (barómetro) bakarrik zan euken aurrerapidea. Mende onen lenengo laurdenian amaitu ziran erramuz eta belaz (aize oialez) ibiltzen zira'n itxasontziak, makiñadunak asi ziranian. Txalopandiak izan ziran azken baztatu ziranak. 1922'garren urtean joan ziran azkenengoz atunetara ta bat galdu egin zan SAN PEDRO izeneko iru mastakua ta barruko gizon guztiak ito ziran, bederatzi. Ta eurakaz batera, txakur bat, itxasontzietan eruaten zituen ur-txakur areitakoa. Urte a izan ebeh azkena. Ordurako lurrunontzi asko egoan errian.

1893'garrenian egin zala Ondarru'ko lenengo lurrunontzia, lenengo bafora, diño Zubikarai'k; eta Bizkai'ko lenengoa Bermeo'n egin zala 1900'garren urtean diño Jose Antonio Acedo'k Carpinteros de Rivera izeneko liburutxuan. Edozelan be ba-dakigu gitxi gora-bera noiztik diran Ondarru'ko lurrunontziak. Lenengoak, txalopandien antzekoak ziran andi txikian, ogeiren bat toneladakoak. Ta amabost-ogei inguru zaldi indarreko galdara makiñadunak. Ikatzez ibiltzen ziran eta lemazaiñaren aterpe edo «puenterik» ez euken. Lemazaiña, euri ta aterri, nai egualdi on nai egualdi txar, bai gabez ta bai egunez, ezek estaltzen ez ebalta joango zan lemanari elduta. Amalau-amabost izaten ziran lurrunontzi bakotxeko lagunak. Berrogetamar bat ziran Franco'ren gudea asi ziranean Ondarru'n egozan lurrunontziak. Orregaz gaiñera udabarrian antxobatan sareta erara ibiltzen ziran zortzi zaldi inguruko makiñadun treiñeruen antzeko itxasontzi pillo andia egoan, lurrun ontziak baiño geiago. Gasoliñez ibiltzen ziran, bakotxa lau-bost lagunegaz.

Lurrunontziak urte guztian ekiten eben arrantzan: ne-

guan besigutan, udabarrian antxobatan (asieran manjuban eta gero saretan) eta udan, atunetan, Santander eta Asturias'ko itxasoetan. Atuna (egaluzea), kazan edo eizian atrapauten zan, au da amu bateko apaxuak, amua malutiagaz estalduta, albo bietatik espetetan dindilizka itxasora jaurti ta itxasontzia ibillian joiala.

Len, 1935'garren urtean jelerak edo arraiñarentzako izoztokiak eurretan jarri arte, lurrenontziak egunero etxerazten ziran arrantza era guztietan. Atunetan be bai. Iru alditan zatitzen zan atunetea. San Pedruak igarotakoan urten eta Andra Mari jaietarako errira biurtzen ziran. Gero, jaiak igarotakoan urten eta Andra Mari Arratik (Arrate'koak) arte. Ta bigarren jaiak amaitutakoan, ez ziran juaten Santander eta Asturias aldera, emengo uretan arrantzaten eben, eta jakina, egunero errira biurtu. Oraintxe lez, Urri erdi ingururarte iraunten eban gitxi gora-bera atuneteak. Udazkenean, au da, emendik ibiltzen ziranian, «alasa» deritxon eran iñoiz atrapauten eben atuna, sariagaz antxoba txikia atrapau, antxe uretan euki antxobea sarean preso ta apaxuan bera ipiñita karnatatzat.

Urtean milla laurleko inguru izaten zan lurrenontzietako gizon bakotxaren irabazia. Amari entzunda daukatenez, gure aitaren irabazia milla laurlekotik gora bein be ez zan eldu. Oraingo 200.000 laurleko inguru. ¡Ez zan irabazi andia!

Orain lez orduan be bajurako arrantzaleak ez euken eguneko irabazi jakinik edo izentautakorik; orduan be atrapauten eben arraiñaren balioaren arabera izaten zan euren irabazia. Itxasontzi bakotxak atrapauten ebanaren balioaren euneko zazpi Arrantzale Kofradiarentzat izaten zan gero arrantzalien premiñetarako, adierazoko danez. Gelditzen zana, baltzako gastuak ordainduta gero, erdi bi egiten zan gitxo gora-bera: erdia itxasontzi jaubearentzat eta beste erdia arrantzale guztientzat izaten zan, (itxasontzi bertakoentzat) lemazaiñari zerbait geiago emonaz.

Gaixuak, lenengo urte barruan soldata edo irabazi osua jasoten eban bere itxasontziko arrantzaleen dirutik. Gero Ko-

fradia egiten zan bere jaube ta gaixuak iraunten eutsan artean, biar bada bizi guztian, eguneko amar errial ordaintzen eutsan. Zarrai, irurogeta bost urtetik aurrera eguneko laurleko bat, nai itxasoan ibilli nai ez ibilli.

Erriko osagillea ta osakaiak duan eukezan Kofradiaren kontura.

AUTESKUNDEAK

Auteskunde edo botaziñoiak noiz asi ziran Euskal Erria'n ez dakit, baiña lengo mende azken aldean ba-zirala bai ba-dakit. Euretako baten barri emoten daben bertsoak ba-dira, idazlan onetan lenago ikusten dan lez. 1896'garrenurtea zan eta Bizkaia'n Aznar eta Rodas'en artean aukeratu biar zan ez dakit Bilbo'ko Aldundia'rako edo Senadore izateko. Ta orduan be naikua eztabaida ta asarre izan zala dirudi ondarrutarren artean. Txomin Agirre'k ederto agertzen dau Kresala bere liburuan.

Len, biar bada orduan be ori ez zan legekua izango baiña alderdiak dirua emoten eutsen euren alderdikoari autarkia emoten eutsenai. Baten bost ogerleko bakotxari emon eutsela gurasuai entzunda nago. Ori, Primo de Rivera'ren diktadurea baiña lenagoko auteskundeetan izan zan. Ta bost ogerleko orduan, langille baten asteko alogera zan.

Egia, ori ez da jokabide zuzena, ori ez da demokrazia; baiña erriarentzat bata izan bestea izan bardin samar bazan, ez egoan txarto-txarto gora igo nai eben jaunai zerbait kentzea. Gaiñera, alderdi biak (orduan geienetan alderdi bi izaten ziran) emoten eben. Beraz, diruagaz alkarri ez eutsen autarkirik kentzen. Ori baiña okerragoa zan etxe jaubeak egiten ebena, zera, euren aldekoa autarkia emotera biartu errenteroak eta makurtzen ez zanari etxea kendu, kanpora atara. Etxe jaube guztiak ez eben era orretan jokatu baiña askok bai. Ara onezaz 12-12-1909'garren urteko auteskundeak zirala ta ataratako bertsuetako batek diñoana:

Propietario jaun andi oyek
egin dute alegiña

errenteruak derriorrean
mudatutzen euegana.
Usta al zuten etxe jaberik
eurak baiño etzeguala
orain artian bizkorrak ziran
oraintxe makaldu dira.

Tarteka kontu politik be gertatzen ziran auteskunde egunetan. 1896'garrengo auteskundeetan, batel barria eskeiñi eutsen gizon bateri euren alde autarkia emoten baeban eta bereala ontziaren neurriak artu be bai; baiña batel barriak orduan be dirutxua balioko eban eta suskriziñoiz dirua batzen asi ei ziran eta batelaren balioaren erdi inguru baiño geiago ezin batuta gelditu. Beraz batel barri barik geldituko zan, gauza andia lortuko ebalakoan autarkia emon ebana.

Beste botaziñoi baten, 1909'koan, karlistak, zerbait txarto ulertu ta eurak irabazi ebelakoan iareik atara ei eben zara-tea! Iji ta ajaka, balkoietan be ikuriñak ipiñi, itxasontzi bat turruna jo ta jo ta alako batean, gauzak beste erara zirala, galdu egin ebela.

Auteskundeak irabazi zituelakoan saltoka ta igoralka geien nabarmendu zana, egia jakin ebanean, gaixotu ta oean egon ei zan egunetan.

Mende onetako auteskundeak, Ondarru'n, karlista ta bizkaitarren artean izaten ziran. Karlistak, Espaiña'ko erregeren aldekoak ziran, eta bizkaitarrak orain Eusko Alderdi Jeltzalea dana. Orduan Ondarru'n ez egoan guarda zibillik; foralak izenez ezagutzen ziran Aldundia'k ipiñitako ertzaiñak ziran, lau edo bost. Auteskunde egunetan Markiña'ko guarda zibillak etorten ziran goizetik gaberarte; iñoiz zaldizkoak. iAren perra otsak ikarea sartzen eban!

Baten, erriko abertzale nabarmenen batzuk, autarkia zeñeri emongo eutsen gauza jakiña zan eta, goizean auteskundeak asi aurretik kartzelan sartu zituen eta amaitu ziranean atara.

Errepublika denporan irugarren alderdia sortu zan On-

darru'n, ezkerrekoa, errepublikar, sozialista, komunista ta abar nastean. Oneik barriak be ba-ziran eta gutxien ziran. Len, gizonak bakarrik autarkia emoten eben eta Errepublika denporan emon jakon botua andrazkoai. Ondarru'ko autarkiak, gitxi gora-bera olan banatzen ziran:

Eusko abertzaleak 1.200

Españazale eskumakoak 700

Ezkerrekoak 130

Gure denporan asarre barik egiten ziran auteskundeak. Orratio, Errepublikea etorri ta Madrid'ko Legebatzarrerako egin ziranetan ezkerreko batek urnea edo autarkiak sartzeko kutxa jo ta ausi egin eban eta erriak ori txarto artu eban eta larri ibilli zan gizona.

Alderdietako buruak autarkiak irabazteko, al baeben, tranpatxuak egiteko bildurrik ez eben izaten. Orduan ez zan orain lez DNI edo ezelako agiririk erakutsi biarrik izaten autarkia emotean. Bakotxaren tokian maikoak danak ezagutzen zituen. Baiña «bolilla» batzuk sartzen ziran. Orixe zan tranpaz emondako botuari emoten jakon izena. Baiña alderdi biak egiten zituen tranpatxu batzuk eta orregaitik auteskundeak zikiñak zirala ezin esan leiteke. Errepublikarrak azkenengo denporakuak ziran eta biar bada olako kontuetan sartzeko ikasirik ez euen.

Olako kontu polita Eusko Araudia edo Estatutoa onartzeko 1933'garren urtean izan ziran botaziñoietan egin zan. Alderirik geienak Eusko Araudiaren alde egozan Euskal Errian, baiña karlista ta antzeko España zale eskumakoak ez aurka ta ez alde egozan; nai ebena egiteko agindu eutsen euren alderdikoai. Ta Ondarru'n karlista ta lagunak geienak ez maistrea, Elixope'ko auteskunde maiko lendakari zana.

Orduko Eusko Araudia aurrera ataratea zaillagoa zan oraingoa izan dan baiño. Araudiaren aldekoak aurkakoak baiño asko geiago zirala gauza ziurra zan, baiña autarkidunen zerrendatik edo zensotik euneko onenbesteko baten baietza lortu bear zan, naikoa asko. Ta ez dakit ori lortzia zailla zan, ala itxuraz garaitza andia lortu nai zan, beintza

mai geienetako arduradunak nai zan beste botu izateko alkartuta egozan. iBaiña Elixopea'n ziran kontuak! Orduan arratsaldeko lauretan itxiten ziran auteskunde tokiak; eta Doña Anita egun guztian irme bere tokian. Besteak zain kumunera-edo noiz joango ete zan. Ta alako baten, iruterdiak inguruan jua ei zan ibaiña bai arin biurtu be! Baiña naiko eben unetxu a besteak boto pillo bat urnan sartzeko ta alantxe egin eben. Lendakaria biurtu zanean igarten ei zan boto pilloa sartuta egoala ta berak arek ez zituala zenbatuko esan ei eban. Baiña urna barruko botorik ezin leiteke bereiztu ta ordua eldu zanian berbatxu batik be egin barik zenbatu ei zituan.

ERREPUBLIKA DENPORAKO KONTUTXUAK

Errepublika denporako kontu oneik anedokta lez bakarrrik esaten dira, iñoren alde edo aurka egiteko asmo barik.

Errepublikaren etorreria ezer ez zan ospatu Ondarru'n. Bolandera batik ez zan jaurti, igora! batik ez zan deitu, txalo batik ez zan jo. Udaletxean ikurrin bi jaso ziran, Errepublikarra ta euskalduna ta ikito!

Olantxe igaro ziran illa batzuk Errepublikaren aldeko ezer erakutsi barik. Ta errepublika-zaleak (gitxi ziran, lenengo auteskundeetan berrogeitik bera) zerbait egin naian asi ziran, errian bein be jo ez zan Himno de Riego errepublika ereserkia musika taldeak jo eiala nai eben eta alantxe agindu eban Bizkai'ko gobernadore zibillak; urrengo igandean musika taldeak dantzakoak jotera zijuanian asieran Himno de Riego jó eiala. Musika taldean bat bakarra zan errepublika-zalea, besteak erdi inguru karlistak eta beste erdiak abertzaleak. Ta abertzaleai ez jaken ondo iruditu errepublika-zaleak nai ebela ta beste errezoi barik jotea; Errepublika'ren eguna, edo agintari nagusi bat edo baten etorrera edo olako zerbait izan ezkerro joko eben ezer atxakirik barik, baiña orduan ez eben nai. Ta igandea eldu zanean, abertzale musikariak asieran ez ziran igo musika tokira ta besteak bakarrik jo eben. Gero jua ziran gora ta jo zituen dantzako guztiak.

Musikarien artean ez zan izan eztabaidarik txikienik be; berbarik be ez eben egin arazo onezaz ereserkia jo ebenen eta jo ez ebenen artean. Jende asko egon zan begira zer ikusiko.

Baiña, gobernadoreari egindako erantzun txarrak zerbait ondoren izango ebala uste izatekoa zan. Ta alantxe ordutik astebete edo bira isuna ipiñi eutsen gobernadoreak: 75 laurleko. Baiña ez zituan biartu ordaintzera ta denporeagaz aztu egin zan arazoa, ordaindu barik gelditu ziran.

Gero askotan jo eban Himno de Riego, joteko errezoia egoanian.

Len esanda dagoan lez kaiko dikia egokitze-lanak Erri lanetako ministru zan Indalezio Prieto'ren aginduz egin ziran. Eta lenengo arria ipintera bera etorri zan, beste ministru bi lagun zituala, Manuel Azaña ta Marzelino Domingo jaunak.

Prieto'ri egun baten mesede andia egindako bat orduan Ondarru'n bizi zan: Sebastian Bakeriza donostiar arrantzale ezaguna. Prieto emengo poliziaren eskutan ez jausteko Frantzia'ra eroan eban itxasoz bere motorrian.

Marzelino Do'mingo'k be ba-eukan ezaguna Ondarru'n, Polka errikoa, popularra, Jose Santa Cruz Beristain izen abizenez. 1917'ko huelga ospatsuan espetxean sartuta egon zanean gero ministru zana Polka be kartzelan egon zan Ondarru'n musikia zala ta musika enparantzan izan ziran iskanbillan karabinero batek mutil gaztea il ebanean. Ta ordutik ezagutzen eben alkar. Ta Polka'k aukera a ez eban galduko ministruagana joan eta bere sasi erderan lenagoko kontuak esateko.

Bakeriza'k kokotetik elduta erabili eban Prieto.

Ordutik laster Udalak Prieto eskertu nai izan eban Ondarru'ri egin eutsan mesede andiagaitik eta izenpeak batzen asi zan errian. Baten, udaletxeko karguduna zan musika taldeko zuzendari Juan Izeta'k izenpe orria eroan eban entsaiu tokira ta danok pozik ipiñi genduzan geure izen abizenak. Orduan tintaz gitzen ziran izenpeak. Ta Lesmes Arrizabala-

ga'k izenpetu ebanian, a egitea Prieto'ren politika jokabidea onartzea zala esan eutsan batek zirikatzearren. Lesmes'ek ori entzutean, besuagaz iRAA! igortzi eban ingia, ta berea ta oraindik legortu barik egozan ainbat beste izenpe borrau ta dana mokoloituta laga. Ministruari bialtzeko zan papera itxura itxusi atan ikusita, Izeta buruari elduta didarka asi zan eta besteok barrez algaraka. iAxe zan komeria!

Nortasun andikoa zan Lesmes, karlista ziñegotzia izan zan, musika jotzaille ona, koruko abeslaria, esku langille ona, lotsa andiko agintaria lantegian, biguna ez; baiña alaia lagun artean.

Len errietan kaleen izenak betikoak ziran. Gero asi zan gizon andien eta batez politikuen izenak-eta ipintea. Errepublikan denporan izen barri bi ipiñi zituen kaleetan abertzaleak buru ziran udalak. Goiko-kalea'ri Txomin Agirreta len izenik ez eban Atta Pireri auzoari Sabino Arana Goiri. Auzo onetan orduan bizi ziran amar bat familia españazale erregetarrai, poz gitxi emon eutsen orreik. Arentzat ori burlia zan. Eta goiz baten, izenik an orman ez egoala jendeak ikusi eban. Gabaz baten batek ixil-ixillik kendu ta biar bada Zubi-zar'ean bera jaurtiko eban eta ikito!

Ta ordutik laster udalak plaka barria ipiñi eban lengo tokian, arrizkoa. Andikiro egin eban ori; udal ziñegotzi, JEL alderdiko buru, musika taldea ta abar bertaratu ziran. Plaka barria orman ipiñi zanian udaleko batek berba egin eban. Lengoa burdiñazkoa zala, ordukoa arrizkoa, ta a kentzen baeben, urrengoa urrezkoa izango zala. Baiña arek be ez eban asko irau. Franco jagi zan eta laster kendu eben arrizkoa be. Ta berrogetak urtetan or egon da kenduta, eta jakiña, ipiñi dabenian be urrezkorik ez dabe ipiñi.

Errepublikan denporako beste kontu bat Txomin Agirre'ri egin jakozan omenak izan ziran. Udalak erri guztiaren izenean eratu eban, au da erriaren izenean; baiña karlistak,

Agirre karlistia izan zala ta eurak euren omen berezia egin nai izan eutsen eta alantxe egin be.

Erriak egin ebanian Euskaltzaindia'k be alde artu eban. Azkue etorri zan. Goiko-kalea'ri bere izena ipiñi jakon eta Kale-andi'ko musturreko etxearen orman bere irudia daukan arrizko plakea ta bera jaio zan etxeko orman beste plakea.

Urrengo baten karlistak egin eutsen euren omena. Oneik Gernika'ko artxipresteak ekarri eben. Ta eurak be plakea ipiñi eben. Plaka biak alkarren ondoan egozan, edo urrean beintzat, orma estu aretan. Biak euskeraz idatzita egozan. Udalak ipiñitakoak «jauparia» esaten eban, eta karlistak ipiñitakoak «abadea». Ta Franco'ren agintea jarri zanian, kendu egin zituen plaka biak; au da, karlistak eurak Errepublikan aldian ipiñitakoa gero kendu egin eben Franco'ren denporan, eurak errian agintzen ebanian.

Plaka biak udaletxeko gaiñian baztar baten traste zar artian egozan eta 1958'ko suak erre zituan.

DESIZENAK (EZIZENAK)

Oraindik guztiz atzeratuak diran errietan onezaz gauzak zelan diran ez dakigu. Baiña beste guztietan, orain, izena, gurasoak nai dabena, ipinten jako jaio berriari. Abizena gurasoengandik artzen dau, gurasoak daroena izan biar da berea be. Aspalditik alan izango zan kontixu ta gure denporan be oraintsu arte, izenak, deunenak izan dira. Orain edozer izen ipinten jako jaio barri dan umeari.

Baiña bera nor dan garbi agertzen daben izen eta abizenaz gaiñera beste zerbait be ba-dauke askok eta aspalditik: desizenak. Au edonongo kontua izango da, ez euskaldunona soillik. Baiña lurralde askotako kontua izan da be, errialde batzutan beste batzutan baiño iñdar geiegoko oiturea izan leiteke. Ta alan balitz, Euskal Erria gorengo maillakoa dala esan leiteke, erderaz esanda, «Primera division»ekoa dala.

Ondarrabia'ko arrantzale Kofradia'ko 1900'garren urte' tik 1967'ra arte izandako lendakari edo abaten izen zerren-

dan berrogetamaseirek desizena dauke, Arraka, Sipitarra, Musarra, Potxua, Boltxebiki ta abar.

Ondarru'n be olantxerik da. Orain dala urte batzuk erriko desizenak batzen jardun eben erritar batzuk eta millatik gora batu zituen. Askok eta askok daukagu. Kontu au zelako polito azaltzen daben Txomin Agirre'k kresala liburuan gaurko gazteak ikusi daien ementxe ipiñiko dogu bere zerbait:

«Ezizen geiegi ipinten dodala uste ba'dau irakurleak, jakin daijala lenengotik, Arranondo'n (Ondarru'n) eztagoala ezizenik eztaukan etxadi bat bakarra. Andiak eta txikiak, aberatsak eta landerrak, guztiak dauke eurentxua».

«Kanpoko errietatik Arranondo'ra datorren etxadiak an dauka bere izengaiztoa ogetalau ordu barru, ta eztau geiago beragandik kenduko. Zeñek ipiñi deutsa? Iñok eztau ori garbiro jakiten. Edo mutiko batek etorbarriaren semeari ikastetxean, edo arrantzale batek bere senarrari elizpean, edo emakume batek emazteari enparantzan. Zergaitik? Edozer gauzagaitik. Edo lodi eder guria, edo argal me zatarra dala-ko, apaindua edo praka-zarduna, azkarra edo baratza, argitsua edo argibagea, olango edo alango irabazbidekoa , orko edo ango baserri edo uritik etorritakoa».

«Ba-dakit albistari-zabaltzaillea ibilli dela eskutiz bat zeñentzakoa zan ezin argitaraturik. Sr. D. Julian Iragorri eukan estalkian, ta Julian Iragorri zein zan ez ekian iñok. Atso-agure guztiai itandu jakuen, ta atso-agureak etzala, esan eben, erritarra izango. Azkenean, apaiz nagusiari eskerrak agertu zan eskutzitaren jaubea. Zein izango-ta, «Saguzarra» deituten yakon gizontxu bat zan.

-Orixe ba da ipuña,- esan ei eban orduan Artobero'k; Saguzarrari Don Julian asmau ei deutsie».

ANTIGUA'KO AMA BIRJIÑEA'REN ERRIRA ERASTEAK

Ondarru'k mende onetan izan dituan egunik andienak, egunik pozezkoenak, Antigua'ko Ama Birjiña errira ekarri

ebenekoak eta 1926'garren urtean Donostia'ko estropada irebazi ebenekoa izan dira.

Iru bidar eratsi da Ama Birjiña errira mende onetan: 1904'garren urtean, 1931'garrenean eta 1949'an. Jose Manuel Imaz'en bertsuak, Txomin Agirre'ren Kresala liburua ta egon leitekean argazkiren bat edo beste dira 1904'garren-goaren barri emoten dabenak. Zortzi milla arima ba eiziran Ondarru'ko pelota plazan Ama Birjiñiaren aurrean emon zan mezia ta aita Bartel'en sermoia entzuten. Ondarru'koez gaiñera kanpotar asko egozan bertan, batez be auzo ta inguruetakoak pelegriñaziuan euren abadeak buru zituela etorri-ta.

Txomin Agirre'k Kresala'n elizkizun orrezaz diñoanetik zerbait artzen dogu:

«Erabagita egoan, inguru guztietako eliztikoak, euren abadeakaz batera, egun orretan Antigua'ra joatea ta Antigua'ko Ama Garbia berbera baselizatik uriko enparantzara erakartea. Orregaitik, aurretiaz ebiltzan erritar guztiak, gazte ta zar, emakume ta gizon, morroi ta zaldun, abade ta arrantzale, dendari ta jostun, joranik sutsuenagaz erria ta eliza iñoiz baizen obeto apaindu nairik.

Lortu ebien egundokorik ondoen uri dana edertutea. Bere maitea ikusteko jazten dan maitea legez, ezteguetarako txukundurik dagoan gazte baten antzera, erregiñari ondotorria emoteko apaintzen dan uri baten irudira,-ikusgarriri ornidurik egoan Arranondo Agorraren 22'an. Bazter danak ispillua baño garbiagoak, iri edo kale-ariak usain gozozko bedarrez estalduta, zatar itxurako orma zarrak oestalki ederrakaz gordeta; etxe-leio guztiak ioal zuri ta urdiñez, loraz ta landaraz jantzirik; ibaiko potiñak eta eliz gañen jirak mueta guztietako «bandera»kaz apaindurik. Erri sarreran, eliz ondoan, Antigua'ko kalean ta pelota lekuko ertz baten mako (arko) guztiz politak egozan, batzuk, zugatz-adar ta ostro berdeakaz osO itxuran egiñak, besteak, sardin-sare, itxas-aga ta txalopa-masteakaz egoki tajutuak.

Pelota lekuaren erdi-erdian ipiñi eben meza nagusitara-

ko elizmaia, ta aren gañean, argiz betea, estalpe zuri aberats bat goitik ebala, Maria Donearen urrezturiko jarlekua. Etzan eliz-barruan auzoerrietatik etozan gizadientzat aña toki, elizea bi aldiz andiagoa izan balitz be».

«Une atatik gertaurokoa ezin leike nire luma kaskarrak zeaztu. Kanpaiak, txupiñak, eresiak, soñu-joteak, txaloak, goramenak, bizibediak; atsegingarrizko durundi, zumburrun, ots, alaio, deadar guztiak, danak asi ziran batera, biotza tau-padaka ipinten eustien nasterik aztitsuenean.

Arranondotarrari (ondarrutarrari) zoratu bear yakoén. Ainbeste urtean ez eben ikusi Andre Maria maitea baselizatik kanpora, ta egun gomutagarri atan kalean bera etorkoen, soñekorik onenagaz jantzita, eliz-gizon gaztien sorbaldetan, ain ederra, ain biguna, ain maitagarria. Ezin zituan narruak artu ango gizadiak, ezin gorde ebien euren barruko zarradea, estanda egin bear eben, pozak urten eutsien begietatik, maitetasuna yariokoen aotik. Soloetan, zugatzetan, atietan, leioetan, kale.ari guztian gizaldra ugariak agiri ziran besoak jasoaz, oiua, eskarika, oparika, bizibedika; Ama laztan, Ama errukitsu, Ama kutuna deiezka; gurariak autortzen eskerrak emoten, umeak eskintzen, aora etorkoezan itz on guztiak esaten, aspertu eziñik. Eztan iñongo erregiñak alan-go sarrerarik iñon egin».

Urrengo Am'a Birjiñaren errira eraste biak bai 1931'garrenekoa ta bai 1949'garrenekoa bardiñak izan ziran, lenago koan baizen zaletasunez artu eben ondarrutarrak Ama Birjiña. Ez zan iñongo erritakorik pelegriñaziuan etorri; dana errikoen elizkizuna izan zan, baiña urte areitan be kanpoko jende asko etorri zan.

Orduan Ondarru jantzi zan lez beste erri bat munduan sekula ez da jantzi, batez be irugarrenean jantzi zan lez. Ondarru'ko andrak asteak aurretik beste egitekorik ez eukela zirudian. Kamoiakaz joan eta bedar, ostro, ta arbola pilloak ekarri ta gau ta egun lan egiñaz, kale bakoitzekoak euren kalea onduen jarri narian, orma guztiak bedarrez, sare loratuaz, oial apaiñez, pitxiz ta arbolez bete zituen, arkuak edo-

nun egozan Ama Birjiñea goratzen edo berari eskariren bat egiten eben berbakaz; eta edozein kale kantoi edo toki egokitan erlejiñoiko eskutapen (misterio) edo olako zerbaiten antz-irudi. biziak.

Orduko lanaren barri ondo agertzeko jai onezaz gero atara zan kuaderno antzekotik orriak ona aldatu biarko gendukez. Baiña ori eziña danez Atxukala'ren orduko bertso bat ipiñiko dogu:

Irurogeta lau arku andi
ta emeretzi txikiak
Amabi Amaren agerraldi
ontan biotz jende biziak
Ogeita iru monumentuak
berrogei lorategiak
Berreun ta amairu letrero eder
ia euskaraz guztiak
Lan onek danak egin zituzten
Ondarru'n emakumiak.

1931'garren urtean Antigua'ko elizan barru ta kanpo lan andiak egin ziran. Len elizaren mustur parean kanpoan egoan beko kanpantorre zarra kendu ta betik goraiño barria egin zan elizeari itsasia, orian dagoana. Ama Birjiñea, beko eliza nagusian egon zan bederatzi egunean eta bere aintzan egin zan bederatziurrenean erriko seme abadeak sermoiak egin zituen, egunian batek.

1949'koa Begoña'ko Ama Birjiñaren etorrerea ospatu-teko ipiñitako elizkizuna izan zan. Uda aretan Bizkai'ko errietan zear érabilli eben Begoña'ko Ama Birjiñea; ta beste errietan arrera onak egin baeutsoezan, Ondarru'n ez ziran gitxiago izango. Lendik be oituta gengozan Ama Birjiñagaz ibildeun ederrak egiten. iEta ordukoa danetatik ederrena izan zan! Antigua'ko Ama Birjiñia errira ekarri zan eta biak izan ziran elizkizun eta ibildeun guztietan eta biak goratuak eta txalotuak izan ziran geiago ezin aiñean, baii zuzendu eutsezan eskari ta otoitzak Ondarru'ko erriak eta biak jaso zitu-
tuen eskerrik beroenak, izandako mesedeakgaitik.

ESTROPADAK

Ondarru bere kondairan ezetan entzutetsua izan bada, estropadetan izan da, erramutan. Igaro zan mende erdi inguritik mende onen asierako urteak arte, au da, kondairak jasoten daben estropaden lenego aldian, gure erria onenentzat artzen zan erramutan. Ta ori zerbaiteagaitik izango zan, entzute ori estropada askotan nagusi izan zalako lortuko eban kontixu.

1861'garren urtean errege-erregiñak Santander'era joan ei ziran. Eta an beste jai batzun artean estropada batzuk ipiñi nai izan ei zituen. Ta estropada aretako Gastro'ko treiñeru birek bakarrik emon izena. Ta ontzi geiago nai tan an karrionan ibiltan ziran balandretako euskaldunei arren ta arren juateko esan eutsen; ta eurak emondako badaezpadako ontzi ta erramuakaz jua ei ziran Ondarru'ko, Lekeitio'ko ta Bermeo'koak. Ez dakit iru errietakoak baxotxa bere treiñeruan ala danak treiñeru baten. Eta Castro'koak irabazle iza ziran. Ta sasoi-estropada a irabazteak ezin geiagoan ei zituan Montaña'koak, poztu ta arrotu be bai. ALL El mordaz ezizenekoak eta Antonio Garcia Gutierrez'ek bertsoak argitaratu eizituen izparringietan gogorak esanaz. Ta azkenengoak Barbieri'n musikia ipiñi ei eutsan «Jota del regateo» izeneko bere bertsoai. Eurak azpiratutakoen artean ondarrutarrak ei ziran:

«entre otros insignes luchadores
da Ondarroa los famosos bogadores».

Antxiñako kontuetan upin asko egoten da, estropadetan be bai. Ta guk kondaira edestean upiñari ez dautsagu tokirik egingo. Gure errian beti esan izan dana ta danok ikasi doguna au da; zera, Ondarru'k estropada bat galdu ebala bakarrik, Donostia'ko Luis Karril'en treiñeruaren aurka, ta bera ondarrutarren treiñeruko lemazain Ambrosio Bedialauneta'k traiziñoia, etoikeria egin ebalako.

Ez dot uste etoikeriarik egon zanik. Baiña nik esan nai dodana beste au da: Ondarru'k beste estropada bi be galdu zituan dakiguzanak. Baten barri Blas Iturriza'k emoten dau,

bera kontularia zan Kofradia'ko barrien eskuz idatzitako liburuan. 1889'an Bilbo'ko ibaian jokaturako estropada baten lenengo ta bigarren Bermeo'ko treñneruak sartu ziran eta irugarren Ondarru'koa.

Estropada ari buruz Iturriza'k diñoanez olan izan ziran kontuak: Udaletako agintariak aukeratzeko auteskundeak ziran, eta Ondarru'n estropadadeari baiño politikeari ardura andiagoa ipiñi jakon eta biar zan lez ez ziran gertu, ez ziran preparau. Otera Bermeón ez zan auteskunderik izan, ez dakit zein artikuloren bidez eratu zan udala, edo aukeratu ziran ziñegotziak.

Agirre Franco'k idatzitako ESTROPADA liburuan beste estropada bat aitatzen da 1889'koa ta Bermeo'k Ondarru'ari irabazi eutsola diño. Baiña ori iturri onetik jasotako barria ez da. Blas Iturriza'k orduan urte gitxi barruan jokaturako lau estropada aitatzen ditu bakarrik: 1887'an irabazi, 1888'an galdu, 1188'an Pasaia'ri irabazi desapiokoa ta 1890'an galdu Donostia'ri. Tartean beste estropadarik izan balitz aitatuko eban bere liburuan Blas Iturriza'k, ba beste galdutakoak be bildurrik barik aitatzen ditu.

Irugarren galdu eban estropada gure denporan izan zan. España'ko gudia amaitu zanean 1939'garren urtean Bilbo'ko (euren izenez esanda) Liberaziñoi urtebetea ospatuteko jaiak egiteko asmoa artu ebenean, estropadak be ipiñi zituen eta Ondarru be eroan nai zan eben. Gure erriak ez eban joan nai izan; eta Kofradian egin zan batzarrean ez joateko aldekoak nagusitu ziran arren, orduko politikearen indarrez beartu, ta ala-olako taldea ipiñi ta joan egin ziran eta irugarren-edo geratu. Au ez dakit ziur. Estropada aren barri iñok ez dau emoten. ESTROPADA liburuan kosta guztiko estropaden barri emoten da baiña a ezda aitatzen. Ta bes-teak aitatzen ez dabenean geuk be ixillik daukagu.

Ondarru estropada kontuan lenengo aitatzen daben barria Azkue'n «Cancionero Popular Vasco'n dator. 1854'garren urtean lekeitiarren aurka jokaturako estropaden kontuak dira. Estropada arezaz beste albistarik iñun ez da ager-

tu.

Txomin Agirre'k bere KRESALA'n lekeitiarren aurka jokaturako beste estropada bat aitatzen dau zearka bada be.

-Guk Lekuito'koakaz estropadea egin genduanean, orain ogetamalau urte, arek erramuari ataraten eutsan gradakada etzan bertan berakoa.

KRESALA 1906'garren urtean argitaratu ei zan, 'beraz 1872'an izan zan. Au be iñok sekula ez dau aitatu gure denporan. Eleberrian ipuin lez sartu ete eban ba ori Txomin Agirre'k?

Ba-dakigu danok, estropadetako bandera edo ikurriñik antxiñakoena Ondarru'k irabazi eta Kofradian dagoana da; 1865'an Kontxa'n irabazitakoa.

Ondarru'k lenengo aldiko azken jokatu eban estropadea 1902'an izan zan, Bilbo'n eta irabazi egin eban. Manuel Beitia zan lemazaiña. Gero ogetiru urtean geldirik egon ziran. Ta 1925'garren urtean, Club Deportivo Aurrera Portugalete'n estropadak zirala-ta arakoxe gertuten asi zan. Aurrera'ko bazkide ziran arrantzaleak esku batéko atzaparrakaz errez zenbatzeko ainbat ziran. An danak edo ia danak liortarrak ziran. Ta treiñeruagaz sasoietan asi ziranean jendeak aintzat be ez zituan artu; laster geldituko zirala uste eban. Baiña benetan ziarduela ikusi zanean arrantzale jendea estutu egin zan, estropada kontuan ain kondaira ona eukan erria liortar areik lotsagarri lagako ebela ta. Ta Kofradia sartu zan arazoan eta arrantzaleakaz erramulari aldra bat egin eban. Ez zan orduan errian egin eitekean onena; baiña geiagorako astirik be ez egoan ta estropadea iarabazteko aiñakoa bazan. Eta Iraillaren 20'an eta 27'an Portugalete'n jokaturako estropada biak irabazi zituen. Jaun Bautista Beitia izan zan lemazaiña, lenagokoaren semea.

Erramuz ibilteko itxasontziak baztatu zirala, urteak ziran. Ta ala be ogetiru urtean estropadetara joan barik egon eta erramutan be oitu barik egon arren, irabazi egin eben. Olakorik iñok ez dau egin sekula.

Bein Bilbo'ko estropadak irabazi ezkerro Donostia'ra be

joan egin biar zan, orain lez orduarj be estrapadarik ospe-tsuenak Kontxa'koak izaten ziran da. Ta alantxe, urrengo urtean, 1926'an Donostia'ra joatea erabagi zan. Urte aretan beste konturik ez egoan Ondarru'n estropadea gora ta estropadea bera. Ta beti lez, San Pedro'ak igarotakoan Ondarru laga ta illaterdian andik ibilteko Santander'ko ta Asturias'ko itxasoetara 50 bat lurrenontzi atunetara joan ziraneán, amazortzi inguru mutil gazte ta sendo errian gelditu ziran, beste egiteko barik estropadarako gertuten. Ta alantxe, ondo gertuta joan ziran Donostia'ra ta igande bietan irabazi eben Beitia lemazain zala. Ta berdin Portugalete'koak be bertan illean.

ELIZAKOAK ETA ILLETAK

Gure denporan eta batez be Vatikanoko II Batzarra ezkeroko urteetan gauza asko aldatu dira Elizan. Beste batzuen arteán illetak eta onein inguruko oitura ta elizkizunak.

Len, gaixoa txarto jartzen zanean, osagillearen aginduz abadeari dei egiten jákon oean zanari Elizakoak emoteko; Elizakoak emotea Gure Jauna emon eta Olio Santuagaz azken igurtziak egitea da.

Lenengo, abadea etorri ta gaixoa autortu egiten zan. gero Gure Jauna agirian eroaten eutsan gaixoari etxera. Aurretiaz kanpaiak jotzen ziran, zertaroko zan erakusten emoten eban jote bereziagaz, Gure Jaunari kaleetan zear iñok lagundu nai baeutsan, eta beti bat edo beste edo geiago agertzen ziran orretarako. Ta abadeak oteundegitik, sagraiotik Gure Jauna artu ta ontzitzu baten sartun ta zapi baten batuaz eta esku bien puntan bular ingurura jasoaz eta aurretik sakristaua-edo, esku baten argi ontzia ta besteagaz txiliña jotzen gradearen erditik joanaz, txilin otsera kaleko guztiak belauniko jarten ziran Gure Jauna aurretik igarotean.

Iñoiz antxoba askoko eguna izan eta Kofradia-zarraren aurrean gurdiak ustu ta beteten jendetza andia ta zaratea be naikoa izan arren, danak laga ta ixil-ixillik belaunikotuko ziran. Baita iñoiz gazte jendea enparantzan musika otsean

dantzan ebillela Elizakoak igaroten baziran, soiñua ixildu ta baltseoko dantzariak, asko neska ta mutillak, alkarri laga ta belauniko jarriko ziran. Olako bi edo iru ikustea gertau izan jat neu musika taldean nengoala. Franco'ren guda ezkeroko meza nagusitan enparantza ondotik «Marcha Real»a jotzen zan Ondarru'n urte askoan. Eta olantxe, Elizakoak enparantza ondotik igaro ziran esan dogun areitan, bat batean dantza soiñua ixildu ta bereala «Marcha Real»a jotzen asten giñan; iñoiz, taldeko zuzendaria zer jazoten zan konturatu baiño len.

Gaixoa ilten zanean, lenengo, ia-illeko edo agoniako kanpaia jotzen zan eta miñutu batzutara, il kanpaia. Ildakoa andrazkoa bazan, azkenean kanpai ots bi jotzen ziran eta iru, gizonezkoa bazan.

Baten, abade barri bat errira etorri zanean, iltamuko kanpaia jo ta gero il kanpairik jotzen ez zala oarturik, zer gertauten ete zan larri egon zan eliza inguruko jendea edo andrak. Eta jakin zan jaso zana. Zera, gaixoa il-agiñean jarri zanean, egokion kanpaia joteko agindu eban abade barriak eta bi edo iru ordu olantxe egon zan gaixoa, ta il kanpairik ezin jo, jakiña, il arte. Alantxe izan zan, oiturea zan baiño luzeagoa jo-aldi bien tarteko denporea.

Jokabide a ezin-ta zuzenagoa izan zan; baiña ez dot uste irauan ebanik.

Norbaiten eriotza izaten zanean, gabean, etxean, ildakoa bertan egoala, agurtza bederatziurrena asten zan. lenengo egunean amabost ziñeskaiko agurtza otoiztuten zan eta urrengoetan bostekoa; ta orrezaz gaiñera deun oni ta beste ari, otoitz asko esaten zituan errezatzaileak. Guztia ezin-ta bigunago, ezin-ta gozoago. Aingeruak eurak be ez eben obeto egingo. Errezatzaileari (andrak izaten ziran zeregin ori eukenak eta errian bi edo iru ziran) bere lana amaitzean kafesnea erooten eutsen eta antxe danen aurrean zurrutaka edaten eban. Etxea jendez betea egoten zan senide, lagun auzoko ta abar.

Illa obiratzea ta illetak biaramon goizean, beti goizean,

izaren ziran. Len, il obiratzeetan, «anda-jasotzailli(a)k» deitzen jakenak egozan, lau gizon, gain-jantzi antzeko baltzez jantzita. Entzunda nagoanez, ez ziran antxiñatik etozenak. Izurrite baten illak eroateko lagunak billatea kostau egiten zala ta orduantxe sortutako taldea ei zan.

Baiña zeregin orretarako taldea izan arren, ildakoa, gero, beti, senide edo lagunak eroaten eben; anda-jasotzaillak lagundu egiten eben barik:Il-kutxa etxetik mailladietan bera eratsi, bestei lepora emon eta olakoak. Orain ez da anda-jasotzaillerik Ondarru'n.

Il-kutxaren atzetik ildakoaren etxeko ta senide gizonezkoak joaten ziran, lerroan banan-banan alkarren atzetik, senditasunak agintzen ebanez, kalean zear ta baita gefo elizan be egon tokira. Il-kutxea eliza atarian (Elixopear) oial baltzez estalitako mai baten gaiñean lagaten zan eta bertan abadeak otoitz batzuk abestu ondoren guztiak eliza barruan sartzen ziran gorpua antxe kanpoan bakarrik lagata. Au España'ko legeak agintzen ebena zan.

Len gure denporan iru maillako illetak izaten ziran ordaindu nai zanaren arabera; erriko berbetan esateko, primerakoa, segundakoa ta tertzerakoa. Lenengo maillakoak, abadeak jantzirik onenak jantzi, argi asko biztu ta koruan be naikoa abeslari, geienetan Perosi'ren illeta meza abestuten. Bigarren maillakoa apalagoa zan bai abadeen jantzi, bai abesti ta bai argietan. Errikorik geienen illetak, mailla orretakoak izaten ziran. Ta irugarren maillakoa, txiro itxurakoa, jantzi zar eta itxurabakoak, argiak iputargia baizen makalak ta abestu be aringa-aringa ta makal.

Baiña ba egoan irugarren maillakoa asko beeratzen eban beste zerbait. Ondarru'ko elizan (erritarrontzat ez diñot au) altara aurrean bai ezkerrean eta bai eskuman aulki luze bana dago. Ta illetetan, senide gizonezko lerroa elizaratzean, lenengo ta bigarren maillako elizkizuna zanean, ezkerreko-aulkian jarten (jezartzen) ziran; eta irugarren maillakoa zanean, eskumako aulkian jarri bear ziran. Baiña eskumako aulkia txikiagoa zan, eta alderdi baten, gaiñean eukan purpi-

torako maillada egoan eta lerroko bost edo sei gizon egon eitekezan bear dan lez eroso, baiña urrengo iru edo lau zutiñik egon ezinda ta gaiñerakoak aulkitik kanpora egongo ziran, tokirik ez da.

Guk ezagutu genduan lenengo bikario zarra, Don Agustín Zenarruzabeitia gizon zuzen eta biotz onekoa zan esaten ebenez, baiña aurretikoengandik artutako oitura itxusi areik txarto egoazanik ez jakoen iruditzen abadeai: ¡Ta jendeari be ez kontixu!

Illetetan ildakoaren senideen gizon lerroa elizako aurreko aulkietan jarte kontuan, ba-zan beste gauza polit bat be. Ezkerreko aulkia jai andietako meza nagusietan udala elizara joaten zanetan, udalgizon jarri lekua izaten zan, eta eskumakoa, «juez» edo apaikariarena. Bietan, «erreliebez» eta besoak jartekoagaz. Ta lenengo maillako illetak ziranean lerroko lenengoa jarri eitekean an alkatearen jarlekuan eta jartzan zan; baiña bigarren maillako illetetan jarrileku a utsik gelditu bear zan, an ez egoan iñor jarterik. Baiña baten, bigarren maillako elizkizuna izan arren, jarri egin zan antxe, lerroan lenengo zana; ta ez dakit sakristaua edo akolitoren bat joan jakon abadearen aginduz, andik kentzeko esaten. Baiña besteak ezetz. Beste a Adrian Baltza arrantzale sendi ta ospetsua zan, Donostia'ko Karril'en aurka estropadea galdu eban taldekoa izandakoa. Ta berak nai ez baeban kendu ¡Zeiñek kendu a andik!

Aldi baten gorpuaren ilobiratzea, illetak eta abar zenbat izaten zan jakiteko ondo etorriko da 1963'garren urtean ilzan nire amaren eriotzako ordaindutekoak zelan izan ziran emen ipintea. Illetak bigarren maillakoak izan ziran, baiña orko kontu askok maillakaz zer ikusirik ez daukela uste dot. Emon euskuen lez, ezer aldatu barik doa emen ordain txartela.

GASTOS DE ENTIERRO

| | |
|---------------------|-----|
| Entierro | 975 |
| 5 misas de entierro | 425 |

| | |
|-------------------------|-------|
| Caja de entierro | 835 |
| Cementerio | 475 |
| Juzgado | 25 |
| Certificado de Marquina | 50 |
| Certificado de D. Sabin | 25 |
| Lazos de la caja | 190 |
| Cruz de hierro | 500 |
| Petra | 200 |
| Recordatorios | 220 |
| Leona | 25 |
| Misas gregorianas | 1.500 |
| | <hr/> |
| | 5.445 |

Diru ori zenbat zan antz emoteko auxe esango dot: Iru urte aurrerago, nire illeko alogera ta amairu «punto»rena 4.000 laurleko zan.

Jose Mari Etxaburu «Kamiñazpi»

KORRIKA

(*Kontakizun laburra*)

Eleizako kanpaiak isilik zeuden jadanik. Zerua goibel eta zirimiri zarratu bat ari zen. Urria izateko oso eguraldi hotza zegoen eta etxean aurkitu nuen aitaren txapel zahar hura buruan trinko jarri nuen. Nire gelan egon behar da oraindik tokiren batetan, gau hartako testigu rriutu gisa. Hotzak gorputza astintzen zidan,... hotzak ala ikarak? ...ez dakit. Nire pausoen oihartzuna urrunean galtzen zen. Abarketak kale bustian blai eginda geratuko ziren; banekien, baina parean aurkitu nituen oinetakoak ziren, eta presaz nebilen. Kalandia ia utzik zegoen; ni bezalako ardi galduren bat zebilen bakarrik, ordurarte irtetzen ausartu ez zena, edo etxeko atarian zer egin ez zekiena, lelotuta. Zuela gutxi kalean entzuten ziren zurrunbilo eta karraxiak denboran galduak ziren, baina ez nire barnean. Burua bueltaka ari zitzaidan ideia hoiekin gora eta behera. Eta ez kalekoak bakarrik; «ni neu lo nengoen eta bapatean esnatu nintzen zekulako iskanbila bait zegoen etxean. Gelako atea zabaldu eta ama hurbildu zitzaidan. Negarra ezin eutsirik, negar mutua. Behin bakarrik ikusi nuen ama horrela. Duela bost urte edo. Mikel hil zenean. Ez naiz ondo gogoratzen, sei urte nuen eta. Askotan jolasten zuten nirekin berak eta Andonik. Arratsalde madarikatu hartan galdu genuen! esaten du oraindik amak genioz eta penaz, bere errua izan balitz bezala. Aurpegi berbera zekarren. Mikeletaz gogoratu nintzen.

-Ez da ezer gertatzen, jarrai lotan laztana. Irten beharra

daukat. Ixiko Jaxinta dago sukaldean ezer nahi baduzu.

Esan zidan bere betiko goxotasunez, begiak bete beterik zituelarik.

-Baina, nora zoaz? -Galdera amaitu orduko atea bere atzetik itxi zen. Jakinminak gehiago egin zidan, banekien zer-bait txarra gertatu edo gertatzen ari zela eta sukaldera abiatu nintzen. Han zegoen ixiko Jaxinta: Ixiko Jaxinta, goiko Jaxinta, Pakoren emaztea zen. Hau nire aita patroiz zen «Antiguako Ama» txalupan sukaldari bezala zegoen. Aita eta biak lagun minak ziren eta Jaxinta askotan egoten zen gure etxean. Ez zutenez umerik, neu nintzen beraien umea eta txikitandik zaindu izan ninduen. Asko maite nuen. Niretzat, bera, nire ixiko Jaxinta zen. Begien aurrean ikusten dut oraindik sukaldean mahai hertzean jezarrita/lurrera begira.

Gehiago hurbildu nintzen. Begiak gorri gorriak zituen, ezpainetararte malkoz aurpegia, ...aurpegi zatikatua. Begirada aldatu gabe, puntu fiju eta mugagabe batean, noizean behin zotinkada batek astintzen zuelarik. Ez nintzen ezer esaten ausartzen. ...Azkenean ausartu nintzen, baina nire galderak ez zuten erantzun zehatzik jasotzen. Zentzu gabeko berba sakabanatuak esaten zituen.

-Txalupa... bafor ederra benetan... bai, ...Infernuko eguraldi zikin hau! ...-Ez zen rritaz ohartu ere egin.- Pako; esaten nizun txaketa lodia hartzeko, ...Pako, ...-Beste zotinkada bat.

Nik galdetzen jarraitzen nuen.

-Gertatzen? Zer gertatzen den? -Galdetzen zion bere buruari erantzun bat ezin aurkituz.- Ezerrez, ez, ez, ...-baina ez nintzen erantzun horrekin konformatzen.- ba... «Antiguako Ama» ...eguraldia...

-Zer? Zer? -galdetzen hasi nintzen bapatean karraxika.- ZER? ZER!!? -Susmatzen nuen zergaitik zen amaren negarra, kaleko iskanbila, ixiko Jaxintaren buru erdi galtzea. Zer-bait gertatu zen itxasoan.

-Non? zer? noiz? -Galdetzen jarraitzen nuen. Norbaitek istripu bat izan zuen? Txalupako norbaitek? Pakok agian?

Edo norbait galdu al zen? ..EZL. Aita!!?

Jaxinta zentzugabekeriak esaten jarraitzen zuen.- «Antiguako Ama», ...itxaso... itxaso beltza... gau iluna... olatuak...

-Ala jainkoa!!! Antiguako Ama ondoratu al da??? Non, noiz? -Nik jarraitzen nuen.- Erantzun! -Amorruz- Non? noiz?

-...non? ...ba, txalupa... bai, Saturraran... olatuak ...Pako txaketa lodia hartu.- Beste zotinkada bat. Korrika jantzi eta atera nintzen etxetik bigarrenez pentsatu gabe».

Txunditurik eta buruan milaka pentsamendu nituelarik Zubi Zaharrera heldu nintzen. Bi txalupa orduantxe heltzen ziren; beren tximinietatik ateratzen zen ke beltzak nire inguruko argi apurra deuseztatu zuen zubi azpitik pasatzean. Momentu batez neu bakarrik nintzen unibertso izaki bizidun bakarra. Begiak ezin nituen zabaldu nahi adina, keak erretzen zizkidan eta. Laister argitu zen berriro eta begiak zabalzerakoan dena amets gaizto bat baino besterik ez zela izan espero nuen. Baina ez zen hala gertatu, zeren begiak zabaltean moilan zeuden hamar bat andrearen erdi negarrak txalupak arrimatzerakoan, eta txalupetako gizonen aurpegi ikaratuak ikusi nituenean konturatu nintzen hura ez zela amets bat, ez. Gizonak lurreratu zirenean jendearen tentsioa apurto zen eta hantxe hasi ziren besarkadak, laztanak, malakoak, negarrak, ...begiak bete zitzaizkidan. Baina nik horixe berbera egiteko aukerarik izango ahal nuen egun horretan? Edo inoiz gehiago? Begiak amorru biziz zabalduz zubitik jeisten hasi nintzen.

Zirimiria euri finko batean bihurtu zen, oraindik gauez. Benetan egun grisa. Burua berriz bueltaka hasi zitzaidan. «Eta aitari benetan zerbait gertatu bazaio? Ikusiko ote dut gehiago? Ez, ezin izan zaio ezer gertatu, ez, ...edo... edo bai...ez, ez, EZ! «Eta korrika hasi nintzen pentsamentu latz hoietatik urrundu nahiko banu bezala. Korrika. Baina ez ziren atzean gelditzen, ez. Atzetik zetozkidan. Aita, aita...

Idea hori gora eta behera ari zitzaidan barnean. Bapatean Andonitaz gogoratu nintzen. Andoni!...

«Andoni, nire anai zaharra, zegoen mutilik sendoena, azkarrena, nire heroia zen bera, eta oraihdik izaten jarraitzen duena uste dut. Mikel eta Andoni beti elkarrekin zebiltzan, urte bat inguru kentzen bait zion Andonik. Berak ere, amak bezela, Mikelen eriotzaren errutasuna bereganatu zuen, eta ordudanik nire zaindari leialena bihurtu zen, bere laguntasuna eta babesa eskeiniz. Andonik aitarekin lan egiten zuen, itxasoan, «Antiguako Ama»n. Nahiz eta hogeitabi urte izan bakarrik jadanik arrantzale bikaina egina zegoen. Izan ere, bost urte zeraman itxasoan jo ta ke lan egiten. Ni neu, bi aldiz bakarrik eraman ninduten beraiekin, beren lana ikustera; irteera motzak izan ziren, hamaika urte baino ez nuen eta. Irteera hoietan ikusi nuen zein trebea zen nire anaia. Beti zegoen beso sendoenak behar ziren tokian, prest, edozer lan egiteko, nahiz eta arriskua izan ere. -Behin-, eta hau aitak kontatzen zuen zeren bera oso modesta zen -Pakon iloba txalupan sartu berria zegoela, hamasei urteko mutil koxkorra, treinean nahastu eta sare eta guzti itxaso beltzera erori zen. Ez zela kanporatzen ikustean, bigarrenean pentsatu gabe Andoni uretan murgildu zen. -esaten zuen buruan eskua ipiniz jarraian -Ez dakit zenbat denpora pasatu zen, niri behintzat eternitate bat iruditu zitzaidan. Baina azkenean biak salbu atera ziren, Pakon iloba zotinka irtenarren,-

Andonik ez zion zuen garrantzirik eman. Edozeinek berdin egingo zuela zioen beti, baina beste inork ez eta berak egin zuen. Eta arriskua, hori bai bazegoela, izugarrizko kontuarekin ez ibili ezker eta pixka bat nahastu bera ere sareetan, hantxe bertan akabatuko ziren biak. Baina Andonik zioenez arretaz ibili ezker ez zegoen problemarik».

Arrigorriko aldapak nire abiada gutxitu zuen eta arnasa bueltatzeko geratu eta petrilean jazarri nintzen, aurpegia goruntz begira. Euriak orduan zuzenean jotzen zidan aurpegian. Freskotasuna nabaritzen nuen. Ahotik, indarrez, lurrun hodeitxoak ateratzen zitzaizkidan. Hotza zegoen. Gorputza guztiz lasaiturik, jesarrita jarraitzen nuen. Une batez ez nuen ezer sentitzen, hilda banego bezela edo lo. Baina lasaitasun

une hori berehala amaitu zen, dena gogoratu nuen, burua ideia gaizto haietaz bete zitzaidan berriz. Saltu batez zutik ipini nintzen eta berriz korrika hasi, korrika.

«Txalupa zahar hartaz gogoratzen pena hartzen dut oraindik. Zaharra izan arren polita zen; galdara-makina haierariko bat. Nire aittitak, beste batzuren artean, Bilboko batzuri erosi zieten. Makina, ingelesa omen zen. Portuan zegoen guztian bertan ibiltzen, gora eta behera jolasten. Orduko portua edo moila ez zen oraingoa, jakina, ordukoa berdura enparantza eta Nasa kaleak ziren. Nire bizitzako egunik zoragarrienetarikoak bafor zahar hartan igaro nituen. Adibidez, «Antiguako aman»n aita eta besteekin itxasora bigarrenez atera nintzenean, eta azkenez zoritxarrez, primeran pasatu nuen. Lehenengoan sartu irten bat baino ez genuen egin. Bigarren honetan ordea egun guztia pasatu nuen itxasoan. Hasieran oso txarto, zeren mareatu egin nintzen, baina aitak esan zidan gizonik gogorrenak ere lehenengo aldiz itxasortzean mareatu egiten zirela, berak ere lehenengo bi maretan edo oso gaizki pasatu zuela. Hori entzunez arnasa sendo hartu nuen eta ez nintzen gehiago kexatu. Haruntzkoan Jabikin joan nintzen guardakolorean, galdara eta makina funtzionatzen ikustera. Eta laguntzera ere; ikatzez beltz beltz atera nintzen. Rodiloarekin aurreratzen nion ikatza Jabiri. Bertan zegoen baita ere Antonio, makinista. Baina agure horrek ez zidan hitzik ere zuzendu. Jabik esan zidan amargaturik zegoela eta beti umore txarrez zebilela, amargaturiko mutil zehar hoietariko bat zela. Bakarrik bizi izan zen beti eta hil ere horrela egin zen, bakarrik. Jabi fogoneroa zen, nahiko gaztea eta berak azaldu zizkidan galdara eta makinaren bitxikeri guztiak. Nik ez nion dena ondo ulertzen, baina berak emozio handiz kontatzen zuenez gauz guztiei baietz esaten nien. Beso batean izugarrizko erredura bat zeukan. Alkondarra kentzean ikusi nion, nik ere kendu nuen bero galanta bait zegoen galdara ondoan. Erredura hori, azaldu zidan, behin galdara barneko tubo bat lehertzean besora jausi zitzaion irakiten zegoen urak egin ziola. Berean zebilen xehetasun guz-

tiak kontatzen: Galdara botatzen genuen ikatza erretzera-koan galdara barneko tuboetatik zihoan ura irakiten ipintzen zela. Honela presioa hamazortzi-hogei bitartera heltzen zela. Presio nehurri hauek gainditu ezkerro makina lehertzeko arriskurik egon ez dadin, presioa hogeitabira heltzean dispa-ruak automatikoki funtzionatuz baporea tximini ondoko tubo batetik ateratzen zela. Béraz, presio egokia zegoenean ...pistoia... Nik baietz beti..., Biela, gero zigueinala ...Ah! Eta beti begiratu behar ziren kojineteak, eta bankadak ...Izugarrizko mugimendua zegoen eta baita ere zarata burrunbatsua. Niri, hala ere, hauek iruditu zitzaidan politenak, ni baino handiagoak ziren ikaragarritzko bielak, gora eta behera mugitzen».

Hotza hezurretaraino barneratzen zitzaidan. Korrika jarraitzen nuen, korrika itsu hartan, korrika bakartia ...etsairik gabeko lehiaketa?... Ez, ez horixe. Nire etsaia dagoenik etsairik gogorrena zen, irabazi ezin zaion etsaia, etsai krudela, ...destinua.

«Lau pistoi bakarrik zituela uste dut, eta lortzen zuen abiada zortzi milia orduko ingurukoa zen. Gero bazegoen palanka bat txalupa aurrera eta atzera ibiltzeko, hau da, zigueinala eta ejea era berean alde batetara edo bestera mugitzeko, oker ez banago sablea deitzen zitzaion».

Arrigorri Haizea aurretik zetorkidan. Zaparrada sendoa ari zen oraingoan. Goizeko lehen argi izpiak hodeien artetik pasatu nahiez zebiltzan, baina zerua oso beltz zegoen. Bide zaharreko bide-gurutzera heldu nintzenez azkenengo hau hartzea erabaki nuen. Inor ez zen ibiltzen bertatik eta ia erdi itxita zegoen, baina bide motzena zen Saturraranera heltzeko, beraz... Olatuen orroen tartean jendearen karra-riak entzuten nituen edo hala uste nuen nik behintzat. Itxaso benetan azerraturik zegoen, olatuak bostpasei metrotara irixten ziren eta zarata beldurgarria ateratzen zuten apurtzerakoan. Airean geratzen ziren tantatxoek, laino batek bezala hondartza eta inguruak ezkututzen zituen. Hondartzan pertsona bateren bat ikusten zen bakarrik. Zihur aski, jendea

ondoko hondartzatxoan haitzetan ibiliko zen.

Bihotzaren taupadak geroz eta azkarragoak ziren. Zaman korapilo bat egiten hasi zitzaidan. Burua beste zerbaitean pentsatzera behartu nuen. Hasieran ezin nituen Andoni eta aitaren aurpegiak burutik kendu. Berriz, adimena txalupan zuzentzea nahi nuen. Egun zoragarri hartan. Baina ezin nituen aurpegi haiek nire pentsamendutik kendu.

«Arrantzan hasi zirenean...»

Oraingoan berbaz laguntzen nien nire pentsamenduei, horrela neure burua engainatzearren.

«... Antonio guardakolorean bakarrik utzi eta Jabi eta biok kubiartara atera ginen. Puente ondoan geratzeko eta ez mugitzeko esan zidaten...»

Hasierako hitzek eztarria urratzen zidaten.

«Puente edo fuentea, hala deitzen zion aitak, atzeko aldean zegoen etxetxo bat baino ez zen. Kamaroteak eta baino atzerago; rantxoa aldiz aurreko aldean zeukan. Fuentean timoia zegoen bakarrik, nahi izan ezker ere ez zen ezer gehiago sartuko, timoia juxtu juxtu. Eta timoiean aita».

AITA!! ...ez, ez nuen horretaz pentsatu behar.

«Treina ababorrean eramaten zuten, gizonak eskuz botatzen zuten pixkanaka pixkanaka baforak zirkulu bat egiten zuelarik. Sare guztia uretan zegoela ur azalean kortxoak ageri ziren bakarrik txalupak egindako zirkulua erakutsiz».

Harritxo bat zapaltzean ankazpian sartu zitzaidan. Karraxi mutu batek nire kontakizuna moztu zuen. Lurrean eseri eta ankazpia miatu nuen. Lasterketa eta putzuetako uraren eraginez abarketa azpiko soroa apurtuta eta alde guztietatik bizarrak ageri zirela zeuden. Harritxoa kendu eta maldan behera korrikari eman nion berriz. Hasierako pausuetan mina hartzen nuen, baina korrika jarraitu behar nuen.

«-Kortxoeh barnetik pasatzen zen erlenga, aurreko aldean txartangotik pasatuz aurreko palura zihoan-. Aurreko tira honi hiru edo lau gizonak heltzen zioten, Jabi hoiaren artean. Txartangotik braereko soka ere, behunak lotzen zitue-

na, pasatzen zen. Honen bukaera ez zen ikusten, uretan murgiltzen bait zen. Andoni...»

Andoni!!... Burua astindu eta altuago hitzegiten jarraitu nuen.

«Andoni, eta baita Pako ere, atzeko aldean eskuko tiran zeuden, azken batez hau eta aurreko tira bat bera ziren».

Ankazpian mina hartzen nuen, ia oinortozik nenbilen. Abarketa haiek eman zidaten ahal zuten guztia.

«-Orduantxe hasten zen lan astunena, tira eta tira esku-ko tirari ia sare guztia untziratuarte. Azkenean arrainez gainezka zegoen trein poltsa bat geratzen zen uretan bakarrik. Arraia igotzeko urkulak jartzen ziren, bi palu paraleloak txalupatik itxasoruntz jarriak, beste palu batez gurutzaturik; biak lotuz muturrean. Orduan panderua horren gainetik botatzen zen; arrain artean ondorátu eta gero gora. Ni, orduan, guardaarrainetara joan nintzen, arraia jaketan ipintzen la- guntzeko.

-Kalada ona! -zioten denek irrifarre batez».

Niri ere irrifarretxo bat iruditzen hasi zitzaidan aurpe- gian. Baina olatu baten zaratak esnatu ninduen. Ia olatuen parera heldu nintzen. Olatuen karraxiak askoz gogorrakoak ziren orduan. Bitza nireganaino heltzen zen. Ezpainetan kre- sala dastatzen nuen. Itxasoa amorru biziz zebilen. Benetan beldurgarria.

Azkenean Saturraraneko hondartzara heldu nintzen.

Buruan zer gauza zebilkidan ezin dut azaldu, hitzen bi- dez ez behintzat, momentu horretan. Hipnotizaturik bezela nihoan, helburu batez bakarrik, drama horren amaiera argi- tzea. Ez nuen ikusten, ez entzuten. Itxas hertzetik nihoan, korrika, korrika... Hondarra biguna zegoen eta neketsua zen korritzea. Anka orkatilerarte ondoratzen zitzaidan.

Hondartzaren beste muturretik jendea ageri zen. Mul- tzoka zetozen. Banaka ere agertzen ziren. Ez nituen aurpe- giak beraizten ez eta arropak; oraindik ilun zegoen, nahiko ilun. Mamu batzuk zirela ematen zuten, gauz ez errealak zi-

rela. Gau hark, egoerak, bai ez zuela ematen egiazkoak zirenik. Liburu batetatik hartutako pasadizuren bat zjudien. Gau beltz hura, zeru ilunean noiz behinka tximista baten zartada, itxaso orroaka. Pasadizu bat baino, amets gaizto baten itxura gehiago zeukan.

Korrika arindu nahi nuen, baina hondartzan korritzea oso gogorra zen. Gainera itxas hertzetik nindoanez, noizean behin olatu batek arrapatzen ninduen eta oreka galtzen nuen. Mozkor baten antzera nindoan. ura belaunetararte heltzen zitzaidan momentu hoietan. Jendea geroz eta hurbigago zegoen, baina ni ezin heldurik nengoen. Oso nekatuta egon arren korrika jarraitzen nuen, korrika.

Lehenengo jende multzoa argi, edo gerizpe haiek ezberdintzeko beste behintzat, argi ikusten nuen jadanik. Begiak pertsona haiek bereiztera, beraien aurpegiak ezagutzera derirrigortzen nituen, izugarrizko arreta ipiniz. Guztiz kontzentratu nengoen momentu horretan olatu handi batek arrapatu ninduen eta jausi egin nintzen. Ez nuen jeikitze ahalmunik, blai eginda nengoen, bai kanpotik eta bai barnetik... Itxaropena neukan blai eginda. Han lurtean etzanda etsipenez, berriz lehengo zorabioak barrua usteltzen zidaten.

«... o.raintxe, oraintxe argituko da dena...»

Baina ez nintzen errealitateari aurrea ematen ausartzen.

«...eta benetan zerbait gertatu bazaio? ...Zertara etorri naiz ni honera?.... Aita!!! Andoni!!!.....»

Eta nire burua konbentzitu nahian amaren hitzak gogoratu nituen.

«-ez da ezer gertatzen, jarrai lotan laztana. irten beharra...- Bai, amak esan baldin badit egia izango da.-... ez da ezer gertatzen, jarrai... -Egia izango da! -... ez da ezer gertatzen...-Egia, bai, egia izango da. -...EZ DA EZER... -Egia, EGIA izan behar da!!! -...EZ ...DA...EZER.....»

Amaren ahotsa šeroz eta altuago ari zen nire buruan danbaka. Barru-barrutik banekien hura ez zela egia...-ez zela egia... Bestela, zergaitik ari zen negarrez etorri zitzaidanean?

Nik banekien. Eta hori okerragoa zen.

Itxasora joan nintzen hartan bezela arnasa sendo hartu nuen eta lurretik jeiki gabe, belaunikoz, burua altxatu eta jende multo harengana zuzendu nuen begirada. Guztiak aztertu nituen banaka aita, ama edo Andoni ezagutu nahian. Bihotza bularretik atera behar zitzaidala uste nuen. Ez nuen hiruretatik inor ikusten talde hartan. Oso urduri nengoen. Ez nuen batere atsegina momentu hura. Dudarik gabe bizitza guztian izan dudan unerik txarrena izan zen hura, dudarik gabe.

Bapatean erreakzionatu nuen, eta tente ipini orduko korrika nengoen. Talde erditik pasatu nintzen ero bat bezala.

«Aita... ama... Andoni...»

Buruandanbaka ari zitzaidan pentsamendu hura.

Zerbait esan zidaten, baina ez ezer entzuten. Aurrera jarraitu behar nuen. Norbaitek besotik heldu zidan, nire lasterketa geldiarazten, sentzu gabeko lasterketa hura. Bueltatu nintzenean Jabi ren aurpegia ikusi nuen, nirearengandik arrabetera. Hitzegiten ari zitzaidan. Bere hitzak bikoiztu eta hirukoiztu egiten ziren nire buruan, oihartzun bat egongo balitz bezala nire barnean. Entzun arren ez nion ulertzen. Solteko hitz batzuk bakarrik konprenitu nituen.

«-...Lasai ...Lasai ...Lasai.... Zure aita ...aita ...aita... dago ...dago ...ondoratu ...ondor... ond...»

Ohartu nintzen gauz bakarra zera izan zen, bekokian ebaki handi bat zuela eta aske zuen eskuan odolez gorritzaturiko zapi bat. Multzo osoa nire inguruan zegoen, denak batera hitzegiten.

«-...Jon ...ez ...baina zu lasai ...zera ...ez egin negarr...
...bai zera... neg... lasai, bain ...guk ...lag ...lagunak ...eta gero
... hortxe...-»

Nik ez nuen begirada bere bekokitik kentzen. Zauri hura ez zen zuela denbora asko egin. Behar bada sorte txarra izan zuen, eta istripua tontokeri bategaitik izan zuen. Edo ...alderantziz, sorte ona?...

Aurrera jarraitu behar nuen; eta orduan bai, bihotz eta arima. Astinaldi batez libre geratu nintzen. Eta berriz korrikari ekin nion.

«... aita ... ama ... Andoni ...»

Korrika, lasterketa zoro hartan. Korrika.

«... aita ...ama ...Andoni...»

Negarrez nindoan, desesperazioz, jakinminak eta zalan-tzak tripak txikitzen zizkidatelarik.

Korrika geldiagotu nuen bapatean. Aurrean, hamar bat metrotara andrazko bat zegoen. Belaunikatuta zegoen, ur hertzean. Olatuen arabera bere gona gora eta behera zebilen uretan. Han zegoen, burua jausita, sorbalda baita eta arima lurpean. Nik ez nuen bere negarrik entzuten, baina bai sentitu.

«... ama ...»

Esku artean aurpegia ezkututzen zuen, bere pena gorde nahian.

«...AMA...»

Ez zegoen itxaropenik. ordurarteko duda; zalantza eta kakalarri guztiak bieztatu ziren. Ordurarte barruan gorde nituen beldur eta amorru guztiak kanpora atera ziren. Eta mara mara negarrez hasi nintzen.

«... ama ... zergaitik? ... zergait ...zerg ...? ... ama ...»

Bihotza milaka zatitxoetan txikitu zitzaidan, hondar bihurtu balitz bezala; hondartza haren hondar eskukada bat, edozein eskukada, balitz bezala. Gehiago hurbildu nintzen. Mara mara.

«... ama ...»

Ia bertan nengoela, amaren ondoan, eskuak aurpegitik kenduz zerura karraxi egin nuen, egun hura, itxasoa, bititza eta baita jaingo bera ere madarikatuz. Eta karraxika ari zela konturatu nintzen... Hura, ...hura ez zela nire ama. EZ! Hura ez zen nire ama!

-Jon, Jon. -Deitzen zidatela entzun nuen. Nahastuta

nengoen. Ez nekien nola erreakzionatu. Ez nuen ezer uler-
tzen.

-Jon, Jon -berriz ere. Burua alde batetik bestera mugituz, hara! non ikusi nituen hirurak, aita, ama eta Andoni, elkar besarkaturik zetoze. Eskuakin agurtzen ninduten. Irrifarrez. Niri ere irrifarrea atera zitzaidan, eta oraingoan ez zen ametsetako irrifarrea. Oraingoan egia zen. Bapatean eguna argitu zela zirudien, behar bada nire pozaren eraginez. Itxaso baretu egin zen, ez zegoen ezta olatu txikienetariko bat ere, edo hala uste nuen nik ez bait nuen inongo zaratarik entzuten. Haizea ere lasaitu zen. Dena beti bezela zegoen. Ez zegoen arazorik. Aurpegia eskuturrez garbitu eta beraiengana korrika hasi nintzen. Korrika. Korrika, baina ez ordurarteko bezalako korrika, ez horixe!

Egun hura ez zait ahaztuko ene bizi guztian. Beti gogoratuko ditut xehetasun guztiak, txikienak ere. Ez da arritzekoa; ezta?

Ez dut inoiz egun hartan baino beldur gehiago eduki. Ez eta neure bizitza arriskuan egon denean ere. Ez eta 36-ko gerlan ere.

Ez dut ahaztuko ez, bukaezinezko korrika hura. Korrika desesperatua.

Ez diot inori opa ez, horrelako korrikarik.

Aitor Artetxe Jaio

ODOLEZITSASGIZOJSA

Artibai eta Patxi jaio dira. Zer gertatu da? Ezer ez. Hori da soilena: jaiotzea. Bizitza aurrera eramatea da zaila.

Euria egitean ura goitik behera erortzen da eta ur hori nonbaitetan batzen da, Normalean, ura lur iragazkorretan barrena sartzen da. Ur honek luz «zpietan zehar bere bideak egin ondoren lur iragazkaitzak aurkitzen ditu. Jaio aurfetikako lehen oztopoa bilatzen du eta orduan tokiren bat aurkitzen du ur hori leku hortan gera ez dadin. Ur horrek iturburu bat sortuko du gure mundu honetara lehenengo aldiz aurpegia ematen duelarik.

Ondarroan jaio den haurrak, Patxik, ez du oztopo hau izan. Diru ezean bere amak etxean izan du baina lehen harnasa hartzeko ete inork eman dizkio hiruzpalau ipurdiko. Orain berriz, etxean hirugarren semea da eta geroago bere eginbeharrak bete behar izango ditu.

Lehenengo ondarrutarren bizitzan eskolak aberatsantzako ezagutzen ziren bakarrik, hau da, gure Patxik ez zuen horren buruko minik.

Bestalde, Artibaik ere berak ikasiko ditu bere lehen pausoak aurrera egiten hurratsei begiratu gabe.

Hiruzpalau urten bitartean, Patxik ez du Ondarroako herrian edo gizartean orokorki eragin handirik. Bere aitak egun osoa itsasoan igarotzen du, amak sareak jostera joan behar du eta bere anaia nagusiagoak lantegietan dabilta, gaztetan egin ahal diren lantxoak egiten. Bitartean, Patxi bere amona eta izeba xarmantek zaintzen dute. Ama baserri

etxekoa du eta dakigun bezala aita arrantzalea. Haurra zaintzearen arazoari aurrera emateko, amaren jatorrizko etxera bidaltzea pentsatzen da haurra.

Artibaik ere bitartean bere bideak hartzen ikusten dihoa eta bidean bere lehen familia tarteko berriak ezagutzen hasi da: isurkide txiki batzu.

Patxi, orduan, amaren etxera, baserrira eraman dute. Han haseran lehengusu berriekin eta oso ongi pasaízen du, baina zerbait falta zaio. Zer ote? Nekea? Baserrian isiltasuna du baina ez olatuek haitzen aurka jotzean ateratzen duten zarata monotonoaren durundia, lasaitasuna du baina ez itsasoko zeruentza, eguzkiaren epeltasuna du baina ez haizearen hezetasuna, zelai zabal unkigarriak ditu baina ez hondartza garden distiratsua, abereak ditu baina ez arraiak, lana du baina ez da nekea. Patxi itsasgizona dela konturatzen da. Bere mundua Ondarroan dago, baina kondizioek nonbait bere itsas amesak laburtzen dituzte. Baserritarrek ez ote dute atsedeen sakonik hartzen? eta noiz lan egiten dute? Patxik ez du bien arteko ezberdintasunik nabaritzen. Baserritarrak goizean goiz jeiki eta behiekin larrera joaten dira. Bazkal aurrean bueltatzen dira eta baratzetan lanean hasten. Bazkal ondoren ere baretzara bueltatzen dira eta barazkiei ikutu batzu egin ondoren lurrari ongarriak botatzen dizkiote. Arratsean sega hartu eta larreak moztera edo belarmotak egiteko belar ebakitzera joaten dira, behiak batu eta baserrian sartzten dituzte. Hurrengo egunean ere lehenengo behiak jaiztu, gero emazteak merkatukoa egin eta gauz berdinak egingo dituzte. Zein pertsonairen papera betetzen dute baserritarrak? Beren gurasoek etxera gazta edo esnea ekar ahal izateko behar diren gizon-emakumeak dira baserritarrak? Patxik bizitza biak ezagutu ditu baina berea ulertzen du soilik. Itsastarrak goizean goiz jaikitzen dira. Aihenetik sokakendu eta itsasoko mentura hasten da. Egun guztiko lana ikusten dio itsastar bati. Sarea bota, arraia harrapatu, sareak igo, arraia batu, banatu, garbitu, lurrera ekarri, kajetan sartu, kaian kontu batzu kontatu, eskutadaxo bat etxeratu, jantziz

aldatu, eguneroko sagardo buelta (edo erronda) egin eta e-txerutzen dira. Bestalde, baserritarrek egunez ez dute lan gogorra egiten beretzat, lan jarraia bai baina ez da itsasokoa bezain gogorra. Gaez, jarraian ohera doaz inongo kale jira edo bueltarik egin gabe. Zer ere dakite baserritarrek berak Ondarroan ikusi duenaz? Lan gogor baten ondoren Ondarroako kaleetan zehar lagun artean egundoko kale jira eman behar da. itsas gizonak derrigorrezkoa du buelta hori, eguneko poz eta trsiturak kontatzeko, lasaitzeko. Sagardo bat hemen, beste bat hor, masailak eta sudur punta gorritu arte. Tabernatako irtetze-sartze hauek eguneko partillaren zati batekin egiten dira eta bestea etxera eramaten da eguneroko arrai poltsarekin batera. Etxean sartzerakoan Patxiren amak aitari beti antzematen dio alai datorrenean, eta sarritan zarata apur batzu ateratzen dizkio, baina Patxirentzat bere aita sekulako gizon egina da: gogorra, sendoa, maitakorra (zeren egun guztia kanpoan igaro ondoren familiara alai itzultzen da), gizon egina eta familia mantentzen duena. Bestalde, berriro baserriarekin konparatzean, Patxik Ondarroan hondartzara joateko, ibaian igeri egiteko edo pelota partidu nahiz futbol partiduak antolatzeako astia izaten zuen eta bere betebeharrak egin ondoren lagunekin ibiltzen zen. Baina baserrian zer? Jai batzuetarako baizik ez dira elkartzten eta egun osoa lanean pasatzen dute. Baina zer egiten? Gauza gitxiak, garrantzirik gabeak, baina egun guztia lanean.

Artibaik ere Markinatik pasatzen adieraz ezin daitekeen halako tristura somatzen du. Zer da usai? Itsasoa nonbait? Markina aldean ez du uraren beharrik, gizonen txalupen marruskadurarik, emakume arrainsaltzaileen oihurik, haur barkartien negarrik somatzen. Bizitzan behin aurkitu behar den su gar hori dute usai.

Hala eta guztiz ere Patxik bere etorkizuna hurrun ikusten du eta nahigabea gordetzea besterik ez du pentsatzen. Zortzi urte ditu eta adin horrekin baserriko bidea ahalik eta ongien ateratzen saiatuko da, honela, egunen batean bere nahiak argitzen dituenean onartuak eta baliatuak nahiz erres-

petatuak izan daitezten.

Artibai ere bere bideari dario baina bide berdeetan zehar ez du etorkizunik ikusten. Itxaropen sutsuak gordetzen ditu soilik bihotzean.

Patxik bere hamar urteak betetzean osaba-izebei ezer esan gabe bere herrira (Ondarrura) joaten da, itsasoko tresnakhartu eta bere lehen bidaia prestatzen du. Handiegi dituen bere anaia nagusiagoen arropa handiak hartzen ditu eta bere lehen egunez Santa Klara azpiko haitzetan jarriaz ahal izan dituen arraiak harrapatzen ditu.

Etxera itzultzean ez du ezer adierazi beharrik. Gurasoek jarraian ulertu dute beren semearen nahia. Semearen etorkizuna, semearen bizia, semearen bizkortasuna, lan egiteko gogo, trebetasuna. Aitari asko gustatzen zaio bere semearen hautapena, amari ez hainbeste. Amak nahiago izango zuen Patxi bere etxekoen magalera bihurtu balitz. Argiago izango zen. Markinarrak letratuak, eta ondarrutarrak parrandariak! -esaten du beti, baina nor da argiago? Baserritarra, estudioz jakinago da itsasgizona baino. Beti ere dirudunago edo gauza hauetarako diru gordetzaileagoak izan ohi dira. Ondarrutarrak oraintsu arte ikasteari ez dio garrantzirik eman. Ikasleen ikasketa, alferren lana izan ohi da beti. Ikastea ez da lana ikusi, Patxik bezala itsasoan uzten delako jakina. Ikasketak jakin handia ematen du baina Patxirentzat bere baserriko lehengusuek baino bere aitak arrainetaz, itsasoatzaz, txalupetaz eta emakumetaz gehiago daki. Or duan, zertarako ikasi? Esperientziak ez al du sarritan gehiago erakusten? Patxik gogoratzen du bere ustez balea baino animalia handiagoa zen hura Ondarruko portuan sartu zenean. Izan ere sekula ezagutu duen eta balerik handiena zen. Dirudienez adin handikoa zen eta bere burua besteei jarraitzeko eran ikusi ez zuenean, taldea utzi eta Ondarroako kaia aukeratu zuen bere buruatzaz eztabaidetan ibil gintezen. Esan eta izan, honela gertatu zen. Ondarroako herrian ez zen egon inor hondartzara joan gabe etxean gelditu zenik. Bera bere aita-rekin joan zen eta aintzinako itsasgizonek edo bere aitonaren

adinekoek baleak nola harrapatzen zituzten kontatzen dio. Bere aitak zioenez, oraingo txalupen aldean txikietan joaten ziren aintzinakoak. Orain estropadak egiten direnen hainakotan. Txalupa bete gizon harpoiz baliaturik, eguzki, euri nahiz ekaitzez itsasoratzen ziren bale harrapaketara. Gaur egun ezin da balerik harrapatu ia zendurik daudelako, baina lehen ugariago ziren. Hurrunetik ikusten emen zuten balea, eta txalupa balearen ingururantz abiatzen zuten. Lehen begiradaz balea ez zen mugitzen (lasaiak bait dira), honela, txalupa balea ikutzeraino hurbiltzen zitelarik. Gero, txalupan arraunak utzi, harpoiak hartu eta baleari jaurtitzen zitzaizkion eta den hau egin ondoren zetorren zailena. Balea segituan hilez gero, bere garraioaren arazoa ezagutzen zuten bakarrik, baina ez bazen hiltzen, baleak txalupa ipurdiz gora jaurtitzen zuen buztankada batez. Bale batentzako harnasa botatzea haina erreza zen txalupa hura jaurtitzea. Hau gertatzen zenean, baleak gorpuan sarturiko harpoi eta guzti ihes egiten zuen. Txalupa apurtzen ez bazuen gizonak bustinalditxo bat harturik bueltatzen ziren kaira eta bestela gertatzen bazen, hau da, txalupa apurtzen bazuen, igeriz heldu beharko zuketzen. Hau gerta ez dadin arretarik handienaz jokatu behar izaten zuten Patxiren arbasoek. Oraingoek, sorte hobeagoz, txalupa eta tresna hobeagoak ezagutzen dituzte eta ez da horrelakorik gertatzen. Tamalez gaur egun lehen ezagutzen ez zena ikusten da; tresneria eta bale espeziaren hurritasuna edo desagertzea.

Beste behin, zabalmusu bat ekarri zuen hurrutira joan zen txalupa batek eta Ondarroako gazteria guztiak ikusi zuen zirkotan besterik ikusten ez den animalia hura. Patxiri, bere aitak eguneroko bizitzatik ikasten dituen gauzak erakusten dizkio. Horregatik Patxik, ez du sekulan eskolara joan behar izan edo nahi izan, berak etxean ikasiko bait du aurrerantzean behar izango duen guztia. Amak honi buruz ez du zer esanik, mutilak aitak heziko bait ditu eta berak bezala lana egiten irakatsiko bait die, baina amaren ustez hobe izango luke Patxik zerbait ikasi eta eskolan irakatsiko balu.

Ezertarako indar fisikorik behar ez den lan erraza, burua argitzekoa eta bide batez dirua ekartzen duena. Ondarroako familia honetan amarekin istilu handiak izaten dituzte arazo honetaz.

Ibaiak ere inori jaramonik egin gabe maldan beheara bere kurtsoa jarraitzen du, bere etorkizunaren bila, nahi duen lasaitasunaren bila, handiago baten bila (erlijioa jainkoaren bila bezala),...

Patxik bere lehen esperientzia dastatu ondoren eta bere burua etxera arrainak eramaten ikustean, gizon eta harro sentitzen da. Bere amaren esanei iseka egingo balie bezala bere aitaren tresnak hartu eta ikasi behar zuena haina ikasi zuela pentsatu zuenean, hamabi urte bete eta gero Potin txiki batean itsasoratzen da. Geroko bizitzan lemazai edo patroiaren bat izateko asmotan. Bere lehen bidaian, ur txikiei egokitzen zaien txalupa txiki batean egin zuen, eta nahiko eskaz eraman zuen. Egun batetako joan etorria izan ez baina itsasmindurik hiruzpalau bider goragaletu zuen. Etxeratu zenean, bere burua hutsa sentitu zuen. Zer pentsatuko zuten berarekin batera joan ziren beste langile edo itsasgizonek? Norbaitek bere aitarekin hitz egingo balu zer pentsatuko luke bere aitak? Zergatik jokatu du hain ume? Nahita egin al du? Ez, hori ez da egia. Berak sekulan ez zuen bere familia-ren abizena lotsagarrituko. Baina nola desohore hori kendu? Patxi benetan mindu zen. Txalupako patroiak hain gazte izanik eskarmendu nabaria hartu zuela eta géhiago ez zela itzuliko esan zion, baina nahi izan ezkerero ateak edo itsasoa zabalik izango zituela. Txalupan lana eskuz egin behar zen eta orain arte barazkiak hartzeko ohituak zeuden esku haiek odolletan hasi ziren. Baina ebakigune haiek ez zituen sentitzen Patxik. Ondarrutar itsas- seme baten buruko mina besterik ez zuen bihotzean. Duen guztia kendu baliote hainako mina. Bere bizia baino maiteago duen helburuan huts egin du bere etorkizuna, bere amesa, bere handikeria, Ondarrutarren izena...

Markinako bere lehengusuekin elkartzeko zenean pilota-

lekuan edo futbol zelaian partiduren bat egiteko, pilotalekua-
ren errege bere lehengusuak izaten ziren. Horretan ez dago
Markinarrei irabazterik! Baina Patxik bere aitak kontaturiko
istorioak miresten zituen eta egunen batetan berak ere ber-
din egitea pentsatu zuen. Hurrutira joan, aurkikuntzak egin,
jendea eta, bost itsasoak ezagutu, beste lurraldeak ikusi... Eta
orain... orain zer? Ez du hortarako balio. Bapatean, bere e-
txerako bidean dihoala, zein bide luzea, sekulan izan ez den
hainako luzea, burua altzatzen du eta ibai luzeari begiratzén
dio. Artibairi hain zuzen. ¡Nolako luzea den! Zenbat falta zaio
bere etxera heltzeko? Asko. Eta oraindik haseran dago. Ho-
nekin, bere bizitzaren haseran dagoela konturatzen da eta le-
hen harriak jo arren atzera ez egitea pentsatzen du, aurrera
baizik. Non duk odola mutil? Beretzat, jasan izan duen ba-
rregarritasun guztiagatik ere gertaturikoa kontaktzen du e-
txean. Amak kupidazko begirada bat eta aitak berriz barre
egiten dio soilik eta Patxik ez du ulertzen.

Hurrengo goizaldean ere, bere atorrak hartu eta badoa
itsasora. Lehenengo, txalupako tresneria eta heurak koka-
tzen dira itsasoratu baino lehen. Goizaldean irten denez gero,
Patxik ez du zeruaren goi-beltasunik antzeman, bai ordea
bere laneko lagunak. Itsasoratu baino lehen, Patxik bada-
kerk espero dion baina bigarren eguna denez ez du uste au-
rrekoan bezalakó ume jokazterik eta aurrera egiten du. Au-
sarta izan behar du, maitasun berekoi eta gogorra, gizon izan
behar da. Gaur zer lan egin beharko du? Ezer egin al izango
du? Itsaso handira heldu orduko behazuna ere txalupa gai-
nean utzia du. Bestalde, itsasoa gaiztotzen dihoa eta ontzigai-
nera igo behar da gizoni laguntzera eta ez neska txikien
antzera logeletan babestera. Tximista eta trumoiek txalupa
gainean hots egiten dute. Txalupak ez du bide zuzen edo fin-
korik. Sareak bota dira baina gizonak ezin dute sarea edo
arraia altzatu. Patxik, sarea erasaten eskuak odola dariola
ditu. Ez du ezer sentitzen. Olatuak aurpegian jotzen du eta
pisua besterik ez du sentitzen. Gaua dela dirudi. Olatuek aho
sakonak dirudite eta orain Patxik ez dio bere buruaren ba-

lioari garrantzirik ematen. Orain txalupa atera behar da aurrrera. Hamabost lagun salbatu behar dira eta ez Patxiren azala edo handikeria. Zenbat bider lagundu behar ote izaten zaio lagunari itsasoan, sarritan norbere burua arriskutan jar-tzean? Itsasoa gaiztotzen dihoa. Patxik ez daki ura nondik datorren. Berehala, sekula bere aitaren gerrikoaz hartu izan duen hainako kolpea sentitzen du. Zer gertatu da? Non ditu hankak? Bapatean... ezin du harnasarik hartu, hotza senti-tzen du, bustitasuna... Gizonek zarataka dihardute, baina Pa-txik ez du ezer entzuten. Zer gertatu da? Uretara jausi da. Baina, itsasoak maite al du? Beherantz xurga arazten du. In-darra dagio beherantz. Berarekin egon nahi al du? Zenbat ondarrutar eraman nahi izan dituen urak eta bera ere hauta-tua izan al da? Patxik ura maite du baina uretan lan egin nahi du bakarrik. Kresaletako ur honek arrantzaleari indarra ematen dio, orain gizon da, ez du urak irentsiko, mentura du kontatuko eta sareai eransten zaio, gizonen pisuak txalupa oker arazten du. Txalupak buelta eman behar duela ematen du. Bapatean, bere patrioiak beso ondotik kolpe egiten dio. Min sentitzen du. Aita haserretu baina adoretzu baten kolpea sentitu du. Orain txalupan dago, sareak altza dira eta arris-kua pasa da. Ura besterik ez du sentitzen barnean. Odolean darama ura. Kanposantuan sentitzen da. Itsasoa lasaitzen, zerua argitzen, ura baretzen eta txalupa zuzentzen doaz. Portua ikustatzen du Patxik eta aita du gogoan. Oraingoan ez dio barrerik egingo. Txalupatik irten eta ura dariola doa etxerantz; jendea begira du eta hansi sentitzen da. Etxera heldu denean amak ohean sartu arazi du eta hori ez zaio gustatu. Haur bezala hartu dute. Gaurko esperientzia ez du sekula ahantziko. Ama Antiguako Amari otoitzetan hasi da. Bere semearen arimaren alde kandela bat piztuko du, eta hainbat otoitz egingo du bere familiaren alde. Egunero Anti-guara joaten hasiko da. Patxik, bere fedea igandeko hama-rretako Meza Nagusian agertuko du. Ondarrutar gaztearen fedea beti finkatu izan da Ondarroako punturik altuenean dagoen Andra Mariaren gonapean. Zenbat Kantu eder es-keini zaizkion! Antiguako eleizan dagoen batel dekoratzailea

ere kulunkatzen jarri ohi izan da kantuaren edo abotsaren fede indarrez. Horrez gainera, ondarrutarrak beti izan du kantatzaile onaren fama. Nork atera belarriez bikotea? eta jarraitu bakarrik? Patxik ohitura guzti hauek ezagutzen ditu eta itsasgizonari indarra eta itxaropena ematen diotela ere sentitu izan du.

Artibai ekaitz baten ondoren ibai alboko lore argiek aurrera egiteko eta biziaren liluratasun handiagoak ikusteko gogoia ematen dioten bezala.

Nork esan orain Patxiri ez dela arrantzalea? Beraiekin batera irten zen txalupak, beraien kaxa erdiak ekarri zuen, eta honek irabazlearen txapela ematen dio Patxiri.

Artibairi errenteriko zubiaren azpitik pasa al izate ikus-teak ematen dion hainakoa. Artibaik, Ondarroako ibai honek, lehen etxeak ikusten ditu. Kresal usaia hartzen du. Zer gertatzen da? Zer herri du begien aurrean? Ondarroa. Haseran ez dio beste herriekiko ezberdintasunik aurkitzen. Etxeak berdinak, dira, jendea, kaleak,... baina nola daude pilatuak etxe horiek? Nolako kaleak? Jendea' Ez, ez dago zalantzarik. Hau beste zerbait da. Orain arte ikusi gabea. Hau Ondarroa da. Patxik, bere sainetan sentitzen duen odola, ibaiak airearekin duen marruskadura somatzen du. Bere sentimentuak gorputzarekin batera handitu egin dira. Orain ez da Markina aldean jaloriko iturri kaskar hura, orain Artibai da, Ondarroako kaleetan zehar ibai jauna. Eta denek txapela kenduaz gurtu egin behar dute bere oinetan. Handitzen edo zabaltzen dihoa herrian zehar eta bere sentimentuak ere orain ezberdinak dira. Nola esan Artibai herri honetan ezberdin sentitzen dela? Urak dioenez, leku askotan egon da, arrain moeta guztiak ikusi ditu, txalupak, zubiak, baina hau... ezberdina da.

Patxik ere aldaketa hau ematen du bere bizitzan. Bere ustez, porrot egin zuen egun hartatik gizon egiten joan da (ez da itsasminketa gehiagorik egon bitarteko). Orainsu arte Potin txikietan ibili da eta familia gustora zuen, nahiz eta itsasoko lana gogorra izan, bere adinari zihoakiona zelako. Baina orain, Potin txiki hauetatik Pleiteru handietara aldatu

da. Etxean ez dakite ezer, eta ezer gerta ez dadin ez doa ezer esatera, bera pozik bait dabil. Orain itsaso zabalera joango da, batez ere atunetara. Gizon artean etxetik kanpora nahi du bizi. Itsasoz beste aldeko herriak nahi ditu ikusi, berari aitak kontaturiko herri haiek! Bere aitak zioenez katedraletan gotzainek ematen zuten meza. Soineko gorri bat jantzirik, kapela luze bat jartzen ohi diote berekin batera meza ematen duten beste hainbat apaizen eta bera pasatzean, denek burua makurtzen ohi dute. Hango organo zaratatsua nahi du entzun, nahi eta Ondarroako koruko kantariak doinu hobea goa atera. Horrez gainera, atunetan nahi du ikasi, gizon lanetan nahi du sartu. Abuztua aurrera doa eta atunetarako ontziak prestatzen hasi behar dira. Azpiko goroldioa kendu, otea eta sua eman ontziari azpiko aldean, karena zaharra erre eta berria jarri... Oso pozik dabil Patxik bere lantxoetan. Orain aurkitzen da bere giroan. Urtaro honetan, babarrunak sartzen eta azenarioak ateratzen egongo zen baserrian egon izan balitz. Ez ote dago' ezberdintasunik? Ez dakigu, baina berak bide hau jarraitu du. Bere adineko guztiek ondamuz begiratzen diote baina poztasunak itsutasuna dakarrela diote eta Patxik ere nonbait ez du ezer sentitzen, ezer somatzen edo ez dio ezeri jaramonik egiten. Honela, bada, gure Patxi lanean ari den bitartean bere etorkizunerako ideiak finkatzen eta argitzen, bere aitak eguneroko itsasorako jiratxoak egin ondoren bere txalupa txikian, portuan egiten ari diren berriztapenei begira dago adoretzu. Bapatean... bere semea du ezagutzen, beste guztien artean. Baina, zer da ikusten dudana? Patxi, Pleiteruak berriztatzen? Dagoen tokitik salto batez, bere txalupa lotu ondoren eta atunetara itsasoratzeko dagoen untzian jabea nor den jakin ondoren, begietatik sua dariola, jabeari hurbiltzen zaio. Bere semeak zer egiten du hor lanean? Zergatik? Nork esan dio horra joateko? Hartu duen erantzun bakarra, lan horretarako gazteak behar dira eta bere semea zerutik etorria bezalako gaztea dela izan da. Baina gaztea izateak zer zerikusi du bere semeaz? Ez du ulertzen baina Patxik bere bidea aukeratu du: itsasgizona izan nahi du eta horretarako gaztetandik hasi beharra ikus-

ten du. Bestalde, zenbat eta ur handiagoetara joan eta gogorago egingo da, diru gehiago irabaziko du eta etxean ez da hestualdi edo larrialdirik ezagutuko. Hamasei urte betez gero bere lehen zigarroa ligatu eta igandeetako hamarretako saragardo errondaz zutik jarraituko du.

Artibaik futbol zelaiko zubia pasatzen bezala. Marisma-ko lehen biran bere lehen kolpea hartu du, zenbat bider pentsatu ote du jira horretan gelditzea, errezago izango zela beste edozer gauza egitea baino? Baina bihotzak nonbait aurrera jarraitzera behartzen du. Zer da sentimentu hori?

Patxik sentitzen duena itsasoarekiko: zain egoten aspertzen ez den itxaropen sutsua. Patxi, bera joan zitzaion Patroiari lan eske eta gazteegi izan arren lekua eman zion hain langile on eta gogotsu zela ikustean. Egun hartatik aurrera, ez da sekulan damutu egin zuen tratuaz. Mutilak itsasorako balio du. Benetako ur-txakurra da. Patroiaren ustez mutilari utzi egin behar zaio. Itsasoa sentitzen badu aurrera egin behar du. Bere semearen aukera isilak hitzik eta mugimendurik edo mugitzeko ahalmenik gabe utzi du. Nola ez du ezer esan etxean? Etxekoek jakin izan balute bera ere jakitun izango zen eta ez zuen ezjakin itxura hura agertuko bere semearen patroiaren aurrean.

Artibar ere bigarren birara heltzen denean, ez du lehenengoan hainako minik hartu, aurrera jarraitu du. Oraingo honetan Ondarroako herriaren bihotz barrenean sartzen ari da. Han hurrutira, Andra Maria eleizaren dorre puntak ikusten ditu, orain dela bostehun- seirehun bat urte eraikiriko parrokia. Autopista batetan joango balitz bezala, aurrez aurre zubi berria ikusten du, autoz ondarrutarren etsairik handienenganantz hurbiltzen laguntzen duen zubia, hots, Gipuzkoarantz, eta hain zuzen Mutrikurantz. Zenbat autoren irtenbidea ote da zubi hau? Eta Patxiren irtenbide bakarra itsasoa ote da? Eta aukerak hain lasterra izan behar al du? Dirudienez, bere semearekiko pentsamentu hauek egiten ari delarik, uste baino lehenago etxera heltzen da, eta sarrera ezer esan gabe, sukaldean sartu-irtenik egin gabe, egongelan sartzen

da isilean. Emazteak, zerbait sudurpean somaturik aitarena egin eta senarrari hurbiltzen zaio zer duen galdetuaz. Honek ere, Patxi Pleiterua garbitzen ikusi du baina bertan atunetara joala jakitean zutik ere ezin egonik jezarrri egiten da. Ene ba! Gure Patxi atunetara! Nola bada? Gure etxean ez dago hainbesteko diru premiarik eta ez da ur handi hoietara joango. Bizitzaren laztasunari igartzen ikasteko nahiko du aspaldidanik egiten zetorren lanari jarraitzea. Baina bere semea ezagutzen duten bezala ezaguturik, nola kenduko diote ideia hori burutik? Nolabait kendu beharko, zeren eta beren seme Patxi ez doa itsasora.

Baina nork esan behar dio Artibairi bere kurtsoa aldatzeko? Nola esan Romaniko garaian eginidako zubi hura, gero gerra ondoren deuseztu eta berriz eraikia, gaur egun turisten ikuskizun garrantzitsuena den Zubi Zahar hori ez patsatzeko? Usaiaren kurtsuak jarraitu behar du, ezin du aldatu, ez du nahi aldatu.

Patxiri ere nola kenduko diote beren gurasoek ulertzen ez duten Patxiren itsasoarenganako sentimentu hori? Ezinezkoa da. Baina hala eta guztiz ere aita, semea pentsamentuz edo jokaeraz aldatzen ahaleginduko da. Aita denez gero, bere semeak hurratsak non uzten dituen ikusi behar du, zaindu, maitatu, aholkatu... Itsasoan dagoen arriskuaz hitz egin behar dio 'eta bertan jasotzen diren hondamendietaz, mendebaldeko itsaso sakona eta orain arte ibili den ur-melen arteko ezberdintasunaz, gauza garratzetaz, bildurtzea lortu behar du itsasora joan ez dadin, baina ondo egingo al du? Bere semerik gazteena da. Beste biek orain arte ez diote buruko minik eman goizalde baten edo bitan izan ezik, baina lan arazoetaz sekula ere ez. Zergatik da txikiena ezberdina? Oker hezi al dute? Lanerako gogoa izateaz ez du ezer txarrik somatzen. Baina lanean arinegi aspertzen baldin bada? Zergaitik nahi du hain desirio handiz itsasoratu? Zerbait ez ote darabil bere buruan jira-biraka? Bestalde, familiaren egoera ekonomikoa agertzen du eta Ondarroako herrian, eta hone-lako herri batetan, askotan hobe izaten da jantzi onekin ibil-

tzea nahiz eta ezer jan gabe egon, eta... Zer esango dute bere lagunek? Eta zer mutilaren arriskuaz? Baina beranduegi da.

Artibaik kresala usaitu du, bere birikiak irekitzen hasiak dira. uraren kolorea aldatzen eta mendiak jeisten dihoaz batera, itsas hertzaren lehen ezaugarriak ikusten ditu, kalatxoriek kaka egin diote baina itsas kresal usainez liluraturik dago eta ez da konturatu. Beste txoriek arraiak jaten dituzte eta lehen baino bizkorrago doa beherantz, itsasorantz, Ondarru amaierarantz, hondarrerantz,... Hortik bait datorkio Ondarruari izena, hondarretik. Esan ohienez, lehen, herria eraiki den leku hontan hondarra besterik ez bait zegoen.

Egin ahalak egin arren ezin da gaztearen aukera aldatu. Amak inondik inora behar du bere semea aldamenean eta lotan dagoen bitartean unamaz lotzen du ohetik jaiki ahal ez dadin eta janaria uzten dio aldamenean goizean gozal dezan. Nahi duenak, hemendik eta hortik, honela edo horrela, bere helburua lortzen duela diote eta Patxik ere lortu zuen. Gozari ederra gozalduek ondoren, hankak libro zituela, bere atorrak artu eta bi astetarako gutxi gora behera agurtu du bere etxea. Goizaldean jaikitzean, amak egingo duen garrasiaz pentsatzen ari da Ondarrutik hainbat milatara. Nork emango diolakoan zeru eta ur urdin haiek ematen dioten isiltasun zaratatsua, lagun arte bakartsua, lanarte eta neke lasaigarriak, amaierarik gabeko lan jostaketa hura? Nork erakutsiko dizkio itsasoaren eta zeruaren nahigabe eta zinadurak ezagutzen, nork erakutsiko dio arraiekin hitz egiten, txalupa maitatzen, eguzkia goratzen, ostadarra deskribatzen, tximistei so egiten eta trumoiak bere baitan gordetzen? Egun hauetatik aurrera Patxik Ondarroari itsastarra izatea zer den erakutsiko dio. Ondarrutar guztien aita-eredua izango da. Berari jarraitu beharko gatzazkio. Baina nork egin horrela lan? Oraingo gazteek ez dute maitasun hori sentitzen, ezagutzen gutxiagorik ere, itsasoak ez dielako minbera berdinek ematen. Lehengo arantzale zahar hauen sentimentuei ezin zaie zezenaren hirugarren adarrik bilatu.

Artibai elizaren inguruetik dihoa, bapatean hondartza-

rako zubi ahula ikusten du. Lege zaharreko gizonak uretara hainbat salto eginikako zubia. Ondarruko jai guztiak antolatzen diren Ondarruko leku honetan Ondarrutar guztien oihartzunak entzuten ditu. Bidea jarraituz, urdinez jantzirik eta jarlekuz beterik dagoen zumardia ikustaten du. Bapatean, elizako hamabi kanpaiak entzuten dira eta ehiztariak tiroz jaurtiriko txoriareñ bila txakurra soltatuko balute bezala, itsasoaren garaile diren urdinez jantziriko gizontxo haiek ibaiaz batera dihoaz beherantz. Kaia bistaritzen denean Artibaik sentitzen duen askatasuna ezin da deskribatu. Baina bai bere lagun Patxik. Bi hauok anaiak ditugu. Lehenengo hondartza txikia zeharkatzen du, hainbat su egin eta horren ondorioz hondar beltza duen hondartza hura edo hori. Baina hau bere askatasunaren lehen garaiketa izan da. Lehen ezkerreko aldetik zituen gizontxoak lagun, eta orain aldiz, eguzkiak dir-dir dariolarik emakumeak haurrak eskuetan dituztela ibaiaz batera dihoaz beherantz, eskuinetik. Patxiren ama kaian ikusi du sare josten, eta haren aurpegiko begietara begiratzuz tristura sartu zaio. Baina itxasoa du dehiadarrez eta ezin du bere hankek daramaten abiadurarik gelditu. Zerk erakartzen du horrenbeste? Nora dihoa? Bapatean, ez daki orain arte espero izan duen «zerbait» horri hurreratu nahi zaion edo ez. Zerk arazi dio zalantza hau? Baina zurrumbilo batetik irten izan balu bezala sentitzen hasten denean, zalantzak joan dira, lasaitasuna sentitzen du, handitasuna, garaipena, edertasuna miresten du, atzematea... Saturraneko haitz mugikaitz hoiek diotena itsasoaren eskaria da. Patxiren amarentzako erantzuna bidaltzen du hainbat olatu hondartzan apurtuz. Beste ur batetan bihurtu da, ur hau da itxasgizona zaintzen duena; berak babestuko du Patxi. Orain ulertzen du zer den neke-lasaigarri hori. Orain, Ondarrutar itsasgizonak heuren odola, bizia, arima, ohorea eta itxaropena uzten duten itsasoko ur odoloztatu eta kutsagabe horretara heldu denean... Ezagutu ez balu ez zuen sekulan sentimentu hori zer den ulertuko: itsasoak egiten duen erakarpen indarra norbere biziaren babesle izatea da.

Ana Urkiza Ibaibarriaga

OROITZAPENAK

Guda, guda, oiukatzen dabil erri guztian zear izparringi saltzaillea: besapean txorta ta, eskuan ale bat artuaz leioetara irtetzen duten guztieri berria eskeiñi naiean. Bildurrez, etxetik jetsi ta, taldeak pillatzen asi dira. Gizonezko gutxi dago. Atunetarako aldirik egokiena da, eta geienak itxasoan daude. Andrezkoak ez dakite zer egin. Negarrez dabilta alde batetik bestera zerbait jakin naiean. Denpora gutxian, errian zeuden geienak udaletxe'ko enparantzan bildu dira. Alkatearen aotik entzun nai dute zabaldu dan albistea egia dan ala ez.

Berealaxe jakin-arazten diete. Baietz, egia dala. Matxinada sortu dala. Españi'ko lurralde geiengan, jaurlaritzaren aurka jeiki dirala eskubitararak. Jeikitze orrek, gure lurrian ere eman ditula bere leen emaitzak. Gazteiz eta Iruña (batez ere Iruña) jeiki diranen alde daudela oso-osorik. Napar gaztedia eskubitarrekin bat eginda dagola. Guztiak iskilluok arturik, Gipuzku'ko mugaraño iritxi dirala. Jeiki diranen buru agertzen diranak, konponketa aurretiz eginda zuekatela. Auek zirala errudunak.

Baiña errian ere ba-zeudela jeikitze ori ontzat artzen zutenak. Ixilik egin zuten batzar baten, erriko karlatar gazteak paper bat izenpetu zutela jeikitzeari laguntza emateko prest zeudela esanaz. Nunbaiten gorderik zeukatela izen zerrendadun paper ori. Gauzak artertu bear zirala, e. t. a.

Au dala ta, erriko egoera berealaxe aldatzen asi zan. Legorrian zeuden gazteak (abertzaleak) Irun aldera abiatu zi-

ran Gipuzkuar anaiekin batera burrukatzeko. Karlatarren etxe ta txokoak aztertu ta, billatu zituzten gauza guztiak jaso, errian jarri zuten komitera eramateko.

Azterketan, beste paper batzun artean, aurrez susmoa artuta zeukaten izen zerrendaduna ere eskuratu zuten; orregatik, jeikitzeari laguntza emateko izenpetuta zeuden guztien billa asi ziran.

Baiña etzituzten guztiak billatu. Batek baiño geiagok gordelekua izan zun. Ala ere, berrogei bat gizonezko atxillotu zituzten eta Bilbo'ko Larrinaga espetxera eramán.

Kanpotik indar berriak etorri dira, Milizianoak, eta erri guztia kezkatu dago. Gauza gogorren bat jazo bear dala dirudi.

Uste zan bezela, denpora gutxian bi gauza negargarri gertatu dira.

Bere etxean zegoen gizon bat, (Blas Badiola) Milizianoak artu ta, erritik atera ondoren, Atxazpi deitzen dan tokian eriotza eman eta sasi artera jaurti dute. Gizon au, (Blas) adiñeko arrantzalea zan. Aspalditik kirioetako gaitzakin zebillen gizona.

Egun batzuk geroago, il zuten arrantzalearen etxean bertan, iru gazte kartetan zebiltzazala, berriro Milizianoak (Santandertarrak) sartu ta bi gazte atxillotu. Irugarrenak leiotik salto egin zun eta etzuten arrapatu.

Bi gazte auek ere (18 urtekoak) etxetik atera ondoren, kotxe batean sartuta erritik eramán dituzte. Erriko agintariek, jazoera onen berri izan dutenean, beste kotxe bat gudariekin bialdu dute, esanez; zoazte lenbait-len! Arrapatu kotxea ta, ekarri mutillok etxera!

Baiña gauzak etziran nai bezala gertatu. Milizianoak, bide nagusitik irten eta mendi gaiñean dagon Mendexa ize-neko errizkara eramán zituzten bi gazteak eta bertan afusilatu. Gudariak eldu ziranean, illotzik zeuden lurrean. Ilketa ura ikustean, amorru biziz jarri ziran gudariak Milizianoen aurka, baiña... aiek beren lana eginda zeukaten.

11 dituzten gazte bitatik bat, lenago il zuten Blas Badio-la-ren semea da, eta Alejandro Urkiri bestea.

Udara joan zaigu ta udazkena iritxi. Erriko egoerak benetako aldaketa izan du. Beste itxura bat artu. Etsaien bildurrez dago erri guztia. Orregatik edo... Ostiral goiz-aldean, ikaragarritzko «danbada» entzuten da. Etxeak dardaraz, goitik beera zetoztela uste izan du batek baiño geiagok.

Une larri ura igaro ondoren, geienak leioetara irten eta galdezka asi dira. Zer izan da? Erriberatik goiko kalera zeto-rreren erri-zai bati galdetzen diote, eta onek, argi ematen die jazoeraren berria.

Ibaiaren gainean zeuden bi zubiei lergai pilla jarri ta biak leerturik utzi dituzte. Erriko sarrera kendu. Ostopoak jarri nai karlatarrei.

Beste zubi bat ere ba-dago baiña burnizkoa da. Oni ez diote ezer jarri. Zutiñik utzi dute asken gudariak bertatik igaro ditezten. Goiz-alde luzea irudtu zaie erritar guztiei, eta egun berriak zer ekarriko dien zai daude.

Larunbat arratsaldea da. Errian zeuden gazte ta sasoi-dun gizonak kanpora joan dira itxasontzietan sartuta. Itsaso zabalera irten dute. Ez dakite ziarri zer jazotzen dan, baiña zaratak ez dira onak. Diotenez, Kurutze-mendi osteraño karlatarrak eldu dira. Afrikanoak ere karlatarrekin datoztela. Basatiak dirala. Iñorentzat errukirik ez duten odolzaleak.

Kezkati joan dira gizonak. Errian utzi dituzte umeak, gurasoak, zaarrak, emazte ta andregaiak. Norbaitek -pixka bat lasaitzeagatik edo- etxeetan gelditu diranen kezkarik ez izateko esan du. Erriko apaiz batzuk, andre ta gizonei (ixillik) erritik iñora ez irtetzeko esan dietela. Berri auxe zabaltzeko senide ta lagun artean. Karlatar eta gainontzeko indarrak guztiz kristau zintzoak dirala. Jainkoaren izenean datozte-nak.

Au esan dun gizonari erantzun auxe ematen dio Praixko-k óJainkoaren izenean datoztenengandik erriko iru apaiz gu bezela igesika? Au nola liteke?

Ba, neri emazteak orixe esan zidan atzo goizean. Etxetik kanpora ez irtetzeko. Ez erbesteratzeko. Gezurrak dirala ka-lean esaten dituzten gauzak.

Praixko'k artzen du itza berriro ta onela erantzun: *iGezurrak dirala? <Éz al-zera gogoratzen, joan zan astean, gure errira etorri ziran Gipuzkoar ontziekin? Gure begien aurrean ikusi genduan ikuskizuna ikusita, cLOraindik zalantzan al zaudede? Azkorra zara benetan! Tatarrez etorri ziran, Pasaitar, Donostiar, Oriotar, eta... nik dakit bat zenbat errietako ontziak. Denak jendez beterik. Denak ikaratutako arpegi zurbi-lla zeukaten.*

Nik ez dakit aiek esan zituzten gauza guztiak egiak di-ran, baiña, bada-ezbada, egun batzuetarako etxetik erbeste-ratzea komenigarri dala deritzat. Gañera dzergatik etziran Ondarrun gelditu? tLZergatik urrengo egunean, janariak ar-tuta, berriro kanpora irten zuten? Aiek onezkero Bilbo'n daude, eta geuk ere nonbaitera joan bearko degu. Nik ez da-kit gure Lemazaiak zer asmo daukan: ez dakit nora eraman-go gaitun; baiño leno esandetan bezela, nere ustez beintzat, guztiori komeni zaigu erritik kanporatzea, egun batzuetarako beintzat.

Zure asmoa ondo iruditzen zait Praixko, baiña... cLEgia ote da Moruak eta Italianoak, karlatarrekin batera dabilzala? (ÍEgia emakumeei bularrak mozten dizkiotela? ÍOrren-besteko gauzak egitera iritxi al-dira gizon oiek? cLNolako agintariak dituzte orrelako basakeriak egiten uzteko?

Nik ez dakit -eta barriro diotzut- nolako jokabidea izan-go dan oiek errian artu dezaketena, baiña Gipuzko aldetik eldu zaizkigun berriak edo albisteak, ez dira iñolaz ere txan-txetan ibiltzekoak. Beste gauza askoren artean, Pasaian apaiz bat afusilatu omen dute, Donosti'ko espetxe ta gai-ñontzeko ainbat leku, atxilotutako abertzalez beterik omen daude, Euskeraz itz egiten ez omen dute uzten. Emakume guztiak -karlatarrak ez, besteak- Afrikano Italitar eta karlata-rren soiñeko zikiñ, errekizatako etxe, beraiek erabiltzen di-tuzten komun, eta beste ainbat eratako lanak egitera bear-

tzen omen dituzte. Kanpoan, libre daudenakin au egiten bade, izer gertatuko ote da atxilotuta, espetxeetan daudene-kin? Kristau gaixoak!

Praixkoren itz auek entzutean, ixilik gelditu ziran guztiak, eta emazteak agindua eman zion gizona oso kezkatu-rik zegon. Une batean, itsas-ontzian izoztea sortu zala zirudin. Konturatu zan apaiz aietako bat zer g'ertatzen zen, eta ixiltasun ura apurtzeko bere artean asi zan izketan.

Bai, ziñoan apaizak, Nik ere ezdakit zabaldu diran berri oiek egiak diran, baiña erdiaren erdiak benetakoak ba-dira, gaizki ibili bearko dute etxeetan gelditu diranak. Agintari berriok begirapen apurtxo bat izango al-dute zaar eta umeekin: Agintaritza artzen dutenak erriko semeak izango aldira. Begiratu-ko aldiote erriaren onari gauza guztien gaiñetik! Erra-zoi aundia dezu Praixko: guztiori komeni zaigun egun batzuetan etxetik urruntzea. Laister jakingo dituguz erriko barriak. Orain beintzat, goazen ainbat ariñen: Plentziara, Bilbo-
ra, edo beste nunbaitera. Gaua gaiñean degu, eta onek me-
sede egingo digu. Errosarioa erreza dezala apaiz jaunak eta Antigua'ko Ama'k lagundu daigula.

Eguzkia sartu da. Aspalditik izarrak diz-dika daude. Errian gelditu diran gudariak kaleetan zear alde batetik bes-
tera dabilta. Gauaren illunean babesten dira beren eginkizu-
nak egiteko. Erri osoa illunpean aurkitzen da. Ez dago etxee-
tako kandela ta krisalluak izan ezik. Azken orduak gogor-
rak izango dirala dirudi.

Urriaren lenengo igandea da. Eguzkia itsaso ertzean agertu orduko tiroka asi dira Kurutze menditik. Karlatarrek beren ikurra tantai gaiñean jarri dute Kurutze mendi'n eta goitik beera tiro ta tiro dabilta. Akilla aldean zeuden guda-
riak igesi dijoaz eta, Txori-errekaraño jetsi diranean, bide na-
gusiko orma ostean gordetzen dira. Makurtuta, tatarrez di-
joaz Arrigorri'ko malladietara eldu arte. Toki ontara irixtean,
arin-aringa malladietan beera burnizko zubia igaro ta, erriko
Zumardian zear galdu dira. Taldeka dijoaz. Batzuk, goiko-
kaletik Arri aundietan gora: besteek, Artako bideari lotu ta,

Galtzuaran atzean utzirik, Atxazpiraño ez dira gelditu.

Denak ez ordea!

Lau gudari, Txori-errekan, sasi artean gordeta gelditu dira. Karlatarrak erriraten diranean irtetzeko asmoa dute; beren aurrean aurkezteko ustea. Erriko norbaitek ikusi ditu.

Eguerdi'ko amabietan karlatarrak errira sartzen asi dira. Burnizko zubitik datoz iskillu ta gaiñontzeko tramunkuloak bizkarrean dituztela. Jantzi ezagunak dituzte ía jendeak bereala ezagutzen ditu. Gaiñera, ótxapel gorridunak ez dira ba karlatarrak?

Zumardian zeuden andre ta umetxoak txaloka asten dira lenbizi, gero muxoka, besarka, lepotik zintzilika... Jainkotarrak izan bear orrelako ongi etorria erriak egiteko!

Bereala, txaloak eta estarriak ixildu. óNortzuk dira or atzetik datozen jantzi arrotzdunak? Zer motatako ikurra oiek dakartena?

Laister jakingo dute nortzuk diran.

Zumardi ondoan dagon etxe batetik gizon bat zarataka asten da VIVA LA FALANGE oiukatzen du. Toki artara begiratzean, eskola maixu bat ikusteh dute besoak jasota, dea-darka, eten bearrean. Maixu onek, une beretik aginpide aundia izan zun errian urteetan zear. Beraz, an zeudenak aixa jakin zuten arrotz itxuradun gizonak nortzuk ziran.

Karlatarrak eta Falangistak ez dira errian gelditu. Toki bereziak artzeko agindua eman diete. Onela, batzuk Santa Clara elizatzora abiatzen dira eta geienak Goimendira.

Nagusiak bai, nagusiak erriko udaletxera joan eta bertan zeuden gauza guztiak aztertu ondoren, balkoira irtetzen dute lauki pillak esku artean dituztela. Be-aldean, enparantza txiki baten, andre pilla dago agirika, karraxika.

Goian zeudenak lauki guztiak lurrera jaurti dituzte, eta lurra jotzean, zatituta gelditzen dira. Ala ere, andreentzako etzan naiko. Burua galdutakoen antzera, laukien gaiñera abiatuz, oinpean txikitu, auts biurtu arteño ez dute onik izan.

Une berean, elizako ezkilak eta arrantzaleen kofradiko

turruna nor geiagoka bezela asten dira erri salbatzalleei Ongi etorria eman ez.

Bitartean, erriko karlatarrak Txori-errekan gelditu diran gudarien herri eman agintariei. Auek, (agintariek) minutu bat ere ez dute galdu. Kapitan bat buru dela, sei edo zazpi karlatar erriko gizon batzun laguntzarekin gudarien billa joan dira. Txori-erreka irixtean, gorde lekua nun zegoen karlatarrei jakin-erazi.

Kapitanaren deia laister entzuten dute gudariak, eta gorde lekua utzirik, kanpora irten besoak jasota.

Baiña ez dituzte ekarri errira. Gipuzkura dihoan bideari jarraituz, erritik urbil xamar dagon etxetxo baten ondoan gelditzen dira. Kapitanak ez diete ezer esan eta ustez naiko lasai daude. Denpora gutxira, apaiz bat azaltzen da ta, Kapitanarekin itz egin ondoren gudariengana zuzendu. Mutillak susmo txarra artzen dute, eta apaizari galdera auxe egin; Jauna izer gertatzen da?

Apaizak egiaren berri esaten die. Zuek afusilatzeko agindua dago; gertu zaitezte Jainkoaren aurrera joan nai badezute!

Gertaera onen berria gero zabaldu zan errian. Ez omen ziran euskaldunak. Gaztelarrak, Santandetar gorriak omen ziran. Ala ere, ondo il zirala esan du apaizak. Jainkoaren grazian zeudela il zituztenean. Itxuraz, gixajo auen eriotzak ez dio afaltzeko gogorik kendu apaizari!

Ba-dijoaz indarrak agindutako tokiak artzera. Artako malladietan gora dihoaztela, bi gudarekin topo egin dute, ALTO, ARRIBA LAS MANOS agintzen diete. Gudariak ez dute ezertarako denporarik izan. Zortzi karlatarrek erdian artuta errira ekarri dituzte.

Bat oso ezaguna da errian. Euzko Jaurlaritzaten aginduz, erriko karlatar jauntxoak zaintzen egoten zan mutilla da, eta erritar geienak ezagutzen dute.

Begira zeuden andre aietako batek, beitatik bat nor zen konturatzean onela ots egiten dio. Patxi, zer? Patxi'k ikusten

du andrea, eta auxe esaten dio; azkar, deitu nere aitari.

Bi gudariak, Udaletxearen gainean dagon eskolara sartzen dituzte, eta gau guztia igaro ondoren, goizeko bostetan ate zarata somatzen dute. Gureak egin du... esaten dio lagunak Patxi'ri.

Sartzen dira karlatarrak eta jantzi berriak eman ondoren, aldatzeko agintzen diete. Bi mutillak jantzi ta eleizara eramaten dituzte goizeko seiretan izaten dan lenbiziko meza entzutera. Meza bitartean, «danbada» gogorra entzuten da ta, zarata izan zan tokira begiratzean, gizon bat lurrean ikusten dute. dZer jaso da?

Patxi zan lurrean zegona. Gau guztia eriotza ikusten igaro zun. Ilko zutela milla aldiz pentsa; eta bizia utzi ziotela konturatzean, postasuna ezin izan zun gaindu. Estutasunak eman eta arnasa artu eziñik, lorra jo zun. Nola utzi zieten bizirik mutill aueri?

Lenago aipatu degun andreak Patxi'n aitari deitu zion gertatzen zen berria jakin-araziz. Patxi'n aita (karlatarra edo...) Donosti'ko bigarren Alkatea zan garai artan eta esan zutenez, goi-goian zeuden agintarien ateetan ots egin omen zun. Ala ta guztiz ere... bere ta gainontzekoen laguntza bear izan zitula bere seme ta lagunarentzat parkamena lortzeko.

Mutill auek karlatarren Lagundi eta Konpañian sartu zituzten eta Naparrekin naasita utzi. Baiña ez luzaroan! Bi illabetera Patxi'k beste aldera igesi zun. Nola?

Gau baten, Galtzuaran baserrian zeudela, Irabaltza'ko baratzera zijoala esaten die lagunei. Barazki asko zegola. Bereala egingo zula joan-etorria. Etzen Patxi itzuli: ta, bere billa joan ziranean, berak utzitako iskillu edo fusilla besterik etzuten billatu.

Karlatarrak errian sartu diran arratsalde berean Alkate berria jarri dute, eta lenbiziko agindua ematen asi da berriemallea. Paper pilla darabil esku artean efa erritar asko urduri daude. Aginduak erderaz ematen ditu. Askok ez diote gauza aundirik ulertu. Azkena bai: esaldi bakoitzaren bukae-

ran beti gauze. berdiña esaten du. SERA PASADO POR LAS ARMAS.

Gauzak aurrera dijoaz. Urrengo goizean, erriko abertzaleen etxe ta ondasunak ERREKIZATZEN asten dira. Onela, Antzosolo'ko etxea ta azpian zeukan lan-tokia ustu. Erriko Alkate zanaren oiñetako denda iriki ta, erriko umeen artean oiñetakoak banandu. Denak? Aremaio'n denda garbituta utzi. Monika Txaleta berenganatu. Errofall'en Akeitegia (errian zegonik onena) karlatarrak artu. Praixko Etxaburu'k Zumardian zeukan Akeitegiarekin ere berdin. Etxeetan gordeta utzi zituzten maindire, zillarez'ko kollara ta beste gauza asko illunpean eraman. Nork eraman zitun? Auskalo. Baimena bear zala? Noren baimena?

Neskatilla bati illea moztu diote. Eguzkia baiño zuriago utzi kaskarra. Gauza au gutxi iruditurik, aste guztian erri osoan itzulika erabili. óNolako gaitza egin ote zun neskatxa onek.? Ba...ezer ez. Emakume abertzalea zalako moztu ziotela ta... «akabo».

Karlatar indarrak eta beste lagunak (Italitarrak etorrita daude) aste osoa egiten dute mendian eta beste astea errian. Etxeetan artzeko agindua dago beren atsedean aldian oea izan dezaten. Au onela izanik, ezaupide aundiak egin dituzte napar mutillak erriko neskatilla karlatarrekin. Neskatiilla auri «Margaritas deitzen diote».

Janari aldetik ere ez dabilta gaizki. Jaten ondo ematen diete, batez ere Italitarrei. Auek, otorduen azkenean, gozokiak, pastelak nai aiña izaten dituzte. Mendian daudenean, baserritarrek burdian eramaten diete aurkitzen diran toki-raño. Esaten dutenez, ondo ordainduak daude ta diru aldetik ez dute kezkarik. Etzun mauka makala izan erriko Pastelero batek negu artan!

Baiña erriak etzun orrelakorik. Errian zegon urritasuna betetzeko agintariak umeentzako jatetxe bat ipini dute. «Auxilio Social» izena jarri diote. Eguerdian ematen dute jaten eta erriko ume geienak joaten dira aluminioz'ko platerak aldean dituztela. Onez gaiñera, ba-dira karlatar eta beste inda-

rrak dauden tokirano janari billa joaten diranak. Batez ere pixka bat ausartak diran mutikoak.

Egun baten, mutiko oitako bat, izebaren etxean lapikoa artu (etxean etzioten uzten) eta beste lagun batekin «Arteta» baserriraño eldu zan. Agintariek, Pepe txurrune'ko bide kurtzean egunero bi gizon jartzen zituzten iñor pasatu ez zedin. Mutiko auek, erdiko bidetik (azpiko aldetik) joan eta Burganeko piñadian gora igoaz, Artetaraño iritxi ziran. Karlatar bi mutikoak ikustean arrituta gelditu ziran, eta beraien-gana urreraturik, galderak egiten asi.

Karlatar aietako batek, mutiko bati besotik eldu ta galdera auxe egiten dio. Nola zaitzu izena?

Joxe Mari, erantzuten dio mutillak.

Abizena?.

Mutikoak esaten dio bere abizena.

Karlatarrak, irriparez, berriro galdetzen dio.

Agustin izeneko anairik bai al dezu?

BAI!

Nun dago?

Ez dakit; oraintxe astebete inguru etxetik joan zen eta...

Nun bizi zera?

Ipar kalean.

Zuzenbidea artu dio karlatarrak eta mutikoen lapikoak baburrun gorritz bete. Aragi zati ederrik ba-dago baburrun artean!

Pozik datoz mutikoak arri aundietan beera. Tiroen soiñua noiz-nai entzuten dute, baiño ez diote ajolik. Lapikoak baburrunez beteriz izan ezkeru, gaiñontzekoei... Or-konpon.

Bide zarrera irixtean, mutikoari lapikoa eman zion izebarekin aurkitzen dira. Illobak, ondo ongarrituta zekarren lapikoa erakusten dio, eta aragi zati aiek ikustean, Izebari urdalla gur-gurka asi edo... Zoaz etxera, ni ere laister izango naiz eta!

Baiña mutikoek ere gose izan edo... Etxeritzen dira toki bertan eta aragi zati batekin asi ta, lapikoetan zeukaten aragi

guztia jan.

Itzuli da izeba etxera. Kendu dio lapikoari gaiñekoa ta kollara artuz, aragi zatien billa asten da. Eragin eta eragin, baiña aragirik iñondik agertzen ez.

Konturatzen da aragirik etzegola, eta illobari deadar gogorak egin ondoren, artzen du lapikoa ta lurrera jaurti. Gaiñera, esaten dio, emendik ez dezu geiago lapikorik eramango, ez etorri alperrik billa, ERREKOÑO.

Zuzenbidea mutikoari kendu zion karlatarra, atsedean astea tokatu zaionean mutikoaren etxera joan zan. Gurasoak etzekiten ezer eta arrituta gelditu ziran. Karlatarrak berak agertu zieten nor zen. Karlos Artano naiz. Amezketarra. Apaiz-gaia Agustin bezela. Mutiko ura ikustean, Agustiñ'en antza artu nion eta orretxegatik galdetu. Erantzun zidanean ez nun zalantzik izan. Orrelaxe, zerbait jakitegatik etorri naiz.

Gurasoekin luzaro egon zen izketan eta geroztik, beti izan zun artu-emona Agustiñ'en etxeokein.

Karlatarrak indar berrien eziketari asi dira. Erriko mutiko ta nagusiagoak bildu ta lagundi edo konpañia bat gertutzen dabilta. Ezitaillea erriko gazte bat da. Egunero egiten dituzte saioak. Zurezko eskillo ta karlatarren jantziekin apainduta dabilta, eta denpora gutxian aurrerakuntza aundia egin dute.

Igandero, ibillaldiak, desfileak egiten dituzte tanbor eta turuten laguntza dutela. Meza nagusira joaten dira, eta meza-erdian, tanbor eta turutak ederki dantzatu. Gazte auerizena auxe jarri dioe, PELAYOS.

Agindu berri bat eman dute agintariek. Aginduak auxe esaten du. Kalera irtetzeko, paparrean Españi'ko ikurra ipiñi bear dutela erritar guztiak. Aundiak edo zaarrak, gazteak, karlatar naiz abertzaleak. Orregatik, batzuk trapo zati txikia ipintzen dute paparrean, eta geienak, soiñ-ale edo botoi bat Españar margodun trapoarekin estalduta.

Egun baten, Ipar-kaleko tabernan lau urteko mutiko bat

bere arrebarekin zegola, bi karlatar sartzen dira. Biak ezagunak. Atsedean astea tokatzeh zaien guztian toki artara joaten dira. Karlatar batek, mutikoaren paparrean soñ-ale Espainarra ikustean galdera auxe egiten dio. Eres Español? Mutikoak, lotsatuta, burua makurtzen du. Karlatarrak beste gauzen bat pentsatu edo.... mutikoaren buru gainean eskua jarri ta onela jarraitu. Eso, eso, hay que ser Español, no Euskadiano. Euskadiano sí, pero dentro de España.

Mutikoak ez dio ezer ulertu (erderaz etzekian) Baiña arrebak, bai. Arrebak oraindik gogoan izaten du egun ura.

Eguerdia da. Denpora ederra dago ta umetxoak kalean dabilta jolasean. Bat-batean, goiko kaletik gora sei Falangista agertzen dira erdian mutil gazte bat dutela. Mutilla, negarez, norbaiti deika dator. Euskalduna da. Euskeraz ots egiten du. Zer dio?

Nere Ama nai det ikusi, nere Ama nai det ikusi.! Itz auetxek esan eta negar egiten du gaixoak.

Kalean zeuden andrak berealaxe asten dira. Zer da gerta zaiona? Nor da mutilla?

Bereala zabaltzen da zer gerta zaion eta nor dan.

Mutilla Donostiarra da. Iñaki du izena, eta Falangisten laugarren konpañian dago. Gurasoak Bilbo aldetik ditu ta berak aiekin bildu nai. Beste aldera pasatzeko asmoa artu du, eta asmo ori bere lagun bati esan. Lagunak, baietz, berak ere lagunduko ziola; berak ere asmo berdiña zeukala.

Atsedean astea dute ta errian daude. Goizeko lauretan jarri dute ordua ta gauza guztiak gertuta utzi dituzte.

Lupaitik gora igoaz, Kortetatik zear, Etxandi artu, eta Arrixa baserrian irtengo dira. Gauza erreza da. Korteta'ko zuloan ez da zaintzallerik egoten.

Ordua iritxi danean lagunari dei egiten dio. Onek, ondo ez dagola; buruko miñez egondu dala gau guztian eta joateko bakarrik.

Asi da Iñaki leku artatik irtetzen eta bi pauso eman orduko... Alto, arriba las manos: queda detenido.

Mutillak, aitzakiak jarri nai ditu, baiña alperrik. Aurrez zekiten gertatu bear zanaren berria ta, zai zeuden. Berari laguntzeko prest zegon lagunak zalatu zun. Agintariei jakinazazi. Galduta zegon mutilla!

Kuartelean euki dute ia goiz guztian eta eguerdi aurrertan Komandantzira eraman. Emen, laister artzen dute erabakia. Que le fusilen! Orregatik dijoa negarrez: orregatik eskatzen du Ama. Alperrik! Illerri'ko orma bazterrean ipini ta antxe iltzen dute.

Erritik joan ziran gazte ta sasoikoak, Euskalerrri'ko mendietan dabilta. Batzuk erritik oso urbil: Norbaitek esan omen du, Ondarrutar geienak Asterrikan daudela. Etziran guda zale, baiña etsaien jokoa ikusirik, etzuten beste biderik izan eta burrukan gogor omen dabilta. Zaarrak, Plentzi'ko kaian, itxas ontzietan daude.

Orregatik edo... karlatar agintariek erabaki gogorra artu dute. Erriko ainbat abertzale famili erritik kanpora bialtzea erabaki dute, eta albiste ori, aurretik aukeratu zituzten guztiei jakin-arazi.

Aukeratu zuten eguna iritxi zanean (bazkal ostea zan) lekaiemeen etxe aurrean biltzen dira guztiak. Etzen gauza ikusgarria! Andre, ume, aiton-amonak, guztiak talde batean ipiñi eta karlatar nagusien aginduz, bide erdiraiño eramango zituztela esan diete. Beste aldean, senide ta euskal gudariak zai egongo zirala.

Azken uneak ez dira izan gozoak!. Negarrak, uluak, txilioak: agur, lagun eta benetako errikide guztiei. Agur, Ondarru maiteari...Itzuliko ote dira egunen batean? Ez dakite ta ez dakigu Baiña, dijoaztela, bai. Karlatarren erdian dijoaz Artako bidetik zear. Orrelaxe eramaten dituzte Atxazpi'raño, eta antxe bakarrik utzi. Bide zati bat bakarrik ibili ondoren, senide ta familikoekin bat egin. Errian berri auxe zabaldu zan beintzat.

Beste berri bat ere zabaldu zuten errian. Gudariak lapurretak egiten zituztela baserrietan. Ibarguen baserrian, kalte

aundiak egin dituztela. ÓNortzuk baina, leku artan ez badago ez gudaririk eta ez karlatarrik?

Batzuentzat asmakizunak ziran, beste batzuentzat gezurak: baiña gauzak ezin ziran orrela esan. Agintarientzako igesi zuten guztiak gaizkilleak ziran, eta kontu éduki bear zan nun zer esan eta nola esan bestela...

Ibarguen baserrian gertatu zana, beste milla lekuan gertatutakoa besterik ez da. Guda garaian eta leku guztietan gertatu diran lapurreta txiki bat. Obeto esateko, txikia egin zutenentzat, baiña garai artan, ondamendia baserri arta-koentzat. Ona emen gertatutakoaren berri.

IBARGUEN'GO TXERRIA

Ondarru ta Berriatu bitartean daude Ibarguen-ak. Bi baserri dira; bekoa ta goikoa. Urteak joan arren, oraindik biak zutik irauten dute, eta bertako zaarrak il ba-ziran be, semeak, gurasoengandik jazotako berriak gógoan izango dituzte, eta zer esanik ez txerriakin gertatu zaiena norbaitek izentatzean.

Gabon aurrea zan: gudaroste biak bakoitzak ber lurrak aukeratu zitun eta antxe aurrez-aurre kokatu ziran sei illabete luzean, udaberriko giroarekin Bizkaian barrena erasoka asi arte. Gudariak, Asterrika izeneko auzoan zeuden. Auzo au, lurrez Berriatukoa izan arren, eleizaz Ondarrukoak dira baserririk geienak, eta bertan dagon Etxano mendian jaso zituzten ormak euren babeslekutzat. Mutillik geienak Ondarrutarrak ziran eta inguru aiek ondo ezagutzen zituzten: bai ta bertako baserri guztiak ere.

Ibarguen-ak bi indarren erdian gertatu ziran. An etze-goan ez Karlistarik eta ezta gudaririk ere. Baserri ezagunak ziran ondarrutarrentzat; batetik, Ondarrutik Bilbora dijoan bide nagusia joten daudelako, eta orrez gaiñera, Ibarguen bekoa, baserri izatetik kanpo, denda ere ba-zelako. Garai artako baserriak ezagutu genitunontzako, aiek, gaurko «Supermercado» aiñakoak ziran. Danetatik egoten zan: Abarketa, Piper-auts, Makallau, e.t.a.

Urte guztian saltzen zuten Sagardoa: orregatik, oso ezaguna zan Ondarrutarrentzat Ibarguen bekoa.

Arratsalde batez, kontuak kontari zeudela, norbaiti Ibarguen'go txerria gogoratzen zaio. Txerria antxe egongo dela, berak ikusi zuala udaran. Ordun koskorra zegoala, baiña onezkero gizenduta egongo dala.

Milla asmakizun erabilita gero, erabaki gogorra artu zuten. Gauen baten baserrira jetsi ta txerria artu: bertan il eta Etxanora eraman. Orretarako talde bat aukeratu bear zan. Mutillak ez-ezagunak izan bear ziran, eta bat, erderaz zekiana aginduak erderaz emateko. Gauzak denporaz eta ondo egin bear ziran.

Aukeratu zituzten mutillak eta baita erderaz egin bear zuana ere: eguna... laister erabakiko zuten.

Andik aste betera-gauaren babesean-asi ziran bidean: bi kilometro inguru daude Etxanotik Ibarguen baserrira; beraz, berealaxe eldu ziran. Atea jo zuten eta nagusiari jeisteko agindu. Agertu zan nagusia ta une berean izketan asi zan erdaldun mutilla. Zer dio? galdetzen du nagusiak. Mutil guztiak zutunik, tinko zeuden eta nagusiari mutil aietako batek egiten dio itzulpena Ondarrutar izkeran. Ba... onek diño txarrixte emoteko. Zer? txarrixte emoteko! Baiña geuk bear degu. Urte guztian ezin azita ibilli gera-ta. Gaiñera... Saca Serdo enseguida dio kastellanoak, balarik gabe zeukan Pistola erakutsiaz. Bildurrez, zer esan etzekiala gelditu zan nagusia: orduan auxe esaten dio euskeraz egiten zion gazteak. Oba ixango dozu emoti. Oneaz kontuz ibili. Au ezta euskaldune.

Eramaten ditu ukullura, eta antxe, begien aurrean ikusten dute zortzi bat arruko txerria. Mata enseguida «agintzen dio kastellanoak».-Txerriari kurrinka egiteko denporarik ere ez diote eman. Aizkora batekin jotzen dute kaskoan eta bertan luze uzten dute.

Saca sangre enseguida: Zer dio? galdetzen du nagusiak! Ba, onek diño odola kentzeko. Nagusi gixajoak zer egiten zuan etzekian edo... artzen du aldamenean zeukan igitaia ta

sartzen dio txerriari estarritik: berealaxe odolostu da urde gaixoa.

Onetan zebiltzala, etzeko andrea azaltzenda ukullura, eta ango gertakizunaz konturatzean bekokian esku bat ipiñirik auxe esaten du; Jesus Ona! ze pasatzen da? Itzultzalleak onela erantzun: Ama, ez keixa! Ezta ixer pasaten. Gu ontxe guz emendik eta or geatuko zarie bakin. Ene. i Zure izkera... Ondarrutarra zara ezta?

Estu zan mutilla: etzekian nundik irten, baiña bereala entzun zuten kastillanoaren agindua. Venga; cargar camilla y arriba.

Angalla batean ipini zuten txerria, eta lau mutillek arturik, antxe ataratzten dute ukullutik. Antxe, gauaren babesean eraman Asterrikara. Geroko berririk ez dakigu.

Negua oso ona izan da, eta Udaberria eldu zaigu. Erritarren artean ere ezbearrak gertatu dira. Amu fabrikan, erropak garbitzen zegon andre bat, bala galdu batek jo, eta bertan il. Pasai'tik etorrita zegon mutil gazte bat ere berdin. Etzen bereala il. Donosti'ko eritetxe batera eraman zuten, baiña alperrik!

Kofradi berriko etxea jo, eta dena zatituta utzi du kañoi bala batek. Bi mutiko ta andre bat il dira. Ba-dira eri gelditu diranak. Oien artean, lenago mutu zen mutiko bati, «danbadak» belarriak lertu ta entzumena etorri. (Orain itz ere egiten du) Egazkiñak jaurtitako lergai batek, an urrean zegon akeitegian zeuden bi neska gazte, Falangista bat, eta zaar bat il. Arrigorri'ko malladietan zetorren andre bati, bala galdu batek isterra zulatu, eta bizi guztirako erren utzi. Arrantzan zegon gizon bat, kokotean bala sartuta legorreratu dute.

Arrieta kanpanero'k ere etzun estutasun makala izan. iNor zen Arrieta kanpanero? Erbestetik etorrita, erriko alaba batekin ezkondata zegon aguratxo bat. Beartsuen artean beartsu. Goizero, etxetik irten eta koxkabilla deitzen zaion tokian egun guztia igarotzen zun. Txabola bat zeukan bertan eta antxe egoten zen. Norbaitek, salataria zala zabaldu zun errian eta agintariak artu, eta galderak egitera eraman. Gai-

xoari, etzioten errurik billatu ta utzi egin zioten. Ala ere, be-reak entzuten zitun atsotxo arek erriko mutiko biurrien aurretik igarotzean. Denak iseka; aurrean artzen zuten eta one-lako gauzak esan: *Arrieta kanpanero espia de los Rojos*.

Zortzi illabete dira iskanbillak errian sortu zirala, eta gauza guztiekin oroitzea, benetan gauza zaila da.

Ala ere... eldu zaie aldatzeko garaia. Azken egunetan daude, eta gauzak gertutzen dabilta. Zaldiak, Mandoak, ka-ñoiak eta beste era guztietako iskilluak nun-nai ikusten dira.

Ordua iritxi danean, asi dira lerroka erritik irtetzen. Neskatilla batek baiño geiagok negar egiten du. Ba-dira beneta-ko ezaupideak egin dituztenak. Egizko maitasunak ere izan dira: Baiña, maitakerietan ibilitakoak ere ba-dirala diote.

Dana dala. Joan dira, eta gauzen berri geroak esango du. Ametsak, itxaropenak, eta itz gozoak, emen utzi dituzte, eta egia dan ala ez, laister jakingo da. DENPORA IZANGO DA LEKUKO.

Jose Mari Azpiri

IÑAXIOK KONTATU ZIDAN

(Kontakizun laburra)

Nere herrian apirileko egunsentiak oso politak izaten dira, eguzkia horizontean agertu bezain azkar hodei guz'tiak gorriaren gama osoaz margoturik gelditzen dira, egia esan beste margoen gainetik batez ere arrosa ikusten da.

N'aiz eta oraindik oso goiza izan portuan mugimendu ugari dago. Atzo gauean itxasora irten zuten txalupak, heuren inguru guztiak kalatxoriz betetá, txinurriak bezala bana-ka banaka mollara heltzen ari dira. Kubiartak arrainez eztalitako kajaz beterik daude. gaur bai arrantza ona, gau guztiak honelakoak izango balira!... Denbora gutxian kai guztia kalatxorien hotsez bete da. Lanaren nekea marinelen aurpegietan ikusten da. Laster oheratuko dira, heuren emakumeak gauean berotutako oheetan.

Bestalde goizean itxasora irten behar duten marinelek, azken aharrusiak eginez, txalupak prestatzen daude, ohe epelak etsipenaz oroitzen. Laster itxaso zabalean ibiliko dira berdelak arrapatzen. Diru pixka bat etxera eramateko itxaso beltzera irten behar, hori da marinela tristearen destinua. Bitartean kalatxoriak handik eta hemendik, karraxika, arrain puxkak lapurtzen dabilta.

Goizero bezala, morro puntan, nere herriko arrantzale zaharrena horizontea begizatzen dago. Zeren edo noren espero dago? Inork ez daki. Herriko marmartiak heroturik dagoela dioete. Itxasoa utzi zuenetik horrela dabil. bere etxean katilukada kafesnea prestatzen duenean, bere makila hartu eta geldika, pausoz pauso portura abiatzen da. Nolako tristu-

ra sartzen zaio txalupak portutik sartzen eta irtetzen ikusten duenean! Neri pena handia ematen dit, baina uste dut bera horrela gustora bizi dela.

Kalatxoriak heuren karraxiekin jarraitzen dute.

Beti bezala morro puntako banko batetan eseri, poltsi-kotik bere pikadurazko tabako holandesa atera eta zigorrotxo bat batzen hasten da, lan hontan ordurarte, itxuraz behintzat, dorpeak izan diren eskuak oso trebeak bihurtzen dira, urte asko dira egunero gauza berdina egiten, azkenean zigarrotxoa bukatu du. Estankoetan saltzen diren paketeetako amerikar zigarrotxoei ez dauka zertan inbidiarik eduki, zeren emaitze hobezina da. Zigarrotxoa piztu baino lehen begirada bat botatzen dio, bere trebetasunak begiak poztu egiten dizkio. Poxpolo batekin «emaitza» piztu egiten du. Lehen zigarrotxoa denez gero lehendabiziko ahokadak bere birika zaharrak mindu egiten dituzte, ondorioa ez tulaldi gogor bat da. Normala dela pentsatzen du eta bigarren ahokada hartzen du, lehengoa baino handiagoa, orain ez tulik ez dauka.

Inork ez daki zenbat urte dituen. Bere txikiteoko kuadrilako lagun guztiak hilda daude. Familiarik ez du, bere emaztea Antiuko kanposantuan lurperatuta dago, baita ere seme bat eduki zuela esaten dute, itxasoan ito zen, orain dela urte asko. Ez dakit zergaitik, baina inorekin ez da erlazionatzen. Parkatu. Bakarrik noiz behinka eskolakiesik egin eta morro puntara joaten diren hurrekin hitz egiten du.

Goizeko hamarrak dira, bere ahoan seigarren zigarrotxoaren azken ahokada egin ondoren zigarrokina bota eta makilaren puntarekin itzaltzen du. Urrutian, Campsa-ko aldean, pare bat mutilkoxkor korrika datoz lasterketa bat egiten, ea nor heltzen den arinago heuren lagun zeharrarengana. Zeren azken batean zenbat arinago iritsi, arinago hasiko da istorioa kontatzen. Lehen heltzen den haurra, arnas estuarekin eta barrezka zera esaten dio:

-Kaixo Iñaxio! Zer moduz?

-Hemen, itxaso zabalari begira, beti bezala -erantzuten du irrifarre batekin.

-Kaixo Inaxio, azkenean heldu naiz- hau esan eta bigarren mutikoa lurrean eseritzen da.

Iñaxiok badaki zertara etorri diren, betiko istorioa entzun nahi dute. Beste zigarrotxoa egin, piztu eta hizketan hasten da:

-Kontatuko dutena nere aitaren aitonari gertatu zitzaion, neri nere aitak kontatu zidan. Gure herria orduan oso txikia zen guztiak, orain bezala, arrantzatik bizi ziren, baina itxasoan ez zuten arrainak bakarrik arrapatzen. Ezagutzen duzue herriko harmarria?

Hau betiko galdera da, hurrek pilo bat bider entzun dute Iñaxiok kontatu behar duena. Burutz dakite, baina ez dio axolarik oso gustora egoten dira olatuen zarata, kalatxorien karraxiak eta Iñaxioren ahots zaharra baina goxua entzuten. Erantzuna ere betikoa da:

-Nik badakit, kofrai zaharreko etxean ikusi dut. Zubi zaharren irudia dago eta bere azpian bale haundi bat.

Gaztelu eta lehoi bat ere badaude -beste mutikoak harmariaren deskripzioa amaitzen du.

-Egia da, bai -Iñaxiok jarraitzen du-hori da. Jakingo duzue balea lurreko abererik haundiena dela. Aintzinean gure itxasoetaraino etortzen ziren eta Euskal Herriko arrantzaleek arrapatzen zituzten.

Herrian ikusmen zorrotzena zeukan gizona talaxeroa izaten zen, gizon hau herriko toki garaienean egoten zen. Badakizue, Santa Klara, orain ere han egoten da. Balearen ur txorroa ikusten zuenean sua piztu eta keaz herriari abisua ematen zion. Gaur egun irratia dute. Herriaren kea lehen ikusten zuenak korrika hasi eta; BALEAK! BALEAK! Ohiukatzen hasten zen, berehala herri guztian izugarritzko mugimendua sortzen zen.

Beno ba, nere aitonaren aitonari gertatu zitzaion istorioa orain dela urte asko pasatu zen. Urte hartako talaxeroa bakardadean zegoen, txorien txorrotxioak laguntza ematen zioten, lurrean eserita zegoela «solitaxo» bat egiten. Ordurarte

bale bat ere ez zuten arrapatu eta herrian hori nabaritzen zen, istiluak eta mozkorrak ugaritu ziren. Herriko jauntxuek diru kutzak ez zeukaten aurreko urtean bezala, armiarma telak beteta zeuden eta honek burukomin asko ematen zieten. Beraien ustetan talan zegoen gizonak zeukan errua. Giro honek buruhauste handiak ematen zizkion Joanes-eri -hau da talaxeroaren izena. Kartak lurrera bota eta itxasoari begirada bat botatzera joan zen. Benetan kezkatuta zegoen, bere lanpostua arriskuan zegoen, eta azken batetan bere ikusmenari esker jaten zuten bere familiakoak. Egia ote zen bere ikusmen zorrotza galtzen zegoela? Lekeitio aldera begiratzeko zegoela... ez zen posible! Begiak igurtzi eta berriz begiratu zuten,... ez zegoen ezer. Arratsalde eguzkitzu hartan itxaso oso bare zegoen. Baina... bai... oraingoan bere bizitzako balearik haundiena ikusten zegoen, berehala sua piztu eta ahal zuten ke haundiena sortzen saiatu zen.

Herrian talako kea ikusi ondoren, aspalditik prestatutako traineruak arrantzalez bete ziren. Ordurarte patxaraz bizi zen herria inurritegt bat zirudien, denak korrika zebiltzan, batzuk traineruan bere lekua hartzera eta besteak, gehienak, itxas hertzean toki bat aurkitu eta bale arrapatzearen espektakulu ikusgarria ikustera.

Marinel bakoitza bere eginkizunean aritu zen, gehienak indar guztiekin botatzen eta besteak balea arrapatzeko tresneria prestatzen. Lana gogorra izanarren pozik zihoazen. Heuren bihotzen taupadak eta txalupak ura apurtzean ataritzen zuten zarata nahasten ziren, izerdia eta kresala bezala. Aurrera mutilak! AURRERA! -ohikatzen zuten lehen zihoan traineruaren patroiak- Aurrera geurea da ta!

Estropada hontako saria balearen zati onena zen. Ez hori bakarrik, zeren balearengana azken heltzen zen untzikoek beste guztiei ardo botila bana gonbidatu behar zieten, eta orduan poltsikoak ez zeuden gaur bezala beteta. Gainera nork nahi zuten popaustel burla entzun?

Orduerdi bat bogatu ondoren lehen trainerua balearen brankara heldu zen. -Joxe prest egon, urpetik ateratzen de-

nean jaurti arpoia, eta arrapatzen dugun. Besteok kontuz, astinaldi galanta edukiko dugu eta.

Baina arpoia bota baino lehen balea berriz hondora joan zen.

-Benga arraundu! -esaten zuen patrioiak- Indar gehiago madarikatuok!

-Laster aterako da -baiezkutzen zuen Joxe arpoilariak-bere gainean gaude, esfortzu txiki bat eta geurea da.

Baleak arnasa hartzera irten zuenean Joxeak arpoia bere indar guztiekin bota zion. Benetan punteria ona zeukan morroskoak! Arpoia hondoraino sartu zen balearen hegalean. Itxasoko munstroak Aranzibiko burdinolan egindako arpoia bere gorputzean sentitu zuenean ikaragarritzko mugimenduak egiten hasi zen, buztana alde guztietara dzirdzar-tatzen. Balearen odolaz itxaso guztia gorritz margotu zen.

Iñaxiok, nere herriko arrantzale zaharrenak, kontatzeari usten dio une batez, patxadaz beste zigarrotxo bat egiten hasten da. Haurrak oso gustora daudela entzuten eta geldialdi honek kontakizunari era bateko suspensea jartzen dio-la badaki.

-Iñaxio, jarraitu istorioarekin -eskatzen du eserita da-goen haur batek.

-Bai, bai jarraituko dut, trankil oraindik denbora asko daukagu-da erantzuna Kalada bat hartu, kea martxikatu eta zaporeatu ondoren hizketan jarraitzen du:

-Baleak zaurian min haundia sentitzen zuen. Alde bate-tik bestera zebilen, sartuta zeukan arpoia kendu nahian. Ar-poiari lotuta zegoen txikota erriatuta zegoen, marinel bat soka urez buztitzen zegoen igurtzimenduaz ez berotzeko eta eten, beste bat badaezpadan haizkorarekin prest zegoen, ebaki behar bazen ere. Balea indar guztiez igeriko zebilen, kemen horren ondorioz txalupa ur gaintik hegaz zebilen, txoriarrain bat zirudien. Gizonak erramuak altxa eta ahal zu-ten bezala, burua makurtuta, zerbaiteri heltzen zioten, baze-kiten txalupatik uretara jauzten ba ziren galduak zeudela.

Inork ez daki zenbat denbora ibili ziren horrela. Inork ez daki zenbat milia egin zuten horrela. Argi dagoena gaua helcju zela. Oso arraroa da baina itxasoko munstro izugarria arpoi bakar batekin hil zen.

-Beno mutilak ilundu da eta gaua hemen pasa beharko dugu -esan zuen patriiak-bakoitza ahal duen hobetuen etzan eta gizaldean balea herrirantz eramango dugu... baina lehendabiziz balea gure txalupari ondo lotu behar diogu. Ez-beharra izango zen, hainbeste neke pasatu ondoren esku utzik gelditzea.

Baleari bizpahiru arpoi gehiago sartu zioten eta kortxo-ko buia bat buztanean ez urperatzeko. Hau egin ondoren denak itxaso zabalean gaua pasatzeko moldatu ziren.

Sehaska baten zeuden haur batzuk ziruditen, lanaren neke eta uraren kulunkari esker laster denek lo hartu zuten.

Geroago arrantzaleen zurrungek gauaren ixiltasuna apurtu zuten, baina... nere aitonaren aitonak beste zerbait ere entzun zuen.

-Zer da? -galdetzen zion bere buruari, oraindik erdilo-ahots poli bat dirudi. Zer izango ote da? ...Beste guztiak lo daude...

Itxasoa haitzulo haundi bat zirudien. Ilargirik ez zegoen. Ez zen ikusten ezer. Oraindik erdilo, alde guztietara begiratzten hasi zen. Itxasoa trankil zegoen. Izar bat ere ez zen ikusten. Baina ahots polit hura, surrumurru goxo hura bere belarrietan gili gilika ari zen. Baleari begirada bat bota zion...eta bere arridura izugarrizko izan zen...balearen gainean," argi arraro batekin estalita, neska polit bat zegoen. Nola zen posible? Begiak igurtzi zituen eta han jarraitzen zuen balearen gainean tente eta nere aitonaren aitonari adi-adi begiratzen. Hogei urte edo edukiko zuen, urrezko ilea gerriraino heltzen zitzaion, aurpegi zurian begi beltz eta ezpain gorriak nabarmentzen ziren. Benetan polita zen neskatoa. Ez da arraroa nere asaba agerpen harekin oso liluratuta egotea, oraindik gaztea zen. Lilurak beldurrari utzi zion tokia. Bere txalupako lagun guztiak zurrungaka jarraitzen zuten. Zuen beldurra ain

haundia zen bururatu zuen gauza bakarra belauniko jarri eta erreztatzen hastea izan zen.

-Aita guria zeruetan zagoza...

-Zerekin beldurtzen zara motel, neska bat ikusteak horrenbeste ikaritzen zaitu? Zer egin dizut nik, horrela marmarreen hasteko?... Ez duzu erantzuten? Azkenean nere aitonaren aitona zere erantzun zion:

-Inpernuko etsaiak joan zaitezte hemendik, ni fededuna naiz eta ez dut ezer egin deabruaren erresumara joateko. VADE RETRO SATANAS!

-Ni ez naiz inpernuko ezerrez, pepelerdori. Nere aizpek gizonezko polita zarela esan didate eta zu ikustera etorri naiz, hori bakarrik -erantzun zion emakumeak.

-Ai ama! Ai ama! Zer gertatuko zait? Eh! Lagunok lagundu nazazue! -erdi negarrez deiadarka hasi zen.

-Trankil, zure lagunak lo daude eta nik nahi dudanarte ez dira esnatuko. Gu biok gaude hemen, bakar bakarrik. Ja, ja, ja...

Fraixkok, hori zen nere aitona aitona izena, arraun bat eskuartean hartu eta neska edo inpernua sortu-tako demonioari aurre egiteko prestatu zen, ikaragarritzko beldurra zuen baina han zegoen traineruaren erdian zutik.

-Etorri hona eta egurraren zaporea dastatuko duzu! Sorgin madarikatuori!

-Ja, ja, ja -neskaren barre algarak alde guztiak bete zituen- Zer egingo duzu zotz horrekin?

-Momentuan ixiltasuna gauaren jabe egin zen. Bizitzaren erlojua gelditu izan balitz bezala. Dena mugimendu gabe geratu zen, itxaso marmolezko mahaia baten giza, haizea ere loditu egin zen olio garden baten itxura hartuz. Fraixkok ez zekien non zegoen, lurlean, infernua edo zeruan. Beneran nahasita zeukan burua.

Neska harek begiak itxi, eta ahoa iriki gabe inork ez zuen ulertzen hizkuntza batetan kantu arraro bat abesten hasi zen, hatzamar batekin Fraixkok eskuartean zuen arrau-

nari seinalatu eta erramua airean desagertu zen. Nere aitona aitona ikaraldiarekin atzeraka joan eta txalupatik itxasora jausi zen, baina ez zen buzti, ezta hondura joan, URA GOGORTUTA ZEGOEN. Ahoa eta begiak guztiz irikita, zer egin ez zekielarik neskatoari begira gelditu zen, galduta zegoen. «Nereak egin ditut» esaldia bere buruari errepikatzen zion.

-Ja, ja, ja... Non gelditu dira zure harma eta ausartzia, mutiko? Zer egin behar duzu orain?

Hau esan ondoren neskatoa edo demonioa kaio haundi batetan bihurtu zen eta hegaz Fraixkori besoetatik erpez heldu eta gorantz altxatu zuen.

-Ez dizut ezer egingo eta trankil egon zaitez bestela bota egingo zaitut. Nere asabak bazekien ez zuela beste irtenbiderik. Gorputza lasaitu eta berak nahi zuena egiten utzi zion. Berehala hodeien parera iritsi ziren. Denboraldi bat honela ibili ondoren berriz balea eta trainerua zeuden tokiraino joan eta aberearen lepoan lurreratu ziren. Kaioa neska bihurtu eta hizketan hasi zen irrifarrez:

-Ez duzu pasa txarto ezta? -Fraixkoren bihotzaren tau-padak kilometroetatik entzuten ziren- Beno aurkeztu egingo naiz, nire izenak ez du ardura, baina lamia bat naizela esan behar dizut. Basoan bizi naiz erreka baten ondoan, nere aizpak egun guztia ilea orrazten pasatzen dute eta ni horrela azpeltu egiten naiz. Noiz behinka gizonekin txantxetan ibiltzera ateratzen naiz eta gaur zuri tokatu zaizu.

Fraixkok ez zuen sinisten entzuten zuena...dena joko bat ...baina nola?

-Oso ondo pasatu dut -lamiak hizketan jarraitu zuen- eta saritu egingo zaitut. Hemen daukazu medaloi hau, urrezkoa da eta diru asko balio du. -hau esaten zegoen bitartean golkoan dindiliska zeukan bitxia eman zion- Baina fabore bat eskatuko dizut, inori ez esan ezer, gainera ez zaitue sinistuko eta denak heroturik zaudela pentsatuko dute. Ez baduzu ezer esaten hobeto zuretzat eta neretzat. Beno motel agur eta inoiz arte. Hemendik aurrera gizakiok lamia gutxi ikusiko

dituzue euskal lurrian.

Neskatoa etorri zen bezala aidean desagertu zen.

Eguzkia horizontean agertzen hasia zen, argitasuna berri iztasoren jabea egin zen eta beste marinel guztiak esnatzen hasi ziren, lehena patroia... baleari begiratu zion eta... bere lepoan... Fraixko zegoen oraindik harrituta.

Fraixko, zer zaude egiten hor? Heroturik zaude ala? Jeitsi hortik! Porturantz abiatu behar gara beztela harrapatu duguna hemen ustelduko zaigu.

-Deiadarkatu zuen.

Treinerura jeitsi ondoren:

Baina zer egin duzu balearen lepoan? -galdetu zion berri iztasoiak.

-...E-Ezerrez... ba hori e-e txikotak ondo zeuden ikustera joan naiz, hori da bai, je, je, je... -erantzun zuen totalki mintzatzen.

-Eta... ondo daude?

-Oh! Bai, bai...odo ondo, ez da gertatzen ezer, goazen portura.

-Bai, joan gaitezen, gure familiak kezkatuta egongo dira. Bina... lo gutxi egin duzu, betazpiak dituzu.

-E-E...bai'gaizki lo egin dut...ia ezerrez, badakizu kezka ez du uzten lo egiten.

-Benga mutilak bakoitza bere lekura. Etxera!

Itzultzea oso neketzua izan zen, bale herrian harrapatutako haundienetarikoa zen, baina denak etxera heltzeko go-go zeukaten eta indar guztiekin bogatzeari ekin zioten.

Herriko jende guztia itxas hertzean zegoen zai. Talaxeroa izan zen lehen ikusi zituena, noski. Mollara iritsi zirenean jende guztia txaloka eta txistuka hasi zen, batzuk pozaz negarrez.

Denen artean balea hondartu zuten eta zatiketa egiten hasi ziren, lana astitsu zen baina pozik zebiltzan, baleari esker hile batzuetan herrian denak jango zutela bazekiten. Lan hontan herri guztiak parte hartzen zuten, bakoitzak ahal

zuen bezala. Gero koipea barriketan sartuta, bizarrak eta hezurak salduko zituzten. Denbora haietan balea harrapatzeak diru asko ematen zuen.

Lana bukatu zutenean jai zoragarria ospatu zuten, musika eta dantza ez zen gelditu egun guztian zehar.

Nere aitonaren aitonak inori ez zion ezer kontatu. Bakarrik, bere semeari eta honek nere aitari eta honela nik zuei. Gaur egun arte istorio hau gure familiatik ez du inoiz irten.

Beno, kontakizuna amaitu da, etxera joateko ordua heldu zaizue. Ala! Etxera! bestela amak murrungatuko zaitue.

Aurrak etorri diren bezala joaten dira, korrika, helmuga gabeko lasterketan.

Fraixkok eskua poltsikoan sartzen du, oraingo honetan pikadurazko tabako holandesa ez du ateratzen. Eskuan hainbat aldiz tolestutako mahonezko zapi zahar bat dauka. Sentitzen duen hunkipenak eskuak dardaraka hastea eragitzen dio. Zeremonia handioso baten aurrean gaudela ematen du. Poliki poliki hari eta tela zaharraren nahastea desegintzen doa. Zergaitik hainbeste erritu? ...Azkeneko tolestura kendu baino lehen pentsakor gelditzen da, begirada galduaz zerbait gogoratzen egongo balitz bezala. Gero, eskubarnean daukan objektu misteriotsua desestaltzen du. Bere begi zahartsuen aurrean urteen iraganarekin zikindutako bitxia agertzen zaio, eguneroko zapiari txistu apur bat bota eta arretaz garbitzen hasten da. Lana bukatu ondoren, eguzkiaren izpiez urrezko medaloï zaharrak pila bat disdira sortzen ditu. Nere herriko arrantzale zaharrenak horizonteari beste begirada bat botatzen dio, azkena.

Kalatxoriak karraxika daude zero urdina hego zuriekin estaltzen.

Eta hau honela ez bazan sar nezatela kalabazan eta ager nadila Derioko plazan.

Azkenean kontakizuna bukatu dut. Gustora nago, lana ondo edo gutxienez neronek nahi nuen bezala dagoenean, poztasun ederra sentitzen da. Honekin ez dut nahi esan idaz-

le trebea naizenik, ez, euskal idazle ospetsuekin ez naiz konparatzen, ez naiz hain ausarta.

Gaueko hamabiak dira, sorginen eta gogorapenen ordua ere bai. Ilargi beteak nolabaiteko eragina dauka gizakiengan, hori esaten dute astrologoek. Gaur, ordu honetan, Iñaxioren irudia etortzen zait burura.

Bere makila, orkestako zuzendariaren batuta izango baltz bezala erabiltzen zuena. Bere txapel alderatua, ondarrutarrek bakarrik jarri dezaketen modura. Bere mahonezko jaketa eta prakak, hainbat urteetan eduki zituen erropa bakarrrak. Eta nola ez, bere pikadurazko tabako holandesa, nere aurrean hainbeste zigarrotxo egin zuena, ni eta nire lagunak lurtean eserita geundela. Bere sudur luzea eta krakoa, sioux batena zirudien. Bere ezpainak, belarriak, okotza eta bekoki zabala, bere bekain iletuak. Eta gauza guztien gainetik bere begiekin gogoratzen naiz, haundiak eta beltzak, begiratzen zigutenean maitasuna bidaltzen ziguten. Berarekin lagun baten aurrean geunden, baina... benetako laguna. Nere bizitzako ordu politenak bere istorioak entzuten pasatu ditut. Zenbat bider gure jolastordua sakrifikatu genuen, bera ikustera joateko bakarrik! Eta bera beti han egoten zen morro puntan, horizonteari begira. Zeren edo noren espero zegoen? Ez dakit.

Hil zenean ez nuen negarrik egin, ez. Ez negar egiteko esan zigun, lur ematea ikustera ez nintzen joan. Ez joateko esan zigun. Morro puntara joan nintzen bere postua gordeztera. Bakarrik sentitzen naizenean hora joaten naiz, olatuen bitzaz, itxas haizetxoaz, sirimiriaz eta kalatxoriekin ixiltasunezko elkarrizketa bat egitera.

Gogoratzen naiz baita ere, tingloian horizonteko hodeiei begiratzen geundela, bere altxor preziatua nola eman zidan eta zer esan zuen:

- Badakizu nere semea itxasoan ito zela.
- Bai -esan nion.
- Badakizu familiarik ez dudala.
- Bai -esan nion.

-Ba hemen daukazu hau -eta mila bider tolestutako zapi bat eman zidan.

-Gorde. Nirekin gogoratzeko ematen dizut... -bere begien espresioa ez zait sekula ahaztuko.

Iñazio zurekin gogoratzeko ez dut behar inolako oroitgarririk. Nere garunetan bizi guztirako, ez zaitut inoiz ahanzturik. Zure urrezko medaloia nere log'elako horman dago zintzilik, Corto Maltesen posterra eta MikeOlfielden kontzertuaren sarreraren ondoan. Nere liburu eta diskekin batera. Marilyn Monroen erretratuaren ondoan.

Zu nere herriko arrantzale zaharrena zinen... Zuk itxasoaren lasaitasuna eta haserrea ezagutu zenituen, belauntzietan, baporezko txalupetan, egurrezko eta burnizko itsasontzietan. Bizkaiko golgoko itxas hertz guztia ezagutzen zenuen, zure eskubarnea bezala. Zu Euskal Herriko arrantzaleen pertsonifikazio zinen. Nahiz eta hainbat denborale bizi itxas beltzetan, nahiz eta hainbat arrisku bizi, zuk itxaso maite zenuen; «Itxasoak bere fruituak ematen dizkigu eta horren truke marinel batzuren bizia hartzen du -esaten zenuen- nahitaezkoa da».

Zurekin gogoratzen naizenean Arestiren poesia bat bururatzen zait.....

Beti arrantzalia maitia
dabil beharrian.
Sareak edaturik
itsaso gorrian,
galerna zekenaren
beti beldurrian,
eguzkiaren pean
beti beldurrian.
Beti arrantzalia maitia
dabil beharrian.

Agur Inaxio, beti arte. Agur!

Jon Iñaki Artetxe Egaña

ILARGIAREN ARGIA

Behin batetan, orain dela laupabost urte, Saturraneko haitzetan nengoala umetxo txiki bat urreratu zitzaidan eta aurkitzen gineko lekuaren edertasunari buruz hasi zen berbetan. Nik ere aitortu nion leku harek nolabaiteko enkantu misteriotsua zeukala.

Han egon ginen hizketan marea 'gora zetorrela, lehen olatuek bustitzen gintuzten artean. Gainera, olatuak haitzetan apurtzen zirenean, ur tantak freskotasun latsaz jotzen zигuten aurpegian.

Hasieran ez nintzen kezkatu umetxoa nor zen jakiteaz baina gure elkarizketa aurrera zihoala bihotza tristeziak taupatzen hási zidan, umetxoak magnetizatu banindu bezala. Bihotzaren taupadak geldiro geldiro zihoazen eta ozta ozta ematen zuen hurrengo; paralizatuta nengoen, ezin nintzen mugitu. Egoera horretan aurkitzen nintzen umetxoak, orain kontatuko dizuedana esan zidanean, berak, aurpegian, anpulu izoztatuak zeuzkala. Ba liteke orain irakurriko duzuen inoiz ez entzutea, seguraski gazteak izango zaretelako eta gertaera hau orain dela urte asko jazo zelako. Baina ba daude Ondarrun, zaharren artean istorio honi buruz zerbait dakitenak, baina gehienek ez dute sinisten, benetan ez zelako gertatu edo norbaiten imajinazioaren fruitua delako.

Nik n'ere aldetik esan dezakedan bakarra zera da: hurbi-letik tokatu zaidala kontu hau eta derrigorrezkoa dela niretzat hau sinistea, zeren nahiz eta denok sinisteko Tomas Santuaren aukera ez eduki, nik eduki nuen esperientzia ezin

bait da hain errez ahaztu.

Nahiz eta asko ez izan, kontu honetan toki eta pertsonaiak agertzen dira benetakoak izango diren nik ez dakidanak. Tokiak bai, gaur egun ere badaudelako, baina pertsonaien kasuan materia honetan dakien batek bere eritzia esan beharko luke.

Ez dizuet, nire aldetik, ezer gehiagorik esango, bakarrik eskatzen dizuet istorio hau irakurtzeko eta gero gezurra edo egia den, zuen erabakia da.

Ba zegoen Ondarrun, orain dela urte asko, ez dakit zenbat, Batis izeneko umetxo bat zeinek istorio hau gertatu zitzaionean bederatzia edo hamar urte edukiko bait zuen.

Bere bizitza guztian tristezia eramane zuen zantzu edo seinale bezala. Tristezia eman behar izan zion bere amak esnea eman beharrean, jaio zen egun berean bere anaia itsasoan galdu egin zelako.

Tristeziaz batera ahulezia nabaritzen zen bere gorputzean bere etxean aberastasunik, are gehiago beharrezkoena ere ikusten ez zelako.

Bizimodu honetan hazi zen Batis, luze xamarra, argala, eguzki koloreko ilearekin, begi malenkoniatsuekin, urruneko arrabitaren isiltasunezko doinua entzuten zuten belarriekin, pianoa jotzeko esku duinekin, bedarra hiltzen ez zuten oinekin... Hau zen gure pertsonaia.

Bere gurasoak bata baino ezinhobeagoak ziren. Heuren kalean ez ezik herri guztian ere ezagunak ziren, heuren sinpletasun eta borondateagatik.

Ama, Nikanora, etxeoandre haundia, bai gorputz eta bai bihotzez. Bere irudia zen etxe osoa betetzen zuena, beti sukaldean lanean edo sareak konpontzen portuan. Beti, edozeini laguntzeko prest, bai gaixoari eta bai behartsuari. Gutxitasunean denek bizi dezaketela zen bere esaldi famatua.

Aita, Bixente, ez zen atzean gelditzen. Itsasoko gizona,

hamaika urtetatik itsasoarekin borrokan zebilena, eguneroko ogiagatik borrokan.

Haiek bai zirela benetako ondarrutarrak, ezerezean zoriona aurkitzen zuténak, beste egun bategatik Jaungoikoari eskerrak ematen zizkietenak. Familia honetan garatu zen Batisen izaera. Han ikasi zuten natura maitatzen. Aitak, beste batzutan bere lagun nagusiek, erakutsi zizkieten harek zeuzkan aberastasunak, bai mendiak eta baita honen inguruan agertzen ziren elementuak, arrokak, perretxikoak, insektuak, lorak, txoriak eta abar.

Ikasi zuen, baita, itsasoari ez zaiola beldurrik eduki behar ez udako baretasunean ezta neguko haserraldietan ere. Ikasi zuen gainera itsasoak eramaten dituen gizonak ez diré-la uretan betirako galtzen, baizik eta ausartienak direnez gero zeruko izar argitsuenetan bihurtzen diren. Horregatik itsasoak eramanda inor badaukazu begira zerura zein den gehien distiratzten duen ze bera izango da zuk aurkitu nahi duzuna.

Hondartza maitatzen, harearen gainean murgiltzen olatuek harrapatzeko esperoan ere ikasi zuen.

Norbaitek esan zion, hiltzen diren pertsonak lurperatzen diren une berean hondar alea bihurtzen direla, zein haizeak hondartzara eramaten bait zuen beste hildakoekin bat egitera.

Baina Batisen tristezia haunditu egin zen kale guztiko ume bakarra zela konturatu zenean, gehienbat inork ezer esan ez ziolako.

Horregatik zen kale osoan hain maite.

Sagardotegietan sartzten zen bakoitzean hango ohikeria poztasun bihurtzen zuen gehienbat zaharrekin berbetan hasten zenean, bakoitzak bere errepertorio bereziarekin. Bata bere abentura eta fantasiarekin eta besteak gazte denporako kontuekin, bala denporetan itsasoan iragandako uneeekin. Barregarria zen ikustea nola Batis jartzen zen atsoez ingurutatuko mahai batetan heurekin hizketan, eta batzutan ber-

tsotan ere, askotan denak harrituta utzirik. Bertsoak ez bazi-
ren bere fantasiak asmatutakoak ziren. Hor daukazue egun
euritsu batetan kontatu zuena:

Gaua da. Asko gustatzen zait gaua. Gehienbat, zerua
garbia dagoenean, izarrak begiratzeko. Imajinario pixkatekin,
ikus dezakezue, nola, itsasoko txoriak murgiltzen diren beza-
la, uretan, janariaren bila, izarrak ere berdin murgiltzen dire-
la itsasoko zolarantza Neptunoren koronako diamanteen al-
bora, hauek baino distirapen gehiagoz argituz, ilargia traditu-
ta sentitzen den artean».

Batzuetan zaharrekin batera altxatzen zuen sagardo ba-
soa denen artean brindatzeko, abesten zeunden artean. Txa-
rrena gauean gertatzen zen ze sagardoak negargura ematen
zion.

Beste umeen falta persona nagusiak bete zuten. Lagun
haúndiak zeuzkan bere kalean, Kalandixan.

Joxe «Mutu» zen honetariko bat. Inork ez daki nola
ulertzen ziren baina ezinhobeko konponketak egiten zituz-
ten. Joxeri «Mutu» deitzen zioten mihinik ez zeukalako. Txi-
kitan Joxeren ohitura, amorruez egoten zenean mihina kan-
pora ateratzea zen. Behin batetan Felipe «Kuju»arekin aus-
kan zegoela hain haundia izan zen bere amorrúa, bere inda-
rra eta baita bere haginkada ze mihina dindilizka geratu zi-
tzaion. Gerokoa sendagileak bete zuen.

Felipe «Kuju», beste borrokalaria, beste lagun haundie-
netarikoa zen. Beti bere atarian egoten zen, jendea behatzen,
denekin solasean. Ezkongai kondentatua; andrak, arroketa-
lapak baino gehiago eranstea zirela zen ber eguneroko lema,
eta beti esaten zion Batisi bizitzan askatasuna nahi bazuen
lortu ezkontza ez zela bide egokiena. Honelako aholku-zalea
zen gure Felipe.

Baina, Batisentzat, Pello zen denetarik maitagarriena,
aita ez zegoeneko umeak betetzen zituena.

Pello zen, fisikoki, Ondarruko arrantzaleei dagozkien
argazki topikoetan ikusten dugun gizona. Luzea, indartsua,

sudur galantakoa baina errespetoa sortzen zuena, bekoki zabalakoa, leizeetako iluntasuna baino ile beltzagoduna, haragi gogorrezkoa.

Batisen aitak bezela, itsasoak gogortutako esku lodiak zeuzkan. Lan asko egindako eskuak. Noiz behinka orbainak ere nabaritzen ziren, amuak aurkitutako bideak erakutsiz.

Itsaso txarra zegoen egunetan Batisekin ibiltzen zen. Bere lagun haundiena zan. Berarekin joaten zen Asterrikako biderantz, berarekin igotzen zen zuhaitzetara pinaburuak lurrera jaurtikiaz batera neguko gau hotzak hain hotzak izan ez zitekeen.

Pellorekin ere perretxikoen izenak ikasi zituen; pozointsuak desberdintzeak izan zen lan gehien eman ziona.

Lekeitioko bideetan zehar ere eukaliptusen hostoak batzera joaten ziren, baita leizar eta areitz orriak ere, gero, ego-sita, heuren ura hartzeko, eta irakitako lurrunarekin arnasa hartuz batera etxe guztian mendiko usain ederra zabalduz.

Denen bistaz hau zen Batisek zeraman bizitza, zoriontsua, alai... Baina lehen esan dudan bezala, Batisek tristezia zeraman bere bihotzean. Faltan hartzen zuen bere kalean bere adineko beste umerik ez egotea, heurenkin jolasteko, barre egiteko, haserretzeko, nolabaiteko komunikazioa sortuz. Bizitza itxaropen gabarik ikusten zuen. Zoriona, poztasuna une bateko sentsazioak ziren Batisentzat, gero geratzen zen bakarra bakardadea zen. Bakardadea izan zen urte hauetako lagun iraunkorra. Nahiz eta berari bakardadea gustatu, honek ez zuen bere bizitza betetzen.

Kalandixan (bera Likona dorrearen hurbil bizi zen), kale estu hartan bere bizitza itota bezala ikusten zuen, beti gauza berberak, pertsona berberak, barre berberak...

Gauza asko zegoen Batisen buruan. Bere imajinazioa, beti, aldentzeko prest zegoen. Hainbat abentura asmatzen zuen: itsaso azpian arrainekin borrokan, izurdi baten gainean zaldi baten gainean lez, Neptunok zeuzkan altxorak ohostea gero behartsuei banatzeko. Zeruan ere ibiltzen zen, izarrekin

paoka, ilargiarekin hizketan, kometekin korrikan...

Ilargia zen bere Jaungoiko sekretoa. Gaua heldu baino lehen itzalen erreginak, bere ejerzito argitsuarekin, eguzkiaren aurkako bataila prestatzen du, nahiz eta gero, ilargia nekatuta dagoenean, itsasoko munstroa atera irabazle.

Hau zen bere eguneroko bizitza eta eguneroko heriotza; lantegiko pertsonak bezala bere orduak betetzen zituen, baina inork ez zion ematen ez dirurik ez eskerrik.

Askotan, bere gurasoak kezkatuta zebiltzaten bere semea zela eta. Beren buruari galdetzen zioten zergatik bidaltzen zizkion Jaungoikoak bere semeari halako pentsakizun arraroak. Asko izan ziren eleizara joandako egunak, Leokadik bildurtzen ez zuen umetxoagatik Jaungoikoari eskatzeko. Sukaldeko labaren usain ederrekin nahasten ziren gure Batisen pentsakizunak. Amak bizkotxoia egiten zuen egunetan Batisek bake apur bat lortzen zuen, usain goxoa etxean zehar zabaltzen zenean. Hilda bezala aurkitzen zen une haieran.

Gau batetan, gurasoak lo zeundela, etxetik urten zuen inora joateko asmorik gabe. Bere bizitza baliogabekoa zela eta noraezean ibiltzea bere fatua. Baina gau hartan.....

Ehiztariengandik ihes egiten duen erbi bildurtia zen Batis gau hartan. Gau sarratuan ilargia zen nabaritzen zen bakarra; izarrek, ikaratuta edo, amatatu zuten beren argitxo, iluntasun haundiagotan murgildurik lagaz Batis. Zarata arraroak entzuten zituen. Hasieran beldurtu egin zen eta etxera itzultzeko nahiak jabetu ziren berataz, baina geroxeago norbaitek indar sekretu bat emanda lez aurrera segitu zuen, iluntasunean errege. Konturatu zenerako Saturraneko hondartza gainean zegoen.

Musika triste bat entzuten zen, norbait negarrez egongo balitz bezala. Orduan lasaiago sentitu zuen bere burua, ametsetan, honelako egoera batetan aurretik egon zelakoan, eta beldurra aldendu zen bere gorpitik. Bere oin azpian zegoen hondarra mugitzen zela iruditu zitzaion ale bakoitza txinurri bat baino ez zela imajinatuz. Marea gorantz zihoan eta

jadanik, lehenengo olatuak bera zegoen tokira urreratzen hasi ziren. Saturraneko haitzetara abiatzera erabaki zuen gorputz guztia inpultso batekin astinduz.

Haitz haiek ezagutzen dituztenak ba dakite gehienak Mutrikokoak direla, baina badago baita, zatitxo bat, Ondarrukoa dena, itsasora gehien hurbiltzen dena. Leku honetara abiatu zen Batis eta bertan ohe antzerako harri baten gainean etzan zen ilargiari begira. Bapatean abots ezagun batek berba egin zion:

-Zer gertatzen zaizu Batis? Zerk ekarri zaitu hona?

-Nor dago berbetan? Ez al nago bakarrik ba?

-Ez, ni ere hemen nago. Ez al naiz ni inor, ala?

-Eta, zu, nor zara?

-Begira zerura eta ikusiko nauzu.

-Ilargia al zara?

-Bai.

-Ez nekien ilargiak hitz egiten zekienik.

-Nik ere ez nekien zure moduko umetxoak gauez urte-ten zutenik.

-Nire amari esango diozu?

-Ez, ez zaitez arduratu. Horrela biok daukagu sekreto-txu bat; hobe dugu inork barbarik ez egitea.

Baina oraindik ez didazu esan zergatik zauden hemen.

-Nik jakingo banu!

-Triste al zaude?

-Bai, baina ez da tristezia bakarrik. Nire kalean ez dago umerik eta ez daukat lagunik. Askotan egoten naiz bakarrik...

-Eta Felipe, Joxe, Pello, eta beste guztiak? Ez dira zure lagunak ala?

-Ezagutzen al dituzu?

-Bai, hemendik goitik gauza asko ikusten da. Gehiago esateko, dena ikusten da. Baina ez didazu erantzun. Beti galdera bat beste galdera batekin erantzuten duzu?

-Barka. Bai, nire lagunak dira baina ez da gauza bera.

Pertsona nagusiak dira eta nik beste gauza bat nahi dut, ez dakit zer, baina hau ez.

Itxaso azpian ibiltzea, hegan egin...

-Hegan? Baina ba dakizu inork ez duela hegan egiten.

-Eta txoriek?

-Txoriak, txoriak dira. Baina zu gizona zara eta gizakiek ez dute hegan egiten. Beno, baina ez zaitez kezkatu ze laster lagun bat etorriko zaizu zure kalera.

-Bai?

-Bai. Kanpotik dator. Jose «Malagueño», boteroaren loba bat da. Bere gurasoak hil dira eta Joserekin biziko da hemendik aurrera.

Beno, orain joan zaitez ze erregea ba dator eta laster dena piztuko da. Errainuekin batera dena iratzarriko da, zure gurasoak ere bai. Joan zaitez ba, eta ba dakizu garrantzisko gauzarik behar baduzu hemen egongo naizela beti. Agur.

-Agur.

Bapatean amaren eskua sentidu zuen bekokian gaixorik al zeuden galdetuaz. Ezetz esan orduko jaiki ohetik dena amets eder bat zela pentsatuz eta sukaldera abiatu zen.

Baina gosaltzen zegoela boteruaren loba bat etorri zela Ondarrura esan zion amak, eta gainera hamaika urte zituen z gero bere laguna izan zitekeela. Irribarre bat nabari zen Batisen aurpegian.

Ez zion utsi bukatzen amari, katilu, kafesnesopaduna alderdi batera lagaz, jadanik kalean aurkitzen zen bere lagun berriaren bila.

Korrika bizi batetan abiatu zen Batis boteruaren etxera. Han bertan, atari aurrean, ikusi zuen Batisek txikitatik desiratu izan zuen bizitzako arrazoia.

Miguel zen kanpotik etorritako mutikoaren izena. Batis baino pixkat baxuago baina falta hau bere zabalerarekin betetzen zuen. Ilea beltz beltza itsasoko begi urdinekin nabariro agertzen zen. Beso motzak baina kementsuak zeuzkan Bati-

sen lagun berriak. Bere begirada alaitasunaren islada baino ez zen nahiz eta bere bihotza negarrez egon.

Biak batuta zer egia ez zezaken? Mundu guztia zabalzen zen bien begietara. Batisen bizitza arras aldatuta izan zen.

Jadanik, bizitza ez zen heriotzarako bide bat. Bizitzari zentzu bat emateko mila kate apurtu behar dirala pentsatu zuen gure lagunak. Baina garrantzitsuena bakarrik ez egotea dela ikasi zuen bere bizitzan zehar.

Beste begi batzuekin ikusten zuen beti egiten zituen gauzak. Mendian bedarra berdeago zen eta itsasoan izarren distira gehiago isladatzen zen gau beltzean.

Haiek bai izan zirela benetako egunak; bere bizitza laburrean bizi izan zituen egunik zoragarrienetarikoak.

Ez zeukaten bata bestearenganako sekretorik ezta inolako infidelitasunik. Miguel euskeraz ikasten aritzen zen neurrian Batisek gaztelaniaren lehen hitzak esaten ikasi zuen. Berdin zen euskeraz, erderaz edo mutu, gauza guztiek zeuzkaten beren konponketa.

Egun batetan bazen Batis Miguelen etxean jan eta lo egiten zuena, hurrengoan Miguelentzat zen Batisen etxera joateko txanda.

Egun haietako zurrumurru guztietako pertsonaiak ziren. Edozein etxetako hixkamixkietan agertzen zen gure mutilen adiskidetasuna. Baina ez pentsa gure Batisek bere lagun zaharrak ahaztu zituztenik, ez, baina orain egiten zituen gauza guztiek poztasunez betetzen zuten.

Migueli ere aldakuntza honek gogor jo zion. Ez zuen pentsatu inoiz, bere gurasoak hilezkeru inork horrela maitatuko zuenik, ezta bizitza hain zorionsua izan zitekeenik.

Orain bera zen Batisen lagun nagusia lekua betetzen zuena eta alderantziz, Batis zen Miguelen gurasoen hutsunea bete behar zuena.

Gauzak honela zihoazen. Baina denok dakigunez ipuin guztiak dute bere amaia; eta ailegatu zen inork espero ez

zuen zoritxarreko eguna. Bertan, inork jakin barik zergatik Miguel ez zan ohetik jeiki itxura txarreko gaixo batek ikuturik bezala.

Oiloak oilarrak lez abestu zuen goiz bat zen, eta gainera kalatxoriak hondartzan bilduta zeuden.

Gorputz osoan zeukan hazkureaz, zorabio iraunkor batetan zegoen. Batzutan bere burua botatzen zuen lurrera tatarrez ibilirik zeharo nekatzen zituen bitartean. Gaua ailegatu orduko indargo goratzen zen. Ez zioten laga Batisi bere laguna ikusten, Miguelek zeukan gaixoa kutsagarria izan ahal zitekeela esanaz. Baina Batisek Miguelek emandako paparreko bat hartu zuen opari bezala, boteroaren hitzetan bere lagun onena izan zelako. Paparreko hori bere amak eman zion Migueli, hiltzorian zegoenean; horregaitik zeukan hain garrantzi handia berarentzat.

Orduan bai jabetu zirela gure lagunaz tristezia eta bakardadea. Bakardadean bakarrik, etsipenari loturik, ibilaldi luzeetan igarotzen zuen denbora.

Ondarru inguruko auzo ta herrixka guztietan ikusi zuten, eskuak patrikeretan zeramatzala eta burua makurturik, soluzioa lurrean egongo balitz.

Txorieri ere aholkuren bat eskatu zien, baina egun haietan ez ziren ageri txoririk Ondarruko aldean.

Haizea ere geldituta bezala zegoen bateon baten esanari jaramon egiten edo, hariotzri agian.

Baina ez, Batisek ezin zuen hori pentsatu. Ezinezkoa zen. Zergatik? Zergatik? Hori zen buruan zeukan hitz bakarra.

Sendagileak erremediorik ez zegoela adierazi zuen, abadeari deitzeko mandatua bidaliz, boteroaren malkoak, udaberriko ihintz tantak, bihotzaz batera gogortzen zihoazelarik.

Harotzari ere eman zioten abisua prest egon zedin inork nahi ez zuen gauza gertatzen bazen.

Herri guztia gelditu zen, denak amaieraren esperoan. Batis zen honekin gehien sufritzen zuena. Berak gehien mai-

tatzen zuen txoria mututzen bazen, nork abestuko zion bakardadeari? Nork lagunduko zizkion bere ilusio eta fantasiazko ametsak benetazko ametsetan bihurtzen?

Egun zorionsuetako barreak eta negarrak betirako ahaztuak izango ziren. Berriro tristezia nagusituko zen.

Bakardadea, isiltasuna, heriotza, zertan desberdintzen dira? Horrela, bere bostean, bere pentsakizunetan sartuta ibiltzen zen egun latz haietan, inolako irtenbiderik aurkitu gabe.

Baina gaua ailegatuz batera, argitxo bat piztu zen bere kazkazurrean. Bai, zuek pentsatzen duzuen da. Gau hartan berak bakarrik zekien bidea hartu zuen. Laster ailegatu zen toki sekretora.

Bakarrik olatuen abotsa entzuten zen heuren artean berbetan egongo bailiren. Izarrak, uretan, txintxeta zuriak lez isladatzen ziren itsaso hondoko altxorrek bistan ipiniz.

Arnasa hartzen zuen bakoitzean birikiak izoztu egiten zitzaizkion, hain hotza zegoen eta.

Zerura begira zegoela irrika haundiaz desiratzen zuen abotsa entzun zuen:

-Banekien etorriko zinela.

-Zuk esan zenidan gauza inportantea zenean zuregana etor nintzekeela. Eta uste dut gaur hona ekarri nauen arazoa ezin dela garrantzitsuago izan.

-Bai, ba dakit. Zure laguna oso txarto dago eta nire laguntza behar duzu ezta?

-Bai.

-Baina, ba dakizu nik norbait heriotzatik askatzen badut beste pertsona bat hil behar dela?

-Ez, baina horrek ez du garrantzirik.

-Ez? Eta nor hil behar da zure lagunaren ordez?

-Eraman nazazu zurekin, baina ez laga nire laguna hil dadin, mesedez.

-Hori bada zure nahia gaua argitzen dudan bezala bete

dadila zure garaia.

Umetxoak amaitu zuenean asko ízan ziren galdetu nahi izan nizkion gauzak, baina, zoritxarrez, begi bistatik ihes egin zidan.

Hain interes haundia sortu zen nire baitan ze liburu zaharrak eta artxiboak aztertzen hasi nintzen. Urte bat baino gehiago iragan nuen lan honekin. Azkenean, desesperatuta nengoala, hauxe izan zen liburu zahar batetan aurkitu nuena (liburuak ez zeukan izenik eta pentsa daiteke norbaiten egunkaria baino ez dela):

«Martxoaren 17 gn. eguna:

Kalandiko Batis Basterretxea desagertu da gaur goizaldean. Inork ezer ez daki, baina nik uste dot hori sorginen kontua baino ez dela ze umetxo hori pixka bat arraroa zen».

Egun horretan berri inportanteena hau da, baina ba dago beherago Miguel Burgoaz erreferentzia egiten duena. Bertan zera esaten du, laguna desagertu zen egun berean, jadanik hilda zegoen pertsona osatzeak bere teoria defendatu ez zuela egiten, h. d., sorginen arazoa izan zela, alegia.

Baita bost urte beranduago artxibo batetan ere nola Miguel hori, denporala zegoen egun batetan galdu egin zen aurkitu nuen.

Batzuk osatzen dute bere burua bota zuela...

Zalantza sortzen duena zera da, artxibo eta liburu haue-tako pertsonaiak, umetxoak kontatu zidan ipuineko pertsona berberak dira.

Uste dut, amaitzeko, zaila izango litzakeela istorio hau sinistea baina egun hartan aurkitu nuen paparrekoa ikutzen dudan bakoitzean zaila iruditzen zait sinistea.

Joóeba Burgoa Egiguren

Aurkibidea

| | |
|---|-----|
| Lore - Kontu | 7 |
| Bost Tximeleta abede lorategian, <i>M. Angeles Goitia</i> | 9 |
| Azken triste baten istorioa, <i>Juan M. Atutxa</i> | 23 |
| Etorkizunerako oiartzuna, <i>Martin Iturbe</i> | 29 |
| Txikiaren, a'undi izatea | |
| Udazkeneko Lorea | |
| Burugabekeria, | |
| Patxi Trueno, <i>Joanes Urkijo</i> | 59 |
| Poxpolintxo, <i>Roke Mendizabaí</i> | 83 |
| Kontu - Lore | 97 |
| Taloea eta arraina, <i>Eusebio Erkiaga</i> | 99 |
| Don Andoni, <i>Jesus Gaztañaga</i> | 125 |
| Ondarru'ko kontu batzuk, <i>Jose M. Etxaburu</i> | 143 |
| Korrika, <i>Aitor Artetxe</i> | 172 |
| Odolez itsasgizona, <i>Ana Urkiza</i> | 184 |
| Oroitzapenak, <i>Jose Mari Azpiri</i> | 198 |
| Iñaxiok kontatu zidan, <i>J. Iñaki Artetxe</i> | 215 |
| Ilargiaren argia, <i>Joseba Burgoa</i> | 227 |

